



SILVIA FEDERICI

MUNDUA BERRIZ LILURATUZ

Feminismoa
eta komunen politika

Hitzaurrea:
Peter Linebaugh

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Silvia Federici

***MUNDUA BERRIZ
LILURATUZ***

Feminismoa eta komunen politika

Silvia Federici

**MUNDUA BERRIZ
LILURATUZ**

Feminismoa eta komunen politika

Itzulzailea: Amaia Astobiza Uriarte



Jatorrizko izenburua: *Re-enchanting the world. Feminism and the Politics of the Commons*

Lehenengo edizioa: *Mundua berriz liluratuz. Feminismoa eta komunen politika*

Egilea: **Silvia Federici**

Jatorrizko lizentzia: © 2019 PM Press

Barruko argazkiaren egilea: **Christopher Michel**

Barruko argazkiaren lizentzia: Creative Commons Attribution 2.0 Generic license

Itzultzailea: **Amaia Astobiza Uriarte**

Berrikustea eta oharrak egitea: **Olatz Orobengoa Guridi**

Azalaren diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: 2019ko otsaila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-22-8

Lege gordailua: NA 3094-2018

Inprimatzailea: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
ESKER ONAK	15
HITZAURREA (Peter Linebaugh)	21
SARRERA	29

I. ATALA: ITXITURA BERRIAK

Sarrera.....	43
--------------	----

BAT

Metatze primitiboa, globalizazioa eta erreprodukzioa	47
---	----

BI

Itxitura berriak: sarrera (Midnight Notes kolektiboa).....	61
---	----

HIRU

Zorren krisia, Afrika eta itxitura berriak	71
--	----

LAU

Txina: burdinazko arroz-katilua hausten	93
---	----

BOST

Komunagintzatik zorrera: finantziarizazioa, mikrokredituak eta kapital-metaketa arkitektura aldakorra	105
---	-----

II. ATALA: KOMUNAK

Sarrera..... 125

BAT

Estatu Batuen azpian, komunak 127

BI

Komunak: kapitalismoaren aurka
eta kapitalismotik harago (George Caffentzis-ekin)..... 135

HIRU

Unibertsitatea: ezagutza-komuna bat? 153

LAU

Feminismoa eta komunen politika metatze
primitiboaren garaian..... 157

BOST

Lurren aldeko emakumeen borroka Afrikan
eta komunen berreraikuntza..... 175

SEI

Lurraren eta ondasun komunen aldeko
emakumeen borroka Latinoamerikan..... 197

ZAZPI

Marx, feminismoa eta komunen eraikuntza..... 217

ZORTZI

Krisialditik komunetara: lan erreproduktiboa,
lan afektiboa eta teknologia, eta eguneroko
bizitzaren transformazioa..... 245

BEDERATZI

Mundua berriz liluratuz: teknologia,
gorputza eta komunagintza..... 261

BIBLIOGRAFIA..... 273





ARGITALETXEAREN OHARRA KOMUNITATERIK GABE, KOMUNARIK EZ. EZTA ERALDAKETA FEMINISTARIK ERE

Ez da erraza «mundua» eta «liluratu» hitzak izenburu berean uztartzen dituen liburu bat aurkitzea. Are zailagoa, oraindik, barruko orrialdeak teoria marxistez, zapalkuntzaz, diru-maileguez eta Nazioarteko Diru Funtsaz ari badira. Liburuen tituluak ez dira neutroak, ezta intentziorik gabeak ere; gainera, gure tradizio arrazionalista patriarkalak ez du sekula ilusioak berarekin dakarren xarmaren izpirik erakutsi teoria politikoan, eta, beraz, gutxitan agertu izan dira horrelako kontzeptuak esku-tik helduta. Nolanahi ere, feminismoaren hipotesi eta praktikek egindako ekarpenei esker, testuinguru hertsia horretan zuloak agertzen hasi dira.

Silvia Federici dugu zulo horiek irekitzen lagundu duen autoreetako bat, gai baita «lilura», «metatze primitiboa», «maitasuna» eta «diru-maileguak» paragrafo berean nahastu eta esaldi eraginkorrak osatzeko. Baina, inork pentsa lezakeenaren kontrara, erabilera horren atzean ez daude arrazoi estetikoak, jakina; Federicik hizkuntza propio bat dauka, bere lan teorikotik eta jardun militantetik eratorria. Eta horrek egiten du bere diskurtsoa indartsu, zentzuz betetako apustu linguistikoa delako.

Mundua berriz liluratuz liburuan, hizkuntza hori izango dugu lagun tokian tokiko burkide, gatazka eta eztabaida batetik bestera goazelarik. Autorearen diskurtso marxistak, era berean, errealitate horiek perspektiba desberdinetatik begiratzeko aukera ematen digu, guztiak ere ezinbestekoak bizi dugun olatu, edo loraldi, feminista honetan. Izan ere, epe ertainari begira eraginkorrak izango diren erabakiak hartu behar ditugu, eta

hori da, hain zuzen, liburu hau euskaraz argitaratzearen helburua: ekarpen bat egin nahi diogu eraldatze-prozesu horri, talde-lana indartuz, eztabaidetarako xehetasun eta ñabardurak mahai gainean jarriz eta antolakuntza-ereduetan sakontzeko baliabideak eskainiz.

Eskaintzen dizkigun tresna politikoen artean, bat nabarmendu nahi dugu *femina communia*. Federicik silogismo propio bat eskaintzen digu: komunitaterik gabe, ez dago komunarik; eta emakumerik gabe, ez dago komunitaterik. Beraz, emakumerik gabe, ez dago komunarik. Ideia horren ahalmena ekarri nahi dugu erdira; izan ere, ez da erraza gaur egun gure artean dauzkagun komunitateak identifikatzea, ezta etorkizunean ere izan ditzakegunak irudikatu eta eraikitzen hastea.

Jardun ikusezin horren aldarrikapen ozen bat dago liburuan, komunitate bat eraiki eta indartzeko egin beharreko lanei garrantzi handia ematen diena, eta lan horiek beste borroka batzuen parean kokatzen dituenak. Emakumeek egunero egiten duten lana komunitatearen talde-sena indartzeko, sortzen diren gatazkak bideratzeko, kolektiboa norbanakoaren aurrean jartzeko... eta, horren guztiaren oinarrian, zaintza-lanak kokatzeko.

Hurrengo orrialdeetan, itxaropenez eta baikortasunez beteriko ibilbide bat aurkituko duzu, modu eder eta zainduan Amaia Astobizak euskarara ekarria. Komunen kontzeptu teorikotik harago joan, eta gure inguruari komunaren begietatik behatzeko aukera eskaintzen digu Silvia Federicik.

Emakumeak, komunitateak, komunak. Komunagintza.

Iruñea
2019ko otsaila

ESKER ONAK

Liburu hau munduko hainbat tokitan eta hamaika emakume burkiderekin (nire *compañeras* maiteak) izandako eztabaidei zor diet oso-osorik. Lerro hauetan, urteak joan eta urteak etorri beren ikerketa eta aktibismoarekin eta mundu desberdin baten ikuspegiarekin inspiratu nauten emakume eta gizonetako batzuk aipatuko ditut; adiskidetasun-harreman bat dut haiekin, eta elkarri laguntzen diogu.

Nire esker onik beroena George Caffentzis-i eskaini nahi diot; urte luzez jardun dugu elkarrekin lanean –baita Midnight Notes Collective taldeko kide gisa ere–, komunen historia berriz aztertzen eta komunekin zerikusia duten printzipio politikoei buruz gogoetatzen. Hans Widmer (alias P.M.), berak erakutsi baitzidan lehenengoz komunen politika, bere idatziekin, New Yorkeko hiri-eremuaren itxitura dokumentatzen zuten marrazki irudimentsuekin eta Zuricheko etxebizitza kolektiboen esperimentuekin, Carthago-rekin hasi eta Kraftwerk-era arte. Nick Faraclas, Afrikako eta Papua Ginea Berriko pidginei buruzko azterketekin hizkuntzen eta komunen arteko lotura ikusarazi zidana. Chris Carlsson; neoliberalismo garailea aurrez aurre zuela, ausartu zen esatera komunak ez direla utopia bat, eta, gainera, esandakoa gauzatu zuen, Critical Mass taldearekin batera kaleak berriro hartuz. Kevin Van Meter, Craig eta Team Colors Kolektiboa, komunen eraikuntzari eta beren kabuz erreproduzitzen diren mugimenduei buruzko eztabaida luze bat abiatu baike-nuen New Yorkeko ABC No Rio zentroan. Maria Mies, erakutsi baitigu komunen muinean beste pertsonetikiko eta lurrarekiko ar-dura sakon bat dagoela, eta komunak eraikitzeak esan nahi duela

kapitalismoak zatikatutako gure bizitza sozialaren atalak berriro elkartzea. Peter Linebaugh, bizi osoko anaia eta kamarada; bere historia-lanaren muina «komunen eraikuntzak» eta mundu komunitarioak eraikitzeke borrokatu diren haien bizitzek osatzen dute, eta berari esker ulertu nuen nik historia komuna bat dela. Massimo De Angelis, zeinak, komunei buruzko testu klasikoak idazteaz gain, komunak eraiki ere egin baititu Italiako Apeninoe-tako herrixka batean (bere egunerokoan «kapitalismotik kanpo» bizi da, eta hori, bere ustez, eguneroko eguneroko ukapen-ekintza kolektibo eta indibidualen bidez lortzen da). Oaxacako Unitierra Zentroa eta haren sortzaile eta sustatzaile Gustavo Esteva, zeinak historiaren azken urteetako unerik ilunenetan ere etengabe errepikatu baitu komunak dagoeneko gure inguruan daudela. Raquel Gutiérrez Aguilar; Patxakuti-k Boliviako ura babesteko borrokan izandako erritmoei buruzko kontakizun xehe bat egin zuen, eta, harekin, erreproduktzio-forma komunitarioek matxinadarako duten gaitasuna azaleratu zuen. Mina Lorena Navarro, erakutsi baitigu memoria kolektiboa gordetzea eta birsortzea giltzarria dela komunak babesteko. Gladys Tzul Tzul, azalpen argigarriak eman baitizkigu erregimen komunaletan politikak eguneroko bizitzaren erreproduktziotik sortzen direla erakusteko; hari esker, hobeto ulertu nuen harreman komunitarioen garrantzia, eta berari zor diot, halaber, Guatemalako erakunde indigenetako emakumeekin izan dudana hartu-eman. Eskerrak eman nahi dizkiet, orobat, Beatriz García eta Ana Mendez de Andés-i, 15M mugimenduekin harremanetan jartzeagatik eta sorgin-ehiza –komunen aurkako gerra lotsagarria– bizi izan zuten Espainiako herrixketatik zeharreko bidaia antolatzeagatik, orobat Joen Vedel-i, Christiania komuna eta Kopenhageko beste komuna batzuk erakusteagatik. Beste pertsona hauei ere eskerrak eman nahi dizkiet: Lucia Linsalata, Verónica Gago, Natalia Quiroga, Betty Ruth Lozano, Marina Sitrin, Richard Pithouse, Caitlin Manning, Iain Boal, Mercedes Oliveras Bustamante, Rosaluz Perez Espinosa, Raúl Zibechi, Mariana Menendez, Noel Sosa, Yvonne Yanez, Jules Falquet, Mariarosa Dalla Costa, Ariel Salleh, eta, ez garrantzi gutxiagokoa, Elizabeth Downer, bere marrazki indartsuen bidez Amerikako kontinentean espazio komunalen alde egiten diren aldarrikapen eta ekintzen testu bisual bat osatu duena. Mila esker Justseeds-eko Josh McPhee eta Erik Ruin-i,

Maypole dantzari buruzko *Reclaiming the commons* [komunen aldarrikapena] margolanagatik. Rodolfo Morales zena ere gogoan hartu nahi dut, XX. mendeko artista mexikar nagusietako bat; bizitza osoa eman zuen emakumeek komunitatea eraikitzeko duten gaitasuna goraipatzen, orobat haien gorputz eta jarduerak komunitateari eusten dioten elementu gisa irudikatzen.

Esker anitz, baita ere, urteetan zehar komunen inguruan egindako lanak erakutsi edo bidali dizkidatenei eta iturri garrantzitsuetara bideratu nautenei. Mila esker Kasia Paprocki-ri, Bangladesheko mikrokredituen inguruko ikerketa nirekin partekatzeagatik, eta Ousseina Alidou-ri, Nigerreko mikrokredituen kudeaketaren gaineko oharrengatik; Giovanna Ricoveri-ri, berak idatzitako *Beni Comuni, Fra Tradizione e Futuro* liburua emateagatik, eta Órla Donovan-i, komunei buruzko hitzaldi bat antolatzeagatik Cork-en (Irlanda), 2015ean.

Halaber, nire esker ona eta solidaritatea eskaini nahi diet munduko txoko askotan aurkitu ditudan aktibistei, bizimodu komunalak eta elkartasun-molde berriak eraikitzeko borrokatu direnak. Guztien gainera, elkartasuna adierazi nahi diet honako hauei: Italiako Val di Susa-ko NO TAV mugimenduko ekintzailea; Greziako Clandestina sarea; Ekuadorreko Acción Ecológica eta Colectivo Miradas Críticas; Buenos Aireseko Frente Popular Darío Santillán, Movimiento por la Dignidad erakundeko emakumeak eta Villa Retiro Bis-eko Corriente Villera Independiente; San Cristóbal de Las Casas-eko CIDECI-Unitierra zentroa, eta, bereziki, haren sortzailea eta koordinatzailea den Raymundo Sánchez Barraza; Hego Afrikako Durban hiriko Abahali mugimendua; Uruguayko Colectivo Minerva-ko burkideak eta *Contrapunto* egunkaria; La Paz-eko Mujeres Creando-ko burkideak –bereziki, Maria Galindo–; Bristol Radical History Group taldea; Bob Stone eta Betsy Bowman; Mexikoko San Miguel de Allende-ko Centro Para la Justicia Global zentroa; Quebec-eko CUTE mugimendua, hezkuntza publikatzeko borrokan ari dena. Eskerrak, halaber, Montserrat Fernández Arén-i eta Semana Galega de Filosofíaren gainerako antolatzaileei (Galiziako Pontevedra hiriko biztanle guztiak barne hartzen dituen ekitaldi berezi bat da, eta, 2018an, komunak izan zituzten gai nagusitzat).

Eskerrik beroenak liburua egiten lagundu didaten pertsona guztiei. Lehenik eta behin, Camille Barbagallo-ri; hainbeste

proiektu eta espazio politiko partekatu ditut harekin, non benetan esan baitezaket liburu hau komunen produktu bat dela. Mila esker, berriz ere, Elizabeth Downerri, eskuzabaltasunez jokatu eta jatorrizko liburuaren azalean bere margolan inspiratzailea erabiltzen uzteagatik, baita Erik Ruin-i ere, liburu honetan bere margolan bat erabiltzen uzteagatik.

Eskerrik asko Arlen Austin-i, pazientzia osoz nire dokumentuak PDF formatutik Word-era aldatzeagatik. Eskerrik asko aldizkariei eta argitaletxeei, liburu honetan sartu ditudan artikulua berriz inprimatzeko baimena emateagatik. Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, eskerrik asko PM Press-eko Ramsey Kanaan-i, eskainitako laguntzagatik, nirekin izandako pazientziagatik eta etengabe eta kartsuki bihotz emateagatik.

«Itxitura berriak. Sarrera» jatorrizko artikuluen bertsio editatu bat da, hemen argitaratua: *The New Enclosures, Midnight Notes* 10. zk. (1990): 1-9. 1-9.

«Zorraren krisia, Afrika eta itxitura berriak» jatorrizkoaren bertsio editatu bat da, hemen argitaratua: *The New Enclosures*, 10–17.

«Txina: burdinazko arroz-katilua hausten» artikulua, jatorrian izenburu honekin argitaratua: «Inscrutable China: Reading Struggles through the Media», *The New Enclosures*, 30-34

«Metatze primitiboa, globalizazioa eta erreprodukzioa» artikuluen jatorrizko bertsioa alemanez argitaratu zen –«Ursprüngliche Akkumulation, Globalisierung und Reproduktion»– lan honetan: *Die globale Einhegung-Krise, Ursprüngliche Akkumulation und Landnahmen im Kapitalismus*, arg. Maria Backhouse, Olaf Gerlach, Stefan Kalmring eta Andreas Nowak (Münster: Westfälisches Dampfboot, 2013), 40-52.

«Komunen eraikuntzatik zorrera: finantzarizazioa, mikrokreditua eta kapital-metaketaren arkitektura aldakorra» artikulua hemen argitaratu zen lehen aldiz: *South Atlantic Quarterly* 113, 2. zk. (2014ko maiatza): 231-44.

«Feminismoa eta komunen politika metatze primitiboaren garaian» artikulua hemen argitaratu zen lehen aldiz: Team Colors Collective, arg., *Uses of a Whirlwind: Movement, Movements, and Contemporary Radical Currents in the United States* (Oakland: AK Press, 2010), 283-94.

«Estatu Batuen azpian, komunak» artikulua hemen argitaratu zen lehen aldiz: *The Journal of Labor and Society* 14, 1. zk. (2011ko martxoa): 41-46.

«Komunak: kapitalismoaren aurka eta kapitalismotik harago» artikulua hemen argitaratu zen lehen aldiz: *Upping the Anti: A Journal of Theory and Action* 15 (2013ko iraila): 83-98.

«Lurraren eta ondasun komun en aldeko emakumeen borroka Latinoamerikan» artikulua jatorrizko bertsioa –«In Struggle to Change the World: Women, Reproduction, and Resistance in Latin America»– hemen argitaratu zen: *Documenta 14 Reader* (Munich: Prestel Verlag: 2017), 603-30.

«Marxismoa, feminismoa eta komunak» artikulua hemen argitaratu zen lehen aldiz: *Communism in the 21st Century*, 1. bol., arg. Shannon K. Brincat (Santa Barbara, CA: Praeger, 2014), 171-94.

«Krisitik komunitara: lan erreproduktiboa, lan afektiboa eta teknologia, eta eguneroko bizitzaren transformazioa» artikulua hemen argitaratu zen lehen aldiz: *Psychology and the Conduct of Everyday Life*, arg. Ernst Schraube eta Charlotte Højolt (Londres: Routledge, 2015), 192-204.

«Mundua berriz liluratuz: teknologia, gorputza eta komunagintza» artikulua hemen argitaratu zen lehen aldiz: *The Anomie of the Earth: Philosophy, Politics, and Autonomy in Europe and the Americas*, arg. Federico Luisetti, John Pickles eta Wilson Kaiser (Durham: Duke University Press, 2015), 202-15.

HITZAURREA

1493ko otsailean, Ameriketara egin zuen lehen bidaiatik etxerako bidean zihoala, Kristobal Kolonek ezagutu berri zuen jendearen berri eman zion Espainiako erregeari, itsasontzian idatzitako gutun baten bidez. «Haiek dutenetik edozer eskatuz gero, ez dute inoiz ezetzik esaten; alderantziz, onartzera gonbidatzen zaituzte, eta maitasun handiarekin ematen dizute, eskainitakoarekin batera bihotza ere emango balizute bezala».¹

Kolonek komun(ar)ekin topo egin zuen.

Silvia Federicik pertsona haien espirituarekin idazten du, hots, eredu komunalari jarraikiz Ameriketara bizi izan zirenen espirituarekin. Ez dugu ondo esan, ordea: eredu komunalari jarraikiz hemen eta orain bizi direnen espirituarekin idazten du. Izan ere, Federici ez dago garai primitiboei begira, ez ditu garai haiek idealizatzen. Mundu berri bat interesatzen zaio, berriz lurrututako mundu bat.

Itsasontziz bidaiatu eta erregeari idatzi beharrean, Federici hegazkinean esertzen da, eta ozeanoaren beste aldera joaten da; autobusean jesarri, eta buruko buruko ibiltzen da, zuloz jositako bideetan; metroan sartu, eta jende artean nahasten da; edo bizikletara igotzen da, eta herri xehearekin solastatzen, batez ere emakumeekin, Afrika, Latinoamerika, Europa zein Ipar Amerikakoekin.

Arkatza, idazmakina edo ordenagailua berekin hartuta, Federicik ez du islatzen «miseria gorriko hiriz osatutako mun-

1 William Brandon, *New Worlds for Old: Reports from the New World and Their Effect on the Development of Social Thought in Europe, 1500-1800* (Athens: Ohio University Press, 1986), 7.or. -8.or.

du bat», baizik eta gure mundua, komunez osatua. Emakumea eta feminista den aldetik, eguneroko erreprodukzio-lanetan komunak nola eraikitzen diren aztertzen du: arropak garbitzean, laztan egitean, janaria prestatzean, ingurukoak kontsultatzean, erratzez garbitzean, atsegin ematean, garbitasuna egitean, eszitatzean, lanbasez garbitzean, gertukoak lasaitzean, hautsak kentzean, janzen laguntzean, haurrei jaten ematean, umeak edukitzean, eta gaixoak eta adinekoak zaintzean.

Federici irakaslea da, teoriarari soziala, ekintzailea, historialaria. Ez ditu bereizten ez politika ekonomiatik, ez ideiak/iritziak bizitzatik. Historia egiten den tokietatik idazten du, kale-saltzaileen espaloitik, herri-jantokietatik, dendarien kolektiboetatik, parkeetatik, emakumeen aterpetxeetatik, eta, berba egiten duen bitartean, entzun egiten du. Bere marxismo feminista jarrera *brechtar* batekin zorrozitutako tresna analitiko bat da. Beretzat, marxismoa jada ez da -ismo bat, edo kontsumitzaile intelektual indibidualaren aukera ideologiko bat; subjektibitate kolektiboen lorpen bat da, gure adimen komunaren funtsezko parte bat. Saminduen purrustadak entzun, eta zentzuzko kexa bihurtzen laguntzen du. Bere pentsamendu analitikoaren grabitate-zentroa jada ez da soldatapeko lana, baizik eta komunak zatikatzen dituzten lan-hierarkiak eta botere-harreman desorekatuak.²

Federici akademikoa da, eta zintzotasunez onartzen du Latinoamerika, Afrika, Europa eta Ipar Amerikako beste akademiko batzuekin duen zorra. Eskerrak ematen dizkie Mariarosa Dalla Costa, Nawal El Saadawi, Maria Mies eta Raquel Gutiérrezi. *Midnight Notes*en garrantzia nabarmentzen du. Bere erreferentzia-puntuetakoa bat emakume zapatistek osatzen dute, halaber haien 1993ko Emakumeen Lege Iraultzaileak.³ Bere bibliografiak berdin aseko dituzte ikertzaile sutsu hasiberriak zein jada bi-dean aurrera doazenak.

Federici herriaren intelektualak da, eta, beraz, Hannah Arendt-en astuntasunaren kontrako antidotoa. Arrazoitzeko ahalmenari dagokionez, badu Virginia Woolf-ek *Three Guineas*

2 Ikus Federici, *Revolution at Point Zero: Housework, Reproduction, and Feminist Struggle* (Oakland: PM Press, 2012).

3 Hilary Klein, *Compañeras: Zapatista Women's Stories* (New York: Seven Stories Press, 2015).

saiakeran erakusten duen halako zera bat. Proletarioen bizitza komunalarekiko klase-leialtasunari begiratuz gero, oster, Meridel Le Seuer-en kutsu bat antzemango diogu. Eta, bere espirituaren intentsitate etikoari erreparatzen badiogu, berriz, Simone Weil-en indarra edirenen dugu. Grinarekin batera, nik «begirune iraultzaile» deritzodana ere badu. Federiciren kasuan, begirune iraultzaile horrek ez du zerikusirik batere adeitasun faltsuarekin, are gutxiago zuzentasunarekin. «Gauzak dauden horretan» uztea irmo gaitzesten badu ere, esan beharrekoak umiltasunez adierazten ditu; jarrera hori estuki lotuta dago komunek berezkoa duten elkarrekiko betebeharrarekin.

Akademikoa eta teoriarari soziala den aldetik, bere tradizioa kritikatzeko du, baina, aldi berean, omendu ere egiten du, *Mundua berriz liluratuz* [Re-enchanting the World] izenburuak –Max Weber soziologo alemanaren 1917ko hitzaldiaren oihartzuna duenak– argi adierazten duen gisan. Lehen Mundu Gerrako saraski odoltsuaren erdian, eta iraultzaren bezperatan, Weberrek munduaren *desliluratze*ari [disenchanting] buruz hitz egin zuen.

Akademiko feminista marxista den aldetik, arretaz begiratzen dio azalaren azpikoari. Har dezagun, adibidez, unibertsitate-campusen asfaltoak. 1968ko Parisko eslogan bikaina gogoan duela, galtzada-harrien azpian begiratu, eta ez du hondartza ikusten; larrea ikusten du. Sistema komunalaren arabera bizitza ez da iraganeko kontu bat; berak Calabar-eko Unibertsitatean ikusi zuen, Nigerian: behiak campusean bazkatzen. Federicik beste modu batean begiratzen dio azalaren azpikoari. Teknologia diamanteak behar ditu: koltan minerala, litioa eta petrolioak. Haiek erauzteko, kapitalismoak ezinbestekoa du lur komunalak pribatizatzea. Weberrek zioenez, teknologia-aren arrazionalizazioa saihetsezina da, aurrerabiderako funtsezko betekizuna. Federicik produkzio-molde kapitalistaren ustezko izaera progresiboa salatzen du, eta ezagutzaren eta teknologia-aren unibertsalizazioa ondare kolonial gisa ulertzen du. Mundua mekanizatu aurretik, gorputza mekanizatu zen; bigarrena esklatotza da, eta lehena, esklaboen lanaren ondorioa.

Hainbat urtez bere lana irakurtzen jardun dugunon begietara, Federici ez da samurtu urteekin; aitzitik, konbentzigarriagoa da orain, eraginkorragoa. Ez du alferreko hitzik esaten. Beti bezain gogorra, zorrotza eta trinkoa izaten jarraitzen du. Gaztaroko

sugarra ez zaio ahitu, txingartu, eta, hari esker, emakumeen eta gizonen belaunaldi berri bat piztu du mundu osoan.

Ez du bat egiten kultura-politika orokortzailearen ideia-rekin; bere ustez, komunak zapalkuntza- eta borroka-historia desberdinen ondorioz eraikitzen dira, baina desberdintasun horiek ez dute bereizketa politikorik eragiten. Komunen muinean, pribilegioarekiko arbuioa dago, Federiciren obra guztian aurki dezakeguna. «Pentsatu behar dugu zer esan nahi duen, guretzat, komunismoaren kontzeptuak», diosku, «eta burutik kendu behar ditugu harreman eta balio kapitalistak, komunen eraikuntzak adierazi dezan ez bakarrik jabetzarekin dugun harremana, ezpada baita geure buruarekin eta besteekin ditugun harremanak ere. Beste era batera esanda, komunak ez dira gauza zehatz eta jakin bat, borrokaren ondoriozko produktu bat dira». Gizarte ustel batean, ezin dugu espero ubeldurarik gabe libratzea.

Mundua berriz liluratuz liburuan, Federicik esanahi berriz janzten ditu kategoria marxistak, ikuspegi feminista batetik berriz interpretatuta. Kontzeptu horietako bat «metatze» da. Beste bat, «erreprodukzioa». Hirugarrena, «klase-borroka», laugarrenetik bereizezina: «kapitala». Federicirentzat, «lan-balioaren teoria» giltzarria da, oraindik, kapitalismoa ulertzeko, nahiz eta horren berrirakurketa feministak esanahi berri bat ematen dion lanari eta balioaren ekoizpenari. Esate batera, erakusten du kapitalarentzat zorra bera ere produktiboa dela; metatze primitiboaren palanka zinez eraginkor bat –ikasleen maileguak, hipotekak, kreditu-txartelak eta mikrofinantzak–, gizarte-bereizketa eragiteko makina bat. Erreprodukzioa (hezkuntza, osasun-zaintza, pentsioak) finantzarizatu egin da. Horrekin batera, lotsaren etnografia berariazko eta neurtu bat ere badago, Grameen Bank-en hezurmamitua, «ekintzaile» errugabe pobretuei eltzeak berak ere kenduko dizkiena baldin eta ordainketetan atzeratzen badira. John Milton-ek –Iraultza Ingeleseko *Paradise Lost* poema epikoaren egileak– gaitzetsi egiten zuen «pobreei eltzeak eta zartagiak kentzea».⁴ Bera ere jabetzen zen jokabide haren inguruko lotsaz eta maltzurkeriaz; lehendabizi, lurra hesitu, eta, gero, eltzea kendu. (Edo alderantziz da?)

4 John Milton, *Means to Remove Hirelings* (1659), 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://archive.org/details/miltonsconsider00miltgoog>.

Federicik jarrera bat hartu behar du, eta beste batzuegan-
dik hartzen du, argi eta garbi. Alde batetik, «baliabide komun»
korrontea dago, hau da, klase-gatazkarik gabeko komunak aintzat
hartzen dituen. Bestetik, informazioa eta kapitalismo kogni-
tibo nabarmentzen dituen korrontea dago, ziberekonomiaren
oinarri materialean emakumeek egin duten lana aintzat hartzen
ez duena. Hirugarrenik, «eguneroko bizitzaren kritika» egiten
duen korrontea dago, emakumeen lan ordaingabe eta amaiga-
bea ezkatzen duena. Gizaki baten erreproduzioa, proiektu
kolektibo bat izateaz gainera, lan guztietan egiteko suena da.
Liburu honekin, ohartuko gara «emakumeak direla munduko
iraupen-nekazariak». «Afrikan, biztanleek kontsumitzen duten
janariaren %80 emakumeek ekoizten dute». Emakumeak lurra-
ren eta ondasun komunalen jagoleak dira. Gainera, «memoriaren
ehuleak» ere badira. Federicik continuum batean kokatzen ditu
gorputza eta lurra, biek dute-eta memoria historikoa, eta biak
daude-eta askapenarekin lotuak.

1973. urtetik aurrera, metatze-prozesuaren eskala handi-
ko berrantolamendua –lurrarena, etxearena, soldatarena– bere
bidea egiten aritu da. Lur planeta kudeatu beharreko oikos gisa
ikusi izan da, ez klase-gatazkarako eremu gisa. Feminismo neo-
liberal bat ernatu da, merkatuaren «arrazionaltasunak» onartzen
dituen eta bere arkitekturaren gune sinbolikotzat sabaia har-
tzen duena, ez sutondoa, eta altzaritzat, berriz, eskailera, ez
mahai biribila.

Feminismo iraultzailea berreskuratuz, eta gaitzetsiz ja-
betza pribatuaren eta norbanakoaren goraipamen neoliberal-
a –zeinak *Homo idioticus* («pribatu» adierazteko hitz grekotik era-
torria) batera baikaramatza–, Federicik *Femina communia* bat
eskaintzen digu. Bere ikuspegi politikoaren arabera, ez dago
komunarik komunitaterik gabe, eta ez dago komunitaterik ema-
kumerik gabe.

Zer dira komunak? Federicik ihes egiten dio erantzun
esentzialista bat emateari, eta bere saiakerak bi gairen inguruan
dantzatzen dira: ondasun komun berreskuratze kolektiboa,
batetik, eta gu zatikatzeko erabilitako baliabideen aurkako bo-
rroka kolektiboa, bestetik. Hamaika adibide daude. Batzuetan,
lau ezaugarri eskaintzen ditu: 1) ondasun guztiak partekatu
behar dira, 2) komunek betebeharrak eta eskubideak izan behar

dituzte, 3) zaintza-komunak ere erresistentzia-komunitateak dira, gizarte-hierarkia ororen aurka egiten dutenak, eta 4) komunak estatu-moldearen «bestea» dira. Nolanahi ere, komunen diskurtsoa estatuaren krisian errotuta dago, eta estatuak, orain, bere helburuen arabera esanahia ematen die komunei.

Kapitalismoak Lur planetako ingurumenaren zaintzaile izendatu du bere burua –hau da, «planetaren ondasun komunalen» zaintzaile–. Komunitate hesituek «komuna»tzat dute beren burua –beste pertsona batzuk etxerik gabe uzten dituzten arren–, eta merkataritza-zentroek, berriz, «produktuen komuna»tzat berena. Ikusita nola perbertitu dituen kapitalismoak komunak, uler dezakegu zergatik errepikatzen duen Federicik behin eta berriro gure gorputzak eta gure lurak komunak giltzarriak direla.

Gaur egungo kondizioetan, batzuen bizitzek beste batzuen heriotza eragiten dute. Federicik egoera horri aurre egiteko eskatzen digu, beste inoiz baino modu konbentzigarri, kartsu, konprometitu eta argiagoan. Ez da lan-banaketa, heriotzaren bidezko gobernua da, tanatokrazia!

Zer da liluramendua? Liluramendua da kutsu magikoa duen xarma bizi baten mende erortzea. Halere, 1917. urterako aldatuak ziren terminoaren esanahiak, eta galduak zituen sublimearekiko eta sakratuarekiko loturak oro; xarmaren, magiaren eta glamourraren esanahiak aldatu ziren gisan, komunak gaitasun diskurtsiboa ere modara, dekorazio-arteetara eta Hollywood-era mugatu zen. Termino haiek jada ez zituzten adierazten kosmosaren eta gorputzaren ahalmenak; azalkeriak eta hutsalkeriak baino ez zituzten aditzera ematen.

Federiciren ustez, liluramendua etorkizunari dagokio, ez iraganari. Proiektu iraultzailearen zati bat da –beharbada, haren zatirik garrantzitsuena–, eta ezin da bereizi komunetatik. Lurra-ri dagokionez, gauza sakratu bakarra dago: guk, gizakiok, hura eraikitzen eta zaintzen lagundu dezakegu.

Ingeleseko *enchantment* [liluramendu] hitza berba frantses batetik dator: *chanter*, abestu. Munduari «abestea» haren sorrera eragiteko, gogoetagarria izan daiteke, zalantzarik gabe; batzuetan, mugimendua eten egin behar da, eta egon. Baina «abesti» horren barruan poesia ere badagoela ulertzen badugu, orduan, mundua liluratzeko deia, kreazioari abestea haren sorrera eragiteko, rapsodikoa eta profetikoa da aldi berean. Lorpen

koral bat. Antzina, Kolon itsasoan zebilenean, Ameriketako jendeak abestu egiten zuen artoa hazten zen bitartean, uste baitzuten beren abestien bidez haren hazkuntza bultzatzen zutela. Amerikak aztertu zituen lehen historialari europarra Peter Martyr izan zen. Konkistatzaileek itzuleran kontatzen zituzten istorioak bildu zituen, eta honela laburbildu zuen jada han bizi zen jendearen ezagutza: «Nireak eta zureak (kalte guztien haziak) ez dute lekurik».

Desiratze hutsagatik ez da ezer lortzen, ezta ekintzarako unea atzeratuz ere. Irakurri, aztertu, pentsatu, entzun, solastatu eta, beste batzuekin batera, egin; esan nahi baitut, *borrokatu*. Federicik dioskun bezala, mundu berria gure inguruan dago, guri dagokigu, eta soilik gure borrokak sorraraz dezake, eta berriz liluratu.

Peter Linebaugh
Michigan, 2017

SARRERA

Komunen politikei buruzko liburu bat argitaratzea xalotasun-seinaletzat jo daiteke, beharbada, aintzat hartuta inguruan dauzkagun gerrak eta krisi ekonomiko eta ekologikoak, zenbait eskualde osorik suntsitzen dituztenak. Azkenaldian, gainera, kontuan hartu behar da, halaber, munduko bazter guztietan ia inpunitate osoz aritzen diren erakunde supremazista, neonazi eta paramilitarren gorakada. Nolanahi ere, sumendiaren ertzean bizi garela sentitzen dugunez, are garrantzitsuagoa da onartzea ezen, suntsiketa handi horren erdian, beste mundu bat ari dela sortzen, hiriko zolagainaren arrakaletan belar-izpiak hazten diren bezala, aurre eginez kapitalaren eta estatuaren hegemoniari eta berretsiz gure elkarrekiko mendekotasuna eta elkarlanerako gaitasuna. Era askotan izendatzen ditugun arren –komuna (singularrean), komunak (pluralean), komunagintza eraikitzea (*commoning*), *el común*, *comunalidad*–, *komunen hizkuntzak eta komunen politikek mundu alternatibo hori adierazten dute*. Komunek, funtsean, zera esan nahi dute: ez duela merezi mundu hobbestar batean bizitzea, non bat beste guztien aurka lehiatzen den eta oparotasuna besteen lepotik eskuratzen den, porrota izanik azken helmuga. Horixe bera esan nahi dute mundu osoan zeharreko borroka ugariak, zeinen helburua baita harreman kapitalisten hedadurari aurre egitea, gaur egungo komunak defendatzea eta urte luzez sistema neoliberalak gure erreprodukzio-baliabiderik oinarritzkoenak erasota suntsitutako komunitate-egitura berreraikitzea.

Azken urteetan, gai horri buruzko testu asko idatzi dira, eta nik neuk ere asko zor diot literatura horri. Halere, komunen

gaineko lan hau egiteko inspirazioaren zatirik handiena 1980ko hamarkadatik dator, Nigerian irakaskuntzan ari nintzelarik izan nituen bizipenetatik, orobat haren ondoren gizarte-mugimenduei buruz ikasitakotik eta Hego Amerikako emakumeen erakundeekin izan ditudan topaketetatik.

Hiru urteko epean, eskolak eman nituen Port Harcourt-eko Unibertsitatean, hainbat hilabetez. Garai hartan, ohartu nintzen ezen eskolara edo merkatura joateko bizikletarekin zeharkatzen nuen lurraren zati handi bat molde komunalaren bidez kudeatzen zela oraindik, eta komunalismoak jendearen kultura, jokamoldeetan eta ohituretan utzitako arrastoak bereizten ikasi nuen. Jada ez nintzen harritzen, adibidez, herri-jantoki batean [mama-put]⁵ ikasle batek janaria hartzen bazuen lagun baten plateretik, edo eskoletarako bidean emakumeak ikusten bantuen bide ondoan laborantzian, campusa eraikitzekeo desjabetu zizkieten lurra berriz eskuratzen; ez nintzen harritzen ikusita nola eragiten zioten emakume haiek buruari entzuten zutenean nire segurtasun-berme bakarra nire soldata zela, eta ez nuela herrixkarik ezta komunitaterik ere garai gogorrek etorri gero babespean hartuko ninduenik. Nigerian ikasitakoak eragin sakona izan zuen nire pentsamenduan eta nire ideia politikoetan. Harrezkero, eta jada Estatu Batuetan, lan politikoa egiten jardun nuen urte luzez; batez ere, Afrikako kideekin batera borrokatu nintzen, doako hezkuntzaren amaieraren kontra (kontinentearen zatirik handienara zabaltzen zen, «egiturazko doikuntza-programa»ren barruan Nazioarteko Diru Funtsak eskatu bezala), eta globalizazioaren aurkako mugimenduan militatu nuen.⁶ Prozesu

5 Ikasleek *mama-put* izena jarri zieten unibertsitatetik gertuko jantokiei; gehienetan, emakumeak arduratzen ziren leku haiek kudeatzeaz.

6 1990ean, Afrikako eta AEBko lagunekin batera, Afrikako Askatasun Akademikorako Batzordea [Committee for Academic Freedom in Africa, CAFa] sortu genuen, Afrikako hezkuntza-sistemaren –batez ere, bigarren hezkuntzaz haragokoaren– suntsipena aztertzeko eta haren kontra mobilizatzeko; suntsipen hura NDFk eta Munduko Bankuak planifikatu zuten, egiturazko doikuntzaren aitzakian hartutako austeritate-neurrien barruan. Hamahiru urtez, CAFak berripaperak sortu zituen, eta Munduko Bankuaren aurkako kanpaina egin zuen; besteak beste, Munduko Bankuak Afrikari buruzko ikasketen alorreko hitzaldietan izan zuen parte-hartzea salatzen, jokabide erabat eskandalagarria gure iritzian, kontuan hartuta bankuek jokatu zuten papera Afrikako unibertsitateei eta ikerketa-programei dirulaguntzak murrizteko garaian. Ekintzarik garrantzitsuenak izan zen Ipar Amerikako unibertsitateen laguntza lortu asmoz Afrika osoko ikasle eta irakasleak egiten ari ziren borroka dokumentatzea. Ikus Silvia Federici, George Caffentzis eta Ousseina Alidou, arg., *A Thousand Flowers: Social Struggles against Structural Adjustment in African Universities* (Trenton, NJ: Africa World Press, 2000).

hartan, komunei buruz zenbait feministak sortutako literatura akademikoarekin topo egin nuen; batez ere, Vandana Shiva-k eta Maria Mies-ek idatzitakoak. Lan haiek mugimendu zapatista ernatu zen garaian irakurri nituen, XVI. mendeko European emakumeek itxituren aurka egindako borrokari buruz idazten ari nintzenean, eta bide politiko berri bati heltzeko aukera eskaini zidaten. 1970eko hamarkadan, etxekoandreentzat soldatak eskatzen zituen mugimenduan parte hartua nintzen, hura baitzuten emakumeek kapitalari egiten zioten «opari» ordaingabea desagerrarazteko estrategiarik egokiena, halaber emakumeek beren lanaren bidez erdietsitako aberastasuna berreskuratzeke prozesua abian jartzeko modurik zuzenena. Shivaren lanaren bidez, Chikpo mugimenduaren berri izan nuen; baso indiarra erreprodukzio-sistema oso gisa deskribatzen zuen –elikagaiak, botikak, babesa eta elikadura espiritualak eskaintzen zituenena–, eta ikuspegi hark lagundu zidan ulertzen nolakoa izan litekeen erreprodukzioaren aurkako borroka feminista bat.⁷ Azken urteetan, Hego Amerikako emakumeen borroken berri izan dut –borroka indigenak, *campesina*, *villera*⁸–; orain, are argiago daukat ezen ondasun komunala berreskuratzea eta kapitala desmetatzea –Soldatak Etxekoandreentzat mugimenduaren bi xede nagusiak– berdin eta indar handiagoarekin lor litekeela lurra, ura eta hiri-espazioak despribatizatuta eta autogestioan, elkarlanean eta kolektiboki hartutako erabakietan oinarritutako erreprodukzio-moldeak sortuta.

Ikuspegi hori Latinoamerikako feminista akademiko garrantzitsuenen obran artikulatzen da, eta liburu honetan bildutako saiakera-artikulu askoren inspirazio-iturria izan da. Lehenengo atalean, halere, itxitura-molde berriak aztertu ditut,

7 Vandana Shiva, *Staying Alive: Women, Ecology and Development* (Londres: Zed Books, 1989), 57.or. -77.or. lanean deskribatzen denez, Chikpo mugimendua Himalaiako eskualde menditsuetan hasi zen, «basoa esplotazio komertzialetik babesteko», eta, gero, Indiaren erdialdeko goi-mendietako ipar zein hegoaldeko eskualdeetara hedatu zen: «[Chikpok] Basoen erabilera komertziala eta suntsipena onartzen ez zuten emakume landatarren filosofia eta politika adierazten zuen; emakume haiek aurre egiten zieten erabilera eta suntsipen hura babesten zuten beren komunitateko gizonen». Horrez gain, Shivak luze eta zabal idatzi du komunaren printzipioari buruz, lan honetan: *Earth Democracy: Justice, Sustainability, and Peace* (Cambridge, MA: South End Press, 2005).

8 Buenos Aireseko inguruan sortutako miseria gorriko auzoez ari da hemen autorea [Itzultzailearen oharra] [Hemendik aurrera I.O.].

gure garai honetako kapitalaren globalizazioaren bizkarrezurra osatzen dutelako eta, zati batean, bederen, komunen politika berriz ernatu izanaren erantzuleak direlako. Gai honi buruzko literatura oso zabala da; gero eta zabalagoa, gainera. Lehenengo atalean, 1990eko hamarkadan *Midnight Notesen* –aldizkari erradikal bat, zeinean kolaboratu bainuen 1980-2000 bitartean– argitaratutako hiru artikulu sartu ditut, gogora ekarri nahi dudalako orain mundu osora iristen den eta normalizatua izateko arriskua duen prozesu baten hasiera.⁹ Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsua da «Itxitura berriak: sarrera» artikulua; elkarlanean idatzi genuen, eta, artean, oso gutxi ziren AEBn globalizazio-prozesua «metatze-prozesu» gisa aurkezten zuten artikuluak. Artikulu horretan, Nigeriatik Estatu Batuetara eta Estatu Batuetatik Nigeriara joan-etorrian ibili nintzen garaian izandako bizipenak islatu nituen. Izan ere, Nigeriako lekualdatzeak eragindako ondorioak Brooklyn-eko kaleetan ikusten nituen: autoak garbitzen lan egiten zuten ikasleak, edo kalean zernahi purtzileria salduz moldatzen zirenak, munduko lan-merkatuari milioika pertsona gehitzen zizkion beste diaspora batean. «Itxitura berriak: sarrera» artikuluan proposatzen dudan ikuspegi teorikoa beste bi artikulutan ere aztertzen dut: Afrika-ko «zor-krisia»ri buruzko artikuluan eta Txinak kapitalismorantz egin duen trantsizioari buruzkoan. Biek ala biek erakusten dute ezen, testuinguru soziala desberdina izanda ere, garapen kapitalistaren gaur egungo fase honen bizkarrezurra lur komunaleko erregimenak suntsitzea dela, eta hori dela, halaber, munduko eskualde ugaritan ernatzen ari den indarkeriaren arrazoia, nahiz eta, gaur egun, desjabetzea zor orokortuaren bidez ere inposatzen den.

Artikulu horietan, Afrikako eta Txinako biztanleek pairatzen dituzten askotariko desjabetze-moldeen aurka (lurrak, lurraldeak, iraupen-baliabideak, ezagutzak, erabakimena) egin izan dituzten borroka gogorak ere dokumentatu ditut. Ezkerreko artikulugileek, askotan, arbuiatu egiten dituzte borroka horiek, inplikaturako pertsonen defentsarako baino balio ez dutelakoan. Nolanahi ere, ikuspegi hori erabat okerra da. Izan ere,

9 Liburu hau atontzeko *Midnight Notes* aldizkaritik hartu ditudan saiakera-artikuluak 1990eko udazkeneko alean argitaratu ziren, *The New Enclosures* izenburukoan.

ezinezkoa da eskubide komunalak defendatzea errealitate berri bat sortu gabe, esan nahi baita, estrategia berriak, aliantza berriak eta gizartea antolatzeko molde berriak garatu gabe. Beste meatze bat zabaltzen dute, eta jendeak arnasten duen airea eta jendeak edaten duen ura kutsatzen dute; kostaldeko urak zulatzen dituzte petrolio ateratzeko, eta itsasoa, hondartzak eta soro landuak pozoitzen dituzte; auzo zahar bat eraisten dute, estadio berri bati lekua egiteko, eta lerro berriak marrazten dituzte auzo eta hirietan. Komunitateak berregituratzeaz gain, familiak ere berregituratzen dira, askotan lerroaren alde banatan; izan ere, arrisku-mehatxuak kontzientzia piztarazten du, eta guztiok hartu behar dugu jarrera bat, guztiok zehaztu behar ditugu gure printzipioak jakobide sozial eta etikoei dagokienez.

Lehenengo atalean, komunen politikak heldutasunera iristeko prozesuan oinarri izan duen testuinguru soziala berriroaiki dut. Bigarren atalak, oster, komunei begiratzen die, bi ikuspegitatik: alde batetik, jada egiazkoa den errealitate bat erakusten du, batez ere, gizarte-antolamendu komunitarioei dagokienez; bestetik, kapitalismoaz haragoko mundu oraindik garatu gabe bat irudikatzen du, gizarte-aldaketaren erdian erreproduktzio sozialaren auzia jartzen duena. Ikuspuntu feminista batetik, komunen ideiak aparteko erakargarritasun bat du, hots, erreproduktzio-jarduerek berekin dakarten bakartasuna gainditzeko aukera, orobat esparru pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa, giltzarria izan dena familian eta etxean emakumeen esplotazioa ezkutatzeke eta arrazionalizatzeko.

Ez da ahalegin erabat berria. AEBn, XIX. mendearen bigarren zatian, eta Dolores Hayden-ek dokumentatu bezala, askotariko «feminista materialek» –sozialista utopikoek (Fourier-en jarraitzaileek, Owen-en jarraitzaileek, Saint-Simongoa-ren jarraitzaileek), halaber feminista erreformistek– etxea eta etxeko lanak eremu pribatutik ateratzeari ekin zioten: sukalde kolektiboak zituzten etxebizitzak eraikitzeke proposamena egin zuten, eta etxebizitza kooperatiboetan oinarritutako hirigintza-planak aurkeztu zituzten.¹⁰ XIX. mendean, esperimentu haiek nahiko mugatuak ziren, eta, batez ere, klase ertaineko emakume zu-

10 Ikus Dolores Hayden, *The Grand Domestic Revolution: A History of Feminist Designs for American Homes, Neighborhoods, and Cities* (Cambridge, MA: MIT Press, 1985 [1981]).

riek egiten zituzten, askotan emakumezko zerbitzariak erabiliz beren helburuak lortzeko; gaur egun, ordea, erreprodukzioa sozializatzeko nahia munduko emakume proletarioen geruzarik pobreenetik dator, eta ez ideologiak bultzatuta, baizik eta beharrrak, eta helburu du ez bakarrik erreprodukzio-jarduerak molde kolektiboaren arabera berrantolatzea, orobat horretarako behar diren baliabide materialak berriz eskuratzea.

Lehenago esan dudan bezala, liburu honetan bildutako analisisen zatirik garrantzizkoenak Hego Amerikan «herri-feminismo»aren aterkipean antolatzen ari diren emakume-mugimenduek inspiratu dituzte. Baina Ipar Amerikan ere badira erreprodukzioa komunalizatzen ari diren guneak, iraupen ekonomikoak eta esplotazio kapitalistaren aurkako erresistentziak sustatuak. Esate batera, 2016an Standing Rock-en sortu zen komuna itzela, beren burua «uraren zaintzaile» izendatu zuten emakume indigenen ekimenez antolatua. Emakume haiek jantokiak kudeatu zituzten, eskolak ireki, hornigaiak antolatu... Mobilizazioaren unerik gorenean, zazpi mila pertsona baino gehiago izan zituzten beren ardurapean, ingurumen-kondiziorik gogorrenetan eta etengabeko indarkeria-mehatxuak pairatzen zituztelarik.¹¹

Standing Rockeko eta Occupy mugimenduak antolatutako kanpaldiekin gertatu zen bezala, bertan behera geratu dira liburu honetan aipatzen diren komuna batzuk, edo komunak eraikitzeko jarduera batzuk, bederen. Komuna haien eraikuntza sustatu zuten egoera ekonomiko larriek hobera egin zutenean, komuneroek albo batera utzi zituzten. Hori ikusita, ahalegin horien iraunkortasunari buruzko galderak batzuk azaleratu dira; besteak beste, zalantzan jarri da zer gaitasun duten ekimen horiek (erre)produkzio-moldeetan aldaketa zabalagoak eragiteko ezinbestekoa den oinarria ezartzeko. Ulergarria da kezka horiek agertzea, jakina. Nolanahi ere, garapen kapitalistak zailtasunak besterik ez ditu eskaintzen, eta milioika pertsona bultzatzen ditu kolektiboki jardutera eta beren erreprodukzioa kolektiboki antolatzera. Pertsona horiek hiri- eta landa-eremuak berreskuratzen

11 Standing Rock sioux herriaren erreserbaren barruan dago, eta han antolatu zen Dakota Access Oliobidearen eraikuntzaren kontrako erresistentziaren kanpalekua. Oliobide hura eraikiz gero, areagotu egingo litzateke lur sakratuak eta erreserbarako ura lortzeko ezinbestekoa den Missouri ibaia kutsatzeko arriskua.

ari dira, eta gero eta kokaleku gehiago sortzen dira espazioa eta baliabideak partekatzeke, eguneroko erreprodukzioari buruzko erabakiak kolektiboki hartzeko eta familia-harremanei beste esanahi bat emateko. Are gehiago, komunagintzan sortutako jarduerak ez dira berehalakoan desagertzen; arrastoak uzten dituzte, nahiz eta beti ez diren begi hutsez ikusten. Standing Rockeko kanpaleku erraldoiaren kasuan, milaka pertsona joan ziren hara, peleginazio politiko bat izango balitz bezala, laguntzera, ikastera eta gertaera historiko hura beren begiz ikustera, eta horrek kontzientzia berri bat piztu du AEBn, justizia sozialaren aldeko mugimenduetan; azkenaldian, orain arte ez bezalako lotura sendo bat eratu da herri indigenen borrokekiko. 2011ko udazkenean, Occupy mugimenduaren gailurrean, AEBko seiehun hiritan baino gehiagotan antolatutako erreprodukzio-jarduerak aldaketak eragin dituzte politika egiteko moldeetan, eta lehen erakunde feministetan bakarrik ikusten ziren jokabideak orain beste erakunde batzuetara ere zabaltzen dira. Une honetan, antolamendu politikoa eta erreprodukzioaren antolamendua bereizten ez dituen politika bat behar da; irakaspen hori ez dute berehalakoan ahaztuko Occupy mugimenduan jardun zuten askok, eta hori da, hain zuzen, liburu honen ardatz nagusietako bat.¹²

Erreprodukzioa aipatzen dugunean, ez ditugu kontuan hartzen bakarrik gure behar materialak, hala nola etxebizitza, elikagaien prestaketa, espazioaren antolamendua, haurren zaintza, sexua eta ugalketa. Horren alderdi garrantzitsu bat da gure memoria kolektiboaren erreprodukzioa, orobat gure bizitzari zentzu bat ematen dioten eta gure borrokak elikatzen dituzten ikur kulturalena. Hori gogoan hartuta, bigarren atala herri natibo amerikarren ondarea aitortzen duen saiakera batekin hasten da, haiek baitira AEBko lehen komuneroak. Garrantzitsua da hori, ezin dugulako pentsatu, ezta espero ere, Ipar Amerika komunen lurraldea bihurtuko denik baldin eta ez badugu bat egiten herri indigenen borrokekin, helburu dutenak erreserbetan preso

12 Occupy mugimenduari buruz, ikus, besteak beste, Sarah van Gelder eta *Yes! Magazine*-ko langileak, arg., *This Changes Everything: Occupy Wall Street and the 99% Movement* (Oakland: Berrett-Koehler Publishers, 2011) eta Todd Gitlin, *Occupy Nation: The Roots, the Spirit, and the Promise of Occupy Wall Street* (New York: HarperCollins, 2012).

ez jarraitzea eta garai batean haiena izan zen lurra berreskuratzea. Estatu Batuen azpian beste komuna batzuk ere izan dira, eta haiek ere gogoratu behar ditugu, eta haietatik ikasi. Oraindik argitaratu gabe dagoen artikulua batean, George Caffentzisek komuna mairu/afrikarrei buruzko ikerketa bat zirriboratu du, zeinak esklabo iheslariek eraiki baitzituzten, plantazio-ekonomiaren bihotzean.¹³ Horrekin batera, aintzat hartu behar ditugu AEBren hainbat tokitan sozialistek, baita zenbait talde erlijiosok ere –adibidez, *Shakersek*– komunalismoarekin egin dituzten esperimentu erradikalak,¹⁴ halaber 1960ko hamarkadan Kalifornia iparraldean eraikitako komunak.¹⁵ Paula Gunn Allen aktibista natiboak gogorarazten digun bezala, «guk, feminista garen aldetik, kontinente honen historiaz jabetu behar dugu, zapalkuntzaren erroa memoriaren galerak osatzen baitu».¹⁶ AEBko gobernuak ondo gogoan hartzen du hori, eta baliabide eta energia asko erabiltzen ditu konkistatu eta esplotatu nahi izan dituen herrien harrotasun- eta identitate-sena sendotzen lagundu dezakeen oro suntsitzeko, etxean zein atzerrian. Horri zor diogu etengabeko eraisketaren politika, «hiri-berrikuntza»ren bidezkoa, edo (orain Ekialde Ertainean gertatzen ari den bezala) bonben bidezko suntsiketa, hiriak hondakin bihurturik, etxeak birrindurik, azpiegiturak, eraikin historikoak... lurrarekiko eta iraganeko borroka eta kulturekiko lotura txikiena adieraz dezakeen edozer.

Nolanahi ere den, komunen historia berriaz aztertzean, oihartzen gara ezen komunak, kideen erreprodukzioa bermatzen badute ere, beti ez direla izan berdintasunean oinarritutako gizarte-antolamenduak. Gaur egun ere, Afrikako eta Hego Amerikako komunitate indigena batzuetan, emakumeek ez dute erabakiguneetan parte hartzeko eskubiderik, eta beren seme-alabak lurra erabiltzeko eskubiderik gabe gera daitezke, komuna bateko kide nor izan daitekeen zehaztean gizonezkoen lerroa hartzen delako kontuan. Komunen ezaugarri horri ere heldu

13 George Caffentzis, «African American Commons,» argitaratu gabeko eskuizkribua, 2015.

14 AEBko komuna sozialisten eta Shakers-en komunei buruz, ikus Charles Nordhoff, *The Communitic Societies of the United States* (New York: Dover Publications, 1966).

15 Ikus lain Boal, Janferie Stone, Michael Watts eta Cal Winslow, *West of Eden: Communes and Utopia in Northern California* (Oakland: PM Press, 2012).

16 Paula Gunn Allen, «Who Is Your Mother? Red Roots of White Feminism,» in *Multicultural Literacy*, arg. Rick Simonson and Scott Walker (Saint Paul, MN: Graywolf Press, 1988), 18.or. -19.or.

diot, eta erakusten dut nola erabili izan duen Munduko Bankuak lurra pribatizatzekeo grina sustatzeko eta zer erantzun ari diren ematen horri komunitate indigenetako emakumeak. Era berean, adierazten dut bereizi egin behar direla testuinguru ez-kapitalista batean lan egiten duten gizarte-eraketa komunalak/komunitarioak eta metatze kapitalistaren logikarekin bateragarriak diren komuna-moldeak; azken horiek sistema kapitalistak erabiltzen ditu, segurtasun-balbula gisa, bere politikek nahitaez eragiten dituzten tentsioak lasaitzeko. Dena den, bereizketa hori kritikatzeko duenik ere bada.

Omnia Sunt Communia, Massimo De Angelisek esaten digu, adibidez, komunismo-molde guztiek izaera moldagarria eta esperimentalta izan behar dutela ezinbestean, eta saihesti egin behar dela izaera hori eredu ideologiko aurrez zehaztuta-koetara mugatzea.¹⁷ Era berean, ezinezkoa da denbora-bankuek, ortu komunalek edo etxe okupatu hiritar batek izango duten bilakaera iragartzea. Halere, garrantzitsua da, jarrera dogmatiko batean erori gabe, komunagintzak dauzkan ezaugarri bereizgarriak identifikatzea, betiere jarduera hori hori gizarte-antolamendurako printzipio gisa ulertzen dugun neurrian. Izan ere, komuna eskusibistez inguratuta gaude, gutxi batzuen pribilegioak babesten dituztenak eta etnia, klase, erlijio edo diru-sarreraren arabera erabiltzaileen sarbidea mugatzen dutenak. Hortaz, «Komunak: kapitalismoaren aurka eta kapitalismoaz harago» kapituluak, Georges Caffentzisekin batera idatzia, bereizketa orokor batzuk aipatzen dira, justizia sozialaren aldeko mugimenduentzat berehalako ondorioak izan ditzaketenak; esate batera, baliabide komunak eta baliabide publikoak bereizten dira, edo merkatutik kanpora diharduten komunak –lurralde zapatistetako jarduera ia guztiak– eta merkaturako ekoizten dutenak. Bereizketa horiek aldagarriak dira, eta ezin dugu segurutzat jo harreman kapitalisten bidez gobernatutako mundu batean komunek kutsadura orori itzuri egiteko gaitasuna izango dutenik. Halere, bereizketa horiek gogorarazten digute komunak gizarte-harreman antagonikoen eremu batean existitzen direla, eta erraz bilaka daitezkeela *status quora* moldatutako baliabide.

17 Massimo De Angelis, *Omnia Sunt Communia: On the Commons and the Transformation to Postcapitalism* (London: Zed Books, 2017).

Pentsamendu horiek gogoan, lehenengo atalean Marxen eta Engelsen lanetan komunagintzak eta komunismoak duten harremana ere aztertu dut, kontuan hartuta Marxek bere erabakiz argitaratu zituen lanak, eragin zuzena izan zutenak nazioarteko mugimendu sozialistan.¹⁸ Alde horretatik, nire analisi nahiko mugatua da. Ez dut aztertu zergatik ordeztu zen XIX. mendean «ondasunen elkartasuna», nagusiki lurren erabilera komunalarekin lotua –XVIII. mendera arte, hori izan zen ideal nagusia Europako iraultzaileentzat, nola Winstaley-entzat¹⁹ hala Babeuf-entzat–,²⁰ «komunismoa»rekin, lotuta dagoena jabetza pribatuaren abolizioarekin eta ondasun komunala estatutuko proletario batek kudeatzearekin. Adibidez, zerk bultzatu zuen Friedrich Engels esatera, *The Housing Question* lanean, bere garaiko industria-langileek ez zutela lurren jabetzarekiko inolako interesik?²¹ Galdera garrantzitsua da. Baina, lan honetan, nik

18 Pariseko Komunaren ondoren, Marxek jada ez omen zuen uste komunak komunismoaren garapenerako oinarria izan zitezkeenik. Lewis Henry Morgan-en lanak irakurri ondoren, gutun-trukean jardun zuen iraultzaile errusiar batekin, eta, hari bidalitako eskutitzetan aditzera ematen zuenez, iruditzen zitzaion posible zela komunismoarako trantsizioa metatze primitiborik gabe egitea; Errusian bederen, trantsizio hura komuna landatzeretan oinarrituko litzateke. Ikus Teodor Shanin, *Late Marx and the Russian Road: Marx and the Peripheries of Capitalism* (New York: Monthly Review Press, 1983).

19 Gerrard Winstanley (1609ko urriaren 19a–1676ko irailaren 10a) «erlijio-erreformatzaile protestante ingelesa eta aktibista politikoa izan zen, Oliver Cromwell-en Protektoratuaren garaian. True Levellers edo Diggers izenez ezagutu zen taldearen sortzaileetako bat izan zen. Lur publiko hesituak okupatu, zelai ertzetako hesolak atera eta laboreak landatzen zituzten. Taldeko kideek True Levellers izenaz deskribatzen zuten beren burua, baina garaikideek Diggers (hondeatzaileak) izenarekin ezagutzen zituzten»; «Diggers», Wikipedia, 2018ko ekainaren 5ean eskuratua, <https://en.wikipedia.org/wiki/Diggers>. *The True Levellers Standard Advanced; or, The State of Community Opened, and Presented to the Sons of Man* izeneko panfletoa, Winstanley-k alpatzen zuen *Lurra altxor komun bat izan behar zela guztientzat, aberats zein behartsuentzat*; 2018ko ekainaren 2a, <https://www.marxists.org/reference/archive/winstanley/1649/levellers-standard.htm>.

20 «Gracchus» Babeuf (1760ko azaroaren 23a–1797ko maiatzaren 27a) bere egunkari propioa *–Le tribun du peuple–* argitaratzen zuen kazetaria izan zen; egunkari hartan, Frantziar Iraultzak gizarte benetan berdinzalea sortzeko-prozesuan egindako hutsa azaltzen zuen. 1796an, frantziar errepublika suntsitzeko konspirazio baten sustatzaile izateagatik kondenatu zuten, eta, hurrengo urtean, exekutatu egin zuten. Epaietan bere burua defenditzeko hitzaldian, lurraren pribatizazioaren kontra eta «Ondasunen Komunitatearen» alde hitz egin zuen: «Ezin dugu jarraitu onartzen gizonen gehiengoaren ahalegina eta izerdia gehiengo txiki baten plazeraren zerbitzura egotea... Amaiitu dezagun... eskandalo izugarri hau, gure ondorengoek inoiz sinistuko ez dutena! Desager daitezela, azkenik, aberatsen eta behartsuen, handien eta txikien, nagusien eta zerbitzarien, gobernatzaileen eta gobernatuen arteko bereizketa higuinariak»; Albert Fried eta Ronald Sanders arg., *Socialist Thought: A Documentary History* (Garden City, NY: Doubleday Anchor Books, 1964), 51.or. -55.or.

21 Friedrich Engels, «The Housing Question» (1872), 2018ko ekainaren 2an eskuratua,

beste kezka batzuk argitu nahi ditut. Erakutsi nahi dut komunen printzipioa, feministek, anarkistek, ekologistek eta marxista ez-ortodoxoek ulertzen duten gisan, ez datorrela bat marxista desarroilistek, azelerazionistek eta Marxek berak partekatzen duten ustearekin, lurraren pribatizazioa ezinbestekotzat jotzen baitute eskala handiko produkziarako, orobat globalizazioa munduko proletarioak bateratzeko baliabide gisa erabili ahal izateko.

Gaur egungo komuneroek arbuiaitu egiten dute kapitalaren rol progresiboa. Gainera, beren bizitzei gehien eragiten dieten erabakien kontrola izan nahi dute, autogobernurako gaitasuna aldarrikatzen dute eta ez dute onartzen bizitza sozial eta kulturalerako eredu bateratu bat inposatzea. Azken horri dagokionez, zapatisten espirituari jarraitzen diote, «Ezezko bat, baiezko ugari»; hau da, bide askotatik irits daiteke komunetara, kolektibo bakoitzaren ibilbide historiko eta kulturalaren eta ingurumen-kondizioen arabera. Are gehiago, *Kapitala* argitaratu eta 150 urtera, egiazta dezakegu ezen Marxen ustez komunismoaren oinarri materiala eraikiko zuen garapen teknologikoa zutik dirauten erregimen komunitarioak suntsitzen ari dela, eta hondatzen ari dela, halaber, espezie ugari (gero eta gehiagok) mundu honetan bizi eta erreproduzitzeko duten aukera.

Eguneroko bizitzari dagokionez, galdera bat egin behar diogu geure buruari: hau da milaka urteko giza lanaren ondoren lor dezakegun mekanizazio- eta robotizazio-eredurik egokiena? Imajina dezakegu geure bizitzak berreraikitzen ditugula, besteekiko harremanen bidez komunak eratuz, baita animalia, ur, landare eta mendiekiko ditugun harremanen bidez ere –eskala handiko roboten eraikuntzak ezbairik gabe suntsituko dituenen? Hori da gaur egun komunen diskurtsoak eta politikak gure aurrean zabaltzen duen bidea: ez digu esaten iraganera itzuliko garenik; aitzitik, lur honetan izan nahi dugun patua kolektiboki erabakitzeko ahalmena berreskuratzeko aukera ematen digu. Horri esaten diot nik mundua berriz liluratzea.

I. ATALA: ITXITURA BERRIAK

SARRERA

Atal honetako artikuluek 1970eko hamarkadaren azken urteetan metatze «primitibo»aren (jatorrizkoaren) prozesu berri bat abiarazi zuen programa-sorta dute aztergai. Horien bidez, hiru helburu bete nahi ditut: lehenik, kolonia izandako herrialde gehienetan 1980ko hamarkadaren erdialdean Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) ezarritako «egiturazko doikuntza-programen» arteko jarraitutasuna erakustea; bigarrenik, Txina komunistak kapitalismorantz egin duen trantsizioaren berri ematea; eta, azkenik, zor-ekonomiaren garapena azaltzea, zeinaren bidez norbanakoen zorrek zor nazionalaren ondorioak areagotu baitituzte. Egiturazko garapen horiek «itxitura berriak» izendatu ditut, izen hori erabili bainuen *Midnight Notes* aldizkariaren 1990eko ale batean, osorik gai honi eskaini zitzaion hartan. Izan ere, garapen haien ondorio suntsitzaileak erraz pareka daitezke kolonizazio-prozesuak zein landa-eremuetako biztanleak lur komunaletatik egozteak eragindako ondorioekin, eta ez dugu ahaztu behar XVI. mendeko European zein Mundu Berria deituriko lurraldean bi prozesu horien ondorioz ezarri zirela garapen kapitalistaren oinarriak.

Lehenengo eta behin, azaldu nahi dut zergatik erabaki dudan komunei buruzko lan hau itxitura berriei gaineko artikulua-sorta batekin hastea. Jabetu naizenez, harreman komunitarioei buruzko interesa piztu da berriro hainbat mugimendu erradikaletan –feministan, ekologistan, anarkistan, baita marxistan ere–, eta iruditzen zait interes hori testuinguruan kokatu beharra dagoela. Bestalde, konturatu naiz ezen gertaera haiek, orain dela hiru hamarkada eskas garai bat markatzeko adina-

koak izan zirenak, ezabatuak daudela jada belaunaldi berrien oroimenetik; hala da, behintzat, Europan eta Estatu Batuetan. Eta, politika haien inpaktu metagarria onartu ezean, ezin izango diogu neurria hartu gaur egun bizi dugun larrialdi-egoera honi. Politika haien ondorioz, milioika pertsonak beren arbasoen herrietatik alde egin behar izan dute, maiz miseriaz beteriko bizitzara edota heriotzera kondenatuak izan direlarik. Horrenbestez, *Midnight notes* aldizkarian argitaratutako hiru artikulua lehen zatian sartu ditut, «Itxitura berriak» izenburupean; asko eraldatu ditut, egungo kezkei dagozkien alderdiak nabarmendu ahal izateko. Atal berean aztertuko dut, halaber, «zor-ekonomiaren» eraketa, edo, zehazkiago, mundu osora hedatu diren mikrokreditua eta mikrofinantza, nik eraso zuzen eta ankertzat deskribatzen ditudanak, ez bakarrik pertsonen bizibideen aurkako erasoak, baita ere emakumeen arteko laguntza- eta solidaritate-sareen kontrakoak.

Komunen aurkako gerraren laburpen bat izan nahi duen aldetik, atal honi zati asko falta zaizkio. Esate batera, ez da aipatzen krisi ekologikoaren okerragotzeak komunak desagertzea eragin duenik. «Estraktibismoak» ekonomia eta kultura komunaletan izan dituen ondorioak ere modu orokorrean aztertzen dira, orobat indarkeria, bereziki emakumeen kontrakoa, egitura komunal haientzat ezinbestekoa dena. Itxitura berrien alderdi horiek aztertzeke, gai horien inguruko literatura gero eta zabalagora jo dezala proposatzen diot irakurleari. Lehen zatia dagokionez, identifikatu nahi dut zer gertaera soziali erantzuten dieten komunekiko interes berrituak eta mundu osoko landa- nahiz hiri-eremuetan antolatzen ari diren erresistentzia-forma berriek. Nabarmendu nahi dut itxitura berriak egiturazkoak eta sistemikoak direla, eta garapen kapitalistaren iraganeko joerei jarraitzen dietela; horren bidez, erakutsi nahi dut komunen inguruko interes gero eta handiagoa ez dela moda politiko iragankor bat. Gutako gehienontzat ere, gure iraupenerako behar dugun ondasunaren zatirik handiena itxituretan bildua aurkeztu zaigun mundu batean hazi garenontzat, komunen printzipioa nolabaiteko berme bat da, ez soilik

iraupen ekonomikorako, baita gizarte-ekintzarako eta el-kartasun sozialerako ere; esan nahi baita, geure buruarekin, ingurukoekin eta naturarekin harmonian bizitzeko eta bizitza on bat izateko; hau da, Hego Amerikan *buen vivir* kontzeptuaren bidez adierazten duten bizitza-mota.

BAT

METATZE PRIMITIBOA, GLOBALIZAZIOA ETA ERREPRODUKZIOA

Metatze primitiboari buruzko hausnarketak

«Metatze primitibo» kontzeptuaren esanahi politikoa testu ugaritan aztertu da, eta analisi horietan erdietsitako ondorioak «globalizazioa» aztertzeko erabili dira. Testu horien artean, honako hauek daude, besteak beste: *Midnight Notes* kolektiboaren 1990eko alea, «itxitura berriak» aztertzen dituen²²; David Harvey-ren teoria, «desjabetzearen bidezko metatze»ri buruzkoa²³; eta *Commoner* aldizkarian argitaratutako hainbat saiakera, metatze primitiboaren gainekoa.²⁴ Baina ez bakarrik akademiakoek, artistek ere aztertu dute metatze primitiboaren prozesua. Gogora dezagun, adibidez, 2010eko Principio Potosí/Das Potosí-Prinzip/The Potosí Principle erakusketa bikaina,²⁵ zenbait artista eta kontserbatzaile aleman, boliviarrak eta espainiarrek elkarlanean atondua;²⁶ lan haren bidez, erakutsi zuten jarraitutasun bat dagoela jatorri desberdineko bi iruditeria hauen artean: batetik, XVI. mendean –Mundu Berriko metatze primitiboaren unerik gailenenean– Andeetako eskualdeetan sortutako hainbat margolan

22 *Midnight Notes Kolektiboa*, *The New Enclosures*, *Midnight Notes* 10. zk. (1990).

23 David Harvey, *The New Imperialism* (Oxford: Oxford University Press, 2003).

24 Ikus *The Commoner* 2. zk. (2001eko iraila), 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <http://www.commoner.org.uk/?p=5>.

25 2010eko maiatzaren 12tik irailaren 6ra, diziplina-arteko erakusketa bat atondu zuten Espainia, Alemania eta Boliviako zenbait kontserbatzailek, Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía eta Berlingo Haus der Kulturen der Welt museoei bultzatuta. Une hartan, erakusketak oihartzun handia izan zuen, Latinoamerikako kolektibo eta artista anitzek kolonialismoaren aurkako diskurtso gogorrek plazaratu zituztelako. [I.O.]

26 Creischer, Alice, Max Jorge Hinderer, eta Andreas Siekmann, arg., *The Potosí Principle: Colonial Image Production in the Global Economy* (Kolonía: Verlag der Buchhandlung Walther König, 2010).

kolonialetan aurkitutakoa, eta, bestetik, globalizazio-programaren bizkarrezurra osatu duten «itxitura berri»etatik datorrena.

Testuinguru horretan, zenbait idazle feministaren lana ere oso garrantzitsua izan da; adibidez, Maria Mies, Mariarosa Dalla Costa eta Claudia von Werlhof-ena. Ikertzaile horiek ohartu ziren «zer neurritan oinarritu den orain arte ekonomia politiko modernoa ekoizleen, gizonen eta, batez ere, emakumeen mundu-mailako eta etengabeko desjabetzean eta desboteretzean».²⁷

Ikerketa eta ekarpen artistiko horiei esker, orain gai gara ohartzeko metatze primitiboa ez dela kapitalismoaren jatorrietara mugatutako gertaera historiko puntual bat, hau da, «metatzeren beraren» abiapuntua. Alderantziz, garai guztietako harreman kapitalisten fenomeno osagarri bat da, behin eta berriro errepikatzen dena; «metatze kapitalistaren etengabeko prozesuaren parte da»,²⁸ eta «denboran haren hedapenarekin batera gertatzen da».²⁹ Horrek ez du esan nahi metatze primitiboa «normalizatu» daitekeenik, edo gutxietsi egin behar genukeenik une haiek historian izan duten garrantzia –hau da, banantzeek, gerrek eta grina inperialak, «gizonak oldeka eta bat-batean haien bizibideetatik indarrez egotzi eta lan-merkatura jaurti zituztenak, proletario aske, babesgabe eta eskubiderik gabeko gisa»–.³⁰

Aitzitik, esan nahi duena da «ekoizlearen eta ekoizpen-bideen arteko bereizketa» –Marxen aburuz, metatze primitiboaren funtsa– behin eta berriz gauzatu beharreko zerbait gisa ulertu behar genukeela, batez ere krisi kapitalistaren garaietan, klase-harremanak zalantzan jartzen direlako eta, ondorioz, berriz zimendatu behar direlako. Marxen ikuspegiaren arabera, kapitalismoa garatzearekin batera, harreman kapitalistak «ageriko lege

27 Ikus Mariarosa Dalla Costa, «Capitalism and Reproduction», in *Open Marxism*, Vol. 3: *Emancipating Marx*, ed. Werner Bonefeld, John Holloway, eta Kosmas Psychopedis (Londres: Pluto Press, 1995), 7. or. -16. or.; Maria Mies, *Patriarchy and Accumulation on a World Scale* (Londres: Zed Books, 1986); Claudia von Werlhof, «Globalization and the 'Permanent' Process of 'Primitive Accumulation': The Example of the MAI, the Multilateral Agreement on Investment», *Journal of World-Systems Research* 6, no. 3 (2000): 731, 2018ko ekainaren 11n eskuratua, <http://jwsr.pitt.edu/ojs/index.php/jwsr/article/view/199/211>.

28 von Werlhof, «Globalization and the 'Permanent' Process of 'Primitive Accumulation'», 142.

29 Maurizio Lazzarato, *The Making of the Indebted Man: An Essay on the Neoliberal Condition*, Semiotext(e) Intervention Series 13. zk. (Cambridge, MA: MIT Press, 2012), 44.

30 Karl Marx, *Capital: A Critique of Political Economy*, 1. bol., Friedrich Engels arg., Ben Fowkes itz. (Londres: Penguin, 1990), 876.

natural» gisa ulertzen dituen langile-klase bat sortzen da;³¹ baina uste hori ez da zuzena, ez baita horrela gertatzen: lan-diziplina ezarri eta mantentzeko, ezinbestekoa da indarkeria –Marxen ustez, metatze primitiboaren sekretua–.³² Ez da harritzekoa, beraz, aurrekaririk gabeko borroka-ziklo baten amaieraren aurrean –kolonien aurkako borroka, langileen borroka, borroka feminista– 1960ko eta 1970eko hamarkadetan metatze primitiboa prozesu global eta itxuraz iraunkor bat bilakatu izana,³³ eta orain krisi ekonomikoak, gerrak eta lur-desjabetze masiboak agertzea munduaren bazter guztietan, produkzioa antolatzeko eta mundu-mailako metaketa antolatzeko ezinbestean bete beharreko aurrealdintza gisa. Lehenago aipatu ditudan eztabaida politikoei esker, orain hobeto uler dezakegu «itxiturek eragiten duten indarraren izaera»,³⁴ haren oinarrian datzan logika eta hark guretzat dituen ondorioak. Izan ere, munduko ekonomia politikoa metatze primitiboaren ikuspegitik aztertzen badugu, borroka-zelai batean kokatuko gara instant batean.

Dena den, garapen horren ondorio politikoak ondo ulertzeko, nahitaezkoa da metatze primitiboaren kontzeptua Marxek azaldutako esparrutik harago eramatea, hainbat alderdiri dagokienez. Lehenik eta behin, onartu behar dugu metatze primitiboaren historia ezin dela ulertu subjektu unibertsal abstraktu baten ikuspegitik. Izan ere, proiektu kapitalistaren oinarritzako alderdietako bat gizarte-gorputza desegitea izan da, eta, horretarako, harreman kapitalistak bizitzeko moduei sakonki eragiten dieten «desberdintasun»en eta hierarkien metaketa sorrarazten duten askotariko diziplina-erregimenak inposatu ditu. Horregatik, metatze primitiboa azaltzen duten hainbat historia dauzkagu, eta haietako bakoitzak harreman kapitalisten ikuspegi zehatz bat ematen digu, guztiak ere beharrezkoak harreman kapitalistak osotasunean berreraikitzeke eta kapitalismoak bote-reari eusteko erabilitako mekanismoak agerian jartzeko. Horrek esan nahi du ezin izango dugula erabat ulertu iraganeko eta gaur egungo metatze primitiboaren historia, baldin eta etorkizuneko

31 Marx, *Capital*, 1. bol., 899.

32 von Werlhof aipatzen ari naiz, «Globalization and the 'Permanent' Process of 'Primitive Accumulation'», 733.

33 Ikus von Werlhof, «Globalization and the 'Permanent' Process», 728.or. -47.or.

34 Massimo De Angelis, *The Beginning of History: Value Struggles and Global Capitalism* (Londres: Pluto Press, 2007), 134.

edo garai bateko langile soldatapekoen ikuspegitik idazteaz gain beste hainbat subjekturen ikuspegietatik ere idazten ez badugu, eta ikuspegi horien artean daude, besteak beste, esklabo bihurtuenak, kolonizatuenak, itxituren xede nagusi izaten jarraitzen duten lurretako herri indigenenak eta beste subjektu sozial askorenak, ezin direnak sartu soldatapekoen zaku berean gizarte kapitalistaren historian.

Caliban eta sorgina idatzi nuenean, metodologia hori erabili nuen metatze primitiboa aztertu nuenean «emakumeengan», «gorputzean» eta lan-indarraren erreprodukzioan izan dituen ondorioen ikuspegitik. Nire ustez, ikuspuntu horretatik begiraturaz gero, Marxen obrari begiratura baino askoz ere modu zabalagoan uler ditzakegu kapitalismoaren gorakada sustatu duten prozesu historikoak; izan ere, metatze primitiboa aztertzeke, Marx soldatapeko lana sortzeko ezinbestekoak diren aurrealdintzetan oinarritu zen nagusiki.³⁵

Ikuspegi historiko eta metodologiko bati dagokionez, oinarritzko bi prozesu egon dira. Batetik, erreprodukzio-lana –hau da, gizabanakoak eta lan-indarra erreproduzitzeko lana– «emakumeen lan»tzat jo da, alegia, gizarte-esparru bereizi bat, itxura batean harreman ekonomikoen esparrutik kanpo kokatua eta, beraz, debaluatua ikuspegi kapitalista batetik; prozesu hori gertatu den garai berean, landatarrak lurretik bereizi dira eta produktuen merkatua sortu da. Bestetik, instituzionalizatu egin da estatuak emakumeen sexualitatearen eta ugaltze-gaitasunaren gainean duen kontrola; abortua kriminalizatu egin da, eta emakumeen gorputzak –literalki– desjabetzen dituzten zaintza-eta zigor-sistemak ezarri dira.

Bi prozesu horiek harreman kapitalisten hedaduraren ezaugarri izan dira garai historiko guztietan, eta ondorio sozial erabakigarriak izan dituzte. Lan erreproduktiboa harreman ekonomikoen esparrutik egotzi da, eta, engainuz engainu, esparru «pribatu»aren eta esparru «pertsonal»aren –eta, batez ere, esparru «femenino»aren– zokora eraman, eta kapital-metaketatik «kanpo» kokatu delarik. Hartara, lan erreproduktiboa ez da ikusten lan gisa; ikusezin bihurtu da lanari dagokionez, eta

35 Federici, *Caliban and the Witch: Women, the Body and Primitive Accumulation* (Brooklyn: Autonomedia, 2004).

naturalizatu egin da haren esplotazioa.³⁶ Sexuaren araberako lan-banaketa berri bat ezartzeko oinarria ere izan da, orobat familia-antolamendu berri bat, emakumeak gizonen mende ipini dituen eta sozialki zein psikologikoki emakumeak eta gizonak are gehiago bereizi dituen. Era berean, estatuak emakumeen gorputzak eta haien ugaltze-gaitasuna bereganatu ditu, eta «giza baliabideak» arautzeko bideari ekin dio, lehen esku-hartze «biopolitiko» eginez –hitzaren esanahi *foucaultarra* aintzat hartuta–³⁷ eta kapitalaren metatzeri ekarpen bat eginez, proletarioen ugalketari dagokionez.³⁸

Erakutsi izan dudana bezala, XVI. eta XVII. mendeetako soragin-ehizak, Europako herrialde askotan eta Andeetako hainbat eskualdetan gertatu zirenak eta ehunka mila emakumeren exekuzioa ekarri zutenak, funtsezkoak izan ziren prozesu horretan. Erreprodukzio-lanaren antolamenduan gertatutako aldaketa historiko haiek guztiak ez ziratekeen posible izango –eta ez lirateke posible izango gaur egun– baldin eta emakumeen botere sozialaren aurkako eraso sendo bat gertatu izan ez balitz; era berean, garapen kapitalistak ez zukeen –eta ez luke– arrakastarik izan baldin eta esklaboaren salerosketarik existitu izan ez balitz; eta ez litzateke Amerikaren konkistarik gertatu izango baldin eta inperioak hartarako irrika gupidagabe bat izan ez balu –gaur egun ere badirauena– eta munduko proletarioak modu eragin-korrean bereizi zituen arraza-hierarkien sare bat eraiki izan ez balitz.

Metatze primitiboa eta erreprodukzio sozialaren berregituratzea mundu-mailako ekonomian

Suposizio horiek eta marko teoriko hori gogoan hartuta, aztertu nahi dut zer garrantzi duen «globalizazioak» metatze primitiborako prozesu gisa; kasu honetan, mundu-mailako eskalari begiratuta. Jakina, ikuspegi hori ez dator bat harreman kapitalistaren hedapenean bizitza sozialaren «demokratizazioa»

36 Ikus *Caliban eta sorgina*, bereziki 2. kapitulua; Leopoldina Fortunati, *The Arcane of Reproduction: Housework, Prostitution, Labor and Capital*, arg. Jim Fleming, itz. Hillary Creek (Brooklyn: Autonomedia, 1995).

37 Foucault-ek *biopolitika* kontzeptua erabili zuen XVIII. mendean, Europar agertu zen botere-forma berri bat deskribatzeko; bizi-prozesuak –osasuna, gaixotasuna eta ugalketa– arautzearen bidez gauzatu ohi zen.

38 Marx, *Capital*, 1. bol., 764.

ikusten duen teoria neoliberalarekin. Era berean, ez dator bat marxista autonomisten ikuspuntuarekin; haien ustez, mundu-mailako ekonomia berregituratzen ari da, eta, informatikaren eta informazioaren alorreko iraultzan eta kapitalismo kognitiboaren gorakadan oinarrituta, garapen kapitalistaren fase hau lanaren autonomaziorantzko urrats gisa deskriba daiteke.³⁹ Aitzitik, nik iradokitzen dudana da berregituratze horren zutoina gure erreprodukzio-biderik oinarritzkoenen –lurra, etxea eta soldata– aurkako baterako eraso bat izan dela, helburu duena mundu-mailako lan-indarra areagotzea eta lanaren kostua drastikoki txikitzea.⁴⁰ Egiturazko doikuntza, ongizate-estatuaren desegitea, erreprodukzioaren finantzarizazioa –zorraren eta hipoteken krisira garamatzana– eta gerra: askotariko politikak behar izan dira beste behin ere metaketarekiko grina aktibatzeke. Baina, politika desberdinak izanda ere, gure «ondasun komunalak» suntsitu dituzte kasu guztietan, eta ez da ezertan igarri azken urteetan asko ugaltu izana grina haren sortzailak, Txinaren eta suspertzen ari diren beste botere kapitalista batzuen etorrerarekin, zeinek bat egin baitute Munduko Bankuarekin, Nazioarteko Diru Funtsarekin, Munduko Merkataritza Antolakundearekin eta erakunde horiek guztiak babesten dituzten gobernuekin. Itxura eta berezitasun nazionalista ororen atzean, logika bakarra dago metatze primitiboaren molde be-

39 Hardt-ek eta Negri-k hainbat lanetan –hasi *Empire*tik (Cambridge, MA: Harvard University Press, 2000) eta *Commonwealth*era arte (Cambridge, MA: Harvard University Press, 2009)– garatutako eztabaidari buruz ari naiz hemen. Haien esanean, garapen kapitalistaren egungo fasean –ezaugarri nagusi duena, itxura batean, lan immateriala gailentzeko joera–, kapitalistak aldendu egiten dira lan-prozesuaren antolamendutik, eta langileek beren lanaren kondizioekiko autonomia eta kontrol handiagoa lortzen dute. Teoria horrek Marxi jarraitzen dio, garapen kapitalistaren izaera progresiboa nabarmentzen duen neurrian, baldin eta aurreratze hori ulertzen bada langileen borroken bidez adierazitako helburuen eguneratze (behartu) baten gisa, zeina kapitalismoak bere helburuen artean txertatu behar baitu, bere interesen aurka, metatze-prozesua berriz aktibatu ahal izateko. Teoria horri eta, bereziki, kapitalismo kognitiboari buruzko kritika bat irakurtzeko, ikus George Caffentzis eta Silvia Federici, «Notes on Edu-factory and Cognitive Capitalism», in *Toward a Global Autonomous University: Cognitive Labor, the Production of Knowledge, and Exodus from the Education Factory*, arg. the Edu-factory Collective (Brooklyn: Autonomedia, 2009), 119.or. -24.or.; Federici, «On Affective Labor», in *Cognitive Capitalism, Education and Digital Labor*, arg. Michael A. Peters eta Ergin Bulut (New York: Peter Lang, 2011), 57.or. -74.or.

40 Federici, «The Reproduction of Labor-Power in the Global Economy», in *Revolution at Point Zero: Housework, Reproduction, and Feminist Struggle* (Oakland: PM Press, 2012).

rrien oinarrian: lan abstraktu batera mugatutako lan-indar bat osatzea; lan-indar hutsa, bermerik gabea, babesik gabea, leku batetik bestera eta lanpostu batetik bestera mugitzeko prest dagoena, batez ere epe laburreko kontratuekin eta ahalik eta soldatarik txikienekin.

Zein da garapen horren esanahi politikoa? Onartuta ere metatze primitiboa bizitzaren eta lanaren parte endemiko bat dela kapitalismoaren barruan (Massimo De Angelisek, beste batzuen artean, behin eta berriro esan izan duen bezala),⁴¹ nola azaldu dezakegu bostehun urtez mundu osoko langileak gupidagabeki esplotatu ondoren klase kapitalistak, bere gauzatzemolde ugarietan, oraindik ere mundu zabaleko jende-oldeak pobretzeko beharrizana izatea?

Galdera horrek ez du erantzun argirik. Baina, kontuan hartzen badugu zer neurritan ari den aldatzen «globalizazioa» erreprodukzio sozialaren antolamendua, zenbait ondoriotara irits gaitezke. Ohar gaitezke kapitalismoak biztanle-kopuru mugatu bati soilik bete diezazkiola poltsikoak oparotasunez, eta bakarrik denbora-tarte mugatu batez; biztanle haien behar eta guriarik errentagarritasunaren xedeak ezarritako mugak gainditu bezain laster, kapitalismoa haiek suntsitzeko prest egongo da (azken hamarkada luzeetan egin duen bezala, globalizazio-prozesuaren bidez). Ohartzen gara, bereziki, asmoa ez zela, inondik ere, Bigarren Mundu Gerraren ondoren herrialde industrialetako langile soldatapekoek lor zezaketen oparotasun mugatua mundu osora zabaltzea. Afrikako eta Asiako plantazio kolonialetako matxinadak ghettoetara, fabriketara, eskoletara, sukaldeetara eta baita gerrako frontera ere iristen hasi ziren heinean, hala-ko moldez eragin zioten soldata handiagoen eta produktibitate handiagoaren arteko harreman fordistari, halaber (barruko zein kanpoko) koloniak lan merke eta ordainik gabearen gordailu gisa erabiltzeari, non klase kapitalistak krisiei aurre egiteko beti eskura izan duen estrategia berari heldu behar izan baitzion: indarkeria erabiltzea, ondasunak desjabetzea eta munduko lanmerkatua hedatzea.

Marx baten beharra izango genuke zeregin horretarako mobilizatu diren indar sozial suntsigarriak azaltzeko. Sekula ez

41 De Angelis, *The Beginning of History*, 136.or. -41.or.

zaio eraso egin horrenbeste jenderi, ez eta hainbeste tokitatik aldi berean ere. Globalizazioak munduko toki askotan eragin dituen mailako esplotazio-molde gogorak aurkitzeko, esklaboen salerosketara itzuli behar genuke. Esklabotzaren hainbat molde berragertzeaz gain, gosetea ere itzuli da, eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetan pentsaezinak izango liratekeen esplotazio-molde kanibalistak azaleratu dira; esate batera, giza organoen trafikoa. Herrialde batzuetan, ilearen salmenta bera ere ernaberritu da, XIX. mendeko eleberriak gogora dakartzan jarduna. Eragin-dako laurogei eta gehiago herrialdeetan, globalizazioa tratatu gabeko gaixotasun baten istorioa izan da, bizitza galduea, etsipenarena. Munduaren zatirik handienez, pobrezia aurrez inoiz ikusi gabeko mailara iritsi da, eta, orain, biztanleen %70i baino gehiagori eragiten die. Afrikan, Saharaz mendebaldeko herrialdeetan, 2010. urtean 239 milioi pertsona bizi ziren pobrezian,⁴² gosete kronikoa pairatzen eta malnutrizio-egoeran; bitartean, kontinentearen luze-zabalean diru-kopuru eskandalagarriak desbideratzen ziren Londreseko, Pariseko eta New Yorkeko bankuetara.

Garapen kapitalistaren lehen fasean bezala, politika horiek emakumeei eragin diete nagusiki, batez ere diru-sarrera gutxi-ko emakumeei eta emakume beltzei. Jatorrizko komunitateetan ez dutenez beren buruak eta beren familiak erreproduzitzeko baliabiderik, beren lana munduko lan-merkatuan saldu behar dute, berenak ez diren familiak eta haurrak erreproduzitzen beren komunitateetatik aldentzen dituzten kondizioetan, beren lan erreproduktiboa are abstraktuagoa bihurtzen dutenak eta murrizketa- eta zaintza-molde askotarikoen mende jartzen dutenak. Hori egin behar ez izateko, emakume askok adopzioan ematen dituzte beren umeak, edo ama subrogatu gisa lan egiten dute, edo (berrikiago) beren obuluak laborategi medikoei saltzen dizkiete, ama zelulen ikerketarako. Haur gutxiago ere izaten dituzte, antzutu egiten baitira diru-sarrerak segurtatzeko beharrak estututa. Edonola ere, emakumeek beren erreprodukzioa kon-

42 FAOk (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea) argitaratutako estatistiken arabera; gainera, egindako kalkuluen arabera, munduko ia mila milioi pertsonak pobrezia eta gosea pairatzen dute; ikus «Africa Hunger Facts», *Hunger Notes*, 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://www.worldhunger.org/africa-hunger-poverty-facts/>.

trolatzeko duten gaitasuna erasoia izaten ari da munduko toki guztietan. Paradoxikoki –eta, berriz ere, gogora ekarriz emakumeak gizarte kapitalistan sartzea eragin zuten kondizioak, bi mendez luzatu zen sorgin-ehiza sustatu zutenak–, berentzat eta beren familientzat elikagaiak lortzea ia ezinezko bihurtzen duen klase politiko bera da abortatzen saiatzeagatik kriminalizatzen dituen. AEBn, haurdun egote hutsak etengabeko arriskuan jar-tzen ditu emakume pobreak; batez ere, emakume beltzak.⁴³

Haien iraupen-jarduerengatik ere erasotzen diete emakumeei, bereziki iraupen-nekazaritzan dihardutelako –batez ere, Afrikan–, jarduera horrek oztopatu egiten baitu Munduko Bankua egiten ari den ahalegina lurren merkatua sortzeko eta natura-baliabide guztiak enpresa komertzialen eskuetan uzteko. Beste inon ere idatzi izan dudan bezala,⁴⁴ Munduko Bankua si-netsita dago dirua dela produktiboa den gauza bakarra, eta lurra antzua dela eta pobretzea eragiten duela, baldin eta iraupene-rako «bakarrik» erabiltzen bada. Beraz, iraupen-nekazaritzaren aurkako kanpaina egiteaz gain –nekazaritza-legearen erreformaren bidez, jabetza-titulu indibiduala sustatuz eta ohiturazko lur-jabetza ezereztuz–, eginahalak egin ditu emakumeak diru-harremanen kontrolpean jartzeko –esate batera, mikrofinantzak sustatuz–, eta politika horrek maileguen kudeatzaile diren Mun-duko Bankuaren eta GKE-en zerbitzari kontratudun bilakatu ditu milioika pertsona.⁴⁵ Beraz, hainbat urtez jardun ondoren popula-zioaren kontrola sustatzen, antisorgailuak barra-barra salduta, orain bankua emaitza bera lortzen ari da, emakumeei eragotziz iraupen-nekazaritzatik bizibidea ateratzea; eta horrek, bankuak dioenaren kontrara, bizitzaren eta heriotzaren arteko aldea esan

43 Ikus Lynn M. Paltrow eta Jeanne Flavin, «Arrests of and Forced Interventions on Pregnant Women in the United States, 1973-2005: Implications for Women's Legal Status and Public Health», *Journal of Health Politics, Policy and Law* 38, 2. zk (2013ko apirila); Lynn M. Paltrow eta Jeanne Flavin, «New Study Shows Anti-Choice Policies Leading to Widespread Arrests of and Forced Interventions on Pregnant Women», *Rewire News*, 2013ko urtarrilaren 14a, 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://rewire.news/article/2013/01/14/new-study-reveals-impact-post-roe-v-wade-anti-abortion-measures-on-women/>.

44 Federici, «Witch-Hunting, Globalization and Feminist Solidarity in Africa Today», *Journal of International Women's Studies* 10, 1. zk. (2008): 21.or. -35.or.; berrinprimaketa: Federici, *Witches, Witch-Hunting, and Women* (Oakland: PM Press, 2018), 60.or. -86.or.

45 Ikus Lamia Karim, *Microfinance and Its Discontents: Women in Debt in Bangladesh* (Minneapolis: University of Minnesota Press, 2011).

nahi du milioika pertsonarentzat.⁴⁶ Hau ere garrantzitsua da, eta, gainera, dokumentatuta dago: emakumeen aurkako indarkeria instituzionalaren ondorioz, halaber beren bizitzan zutoin diren jardueren debaluazioaren kausaz, emakumeek indarkeria handiagoa jasaten dute beren komunitateetako gizonen aldetik. Izan ere, soldatak txikitu direnez eta lurrak erabiltzeko aukera gutxiago daudenez, gizon ugarik mundu-mailako merkatura iristeko zubi gisa ikusten dituzte emakumeen lana eta emakumeen gorputza –eta, askotan, baita emakumeen bizitzak ere–; adibidez, emakumeen trafikoarekin eta ezkonsariak eskuratzeko erailketekin gertatzen den bezala. Globalizazioarekin batera, sorgin-ehiza ere itzuli da; munduko hainbat eskualdetan –Afrikan eta Indian, bereziki–, gizon gazte eta langabetuek sorgin izateaz salatzen dituzte emakumeak, haien lurrak eskuratu ahal izateko.⁴⁷

Hamaika adibideren bidez azal daiteke nola errepikatzen dituen globalizazio-prozesuak metatze primitiboaren molde zaharrak. Halere, nire helburua ez da azaltzea zer forma zehatzekin itzuli den metatze primitibo hori. Ulertu nahi dut zer erakusten digun itzulera horrek sistema kapitalistaren izaerari buruz, eta zer iragartzen duen etorkizunerako.

Ikuspegi horrekin ikus dezakegun lehen gauza da ezen, lehen bezala orain, metatze kapitalistak lanaren metatze esan nahi duela, eta, horrenbestez, mundu-mailako miseria eta eskasia ekoizten jarraitzeko beharra duela. Oraindik ere, giza bizitza narriatzen jarraitzeko beharra du, eta ezinbestekoa du generoan, arrazan eta adinean oinarritutako hierarkia eta bereizketa sozialak eraikitzen jarraitzea. Eta, are garrantzitsuagoa dena, bost mendeko garapen kapitalistaren ondoren ere hor egoten jarraitzen duenez, argi geratzen da «jatorrizko bekatu» horiek sistema kapitalistaren egituraren parte direla, eta, beraz, ez dagoela hura erreformatzeko modurik. Izan ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako askapen-mugimenduak garaitzeko nazioarteko kapitalak abiatutako programa ekonomiko eta sozialen ondorioz, etorkizuneko belaunaldiek produkzio-kondizioak hauek ezagutuko dituzte: desjabetzea (lurrarena eta eskuratutako eskubide guz-

46 Sharon Hostetler et al., *'Extractivism': A Heavy Price to Pay* (Washington, DC: Witness for Peace, 1995), 3.

47 Hostetler et al., *'Extractivism'*, 3.

tiena); diru-sarrerak eta enplegua lortzeko zailtasun handia; ziurtasunik eta segurtasunik gabeko bizitza; eta arrazan eta sexuan oinarritutako hierarkia gero eta nabarmenagoak. Nabarmena denez, globalizazioak eskualde guztietako autosufizientzia ahultzen du, eta erabateko interdependentzia ekonomikoa sortzen du, baita urrutiko herrialdeen artean ere; modu horretan, elikagaien krisi errepikariak eragiten ditu, eta, horrez gain, lana eta ingurumena mugagabeki esplotatzeko beharra sustatzen du.

Iraganean bezala, orain ere lurraren itxiturak daude prozesu horren oinarrian. Prozesu hori oso hedatuta dago, eta, orain, iraganean inork ukitu ez zituen eremuak ere, komunitate landatarrei erreproduktzioarako baliabideak eskaintzen zizkietenak, pribatizatzen ari dira; eremu horiek gobernuek eta konpainiek berenganatzen dituzte, mea erauzteko eta beste egitasmo komertzial batzuetarako. Eskualde ugartan, «estraktibismoa»⁴⁸ gero eta handiagoa da, eta, gainera, lurak indarrez kentzen ari dira, bioerregaia ekoizti ahal izateko. Horren guztiaren ondorioz, lurraren jabetza komunala legearen bidetik desagertzen ari da. Bestalde, lur-eremu izugarria ari dira desjabetzen, eta, ondorioz, Marxek azaldutako egoerara hurbiltzen ari gara: «Gizartearen zati batek zerga bat eskatzen dio beste zatari, munduan bizitzeagatik, ez besterik; era berean, lurren jabetzak esan nahi du, oro har, jabeak eskubidea duela esplotatzeko hala lurraren azala nola lurraren erraiak eta airea eta, hartara, baita bizitzaren iraupena eta garapena ere».⁴⁹

Afrikaren kasuan, zehazki, gaur egungo joerak aurrera eginez gero, eta egindako kalkuluen arabera, biztanleen %50 kontinentetik kanpo biziko da XXI. mendearen erdialderako. Harelere, baliteke salbuespen bat ez izatea, eta munduko beste toki batzuetan ere gauza bera gertatzea. Globalizazioak eragindako pobretzearen eta lekualdatzeen ondorioz, langilea migratzaile

48 Gobernuek estraktibismoaren bidez finantzatzen dituzte haien programa ekonomiko eta politikoak, alegia, haien herrialdeetako baliabide mineralak esportatuta; kritikariak arabera, jarduera horrek pobrezia eta barne-kolonizazioko prozesu bat eragiten ditu. Termino hori, batez ere, Latinoamerikako teoriarik sozialak erabili dute (besteak beste, Alberto Acosta, Louis Tapia, Raúl Zibechi eta Maristella Svampa-k), Bolivia, Ekuador eta Brasilgo gobernu itxuraz progresisten politika ekonomikoak deskribatzeko eta kritikatzeko.

49 Karl Marx, *Capital, A Critique of Political Economy*, 3. bol., arg. Friedrich Engels, itz. Ben Fowkes (Londres: Penguin, 1993), 908.or. -9.or.

bihurtu da munduko toki guztietan; ibiltari,⁵⁰ errefuxiatu. Kapitla abiadura handian mugitzen da, eta tokiko ekonomiak eta tokiko gatazkak suntsitzen ditu; gainera, lurraren barreneko petrolio-tanta eta mineral oro zukutzeko irrika gupidagabea du, eta horrek suntsitze-prozesua bizkortzen du.

Beraz, ez gara harrituko baldin eta ikusten badugu egoera horretan langile-klasearen bizi-itxaropena gero eta txikiagoa dela, baita «herrialde aberats»etan ere, hala nola Alemanian eta AEBn. Gainera, adituek uste dute «pobreak» beren gurasoak baino urte batzuk gutxiago biziko direla, eta, baieztatzen bada, Bigarren Mundu Gerraz geroztiko lehen aldia izango da.⁵¹ Bitartean, «Hirugarren Mundu»ko herrialde batzuk XVI. eta XVIII. mendeen bitartean ohikoena zen egoerara hurbiltzen ari dira, hau da, langile-klaseak ozta-ozta lortzen du bere burua erreproduzitzea. Hala, bada, enpirikoki egiaztatu da Marxek *Manifestu Komunistan* esandakoa, alegia, garapen kapitalistak langile-klasearen erabateko pobretzea dakarrela berekin. Beha dezagun, adibidez, 1980ko hamarkadatik aurrera «hegoaldetik iparraldera» gerta-

50 «Ibiltari» terminoa erabili zuen Randy Martin-ek prozesu hori deskribatzeko, *Financialization of Daily Life* lanean (Philadelphia: Temple University Press, 2002).

51 Maurizio Lazzarato-k aipatu bezala, Alemanian, soldata baxuak irabazten dituzten pertsonen bizi-itxaropena 77,5 urtetik 75,6 urtera jaitsi da 2011n, eta ekialdeko Alemanian, berriz, 77,9tik 74,1era. Lazzarato dioenez, bide horretatik jarraituz gero, hau da, beste hogeitaz urtez murrizketak eta «Gizarte Segurantzaz salbatzeko» ahaleginak egiten jarraituz gero, erretiratzeko adina heriotzaren adinarekin bat egitera iritsiko da; *The Making of the Indebted Man*, 177. AEBn, pobreen bizitzak laburragoak dira. *Journal of Health Affairs* argitalpenaren abuztuko alearen arabera, 1990 eta 2008 bitartean jaitsi egin zen pertsona beltzen eta oinarritzko hezkuntza amaitu ez zuten emakume eta gizon zurien bizi-itxaropena. Azterketan ikusi zen 16 urtez edo gehiagoz hezkuntza jaso duten gizon zuriak 12 urtez edo gutxiagoz hezkuntza jaso duten gizon beltzak baino 14 urte gehiago bizi zirela, eta aldeak handitzen ari dira. 1990ean, hezkuntza gehien jasotako gizonak hezkuntza gutxien jasotakoak baino 13,4 urte gehiago bizi ziren; emakumeen kasuan, bien arteko aldea 7,7 urtekoa zen. Azterketa hartan, aurkikuntzarik harrigarriena izan zen egiaztatzea zer azkar ari den handitzen bien arteko aldea. Adibidez, «1990ean, hezkuntza gehien eta gutxien jaso zuten emakume zurien bizi-itxaropenen arteko aldea 1,9 urtekoa zen; gaur egun, 10,4 urtekoa da». Deirdre Griswold, «Racism, Schooling Gap Cuts Years from Life», *Workers World*, 2012ko irailaren 27a, 2018ko ekainaren 2an eskuratu, <https://www.workers.org/2012/09/27/racism-schooling-gap-cut-years-from-life/>. AEBko pertsona zurien bizi-itxaropenaren jaitsierari buruz, ikus Linda Tavernese, *New York Times*, 2012ko irailaren 20a. Tavernesek dioenez, hezkuntza gutxien jaso duten pertsona zurien bizi-itxaropena lau urte jaitsi da 1990 eta 2012 bitartean. Opioiden epidemiak ere asko azkartu du AEBko bizi-itxaropenaren jaitsiersa azken urteetan. Ikus Olga Kazan, «A Shocking Decline in American Life Expectancy», *Atlantic*, December 21, 2017ko abenduaren 21a, 2018ko ekainaren 21a, <https://www.theatlantic.com/health/archive/2017/12/life-expectancy/548981/>.

tzen ari den migrazio etengabea, batez ere behar ekonomikoak eta enpresek baliabide mineralen alorrean erakutsitako lukurre-riak eragindakoa. Gainera, esaten digute pobretze ekonomiko horrek ez duela irtenbiderik. Ziurtaturik –beren armategi militarren laguntzarekin– ezen, nahi eta nahi ez, munduko biztanleen %99ak ez duela kapitalismoaren mende bizi beste aukerarik, eta sinistuta kapitalismoa mundu osora zabaltzeak merkatu oparoak eta lan-indarraren eskaintza zabal bat eskainiko dituela, klase kapitalista ahalegin gutxi egiten ari da aurrerabiderako, eta esaten du krisiak eta katastrofeak bizitza ekonomikoaren alderdi saihestezinak direla; nolanahi ere, azkar baino azkarrago deuseztatu ditu mende bateko baino gehiagoko langile-borroken bidez lortutako eskubideak.

Esango nuke, halere, konfiantza hori tokiz kanpo dagoe-la. Optimismoan erori gabe –arduragabea izango bailitzateke, kontuan hartuta gure begien aurrean gertatzen ari den hondamendi izugarria–, baieztatuko nuke kontzientzia bat zabaltzen ari dela mundu guztira, gero eta gehiagotan ekintza izatera heltzen dena, eta jendea ohartzen ari dela kapitalismoa «eutsiezina» dela eta munduko biztanle gehienentzat premiazkoa dela ekonomia-sistema desberdin bat sortzea. Izan ere, lan-indarra erreproduzitzeko gai ez den sistema bat, krisiaz gain eskaintzeko ezer ez duena, heriotzara kondenaturik dago. Hainbat mende planetaren bazter guztiak esplotatu ondoren, kapitalismoa ez da gai ezta biztanle guztiei erreprodukziorako gutxieneko kondizioak eskaintzeko ere, eta, gainera, milioika pertsona bizi-kondizio tamalgarrietara amiltzen jarraitzen du. Hortaz, argi eta garbi esan dezakegu sistema horrek erreka jo duela eta beste sistema baten beharra dugula. Gainera, epe luzera begira, sistema politiko batek ezin dio bere buruari eutsi soilik indarra erabilita, eta argi dago sistema kapitalistak indarra besterik ez duela eskueran eta bere aurkarien kontra erabiltzen duen indarkeriari esker soilik iraun dezakeela.

BI

ITXITURA BERRIAK: SARRERA (MIDNIGHT NOTES KOLEKTIBOA)

Alde batetik begiratuta, ekoizleak soldatapeko langile izatera bultzatu dituen mugimendu historikoa langileak zerbitzaritzatik eta gremioen bilurretatik askatzera eramane dituen bide gisa ikusten da; nolana ere, alde hori gure historialari burgesek bakarrik ikus dezakete. Beste aldetik begiratzuz gero, oster, oharuko gara ezen gizon askatu berri haiei beren bizibideak lapurtu zizkietela lehen-lehenik, orobat antolamendu feudal zaharrari esker bermatuta zuten bizimodua, eta, behin hori eginda, beren buruak salgai jartzera behartu zituztela. Gertaera haren historia, haien desjabetzearena, suz eta garrez idatzita dago gizateriaren historian.

Karl Marx, *Kapitala*, 1. bolumena.

Sambo otzana gauetik egunera bihur zitekeen, eta bihurtu zen, Nat Turner iraultzailea. Afrikako gizarte konplexuenetako jende haien gidaritzapean, esklaboak borrokatu egin ziren eta ihes egin zuten, lapurtu eta errugabe-itxurak, egin zituzten; makal antzean jardun zuten lanean, gogor ziharduten plantak egiten zituzten bitartean. Eta bizirik iraun zuten, hurrengo egunean ere borrokan jarraitzeko.

George Rawick, *From Sundown to Sunup: The Making of the Black Community* (1973)

Glasnost; Gerra Hotzaren Amaiera; Europa Batua; *We are the world* [Gu gara mundua]; Amazoniako oihana salbatu.

Gure garaiko eslogan adierazgarriak dira. Irekitasun historikoaren, globalismoaren eta muga politiko eta ekonomikoen gainbeheraren garaia iradokitzen dute. Alabaina, azken hamarkada honetan gertatu da historian inoiz ikusi izan den komuna materialen itxiturarik handiena. Sarrera honetan, azalduko dugu

zer esanahi eta zer garrantzi duten itxitura zahar eta berriek mundu-mailako klase-borrokan.

Antzinako itxiturak prozesu kontrairaultzaile baten ondorio izan ziren, zeinaren bidez, 1400eko hamarkadaren hasieran, mende luze batez soldata handiak jaso ondoren eta aginte feudalaren gainbehera bizi eta gero, Ingalaterrako estatu-funtzionarioek eta lurjabeek lurrak eta komunak desjabetu baitzizkieten nekazariei. Lehenik, behartsu, arlote eta eskeko bihurtu ziren, eta, gero, soldatapeko langile; bitartean, lurra nekazaritza-produktuen nazioarteko merkatu sortu berriaren zerbitzura jarri zuten.

Tradizio marxistaren arabera, itxiturak gizarte kapitalistaren abiapuntua izan ziren.⁵² «Metatze primitiboaren» oinarritzko tresna izan ziren, zeinaren bidez erreprodukzio-bideetatik «aske» zegoen langile-multzo bat sortu baitzen, (denborarekin) soldata baten truke lan egitera behartua izan zena. Itxiturena, hala ere, ez da garai jakin bateko prozesu bat, kapitalismoaren ernatzearekin agortu zena; behin eta berriro agertzen dira metatze kapitalistaren bidean, eta klase-borrokaren egituraren osagai dira.

Akabo akordioak

Gaur egun, beste behin ere, itxiturak dira munduko proletario guztien bizipen komuna. Gure mendeko diasporarik handiena bizi dugun honetan, kontinente guztietako milioika pertsona beren lur, lanbide eta etxetatik deserrotu dituzte, gerraren, goseteen, izurriteen eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) agindutako debaluazioen bidez –apokalipsi modernoko lau zaldunak–; orain, pertsona horiek munduaren luze-zabalean barreiatuta daude.

Nigerian, militarrek jabetza komunaleko lurretatik kanporatzen dituzte biztanleak, Munduko Bankuaren jabetzakoak diren eta hark kudeatzen dituen plantazioei leku egiteko. Neurri horiek justifikatzeko, gobernuak «zorren krisia» eta hura konpontzeko diseinatu omen duen «egiturazko doikuntzarako programa» erabiltzen ditu. Nigeriako doikuntza-programa Asian,

52 Kapitalismoaren garapenean gertatutako itxitura-prozesuari buruzko Marxen analisis irakurtzeko, jo hona: *Capital: A Critique of Political Economy*, 1. bol., Friedrich Engels arg., Ben Fowkes itz. (Londres: Penguin, 1990), 8. zatia, 26. kap: «The Secret of Primitive Accumulation».

Afrikan eta Latinoamerikan aplikatutakoen antzekoa da. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, nekazaritzaren komertzializazioa eta ekonomiaren desmonetizazioa; azken hori debaluazio masiboen bidez gauzatu da, eta dirutan ordaindutako soldata paperaren baliora murriztu du. Horren ondorioz, herrixketako komunitateak suntsitu egin dira, eta haietako biztanleek emigraziora jo behar izan dute.

Ameriketako Estatu Batuetan ere, milioika pertsona dau-de etxerik gabe eta etengabe lekuz aldatzen. Sarri aipatzen dira horrek guztiak eragin dituen berehalako ondorioak: etxaldeek krisia, errentek eta hipotekek soldatekiko izan duten gehiegizko igoera, etxebizitza hutsen pilaketa eta gentrifikazio-prozesua, babes-sare sozialaren gainbehera, eta, azkenik, sindikatuen porrota. Edonola ere, faktore horien atzean errealitate komun bat dago. Amaitu da, jada, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo klasearteko akordioa, produktibitatea areagotzearen truke soldata-igoera erreala bermatzen zuena; gainera, haren gainbeheratik ihes egitea lortu dutenak ere komuna naturalen galera pairatzen ari dira, ozono-geruza desagertzen ari delako eta basoak erre egiten direlako. Bestalde, Txinan ere itxitura berriak ditugu. «Merkatu-ekonomiara»ko trantsizioaren ondorioz, ehun milioi pertsonak molde komunalean landutako lurrak atzean utzi eta beste leku batzuetara jo behar izan dute. Bitartean, hiritarrek ere ziurtzat jotzen zituzten fabrika- eta bulego-lanen galerari aurre egin behar diote, eta, soldata bilatuko badute, hiri batetik bestera migratu behar dute. «Burdinazko arroz-katilua»⁵³ mila puska egiteko zorian dago, eta antzeko egoera sortzen ari da Sobietar Batasunean eta Ekialdeko Europan.

«Zor-krisia», «etxegabetasuna» eta «sozialismoaren gainbehera»; hedabideek eta ezkerrek, askotan, fenomeno bereizi gisa lantzen dituzte. Alabaina, guztiak dira planeta osoan gertatzen ari den prozesu bateratu bakar baten alderdiak, modu desberdin baina erabat interdependenteetan garatzen direnak. Gure garai honetako metatze kapitalistaren logikaren barruan, Txinako merkataritza askeko eremuan pribatizatu eta New Yorkeko banku komertzial bati saldutako fabrika bakoitzeko, edo,

53 Txinerazko esamolde bat da; lana, soldata eta horiekin batera datozen onurak bizi osorako ziurtatuta dituen lanpostua izatea adierazten du (iturria: Wikipedia, «iron rice bowl» sarrera). [I.O.]

beste adibide bat jartzearren, Afrikan zein Asian «zorrazkioen truk» gisako ekintza baten kariatara Munduko Bankuak gauzatutako garapen-proiektu baten ondorioz itxitako lur-eremu bakoitzeko, itxitura baliokide berri bat sortu beharra dago AEBn edo Mendebaldeko Europan. Hirugarren Munduan «eskubide komunalak» edo Sobietar Batasunean zein Txinan «eskubide sozialistak» murrizten diren bakoitzean, zerbait kentzen zaie AEBko «eskubide sozial» itxuraz sakratuei. Eta kentze hori hain da erabatekoa, ezen gizakia izatearen definizioa bera ere auzitan jartzen baita.

Itxitura berriak 1970eko hamarkadaren erdialdetik abian izan den metatze-prozesuaren eskala handiko berrantolataketaren adierazgarri dira, zeinaren helburu nagusia baita langileak eremu borrokarako antolatuetatik erauztea; hala, afrikar esklaboak Ameriketara lekualdatu zituztenean bezala, langile deserrotuek ingurune arrotz batean lan egin behar dute, jatorrizko bizilekuetako lantokietan izango lituzketen erresistentzia-formetara jotzeko aukerarik gabe. *Horrenbestez, beste behin ere, kapitalismoaren hastapenetan bezala, txiroek, eskekoek, gaizkileek, kale-saltzaileek, fabrika klandestinoetan lan egiten duten errefuxiatuek, mertzenarioek eta istilu-sortzaileek osatzen dute munduko proletarioen fisionomia.*

Itxitura berrien metodoak eta ondorioak

Nola funtzionatzen dute itxitura berriek? Itxitura zaharrek funtzionatzen zuten bezala, hau da, iraupena bermatzen duten baliabideen gaineko kontrol komunala etenda. Egun, ordea, oso herri gutxik ase ditzakete haien beharrak beren lurrekin eta beren lanarekin. Indonesiatik Amazoniara bitartean aurki daitezkeen azken herri «aborigenak» indarrez eramaten dituzte gobernuen kontrolpeko erreserbetara. Gehienetan, Hirugarren Munduko gaur egungo «nekazariak» New Yorkera migratu anai-arrebek bidalitako diruari esker bizi diren pertsonak dira. Batzuek kondiziorik arriskutsuenetan lan eginez lortzen dute dirua, edo mitxoletak zein koka-hostoak haziz esportaziorako, moneta sendoak dakartzatenen aurrean prostituituz (moneta sendoa da garaiotako afrodisiakorik handiena, bakarra ez bada). Beste batzuek gertuko hirietara edo atzerrira migratzen dute, eta hango jornalari-saldoekin, kale-saltzaileekin edo «enpresa-ere-

mu aske»ko langileekin bat egiten dute, zeinen lan-baldintzak jaioterriko mitxoleta-plantazioetakoak baino arriskutsuagoak izaten baitira.

Iraganean egiten zen era bertsuan, itxitura berriak gauzatzeko metodo ohikoenetako bat da zorra kitatzearen truke lurak bahitzea. Zorrak kitatzeko, Tudorren gorteak lur komunalen sail itzelak saldu zizkien bere hartzekodunei; era bertsuan, Afrikako eta Asiako egungo gobernuek nekazaritza-lurak kapitalizatzen eta «arrazionalizatzen» dituzte, atzerriko zorak baldintza horien arabera soilik «barkatzen» dituzten NDFko auditoreak asetzeko. XVIII. mendeko Eskozian, Highlands-etako klanetako buruak eta tokiko merkatariei bankariak azpajokoan aritu ziren biak bietara, eta zorrak kitatzearen truke klaneko kideen «lurak hustea» adostu zuten. Era bertsuan, Afrikako eta Asiako tokiko buruek lur komunalen eskubideak trukatzeko dituzte, ordaindu gabeko maileguak kitatzeko. Lehen eta orain, emaitza bera da: ohiturazko eskubide eta iraupen-moldeak suntsitzea. Hori da, hain zuzen ere, «zorkrisi»aren sekretua.

Itxitura berrien eraginez, langileriaren gehiengoa langile mugigarri eta migratzaileek osatzen dute. Are gehiago, gaur egungoa kapitalismoaren hastapenetatik izan den langileriarik mugigarriena da. Kapitalak etengabe lekuz aldatzera behartzen gaitu, gure herri, etxalde, baratze, etxe eta lantokietatik bereizten gaituelarik, hala bermatzen baita soldatak merkatzea, komunak desantolatzea eta lege, auzitegi eta polizien aurrean langileak zaurgarriak izatea. Itxitura berrien beste ondorio bat da langileen arteko nazioarteko lehia asko areagotu dela, eta munduko lan-merkatua izugarri hedatu dela. Langile sozialistek, munduko lan-indarraren heren bat, munduko gainerako proletarioekin lehiatu beharko dute, baldin eta urte luzez debekaturik izan duten produktu-merkatu globalean parte hartu nahi badute.

Itxitura berrien beste ezaugarri bat da gure erreproduzioa erasotzen dutela; horren ondorioz, migratzaileak izateaz gainera, mutanteak ere bagara. Euri-oihan tropikalaren desagertzea, ozono-geruzako zuloa, airearen, itsasoaren eta hondartzen poluzioa eta gure bizi-espazioaren txikitze nabarmena... faktore horiek, elkar harturik, lurrean dauzkagun komunak suntsitzen

dituzte. Itsas zabala bera ere hesitu zuten, 1980ko hamarkadan, kostaldeko herrialdeei atxiki itsas eremuaren muga tradizionalak izugarri hedatu zituztenean. Ez da zientzia-fikzioa: espezie ez-ebolutiboen aldaketaren inguruko esperimendu kapitalista bateko akuriak gara. Baina ez gu bakarrik. Animaliak eraldatzen eta patentatzen ari dira, protozooetatik hasi eta behietara arte, petrolio-isuriak jateko, arrautza gehiago erruteko, hormona gehiago jariatzeko. Gero eta gehiagotan, lurraren balioa ez da bertan haz daitekeen janari-kopuruaren arabera, edo bere gainean eraiki daitekeen eraikin-motaren arabera, baizik eta hondakin erradioaktiboa gordetzeko duen «segurtasun-maila»-ren arabera. *Hala, lurreko komuna ahituek, inori lanik eman gabe mila milioika urtez eraldatutako dohainek, giza gorputz ahituekin bat egiten dute.*

Kapitalak badu aspaldiko amets bat, eta da gu espaziora bidaltzea, lanera. Han ez genuke ezer edukiko, gure lan-makinak eta lan-harreman zapuztu eta zapaltzaileak besterik. Alabaina, kontua da lurra bera ere espazio-estazio bihurtzen ari dela, eta milioika pertsona kolonia espazial bateko kondizioetan bizi direla: arnasteko oxigenorik gabe, harreman sozial eta fisiko mugatuekin, sexurik gabe, komunikazio-arazoekin, eguzkia ikusi ezinik eta basorik zapaldu gabe... txori migratzaileen hotsa ere falta da! Hori gutxi ez-eta, geure gorputzak ere hesitzen ari dira. Gure itxura eta jarrera zorrotz zaintzen dituzte «zerbitzuen industria»ko lanpostuetan, jatetxe zein ospitaleetan. «Jendaurrean» lan egiten dutenen gorputzak etengabe kontrolatzen dituzte: gernua, izerdia... baita garuna ere. Gaur egun, kapitalak iraganeko inkisidoreen antzera tratatzen gaitu; klase-borrokak gure gorputzetan utzitako markak bilatu, eta zabaltzeko eskatzen digute, azter ditzaten. Itxura atsegin eta onargarria izan behar beharrez, langileek kirurgia plastikora jotzen dute gero eta gehiagotan. Joera horren adibide argia dira, esate batera, Miss America izendatu berriaren silikonazko bular famatuak. Edertasun-erreginek eta gizonezko ereduak gorputzak atalka erosi eta goitik behera berreraiki behar dituzte, eta ez hori bakarrik: zerbitzu-ekonomiako lanpostu askotan, ezinbestekoa da kirurgia plastikoa egitea, eta horrek are gehiago azaleratzen du harreman kapitalisten produktu-izaera.

Borrokaren espirala

Arazoak arazo, itxitura berrien aurkako borroka ere sendoa da, eta NDFren kontrako manifestazio, istilu eta altxamenduen oihartzuna planeta osora zabaltzen da. 1989. urtean, adibidez, Venezuela, Myanmar, Zaire, Nigeria eta Argentinako kaleak eta campusak tropa armatuen eta ikasle zein langileen arteko istiluen lekuko izan ziren; azken horiek, «NDFri ez!» eslogana ahotan hartu, eta askotariko protesta-ekintzak egin zituzten, hala nola atzerriko produktuen azoketan lapurtu, presoak kartzeletatik atera eta bankuak erre, besteak beste. Baina dirua ez da erresistentziaren xede bakarra. Andeetan hasi eta Erdialdeko Amerikara eta Mexikora bitartean, lurraren gaineko kontrola eskuratzeko borrokatzen ari dira. Mendebaldeko Afrikan, berriz, nekazariak estatuek egindako lur-lapurreten eta garapen-bankuen aurka borrokatzen dira; Estatu Batuetan, halere, informazioa desitxuratu, eta borroka haiek «gerra tribal» gisa saltzen dituzte. Hego Afrikan, oster, lurraren gaineko gudua, herrietakoa nahiz herrialde osokoa, apartheidaren kontrako borrokaren parte da. Lurraren gaineko borroka dago, orobat, «palestinar arazo»aren muinean. Eta Afganistanen, Indian, Sri Lankan, Filipinetan eta Indonesian, proletarioak itxitura berrien kontra borrokatzen ari dira. Ez da, ordea, Hirugarren Munduko fenomeno bakarririk. Mendebaldeko Berlinetik hasi eta Zurich, Amsterdam, Londres eta New Yorkera bitartean, okupak eta etxegabeak hiru etsai nagusiren kontra borrokatzen ari dira: polizia, higiezin agentziek ordaindutako piromanoak eta «deskontzentrazio espazial»aren bestelako agentiek; «bizilekuak» eskatzeaz gain, lurra ere eskatzen dute, horrek berekin dakarren guztiarekin.

Itxitura berriek, gainera, ustekabeko ondorioak izan dituzte. Esate batera, izugarri areagotu dute proletarioen ezagutza. 1980ko hamarkadan, Afrika Mendebaldeko proletarioek badakite zer-nolako tratuak egin daitezkeen Brooklynen, Londresen edo Venezian. Oraingoan, inoiz baino gehiago, proletarioak erregionalismoaz eta nazionalismoaz harago ikustera behartu dituzte. Zor-krisiak berak duen intentsitatearen eraginez, langileek autonomia-molde berriak garatu behar izan dituzte, eta, halabeharrez, erreprodukzioa gizarte kapitalistaren lan-prozedura normalizatuetatik eta diru-harremanetik kanpo garatu behar izan dute.

Mamu marxistaren gauerdiko hitzak

Ironikoa da: sozialismoaren gainbehera gertatzen ari den une honetan, Marxek kapitalismoaren garapenari buruz iragarritakoa betetzen ari da. Intelektual postmarxistak Marxen hilobiaren gainean dantzan ari direlarik, eta marxistak, berriaz, haien curriculumazuzentzeko ahalegin betean, Marxen teoria inoiz baino egiazkoagotzat jo daiteke. Zer da orain ikusten ari garena, ez bada «langile-klasearen pobretze» famatua, «munduko merkatuaren hedakuntza», «langileen arteko lehia unibertetsala»,⁵⁴ eta «kapitalaren osaera organikoaren areagotzea»? Nola uler dezakegu mundu honetako ezer, lanari, diruari eta irabaziarri buruzko Marxen teoriaren axiometara jo gabe?

Hortaz, teoriarik, Marxen mamua gurekin solastatzen da oraindik, gaueko ordu txikietan. Alabaina, estrategiarik begiratu gero, Marxek eta Engelsek ez zuten asmatu itxitura berrien sorrerari buruzko iragarpenetan. Izan ere, *Kapitala* idatzi zuen Marx hark itxitura zaharrak ulertu zituen bezala ulertuko lituzke itxitura berriak, alegia, garapen kapitalistaren «izaera progresiboaren» fase bat bezala, gizarte komunistara heltzeko behar diren kondizio materialak prestatzeko balio duena. Marxen arabera, garapen horrek bi lorpen erabakigarri ditu: tokiko hesiak eraistea eta nazioarteko langile-klasea bateratzea, gizaki benetan unibertetsala lortzeko, zeina gai izango baita mundu osoan ekoiztutako ondasun kultural eta materialari etekina ateratzeko eta guztion interes komunaz ohartzeko. Izan ere, suak eta garrak eragin arren, itxiturak, Marxen ustez, gertaera historikoki positiboak izan ziren, «jabearen lanean oinarritutako jabetza pribatua desgitea» ekarri baitzuten.

Marxek dioenaren arabera, produkzio-molde zehatz bat suntsituz (alegia, «langile bat, beregain abiatutako lana egiteko behar dituen baliabideen jabe pribatua dena –esaterako: nekazaria, lantzen duen lurrarena; edo artisaua, trebezia darabilen tresnarena»),⁵⁵ itxiturek ekoizpen sozializatuan oinarritutako

54 Karl Marxek eta Friedrich Engelsek kapitalismoaren garapenean izango ziren joerak –hots, «langile-klasearen pobretzea», «munduko merkatuaren hedakuntza» eta «langileen arteko lehia unibertetsala»– iragarri zituzten, bi lan hauetan: *The Communist Manifesto*, Samuel More itz. (New York: Penguin, 1967 [1848]) eta *The German Ideology*, 1. zatia, C.J. Arthur arg. (New York: International Publishers, 1970 [1847])

55 Marx, *Capital*, 1. bol., 8. zatia, 32. kap., «The Historical Tendency of Capitalist Accumulation».

jabetza pribatu kapitalista sortzeko bidea zabaldu dute. Beraz, Marxen aburuz, itxiturak hau dira: iraultza komunistan «jende-oldeek usurpatzaile gutxi batzuk desjabetu ahal izateko» bidea erraztuko duen eraldaketa «denboran luzatu, bortitz eta zaila».⁵⁶

Analisi horrek arazo bat du, oso sinplea: itxitura berriak (eta zahar batzuk ere) ez daude ekoizle pribatu txikiei eta haien jabetzei zuzenduta. Haien helburua da indar proletarioaren oinarri diren lur eta espazio komunalak suntsitzea. Guatemalako mendietako herrixka kitxe bat, Nigerko deltan era komunalean landatutako lur-zati bat, Mexiko Hiriko Tepito auzoa edo greban dauden langileek kontrolatzen duten paper-fabrikaren ondoko herria (Maine-ko Jay herria, adibidez), ez datoz bat Marxek deskribatutako itxituren helburu diren horiekin. Egia esan, erabat absurdua litzateke halako herrixka, lur-zati eta auzoen desageretzea beharrezkotzat jotzea, hau da, desagerpen hori langileria benetan «unibertsala» erdiesteko egin beharreko sakrifizio gisa ulertzea. Langileek nonbait jarri behar dituzte beren oinak, nonbaitetik egin behar dute eraso, nonbaiten hartu behar dute atsedea, nonbaitera erretiratzeko aukera izan behar dute. Klase-gerra ez da gertatzen galera-irabazien taula abstraktu batean; eremu bat behar du, ezinbestean.

1867an, Marxek ezin izan zuen ikusi Afrika, Asia, Ozeania eta Ameriketako milioika pertsonen biziaren antolamendu komunaletik sortzen den indarra. Gaur den egunean, huts horrek pentsamendu marxistaren gakoetako bat izaten jarraitzen du, eta «Hirugarren Munduko» marxistek metatze primitiboaren izaera progresiboari buruz hitz egiten jarraitzen dute. Horrenbestez, ofizialki kapitalaren itxitura berrien kontra egiten badute ere, jomugan dutena zera da, haien alderdi eta estatuek kapitalistenak baino itxitura eraginkorragoak izango dituzten garaia. Izan ere, haiek ere uste dute lurraren jabetza komunalak eta tokiko merkatuek ez dutela tokirik gizarte iraultzaile batean. Haien helburua da lurra nazionalizatzea eta tokiko merkatuak suntsitzea, eta, aldi berean, NDFa eta haien herrialdeetako bur-

56 Honi egiten dio erreferentzia: Marx, *Capital*, 1. bol., 8. zatia, 32. kap, «The Historical Tendency of Capitalist Accumulation», 930.or. Bertan, Marxek idazten duenez, kapitalismoaren garapena «usurpatzaile gutxi batzuek jende-oldea desjabetzean» oinarrituta dago, eta iraultza komunistaren kasuan, berriz, «jende-oldeak desjabetzen ditu... «jende-oldeak desjabetzen ditu usurpatzaile gutxi batzuk».

gesia *compradora* [eroslea] kanporatzea. Horren ondorioz, talka egiten dute itxitura berrien kontra borrokan ari diren askorekin. Garaile ateratzen direnean, nahastea areagotu egiten da, estatu-jabetzako landaketak (Mozambique-n) eta etxalde kapitalistak (Zimbabwe-n) sortzeko joerak agertzen baitira, aukera eta errealitate komunalen kaltean. Kontrairaultzarako kondizioak betetasunera iristen dira ezinbestean, eta ezinezkoa bihurtzen da neurri ekonomiko autarkikoak abian jartzea; izan ere, iraultza-indarrek berek autosufizientzia babesten dute, eta *contrari* lurraren jabetza ukatu behar lioketen egiturak suntsitzen dituzte. Beraz, Hirugarren Munduko ezkeraren krisia ez da soilik CIAren azpijokoen ondorioa; zerikusia dauka, orobat, itxituren ikuspegi marxistak huts egin izanarekin. Kapitalak, aitzitik, eredu sozialistaren gainbehera eta Hirugarren Munduko iraultzaren krisia ikusita, «Historiaren Amaiera» gisa ulertzen ditu itxitura berriak; hau da, planetaren merkantilizazioaren ikur bihurtu den merkatu globalak irabazi egin du, eta, garaipen hori loriatzeko, kapitalak «mendebaldartze» eta «demokratizazio» terminoak erabiltzen ditu.

Estatu Departamenduaren postmodernismoaren emaitza horren garrantzia eztabaidagarria bada ere, egoera soil bat iradokitzen digu. Klase-borroka Lehen Mundu Gerraren aurretiko egoerara itzuli da ezinbestean, eta, ondorioz, ELGEko (Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundea, OECD) langileei bi aukera eskaintzen zaizkie: «liberalismoa» edo «inperialismoa». Aukera liberalistak «merkatu-mekanismoa» onartzen du, zeinean gu, langileok, lan-prozesuaren funtzio bat baino ez garen, hautespen-gisako ingurune batean; egoera horretan, gure bizitzako helburu bakarra «biziraupenerako trebetasunak» hobetzea izango da. Aukera inperialistak, berriz, konkista eta harrapaketa nazioartera hedatzea sustatzen du, eta, horren bidez, guk ere parte hartzen dugu gainerako proletarioen esplotazioan, gure nagusiekin batera, haien konplize bilakaturik; beraz, kasu honetan, garaipenak Hego Afrikakoaren gisako akordioa dakar berekin: soldata hobeak eta lege martzialak babestutako etxebizitza, tortura-ziegak etxean eta atzerrian, eta pistola bat poltsan. Seguruenez, bien arteko nahaste bat izango dugu, inondik ere kaltegarria!

HIRU

ZORRAREN KRISIA, AFRIKA ETA ITXITURA BERRIAK

Une labur hartan, mundua gelditua zela zirudien, zain. Erabateko isiltasuna egin zen. Umofiako gizonak zain gelditu ziren, zuhaitzen eta aihen-belar erraldoien hondo-irudiarekin bat eginda.

Agenteen buruak hautsi zuen xarmadura.

–Utzidazu pasatzen! –agindu zuen.

–Zertan zatozte hona?

–Gizon zuriak, zeinaren boterea ederki eza gutzen duzun, bilera hau eteteko agindu du.

Chinua Achebe, *Things Fall Apart* [Gainbehera dator dena] (1959).⁵⁷

Nazioarteko zor-krisia honela deskriba daiteke: Hirugarren Munduko herrialdeei bilioi bat dolar baino gehiagoko maileguak eman zitzaizkien, interes-tasa oso altuekin, eta, orain, ezin dituzte interes horiek ordaindu, are gutxiago maileguak itzuli, oinarrizko produktuen prezioak jaitsi egin direlako eta nazioarteko merkatuan lehia handia dagoelako produktu manufakturatu arinen prezioan. Krisiaren esanahia eta haren ondorioak bi modu nagusitan interpretatu dira.

Alde batetik, eskuinak nazioarteko banku-sistemaren aurkako mehatxu gisa ikusten du, iruditzen baitzaio Hirugarren Munduko herrialde zordunek beren zorra ez ordaintzeko arriskua dagoela. Bestetik, ezkerak uste du krisia bera dela Hirugarren Munduaren garapenerako oztopo nagusia. Bi kasuetan, krisia gainditzeko proposatzen diren irtenbideak krisiak eragin

57 Euskarazko bertsioa: Chinua Achebe, *Gainbehera dator dena*, Alberto Martínez de la Cuadra (itz.), *Literatura unibertsala*, Alberdania-Elkar, 2007, 221.or. -222.or.

ditzakeen «arazo»en interpretazioarekin lotuta daude. Eskuinarentzat, zorraren krisia mehatxu ia ontologiko bat da nazioarteko diruarentzat, Nazioarteko Diru Funttsak (NDF) Hirugarren Munduko herrialdeei zorrak kitatzeko inposatu dizkien politika zorrotzak justifikatzeko modu bat. Ezkerreko ekonomialariek, aldiz, politika horien giza kostua salatu dute, eta gaineratu dute politika horiek Hirugarren Munduko ekonomien garabidea oztopatu eta zor-krisia luzaraziko dutela, ezinbestean. Laburbilduz: eskuinarentzat, zorraren krisiak kreditu-emaile diren herrialdeen «hazkunde egonkorra» mehatxatzen du, eta ezkerarentzat, berriz, zor-krisia bera da herrialde zordunen garapen ekonomikorako oztopo nagusia. Bi ikuspegi kontrajarri horiek suposizio komun bat dute oinarrian: zorraren krisia mehatxu edo oztopo bat da 1990eko hamarkadako garapen kapitalistarentzat. Bada, gu ez gaude ados suposizio horrekin; gure ustez, zor-krisia krisi produktibo bat da klase kapitalistentzat, bai herrialde kreditu-emaileetan bai herrialde zordunetan. Izan ere, zor-krisia oso baliabide erabilgarria izan da kapitalarentzat, baliagarria izan baita zor-harremanaren bi muturretan klase-indarren arteko oreka aldatzeko eta, hala, produktibitate-krisia konpontzeko.

Kapitalarentzat, zor-krisia krisi produktibo bat da, eta Afrika da horren erakusgarririk behinena. Han ikusten dugunez, zorraren krisiak eragindako politikek klase-harremanak arrazionalizatzea dute helburu, eta, lehen-lehenik, garapen kapitalistaren galderarik eztabaidatuena jartzen dute mahai gainean: nor da lurraren jabea? Garapen-teoriaren axioma batek dioen bezala, *nekazaritza arrazionalizaturik* gabe ezinezkoa da industria kapitalista bat sortzea. Baina arrazionalizatzea ez da bakarrik traktoreak eta ongarriak erabiltzea, noski; hori baino askoz garrantzitsuagoa da lurrarekiko jabetza-harremanak pribatizatzea. Eta hala gertatu da, egiazki: Afrikan, zorraren krisia lur-jabetzak arrazionalizatzeako» funtsezko tresna bat izan da.

Lurraren auziak irtenbide bat behar du

Zergatik da lurraren auzia hain oinarritzkoa Afrikan? Eran-tzuna erraza da. Afrikako kontinentearen zatirik handienean, lurraren jabetza komunalaren aldeko aldarrikapenak indar handia du oraindik, kolonialismo menderatzaileak ezin izan baitzituen suntsitu kolonizazioaren aurreko garaietatik existitzen

ziren harreman komunalak (ezintasun hori Afrikan izan zen munduko beste ezein tokitan baino larriagoa); hasteko, jendeak lurrarekiko duen harremana. Eskuineko zein ezkerreko garapen-sustatzaileek harreman horiek jo dituzte, kexaz, Afrikako ekonomiaren atzeratasunaren arrazoi nagusitzat. Hala adierazi zuen Londreseko Economist aldizkariak, 1986ko maiatzean argitaratutako «Nigeria Survey» [Nigeriari buruzko ikerketa] ikerketa-lanean; besteak beste, eskualde hartan «lurraren auziak» oraindik duen garrantzia nabarmendu zuen. «The Capitalist Flaw» [Akats kapitalista] izeneko atalean, zera irakur daiteke: «Kenyan eta Zimbabwen izan ezik, non nekazaritza gizon zuriaren mende baitago eta herritarrek Europako jabetza- eta herentzia-legeak bete behar baitituzte, lurraren erabilera arautzen duten ohiturazko legeak dira nagusi ia kontinente osoan, eta lege horiek antzinako eskubide komunaletan oinarrituta daude».

Horrek esan nahi du lur haietan inbertitu nahi duenak hango komunitatearekin negoziatu behar duela, eta hari ordaindu behar dizkiola, beste gauza batzuen artean, «zuhaitzak oro, su-egurrarekiko eskubideak, emakumeen ahuntzen bazka eta arbasoen hilobiak». Nigerian ere hala da, nahiz eta estatuak lurra osorik nazionalizatu zuen, 1978an. Economisten, argazki bat jarri dute eskandalu horren berri ematen duen artikuluan; behi-talde bat ikus daiteke Nigeriako hiri handi batean, auto baten ondotik patxadan igarotzen, behizainak lagundurik.

Aurreikustekoa denez, Economistek hortik ateratzen duen ondorioa da Afrikako lurak «itxi egin behar direla eta lurak erabiltzeko zein haietan bazkatzeko eskubide tradizionalak alde batera utzi behar direla»; izan ere, «lurraren jabetza pribatuari esker lortu da kapitala mugitzea» munduko bazter guztietan.⁵⁸ Beraz, merkataritzara bideratutako nekazaritza eta soldataren mendeko langile otzanak lortuko badira, ezinbestekoa da lurak desjabetzea.

Ikerketa-lan horrek ez du kontuan hartzen lurren desjabetzea ez dela etorri bakarrik kolonoen ekonomien eskuetatik, eta lurren pribatizazioa asko azkartu dela, baita 1970eko eta 1980ko hamarkadetan ere, Munduko Bankuaren Nekazaritza Garapene-

58 «Nigeria Survey». *Economist*, 1986ko maiatzaren 3a.

rako Proiektuen eraginez. *Modernizazioz* moztortutako proiektu horiek ez dituzte eraman traktoreak bakarrik Afrikako nekazari-tza-eremuetara; jabetza-harreman berriak ere eraman dituzte. Gobernuek agindutako desjabetze-kanpainak (azpiegiturak ga-ratzeko, petrolio aurkitzeko, eta abar) eta urbanizazio-prozesu masiboek ere jabetza-harreman berriak akuilatu dituzte; era be-rean, ez da ahaztu behar belaunaldi berriek gero eta gutxiagotan jarraitzen diotela beren gurasoen bideari, eta *basotik* kanpo bizi-tzeko gero eta joera handiagoa dutela.

Guztiarekin ere, eta gaur den egunera arte, Saharaz hegoaldeko Afrikako populazioaren %65, gutxienez, iraupen-nekazaritzari esker bizi da, eta emakumeak dira, batik bat, lan horretan jarduten direnak.⁵⁹ Hirietara alde egiten dutenean ere, afrikar askok uste dute beren herrixketatik laguntza jasotzen jarraituko dutela, eta greba-garaian ere hara jo ahal izango dute-la, janaria eskuratzeko; zahartzaroan pentsatzen dutenean ere, jatorrizko herrixketan irudikatzen dute beren burua, eta berdin bizibiderik gabeko egoera batean suertatuz gero egingo lukete-naren gainean gogoetatzen direnean, alegia, pentsatzen dute herrixkara itzuli eta erabili gabeko lur-zatiren bat lortuko dutela hango buruzagiren baten eskutik, edo zopa-plater bat, bizilagun eta senideen aldetik. Herrixka bizitzaren antolamendu komuna-laren sinboloa da, eta, eraso ugari jaso baditu ere, oraindik ez da guztiz desagertu.

Ikusi besterik ez dago herrixketatik hirietara alde egiten dutenak nola arduratzen diren atzean utzitako komunitateez. Ardura hori zama ere bihur daiteke, baina, aldi berean, aurre-ra egiten laguntzen die halako ardurarik gabe atzean geratuko lirakeen haiei. Nigerian, esate batera, batzuetan herri osoak jartzen du diru apur bat zenbait ume eskolara bidali ahal izate-ko, pentsatuz haur haiek, titulua lortzen dutenean, herrikideei lagunduko dietela.

Afrikako herrialde askotan, *herrixkada*, oraindik ere, erre-produkziorako oinarria, batez ere proletarioen kasuan, zeinek, behin hiriratuta, nekez egin baitiezaiokete aurre erdi-mailako klasean hain ohikoa den familia nuklearraren *bizimoduak* es-

59 Stephanie Hanson, «Backgrounder: African Agriculture», *New York Times*, 2008ko maiatzaren 28a, 2018ko ekainaren 21ean eskuratua, https://archive.nytimes.com/www.nytimes.com/cfr/world/slot2_20080528.html?pagewanted=print.

katzen duen gastuari. Halere, erdi-mailako klasean ere, familia nuklear hori lehian dago herrixkarekin (emakumeei esker, batez ere), azken horrek ez baitu onartzen fabrika zaharkitu baten gisara tratatua izatea. Hiriaren eta herrixkaren arteko konfliktu hori ederki islatzen da ipuin askotan, zeinetan neurrigabeko itxaropenak dituzten senideek galbidera bultzatzen baitituzte haur hiritartuak. Nolanahi ere, *neurrigabeko* itxaropen horiek izan dira hiriko soldaten presioari eutsi diotenak, haiek ziurtatu baitute herrixketan eta hiriguneetan gehiago kontsumitzea; eta halako neurriz kontsumitu dute, ezen orain herrixka guztietan baitute mundu zabalean sortutako aberastasun kultural eta materialaren berri.

Komunekiko loturek bizirik irautea eta tradizioz soldatekiko mendekotasunik ez izateak ondorio ugari izan ditu Afrikako ekonomia politikoan. Lehenik eta behin, guztiz barneratua dute beren eskubidea dela aberastasuna komunitatean banatzea eta banaketa hori estatuak egitea. Bigarrenik, lotura haien eraginez, Afrikako proletario gehienek ez dituzte lege natural gisa onartzen kapitalaren legeak, nahiz eta garapen industrialak ekar dezakeena eskuratzeko borroka gizarte-aldaketarako faktore orokor bat den gaur egun.

Azpimarratu egin behar da hori. Izan ere, Estatu Batuetan joera dago afrikarrak beti biktima babesgabetzat ikusteko (gobernuaren ustelkeriarena edo hondamendi naturalena), edo tribuen arteko leialtasun-kontuak konpontzeko pizten diren borroka atzerakoien protagonistatzat (mito hori Mendebaldeko komunikabideek sortu dute, afrikarren arteko borrokekiko gertutasun oro ezabatzeko eta borroka haiek mendebaldarrentzat urrutiko kontu bat izan daitezela sustatzeko). Baina, egia esan, afrikarrak borrokan ari dira; soroetan borrokatzen dira, fabriketan, merkatuetan eta eskoletan; borrokarako grina paregabea erakusten dute, eta, edukiei dagokienez, oso molde *modernoak* erabiltzen dituzte. Haien helburua ez da iragan mitiko bati eustea, baizik eta garapenak proletarioentzat zer esan nahi duen argitzea; alegia, nazioartean ekoitzia izan den aberastasuna eskuratzeko aukera, baina ez kapitalak ezarritako prezioan.

Afrikako proletarioen borrokarako grinari eta modernotasunari buruzko adibideak ugariak dira; besteak beste, zenbatuak izatearen kontrako erresistentzia (Nigerian, herritarren zentsua

egitea gobernuaren *utopia* bat da oraindik), zerga-bilketaren kontrakoa (lanbide horretan, maiz, bizkartzainak behar izaten dituzte) eta lurrak desjabetzearen kontrakoa (horrek, askotan, gerra ireki bat pizten du). Nigerian, lurra nazionalizatuta dago; halere, lur-zatirik txikiena hartu eta erabili aurretik, gobernuak tokiko buruekin negoziatu behar du oraindik, eta, duela gutxira arte, diru-kopuru bat ere eskaini behar izaten zien gobernuak herritarrei, zuhaitzen eta laboreen ordainetan. Azkenik, soldatapeko lanaren kontrako erresistentzia espero zena baino askoz handiagoa da, populazioaren %20 baino gehiago lan egiteko moduan egon arren. Gainera, askapen-prozesu gogorren garaian (Ginea Bissau, 1975; Angola eta Mozambique, 1976; Zimbabwe, 1980) hazi diren belaunaldi berrietan, proletarioek are erresistentzia handiagoa erakusten dute kapitalaren aurrean; orain, Soweto-ko garai bateko auzotarren begiekin begiratzen diote Mendebaldeari. Azken hamarkadetan, eta belaunaldi gazte horien jarreraren ondorioz, nazioarteko kapitalak ez du uste Afrikan diziplina eta produktibitatea areagotzeko aukerarik izango duenik.

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, zorraren krisia leher-tu aurretik, nazioarteko kapitalak ere aho batez onartu zuen Afrikak ez zuela erremediorik, eta, etorkizun bat izatea nahi bazuten, hango populazioa maila handi batean gutxitu behar-ko zela. Horiek horrela, epaitu egiten dute Afrika garapenaren aurrean erakusten ari den *erresistentzia*. *Wall Street Journal*en arabera, Afrika da Bigarren Mundu Gerraren osteko garaian hazkunderik izan ez duen munduko eskualde bakarra. Are gehiago, lurralde hartan garapen kapitalistarik egongo bada, kasu egin beharko zaie afrikarrek haien tradizioekin –alegia, jarrera anti-kapitalistekin– dituzten loturei eta bizitza-estandarra hobetzeko eskaerari –batez ere Nigerian eta Gambian, non aberastasun nazionalak igoera handia izan baitzuen 1970eko hamarkadan, petrolioaren eta kobreaken prezioen ondorioz–. Arazo estruktural eta politiko horiei erantzunez, nazioarteko kapitalak azpigara-pen planifikaturako politika bat jarri du abian, helburu duena lur komunalen eskaerak ez onartzea. Afrikar konpainiek Amerikako eta Suitzako banku seguruagoetara alde egin dute, eta atzerriko inbertitzaileen kopurua ere izugarri jaitsi da. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, Afrika izan zen inbertsio-kapitalen

tasarik txikiena erakarri zuena. Atzerriko laguntzak eta Afrikako esportazioek ere behea jo dute. Bitartean, nazioarteko agentziek zein politikari afrikarrek iraultzaren iragarle gisa erabili dituzte *populazio-etzandaren* arriskuak. Horren ondorioz, Munduko Bankuko presidente Alden W. Clausen-en esanean, «Bigarren Mundu Gerraz geroztik munduko edozein lurraldek izan duen krisirik okerrera pairatzen ari dira Afrikan». Horrek esan nahi du ezen, kapitalaren ikuspuntutik, okerrenetan okerrera dela Afrika, garapenaren kontrako erresistentziarik handiena erakusten duen lurraldea.

Afrikari buruz diharduenean, kapitalak hitz ezkorrek erabiltzen ditu, eta, hango lan-indarra babesteari dagokionean ere, axolagabekeriaz jokatzten du; horrek guztiak argi erakusten du zer puntutaraino ernegarazten duen kapitala afrikar ekonomia-*ren* errentagarritasunak. Gaur egun, Afrika hauxe da: hiesaren kontrako txertoekin proba medikoak egiteko tokia,⁶⁰ eta munduko zakarrontzi kimiko eta nuklearra, European edo Estatu Batuetan debekatuta dauden produktu farmazeutikoak –botikak zein pestizidak– jasotzen dituen hondakindegia. Zor-krisiaren garapena ulertzeko, testuinguru horri erreparatu behar diogu; 1980ko hamarkadaren lehen urteetarako, zor-krisiak Afrikako hogeita bost herrialderi baino gehiagori eragiten zien.⁶¹

60 1980ko hamarkadan, Frantziako eta AEBko zentro medikoeak probak egin zituzten Kongon eta Afrikako beste toki batzuetan, eta, askotan, txerto biziak erabili zituzten. Robert W. Ryder doktoreak, hiesa ikertzeko programa amerikarren zuzendariak, hala arrazoitu zuen Afrikaren hautaketa: «Hemen [Zairen] egin dezakeguna... eta AEBn ezin duguna egin, zera da, hiesaren milaka biktimaren jarraipena egin, hemengo soldata txikiek hori egiteko aukera ematen digutelako»; *New York Times*, 1988ko abuztuaren 2a. Jeffrey C. Lawrence, Cornell Zentro Medikoko hiesaren ikertzaile bat, are esplizituagoa izan zen; haren esanean, «ikertzaileek teknika berriak asmatzen ez zituzten bitartean... ia saihestezina da zientzialariak korrika eta presaka jardutea». Lawrence K. Altman, «Test on Humans Near in AIDS Vaccine Hunt», *New York Times*, 1987ko martxoaren 18a, 2018ko uztailaren 13an eskuratua, <https://www.nytimes.com/1987/03/18/us/test-on-humans-near-in-aids-vaccine-hunt.html>. Gaur egun ere, Afrikan egiten dira hiesaren aurkako txertoa aurkitzeko esperimentuak. Programatutakoaren arabera, 2016ko azaroan eskala handiko proba bat abiatuko da, Gaixotasunen Kontrolerako AEBko Zentroaren zuzendaria den Anthony S. Fauci-k jakinarazi zuenez: ikus National Institutes of Health, «Large-Scale HIV Vaccine Trial to Launch in South Africa», 2016ko maiatzaren 18a, 2018ko maiatzaren 20an eskuratua, <https://www.nih.gov/news-events/news-releases/large-scale-hiv-vaccine-trial-launch-south-africa>.

61 Hau idazten ari nintzen garai berean, Estatu Batuak hondakin arriskutsuak esportatzen ari ziren Afrikara. Handik urte batzuetara, 1998an, AEBk, beste herrialde batzuekin batera, ez zuen sinatu nahi izan Europako Batasunak hondakin toxikoak Hirugarren Munduko herrialdeetara esportatzeari jarritako debekua. Ikus «International–Western firms dump toxic waste in Africa», 2006ko urriaren 19a, 2018ko maiatzaren

Zorraren krisia: kapitalarentzat, krisi produktibo bat

Zaila da jakitea zer neurritan areagotu duten zorra proletarioen eskakizunek eragindako presioek (1970eko hamarkadan, afrikar gobernuak diru-mailegu bat eskatu behar izan zieten atzerriko bankuei) eta zer neurritan izan den zor-krisia nazioarteko kapitalak bere alde erabilitako azpijoko bat, gobernuak erreforma politiko zorrotzak ezar zitzaizkion. Argi dagoena da krisi horrek aparteko aukera bat eskaini diola kapital nazional eta nazioartekoari klase-harremanetan berregituratze zabal bat egiteko, helburu duena lan-indarra merkatzea, produktibitate soziala areagotzea, itxaropen sozialak murriztea eta kontinenteak harreman kapitalistak bete-betean onartzea, lurraren erabilera kapitalista oinarri dela.

Hirugarren Munduko beste eskualde batzuetan legez, Afrikan ere krisia bi fasetan garatu da, eta fase bakoitza atzerriko gobernuen zuzeneko edo zeharkako esku-hartzeen bidez bereizi da, baita nazioarteko agentziek izan duten funtzioaren arabera ere. Nazioarteko Diru Funttsaren (NDF) eta Munduko Bankuaren artean lanak banatu dituzte, ez polizia txintxo/polizia gaiztoa politikak txertatzeko beharragatik, baizik eta proletarioen erresistentzia-maila ezberdinekin tratatu beharragatik, hori baita garapenaren eta errepresioaren dialektikako funtsezko faktorea. I. fasean –1980-1984 bitartekoa, gutxi gorabehera–, NDFren «diru-politikak» izan ziren nagusi. Fase hartan, estatuak interesak ordaindu ezinik geratu ziren, bat bestearen atzetik, eta mailegu kontingenteak eskuratzeko akordioak sinatu zituzten NDFren, haren baldintza ezin txarragoak onartuz: produktuei eta programei emandako dirulaguntzak etetea, soldatak izoztea, sektore publikoan murrizketak egitea eta debaluazio masiboak, zeinak ekarri baitzuen diruak balioa ia erabat galtzea eragindako ekonomia-sistema askotan. Baina, 1984an, hain zen handia austeritate-neurrien kontrako erresistentzia eta NDFrekiko gorrotoa, ezen estrategia berri bat pentsatu behar izan baitzuten; hala, dirua zaintzeko boterea Munduko Bankuaren eskuetan geratu zen. Beraz, 1984an II. fasea abiatu zen, hau da, Munduko

20an eskuratua, www.anphoblacht.com/contents/15909. 1998ko artikulua baten arabera, nazioarteko urak material toxikoz betetako itsasontziz josita zeuden, zama deskargatzeko zain.

Bankuak proposatutako «suspertze ekonomikorako» eta «gara-penerako» plana.

Munduko Bankua Afrikaren aspaldiko laguna da, independentziaren osteko garaian berehala abiatu baitzen hara, alde egiten ari ziren administrazio kolonialak ordezkatzera. 1980ko hamarkadan, Munduko Bankua Afrikako *éminence grise* [eminentzia grisa] izan zen. Ez dago planik edo akordiorik haren esku-hartzerik gabe egin denik, dela diru-emaile gisa, dela aholkulari gisa edo kontu-hartzaile gisa; azkenaldian, gainera, «ezagutza-banku» gisa ere saltzen du bere burua. 1984an, bankuak jakinarazi zuen mila milioi dolar bilduko zituela Saharaz hegoaldeko nazioei berrogeita hamar «mailegu bigun» emateko, baldin eta herrialde haiek «ekonomia suspertzeko» xedez bankuak ezarritako jarraibideak onartu eta erreforma ekonomikoen bideari ekiten bazioten. «Afrikarentzako zerbitzu berezi» hura «Egiturazko Doikuntza Programa» (EDP) izendatu zuten (Baker Planak ere –1985eko urrian NDFk eta Munduko Bankuak Seul-en egin zuten nazioarteko topaketan abian jarritakoak– programa hura izan zuen eredu),⁶² eta merkatu libreria jauzi egiteko tresna gisa agertu zen, 1985az geroztik Afrikako herrialde askok egin dutena, nazioarteko kapitalaren txalo bizien gerizan.

Egia esan, EDP hori Hirugarren Mundura egokitutako Reagan-en *laissez-faire* plana da. Eta oinarri-oinarrian dagoen eredua Milton Friedman-ek Allende osteko Txilen ezarritako formula da: langile-klasearen bizitza-estandarra babesteko neurriak desagertu egiten dira, eta langileek, biziraungo badute, munduko beste proletarioekin lehiatzeko egokiak diren baldintzak berenganatu beharko dituzte. Soldata-mailak ezartzeko, bi faktore hartzen dira kontuan, nazioarteko lan-merkatua eta estatuaren errepresioa; hartara, soldatak «nazioarteko mailara» iritsiko ez direla ziurtatzen da.

EDPk errepresio handia eskatzen du. Txilen ezarri zenean, hogeita hamar mila langileren bizitzak eraman zituen aurretik, guztiak ere merkatu aske berriaren ohoretan sakrifikuak. Gainera, EDP ezartzeak zera esan nahi du: «hazkuntzara bideratutako» maileguen truke, herrialdeak onartzen du inportazioak

62 James Baker AEBko Altxortegiko Idazkaria izan zen; haren plana Seulen jarri zen abian, eta nazioarteko zor-krisiari aurreko egiteko irtenbide gisa iragarri zen.

liberalizatzea, estatu-industriak pribatizatzea, diru-trukearen eta lehengaien prezioen gaineko muga oro ezabatzea, dirulaguntza programa guztiak bertan behera uztea eta debaluzio gehiago egitea, maileguak programa horiek finantzatzeko erabiltzen direlarik eta esportaziora bideratutako nekazaritza- eta industria-sektoreak ezartzen direlarik. Negozioaren eta Munduko Bankuaren erretorikaren arabera, lehengaien, zerbitzuen eta lanaren prezioak «merkatu-baliora egokitzeko» libre direnean, eta lehengai inportatuak berriz ere merkatuetan eskuratu daitezkeenean, herritarrek gehiago produzitzeko pizgarriak izango dituzte, atzerriko inbertsioak areagotu egingo dira, esportazioak handitu egingo dira, dibisa sendo bat lortuko da eta, azkenean, susperraldi ekonomikoa iritsiko da. Egiazki, baina, egiturazko doikuntza-programak zera esan nahi du: gehienez ere hogeita hamar dolarreko batez besteko soldata duten milioika afrikarrek Ameriketako prezioetan eskuratu behar dituzte oinarritzko lehengaiak eta zerbitzuak. Tokiko janaria ere prezio ordainezinetara iritsi da, eta, bitartean, soroak tokiko kontsumora bideratuko ez diren laborez betata daude.

Izan ere, EDP programa Afrikako proletarioak merkatu globalean integratzeko tresna bat da, garai kolonialetako bideetatik asko bereizten ez diren ildoei jarraitzen diena. Proletarioei eskatzen zaie kontsumituko ez dituzten laboreak ekoizteko, eta erosgaiak nazioarteko prezioetan eskuratu behar dituzte; bitartean, haien soldatak desagertu egin dira, murrizketen eraginez, eta inolako baliorik gabe geratu dira, neurriz kanpoko debaluzioaren ondorioz. Lantokietako buruzagiei begiratuta ere ikus daiteke nola integratu diren proletario afrikarrak merkatu globalean EDP programaren bidez. Produktibitate-kanpaina berriekin, alde batera utzi dituzte «indigenizazio»-saiakerak, eta erbesteratutako kudeatzaile eta teknikariak Afrikara itzuli dira, antzinako garai kolonialetan bezala, espero baitute buruzagi zuriek afrikarrek baino atxikimendu handiagoa erakustea lanarekiko.

Aldaketa horren kudeatzaile nagusiak atzerriko agentziak izan dira (NDF, Munduko Bankua, Pariseko Kluba eta Londreseko Kluba, banku komertzialekin batera), hartutako neurriekin harreman neokolonialen kapitulu berri bat idatzi dutenak; rol inperialistari dagokionez, Mendealdeko banku eta agentziek indar kolonialen tokia hartu dute. Garai kolonialekiko konparazioa

ez da funtsik gabea; izan ere, NDFren eta haren kideen eskue-
tan erortzen den herrialdeak galdu egiten ditu ordura arteko
independentzia ekonomiko eta politikoaren aztarna oro: NDFren
ordezkariak banku zentralaren batzordean esertzen dira, ezin
da proiektu ekonomiko garrantzitsurik garatu haien onarpenik
gabe, aldizka atzerriko bulegoetako zuzendari-oldeak agertzen
dira –kontabilitatea kontrolatzeko–, eta gobernuak ezin dio ekin
ezein bide politikoki independenteri, ezta hala nahi duenean
ere, zenbait hilean behin zorren ordainketak eta mailegu berriak
negoziatu behar dituelako atzerriko agentziekin.

Afrikan gertatzen ari denaren adibide argi bat Liberiakoa
da, nahiz eta muturreko kasu bat izan. Duela urte gutxi batzuk,
Liberiako gobernuak kudeatzaile-talde bat bidaltzeko eskatu zion
Washingtoni, haren ekonomiaz arduratu zedin.⁶³ Nabarmenak
dira, halaber, Afrikako zenbait herrialdek (adibidez, Kamerun,
Boli Kosta eta Nigeria) Israeli eta Hego Afrikari egindako propo-
samenak; oraintsu arte, haiekiko harremanak isilpekoak izaten
ziren, badaezpada. Horrenbestez, inolako ezbairik gabe baieztu
daiteke Mendebaldeko indar hegemonikoa Afrika birkoloniza-
tzen ari dela eta, krisiaren aitzakian, kolonizazioaren kontrako
borroken ondoren galdutakoa berreskuratzen ari dabilela.

Horrek guztiak ez du kentzen ezen Afrikako aginte-kla-
searen sektore nagusiek ongietorri beroa egin diotela krisiari eta
atzeritik etorritako laguntzari. Izan ere, agintariak kanpo-zorra-
ren aitzakia erabili dute independentzia lortu ondoren langileei
ordaindu beharreko emakidak gainetik kentzeko eta belaunal-
di berrien militantzia sustraitik mozteko. Dena den, Afrikako
agintariak ere trantze txar bat baino gehiago jasan behar izan
dute, zalantzarik gabe; izan ere, haientzat ez da gauza bera izan
nazioarteko kapitalean integratzeko prozesua edota indepen-
dentiaren ondorengo garaian erdietsi zuten hitzarmena. Garai
hartan, Afrikako nazioek fronte kapitalista zatikatuago bati egin
behar izan zioten aurre (Estatu Batuak indar kolonial zaharrekin
lehiatzen ari ziren, eta Sobietar Batasuna, berriz, kontinentean

63 1987an, AEBk adostu zuen hamazazpi finantza-aditu bidaliko zituela Liberiara, «herrialdearen ekonomia zorpetua kudeatzeko autoritatearekin»; ikus «U.S. Experts to Manage Ailing Liberian Economy», *New York Times*, 1987ko martxoaren 5a., 2018ko maiatzaren 20an eskuratua, <https://www.nytimes.com/1987/03/05/business/us-experts-to-manage-ailing-liberia-economy.html>.

funtzio politiko bat izateko). Gaur egun, nazioarteko kapitalaren adar nagusiak elkarri lotuta daude, eta, beraz, ezinezkoa da berriz ere «nazionalismoaren jokoan» jardutea, garai hartan Afrikako buruzagi askok egin zuten bezala: publikoki, harro baino harroago esaten zuten ez zutela inorekin bat egingo, eta panafricanismoaren alde egiten zuten; pribatuki, ordea, akordioak lotzen zituzten Hego Afrikarekin (Nigeriak, kasu), eta dirua eskuratzen zuten Ekialdetik zein Mendebaldetik. Halaber, gobernuek ezin dute etengabe ibili Eszila eta Karibdis-en artean, esan nahi baita, sozialismo demagogikoa egiten, batetik, eta kapital-funtsak helburu nabarmenki ez-produktiboetan alferrik ahitzen, bestetik.

Afrikako buruak ere epaitzen dituzte. Nazioarteko kapitalaren bozeramaileek esan dute buruzagi afrikarrek kapitalarekiko atxikimendu pertsonalistegia dutela («ustelkeria» ezaguna, azken batean), eta ez dutela kudeaketarako gaitasunik. Hala ere, Afrikako eskualde gehienetan onartu dute errieta horrek fruituak eman dituela. Zor-krisiari esker, Afrikako buruak konturatu dira agintean egon nahi badute ezinbestean onartu behar dutela Washington, Londres eta Parisen laguntza. Gainera, krisia agertzeaz bat, Afrikako herrialdeek erakutsi dute atzerriko gobernu haien jarrera politiko bera dutela oinarrian, nahiz eta batzuk erretorika sozialista izateaz loriatzen diren. Horregatik onartu dituzte hain erraz atzerriko kapitalaren eskaerak. Ez da izan Washingtoni edo Londresi aurre egiteko ezintasunagatik, baizik eta ez dutelako gaitasunik Afrikako jendeari aurre egiteko. Afrikako gobernu bat bera ere ez da saiatu herritarrak mobilizatzen, haiek gogoz erantzungo zioteten arren zorra ez ordaintzeko deiari –salbuespen bakarra Tanzaniakoa izan zen, Nyerere-ren eskuetan egon zen denboraldi laburrean–. Justu kontrakoa: gobernuek austeritate-politikarik zorrotzenak pasatu dituzte «eskutik eskura», eta atzerriko diru apurraren zati handi bat haien armadak eta polizia-indarrak istilu-kontrako azken ekipamenduekin sendotzeko erabili dute; bitartean, babesgabe agertzen dira NDFren aurrean. Horrenbestez, eta lehenago esan bezala, zor-krisiak argi eta garbi erakutsi du Afrikako gobernuek nahitaezkoa dutela Washington, Londres eta Parisen laguntza, haien aginteari eusteko.

Zor-krisiaren ondorio nagusietako bat buruzagitza kapitalistaren mekanismoaren berrantolaketa izan da, eta, beste ezer baino lehen, kapital «metropolitarra» eta kapital «periferikoa» bateratu dira. Afrikako buruzagiek halako prestasuna erakutsi dute nazioarteko kapitalari men egiteko –askotan, Munduko Bankuak eta NDFk eskatu baino austeritate-neurri zorrotzagoak ezarri dituzte–, non Afrikako zenbait herrialde (Maroko, Ghana eta Nigeria, besteak beste) erakunde multinazionalen erakusgai preziatuenak bihurtzen ari baitira.

Inflexio-puntua 1986ko udaberrian gertatu zen, Afrikako Batasunaren Erakundeak (ABE) erabaki zuenean zorrarekin zuten arazoa Nazio Batuetara bideratzea eta hura konpontzeko laguntza eskatzea Mendebaldeko herrialdeei. Ordurako, kontinenteko ia herrialde guztiek interesak ordaintzeari utzia zioten, eta askok haien aurrekontuaren %30-40 bitartean erabiltzen zuten zorrak ordaintzeko; ekonomialari ezkertiar askoren ustez, ehuneko hori duen herrialdea hondamendi ekonomikora doa zuzen-zuzenean. Aurrekaririk gabeko laguntza-eskaera hura garaipen ideologiko erabakigarri bat izan zen Mendebaldeko indarrentzat; zenbait hamarkadaz luzatutako erretorika antiinperialistaren ondoren, justifikatutzat jo zituzten independentziaren aurreko mesfidantzak. («Esan genizuen, ba, ez zeundetela prest!»). NBEren saio hartan, Mendebaldeko indarrek atzera bota zuten Afrikako krisiaren erantzule izendatzen zituen ebazpena, eta, keinu harekin, argi utzi zuten ez zutela berriro entzun nahi Afrikan kolonialismoaren ondorioz pobretu zenik. Hala, bada, AEBko komunikabideetan guztiz onartuta dago kolonialismoak ez duela Afrikan gertatzen ari denaren gaineko inolako erantzukizunik.

1986ko NBEko saioa Afrikako gobernuen Canossa⁶⁴ izan zen. Publikoki onartu zuten ez zirela gai beren kabuz kontinentea gobernatzeko. Topaketa hura aukera ezin hobe izan zen indar kolonial zahar zein berriak (Japonia kasu) elkartzeko eta auzi hari modu bateratuan heltzeko. 1986ko ekainean, Shultz-ek bidaia arrakastatsu bat egin zuen Afrikan zehar; handik urte batera, Burkina Fasoko presidente Thomas Sankara erail zuten,

64 *Canossa-ko umiliazioaz* ari da hemen autoreak. Enrique IV enperadoreak Espira-tik Canossa-ra egin beharreko erromesaldi gogorren ondoren sortu zen esamolde hau. [l. O].

panafrikanismoaren eta antiinperialismoaren sinbolo artean bizia. Bi gertaera haiekin, hitzarmena erabat itxita geratu zen.⁶⁵

Ordutik, «zorraren krisia» logika matematikoz hedatu da Afrikan, eta argi geratu da ez dela zuzena krisi kuantitatibo gisa ikustea, nahiz eta halakotzat aurkeztu ohi den. Horretarako, zenbakizko hurbilketa bat egiten da, falazia hau ezkututzen duena: kapitalaren ikuspegitik, «ekonomia suspertzeak» esan nahi duena da «zorra murriztea». Hori egiazki hala balitz, zorraren inguruan gertatzen denaren zati handi bat ulertezina izango litzateke. Izan ere, zorra izugarri handitu da herrialde gehienetan, hain justu ere NDFk eta Munduko Bankuak ekonomia suspertzeko ezarritako neurriak onartu zituztenetik aurrera. Esaterako, Nigeriako zorra 20 mila milioi dolarretik 30 mila milioi dollarrera igo zen egiturazko doikuntza-programa martxan jarri zenean. Eraitza itxuraz paradoxiko horren arrazoia da zor-krisia ez dela ordaintzeke eta ordainduta dagoen zor-kopuruaren araberakoa, baizik eta zorraren bidez aktibatutako prozesuen araberakoa: soldadak izoztea, atzerriko kapitalari lotuta ez dagoen industria lokal orean kolapsoa (atzerriko kapitalak ematen baitu teknologia lortzeko eta kapitala inbertitzeko dibisa sendoa), sindikatuak debekatzea, hezkuntzaren doakotasuna bertan behera uztea (baita lehen hezkuntzarena ere), grebak eta bestelako protesta sozialak sabotaje ekonomiko bihurtzen dituzten lege drakoniarrak onartzea, ikasle-erakunde militanteak debekatzea eta, guztiaren gainetik, lurra pribatizatzea. Beharbada, zor-krisiaren erakusgarri argi bat da ezen, herrialde zordunetan, gehitu egin direla errepresio-neurri ondo finantzatuak. Zor-krisiaren etorrerarekin batera, punta-puntako errepresio-tresna teknologikoak (autoak, walkie-talkieak, segurtasun-guardia israeldarrak) heldu dira

65 Erail zutenean, Thomas Sankara Afrikako ahots iraultzailerik handienetako bat zen, inperialismoaren aurkako ikurra; eta, bistakoa denez, horregatik hil zuten, isilarazteko. Bere gobernuak ez zuen kanpoko laguntzarik onartzen; lur guztiak eta aberastasun mineral guztiak nazionalizatu nahi izan zituen, eta uko egin zion NDFren eta Munduko Bankuaren mendeko izateari. Bere barne-politikek nekazaritza burujabea eta luraren erreforma izan zuten ardatz, eta hezkuntza lehenetsi eta osasungintza publikoa sustatu zuten. «Beste ekimen batzuk ere bazituen, egitekoen zerrendan jasoak: zuhaitzak landatzea Sahelen, desertifikazioari aurre egiteko; lurrak kentzea jauntxo feudalei, nekazarien eskuetan uzteko; landa-eremuetan bozkatzeko zerga bertan behera uztea; eta errepideak eta trenbideak eraikitzeo programa bat abiaraztea, 'nazioaren barne-loturak sendotzeko'» **BI LONL L** »; «Thomas Sankara», *Wikipedia*, 2018ko maiatzaren 20an eskuraturia, https://en.wikipedia.org/wiki/Thomas_Sankara.

Afrikara. Eta, izan ere, «defentsa»ren alorrean egindako gastua da nazioarteko agentziek Afrikako gobernuiei errezeloz begiratzen ez dieten bakarra, nahiz eta osasunari edo hezkuntzari dagozkion gastuak zorrotz baino zorrotzago aztertzen dituzten. Kapitalaren ikuspegitik, «krisia» hitza ez da izendapen aproposa; bai, ordea, langile-klasearen ikuspuntutik.

Egoera horrek jendeari zer ekarri dion ulertzeko, nahikoa da Ghanari begira jartzea, NDFren «arrakasta-kasu» bat, merkataritzaren liberalizazio baimenduaren hedadurari eta egungo hazkuntza-tasari dagokienez. 1983an, Ghanak erabaki zuen NDFk agindutakoari men egitea, eta, geroztik, hango diruak, ghanatar *cediak*, bere balioaren ia %100 galdu du. Horren ondorioz, jendeari ordain gisa emandako billeteek ez dute inolako baliorik, eta, beraz, ghanatar gehienak baliozko dirurik gabe utzi dituzte. Hala ere, sindikatuak hainbeste beldurtu dituzte, non planari baietz esan dioten eta langileei grebarik ez egiteko eskatu dieten (Jerry Rawlings-ek ere izango zuen zerikusirik horretan, «herriaren gizona» baitzen lehenagotik ere). Horrenbestez, nazioarteko kapitalaren ekimenak diru-harremanetik harago joatera behartu ditu ghanatarrak. Gaur egun, erdi-mailako funtzionarioen hila-beteko soldatak justu-justu ematen du haien familien hilabeteko janari-gastuaren heren bat ordaintzeko. Horrek esan nahi du bizitza osoa eman beharko dutela bizibidea nola edo hala ateratzeko ahaleginean, eta egoera horrek, gaur egun, geratzen zaizkien indar apurrak ahitzen dizkie. (Nolanahi ere, epe luzera begiratzuz gero, erreprodukzio-molde berriak etengabe asmatzen ibili beharrak ustekabeko emaitzak ekar ditzake).

Gaur egun, ghanatar askok arrazoi bakarragatik jarraitzen dute soldatapeko lanpostuetan, alegia, lantokiko espazioak eta tresnak haien erreprodukziorako erabili ahal izateko [ghanatarren hitzak erabiliz, *chopping for the work side*]. Soldatarekin edo soldatarik gabe, etengabeko esfortzua egin behar dute bizitzan aurrera egiteko, eta gosez hiltzea edo lapurretara jotzea saihesteko modu bakarrak prostituzioa, turistei zuzendutako hala-holako salmenta, iraupen-nekazaritza eta atzerritik datozen diru-igorpenak dira (gehienentzat). Bitartean, azken lau urteetan bi milioi ghanatarrek, Ghanako populazioaren ia %20, Italiara, Islandiara eta Australiara emigratu dute, eta beste asko herrialdetik kanpora ateratzeko bidean daude. «Bidaztiak» dira,

munduko alderraiak, legez kanpo hartutako barkuen karel gai-
netik itsasora botatzen dituztenak, portuz portu dabiltzanak
ondo hartuko dituen herrialde baten bila, edozein kondiziotan
lan egiteko prest daudenak, New Yorken erlojuak edo poltsak
saltzen lortutako dolar apurrek Accra-ko edo Dakar-eko familia
bat elikatzeko adina ematen dutelako. Afrikako herrialde guz-
tietatik gertatzen ari den ihesaldia hain da handia, non lanbide
bihurtu baita bere horretan; orain, atzerriko enbaxadek bisei ja-
rritako mugak gainditzen espezializatu den jendea ere badago.

Alde guztietan, Nigerian hasi eta Tanzaniaraino, diaspora
berri bat sortzen ari da, milioika lagunek Europara eta AEBra joan
behar dutelako, lanera. Eta diaspora hori altxor bat da Europako
eta Amerikako kapitalarentzat, sistema horren bidez antzinako
esklabo-salerosketaren oinarritzko printzipioari eusten zaiolako
oraindik: pertsonak, beren etxeetatik deserroturik, are produk-
tiboagoak bihurtzen dira. Bien bitartean, Munduko Bankuko
demografoek migratzaileen kopuruari eta haien egoerari begi-
ratzen diote, eta, nazien antzeko zehaztasun zientifikoarekin,
haien kaloriei erreparatzen diete, eta apuntatzen dute zer he-
rrialdetan daukaten lanerako edo «ozta-ozta» bizitzeko behar
direnak baino kaloria gutxiago. Ezusteko lekuetan ere gosea
agertzen hasi da berriro –esate batera, Nigerian, ñamearen ohi-
ko hornitzailea–, baita uzta oparoko garaietan ere. Haragiarekin
batera, beste elikagai batzuk ere desagertzen ari dira; garia (ju-
ka-irina), adibidez, beti janaririk merke eta oinarritzkoena izan
dena, eskuragaitza bihurtzen ari da; hala gertatzen ari da, behin-
tzat, hirigunean, kamioiz eta furgonetaz eraman behar baita
hara, gasolinaren truke whiskiaren iraganeko prezioa ordain-
duta. Zor-krisiaren bihotzean, suntsipen-nahi bat dago; alegia,
suntsitu egin nahi dituzte bizitzaren eta lan-indarraren errepro-
dukzio-sistema zaharra, herrixka afrikarrak eta lurraren jabetza
komunala, hori baita NDFren eta Munduko Bankuaren helburua:
lurra eta jendea esku-eskura izatea, oraindik gehiago esplotatu
ahal izateko.

Zor-krisiaren lehen faseak –Afrikako ekonomiaren des-
monetizazio-faseak– zera adierazi zien afrikarrei: hilak zeudela,
kapitalismoari zegokionez, eta bukatua zela jada beren herrixka-
ren eta merkatu globalaren arteko zirrikituetan bizitzeko aukera.
1984-1985eko goseteek agerian utzi zuten hori, gordin baino

gordinago, gainera, Afrikaren bazter guztietan. Zor-krisiaren bigarren fasea, berriz, egiturazko doikuntza-programarena, lur-itxituren garaia izan zen (eta da, oraindik). Fase horrek ere mezu argi bat helarazi die afrikarrei: hala nekazariek nola meatzariak beren lurrak merkatu nazional zein nazioartekorako erabili behar dituzte, bestela, hala egiteko prest daudenek berenganatuko dituzte. Egiturazko doikuntza hori arrakastatsua bada, «Ama Afrikak» bereak egin du.

Gizarte-borroka berriak

Zorraren krisiak modu ezin hobean erakusten du liberalismo ekonomikoa faxismo sozialarekin bateragarria dela eta, are gehiago, une erabakigarrietan haren beharra duela. Gaur egun, Txilek suspertze ekonomikorantz egin duen bide bera ezartzen da liberalizazio-mailarik handiena duten eta egiturazko doikuntzarik zorrotzenak jasan dituzten afrikar herrialdeetan. Halanda ze, Txileko errezeta ia buruz ikasia dute: ikasle-erakundeak debekatu eta klandestinitatera bultzatu, sindikatuak kikildu, segurtasun-indarrak birmoldatu (normalean, aholkulari amerikar-britainiar-frantses-israeldar ilunen laguntzarekin). Orain, ohikoena da krimenaren aurkako legeak ere onartzea. Nigerian, «sabotaje ekonomiko»aren aurkako 20. Dekretua dago, non sartzen baitira, besteak beste, petrolio-guneetako grebak (heriotzarekin zigortuak); eta 2. Dekretua ere badago, sei hila-betera arteko atxiloteta prebentiboa onartzen duena. Gero eta gehiagotan, heriotza-zigorra erabiltzen da «lapurreta armatuaren aurkako gerra»n –Reaganen garaiko «drogen kontrako gerra», nigeriar bertsioan–. «Adierazpen askatasun»erako geratzen diren espazioei dagokienez, Nigerian gertatzen dena aipatzea besterik ez dago: polizia armatuak egoten dira mintegietako ateetan, baita Nobel saridunek –Wole Soyinka-k, kasu– parte hartzen dutenetan ere.

Baina neurri horietako batek berak ere ez du ekarri «ekonomia suspertzeko neurri»en aurkako erresistentziaren amaiera. NDFren politiken lehenengo porrot nabarmena Zambia-n agertu zen, 1986ko abenduan, Afrikari buruzko NBERen konferentzia-tik hilabete gutxi batzuetara. Zambiako gobernuak lepoa eman behar izan zion Nazioarteko Diru Funtsari, Kenneth Kaunda presidentea negar-malkotan zela, herrialdearen iparraldean...

–kobre-meategien bihotzean– erakunde haren eta austeritatearen aurka izan ziren istilu jendetsuen ondoren. Prezioek gora egin zuten berriro, eta *kwacha* are gehiago debalatu zen; azkenean, jendea independentziaz geroztiko protestarik bortitzenetan nahastu zen. Gobernuak armadaren borroka-unitateei dei egin behar izan zien, eta mugak itxi behar izan zituen. Nonbait, herritarrek entzun zuten ezen, NDFk agindu bezala, gobernuak arto-irinarekin prezioa bikoiztuko zuela, eta iragarpen hura izan zen istiluak piztu zituen. Egitasmo haren berri izan bezain laster, etxekoandre, gazte eta langabetuek kaleak hartu zituzten, eta arto-irinarekin biltegiei eraso zieten; berehala, gainerako biltegiak ere protestagileen xede bihurtu ziren. Jendeak telebistak eraman zituen, irrati-kasete estereoak, baita autoak ere; poliziak harrika hartu zituzten, gobernuaren bulegoetara eraso zieten, eta presidentearen egoitza nagusia suntsitu zuten Kalushu-n (horregatik egin zuen negar Kaundak). Datuen arabera, istiluek iraun zuten egun luzeetan hamar lagun erail zituzten, baina, azkenean, gobernuak arto-irinarekin prezioa jaitsi behar izan zuen, eta NDFri esan behar izan zion aurrerantz ezin izango zituela bere esanak bete.

Nigeriako erresistentzia Zambiakoa bezain bortitza eta saiaturia izan zen. Gobernuak NDFrekin negoziatzen hasi zen lehen unetik beretik, ikasleak, merkatuetako emakume saltzaileak eta fabriketako langileak kalera atera ziren, gobernuak ezarritako hainbat neurri salatzeko: doako hezkuntzaren amaiera, zerga-ziurtagiriak aurkeztu beharra haur-eskoletako umeak lehen hezkuntzako ikastetxeetan matrikulatzeko, soldaten izozketa, herrialdean saldutako petrolioari emandako dirulaguntzak kentzea, eta abar.

Ez da harritzeko Zambiako eta Nigeriako istiluetan ikasleak ere nahastu izana. Afrikaren luze-zabalean, ikasleak EDPren aurkako protesten lehen lerroan egon dira.⁶⁶ Gutxiengo pribilegiatu bat dira, eta, askotan, behin graduatuz gero prest egoten dira beren sinesmen politikoetan amore emateko, gobernuan lana lortu ahal izateko; baina, halere, NDFk hezkuntzarako dauz-

66 Ikasleek NDFren eta EDPren aurka egindako borroken analisia eta kontakizuna eskuratzeko, ikus Silvia Federici, George Caffentzis, eta Ousseina Alidou, *A Thousand Flowers: Social Struggles against Structural Adjustment in African Universities* (Trenton, NJ: Africa World Press, 2000).

kan plan objektiboak direla-eta, Afrikako herrialde askotako ikasleek jarrera erradikalagoa hartu behar izan dute ezinbestean; izan ere, IMFk drastikoki mugatu nahi du bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasle graduatuen kopurua, soldatak ez daitezen gehiago igo eta ikasleen soldata-itxaropenak txikiagoak izan daitezen. Independentziaren osteko «kontratu sozialak» etorkizun ziur bat promestu zien bigarren mailako edo unibertsitateko ikasketak zituztenei, eta egiturazko doikuntza-programa kontratu haren aurkako heriotza-pilula bat da. Doikuntza ezarri zenetik, langabezia gero eta handiagoa da ikasle graduatuen artean. Gaur egun, graduatu asko, baita unibertsitatean ikasitako ingeniariak ere, zorteko dira baldin eta taxi bat gidatzea lortzen badute. Beraz, ez halabeharrez, NDFren austeritate-neurriek ikasleak eta ikasle-mugimenduak eraso dituzte.

Errepresio bortitz horren adibide on bat ikusteko, 1986ko maiatzaren 26ko gertaeretara jo dezakegu. Zaria-ko Ahmadu Bello Unibertsitatean (Nigeria iparraldean) egin zen manifestazio baketsu baten ondoren, eta NDFko eta Munduko Bankuko zuzendariak Lagosera iritsi baino astebate lehenago –Nigeriko kontabilitate-liburuak eta plangintza ekonomikoak aztertzerantz joan behar zuten–, hainbat kamioi bete polizia campusean sartu ziren indarrez, eta tiroka hartu zituzten parean ikusi zituzten ikasle eta bisitari guztiak. Metrailadoreak sutan, poliziek ikasleei segitu zieten haien logeletara –istiluak amaitu zirenean, harnaka ikasle aurkitu zituzten han, hilik edo zauriturik–, orobat inguruko etxeetara, ikasleek haietara ere jo baitzuten, babes bila. Berrogei pertsona baino gehiago hil zituzten, eta askoz gehiago zauritu. Nolanahi ere, masakre hark ez zuen lortu protestak geldiaraztea. Hurrengo egunetan, istiluak herrialde osora zabaltzen ziren. Lagos, Ibadan eta beste campus batzuetako ikasleek kaleak blokeatu zituzten, gobernuaren eraikuntzei eta espetxeei eraso zieten (ehunka preso atera zituzten kartzeletatik, baita heriotza-korridorean zeuden batzuk ere), eta protestaren berri eman ez zuten egunkarien azpiegiturak suntsitu zituzten.

Geroztik, EDPren aurkako istiluak endemikoak bihurtu dira Nigerian. 1989ko maiatzean eta ekainean maila gorenera iritsi ziren, altxamenduak izan baitziren berriro hegoaldeko hiri nagusietan, alegia, Lagos, Bendel eta Port Harcourt-en. Beste behin, ikasle-, emakume- eta langabetu-oldeek elkarrekin egin

zioten aurre poliziari, eta gobernuaren hainbat eraikin errauts bihurtzeraino erre zituzten. Bendelen, espetxea arpilatu eta ehunka preso askatu zituzten, eta hango elikagaiak janaritegian itxi zituzten, gero ospitaleetan banatzeko, non pazienteak goseak akabatzen egoten baitira, baldin eta etxetik janaria eskuratzeko aukerarik izaten ez badute. Datuen arabera, Tiananmen Plazako istiluak gertatu ziren egun beretan laurehun pertsona baino gehiago hil zituzten Nigerian; halere, AEBko komunikabideek ez zuten hitz-erdirik ere aipatu istilu eta masakre haren inguruan.

Zairen ere izan dira NDFren aurkako protestak. 1988ko abenduan, gobernuaren tropek emakume-andana bat metrailatu zuten. 1989ko otsailean, hamarnaka ikasle erail edo zauritu zituzten Kinshasan eta Lumumbashi-ko Unibertsitatean; autobusaren prezioaren aurkako protestetan, ikasle batzuek gobernuaren autobus bat hartu zuten. Ghanan ere, NDFren akordioa indarrean jarri zenez geroztik, egunero izan dira istiluak ikasleen eta gobernuaren artean.

Altzaxamendu jendetsu horiek austeritatearen eta egiturazko doikuntzaren aurkako erresistentziaren parte bat baino ez dira. Eguneroko eta etenik gabeko gerra aparkalekuetan bizi dute herri-tarrek, garraio-bideen prezio-igoera salatzen elkartzen direnean; edo «buka»tan, non jendeak jarrera irmoa agertzen baitu, zopari okela-zati bat eranstea aparteko dirurik ordaindu behar ez dutela iritzita; baita merkatuetan ere, saltzaile «ilegalak» (hau da, zergarik ordaintzen ez dutenak) debekatzeko ahaleginari buru egiten diotenean. NDFren politiken aurkako mikroborroka horiekin batera, ugaritu egin dira, orobat, lapurreta armatua, kontrabandoa eta lurrak eskuratzeko gerrak. Baina borrokek fruituak eman dituzte, eta gauzak aldatzeko ahalmena dutela erakutsi dute. Esate batera, orain dela gutxi Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) gailurra egon da Parisen (Bastilla-ren hartzearen berrehungarren urteurrenean), eta han erabaki dute EDP programa ezarri zuten herrialde afrikarretan zorraren parte bat ezereztea (herrialderik «pobre»enetan, %50 arte).

Urteurrenak, luzamenduak eta zor-krisiaren amaiera

Laburbilduz, artikulua honetan agerian geratu da ez ez-kerraren azterketa ez eskuinarena ez direla egokiak guk esku

artean dugun zereginerako, alegia, zor-krisiaren dinamika azaleratzeko eta haren amaierari buruz gogoetatzeko. Zorraren krisiak metaketa-arazo bat dakar berekin, nola eskuinarentzat hala ezkerarentzat. Baina ez bata ez bestea ez dira gai azaltzeko zergatik agertu den krisia orain, garai honetan, eta zergatik bilakatu den gaur egungo garapen kapitalistaren alderdi kroniko bat. Funtsean, bietako bat ere ez da gai esateko zerk ekar dezakeen krisiaren amaiera. Eskuineko zein ezkerreko analisiak ez dira zuzenak, ez direlako ohartzen zor-krisiaren xedea ez direla zordun ofizialak (Hirugarren Munduko nazioak, bankuak eta enpresak), baizik eta beste inor baino lehen kreditu-sistematik kanpo geratzen diren haiek: langile afrikarrak. Afrikari begiratuz gero, errazagoa da akats horretaz jabetzea, han erabat absurdua begitantzen baitzaie Lagoseko soldatapeko langile bat edo Nigeriako Kano probintzia landatarreko nekazari bat NDFrekin zorretan egotea. Ulertuz gero zorraren krisia zorrik ez duten haiei zuzenduta dagoela, uler dezakegu, halaber, zergatik kronifikatu den, Brady eta Baker guztien manipulazioen gainetik. Ez Afrikan ez handik kanpo, klase kapitalistako inork ez du nahi Afrikako zor-krisia amaitzea. Aitzitik, kudeatu egin nahi dute. Izan ere, kreditu-sistemaren parte den heinean, zorra bere lana egiten ari da; alegia, «produkzio-indarren garapen materiala eta munduko merkatuaren ezarpena azeleratzen ari da».

Hori esanda gero, onartu behar dugu zor-krisia nahiko tresna arriskutsua dela, hura nazioartera zabaltzeak mundumailako borrokarako zirkuitu bat irekitzen baitu, eta zirkuitu horren barruan sartzen dira, gero eta neurri handiagoan, Ekialdeko Europa, SESB eta baita Txina ere. Horregatik, zorraren krisiak elkartasun-molde berriak ekar ditzake nazioarteko proletarioen artera, eta, hala, zor-krisiaren iruzurrak «produkzio-molde zaharrraren deuseztapena» ekar dezake,⁶⁷ zordun mairu zahar batek behin iragarri bezala.

67 Honi egiten dio erreferentzia: Karl Marx, *Capital: A Critique of Political Economy*, Vol. 3, arg. Friedrich Engels, itz. Ben Fowkes (Londres: Penguin, 1991), IV. zatia, 27. kapitulua, 572. Marxek honela dio: «Kreditu-sistemak produkzio-indarren garapen materiala eta munduko merkatuaren sorrera azkartzen du... Aldi berean, kredituak azkartu egiten ditu kontraesan horren agerraldi bortitzak –hau da, krisiak–, eta, horiekin batera, baita produkzio-molde zaharrak deuseztatzen dituzten elementuak ere».

LAU

TXINA: BURDINAZKO ARROZ-KATILUA HAUSTEN

Burgesiak, produkzio-bitarteko guztien hobekuntza bizkorrekin, eta etengabe erraztutako komunikabideen bitartez, nazio guztiak, baita barbaroenak ere, zibilizaziora eramaten ditu. Salgaien prezio txikia artilleria astun bihurturik, Txinako harresi guztiak eraisten ditu, eta tribu barbaroen atzerritarrenganako gorroto setatia errendiarazten du.

Karl Marx, Manifestu Komunista

Zergatik dago jendea gosez?

Agintariak dirua zergetan xahutzen dutelako.

Horregatik, jendea gosez dago.

Zergatik dago jendea iraultza-gosez?

Agintariak gehiegi nahasten direlako beren bizitzetan.

Horregatik, jendea iraultza-gosez dago.

Jendeak zergatik ez du heriotzan pentsatzen?

Agintariak gehiegi eskatzen diotelako bizitzari.

Horregatik, jendeak arinki hartzen du heriotza.

Gutxirekin bizi behar denean, norberak badaki ezin diola balio gehiegirik eman bizitzari.

Lao Tzu, Tao Te Ching

Komunikabideek eta AEBko gobernuak sozialismo burutuak dituen oztopoen adibide gisa saldu dute langile eta ikasle txinatarren protesten aurkako errepresioa, eta Txinako proletarioek merkatu librearen ekonomiarekin hartu duten konpromisoaren seinale argizat jo dute. Laburbilduz, adierazi nahi dugutena da Tiananmen Plazako ikasle eta langileak bi arrazoiengatik borrokatu zirela: batetik, Askatasunaren eta Demokraziaren alde, eta, bestetik, azken hamabost urteetan Txina

ekonomia liberalizatuaren bidean jarri duen prozesua azeleratzearen alde.

Ez da harritzekoa gertaera haiek hala aurkeztea. Izan ere, bai Txinako gobernuak bai AEBkoak etekin handia atera diezaiekete horrelako kontakizunei. AEBri dagokionez, ikasle eta langileen borrokaren helburu bakartzat askatasun politikoa jota, protestaren dimentsio ekonomikoa ezkutuan geratzen da. Kazetariak ez diete galdetu ikasleei haien bizi-kondizioez, ezta haiekin batera Tiananmen Plazan kanpin-denda bat jarri duen langileen sindikatu independente berriaren (Langileen Elkarte Autonomoa) eskaerei buruz ere. Kontakizun horrek, gainera, aukeran dauden hautu bakarrak askatasuna (hots, kapitalismoa) eta totalitarismoa direla berresten laguntzen du, eta, beraz, Gerra Hotzaren ideologia berpizten du, zeina gezurtatua izateko arriskuan baitago, kontuan hartuta Gorbaxov-ek «merkatu aske»arekin duen maitasun-istorioa eta Ekialdeko Europak «mendebaldartzeko» duen presa. AEBko gobernuak ez du begi onez ikusten Gerra Hotzaren tentsioa azkarregi baretzea; izan ere, harremanak laxatzen badira, AEBk European armategi nuklear bat izateko eskubidea gal dezake, eta Estatu Batuek ezinbestekoa dute armategi hori –duela gutxi Kissinger-ek gogorarazi bezala–, hegemoniari eusteko. (Hortik datoz Kissingerren eta Bush-en ahalegin politikoak, helburu dutenak Deng-en gobernu indartzea eta, aldi berean, arerio ideologiko bilakatzen jarraitzea). Ikuspegi horretatik, nahitaezkoa da komunismo totalitario eta odolzalearen espektroari eustea; batez ere, Alemaniaren antzeko aliatuekin tratatzean (alde batetik, AEBri esaten dio European irismen laburreko misil gutxiago izan behar dituela, eta, bestetik, Ekialdeko Europako langile «komunisten» lanaz baliatzen da).

Txinari, berriz, langile eta ikasleen mugimendua atzerriko konplot «kontrairaultzaile» baten gisan erakustea interesatzen zaio. Hirugarren Munduko beste herrialde batzuetan bezala, badakite sentimendu antiimperialistaz baliatzea aukera ona dela. Horregatik, ekonomia liberalizatzeko prozesuaren kontra hazten ari den etsaitasuna beren alde erabiltzen dute, nahiz eta liberalizazioaren bidean jarraitzeko asmo irmoa izan; are gehiago orain, haren kontrako erresistentzia, erabat suntsitu ez arren, gogor apaldu den garaiotan.

Beraz, AEBk eta Txinako komunikabideek diotenari kasu eginez, kapitalismoaren aldekoa izan zen 1989ko udaberriko mugimendua? Ekainaren 4az geroztik Txinako gobernuak ikasle eta langileen aurka egindako sarraski, exekuzio eta kartzelaratzeek, sozialismoa defendatzea zuten helburu? Ez dugu uste. AEBren eta Txinako komunikabideen arteko akordioa ondo pentsatutako gezur baten gainean eraikita dago, 1989ko udaberriko gertaeren aurreko hilabeteetan *New York Times* egunkarian argitaratutako artikuluek erakusten dutenez.

Beijing-eko kaleetako odola garbitu ahala, lider sozialistek alimaleko ahalegina egin zuten atzerriko inbertitzaileak berriz erakartzeko, zeinak, jakin dugunez, Hong Kong-en eduki zituzten, zuhurki, Beijingetik ez oso urrun. Beraz, saiakera hark agerian jartzen du ikasle eta langileen aurkako neurri zorrotz haiek helburu sozialistekiko atxikimendua lortzea zutela helburu, hein handi batean. Eta, *New York Times*eko artikulua beraren arabera, inbertitzaileei luzatutako deia ez zen erantzunik gabe geratu: saldoka itzultzen hasi ziren; halako abiaduran, non, azkenean, Japoniako gobernuak zuhurrago jokatzeko eskatu behar izan baitzien bere negozio-gizonei.

Beste zenbait artikulutan azaldutakoaren arabera, ikasleak kalera atera baino hilabete batzuk lehenago bi arazo islatzen zituen eztabaida bat piztu zen Txinan. Batetik, langileek merkatuaren liberalizazio-prozesuarekiko erakusten zuten desadostasuna. Bestetik, Txinako agintariak aurrez aurre zuten dilema; izan ere, liberalizazio-prozesuarekin aurrera egin nahi bazuten ere, matxinada sozialista baten beldur ziren.

Atzerriko inbertitzaileak kexu ziren, «Txinak, oraindik ere, jarrera paternalista duelako bere enpresekin». Haien presioei erantzunez, 1989ko martxoan, Txinako buruek banku-porrotaren inguruko lege berrien egingarritasuna aztertu zuten: errentagarriak ez ziren enpresak ez ziren erreskatatuko; behea jo beharko zuten, eta, beraz, langileak kalera bota beharko zituzten. Beste artikulua batean, «Socialism Grabs a stick; bankruptcy in China» [Sozialismoak makila bat hartu du eskuetan; porrota Txinan], argi azaltzen zen enpresek behea jotzearen kontua langileen diziplinarekin lotuta zegoela. Artikulu haren arabera, «Txinako funtzionarioek esaten dute porrotaren legeak garrantzitsuak direla, eta hala direla, batez ere, langileei helarazten

dieten mezuagatik, alegia, errentagarritasunak garrantzi handia duela, baita gizarte sozialistetan ere». Artikuluak azaltzen zuenez, Txinako konpainiek arazo ugari zituzten, adibidez: «Pentsio-gastuen zama erraldoia dute, eta, maiz, pentsioa kobratzen ari diren pertsona erretiratuen kopurua lanean ari direnena halako lau izaten da». Are gehiago, zenbait herritan (Shenyangen, esaterako) kaleratzeen inguruan egindako esperimentuek ez dute izan «espero bezalako emaitzarik». Enpresek dirua jarri behar zuten kolektiboki ongizate-funts batean, langile kaleratuei aseguru eman ahal izateko eta, hala, porrotaren bidez sortu nahi ziren arriskuak saihesteko. «Bada, langileek soldata-onura esanguratsuak jaso ahal izan dituzte, baita lanpostua borondatez utzi dutenean ere». Artikulua ondorio honetara iristen da: «Ekonomista batzuen ustez, porrotaren bidezko zigorra ohikoa izan behar litzateke; halere, onartzen dute ezen gobernuak aginduz gero dirua galtzen ari diren konpainiak itxi egin behar direla, enplegu-arazo larriak sortuko liratekeela. Shenyango esperimentuen garaian Txinan egon zen Mendebaldeko diplomatiko batek azaltzen zuenez, «langileak erabat nahigabeturik zeuden inflazioagatik eta, enplegua galduz gero, lan-istilu handiak sortuko lituzkete».⁶⁸

«Lanaren arazoa» izan da Txinako gobernuak azken urteetan kudeatu behar izan duen gai arantzatsuenetakoa bat. Txinatik jasotako berriek ere behin eta berriro adierazi dute etorkizunean istiluak izango direla langileekin. 1989ko urtarrilaren 10ean *New York Times*en argitaratutako «Three Chinese Economists Urge an End to State Owned Industry» [Hiru ekonomialari txinatarrek diote estatuak berehala utzi behar diola industriaren jabe izateari] artikuluan aipatzen zenez, «enpresen helburua da langileentzako ahalik eta onura gehien lortzea, ez ahalik eta irabazi eta produktibitate handiena eskuratzea». Tiananmen Plazako manifestazioak hasi baino apur bat lehenago, 1989ko apirilaren 6an, *New York Times*ek «Second Thoughts on Laissez Faire or Plain Unfair?» [Hobeto pentsatu dute *laissez-faire* politikarena, edo desleialtasun hutsa izan da?] artikulua plazaratu zuen. Honela zioen: «Herritarrek beldur diote langabeziari, eta aberats berriak

68 Nicholas D. Kristof, «Socialism Grabs a Stick; Bankruptcy in China», *New York Times*, 1989ko martxoaren 7a, 2018ko maiatzaren 20an eskuraturik, <https://www.nytimes.com/1989/03/07/business/socialism-grabs-a-stick-bankruptcy-in-china.html>.

erresuminduta daude. Bi faktore horiek inflazioarekin eta ustelkeriarekin elkartzean, laborari eta langile txinatarrek ohartu dira ezinbestekoa dela gaiari berriz heltzea eta aldaketa ekonomiko erabatekoak dakartzan onuren inguruan hausnartzea. Txinako funtzionario batzuk eta atzerriko zenbait diplomatiko gero eta arduratuago daude, beldur baitira txinatarrek ez ote dioten onura baino kalte gehiago ekarriko merkatu-ekonomiari».

Artikulu hori Nicholas Kristof-ek idatzi zuen. Azaltzen duenez, «jeloskor» zeuden hirurogei pertsonak herri bateko fabrika bati eraso zioten; leihoak apurtu, eta argindarra eten zuten. Ehun herritar inguruk jabea salatu zuten, fabrikaren irabaziak guztien artean banatzera behartzeko. Artikuluan, Kristofek fenomeno berri bati buruz hitz egiten du, «begi gorrien gaixotasuna», zeinak, Txinako agintarien arabera, aberatsen bekaitz diren pertsonen eragiten baitie. Autoreak dioenez, gobernuak bizkar-tzain-talde berezi bat antolatu du Mongoliaren barnealdean, enpresariak «begi gorrien gaixotasuna» duten biztanleengandik babesteko. Eta iparraldeko Shenyang hirian, modernizazioaren eta liberalizazioaren inguruko esperimentu berrien kokagunean, langile batek bere nagusia hil zuen aurreko urtean; gobernuak exekutatu egin zuen, baina herritarrek heroitzat hartu zuten, nagusia tirano bat omen zelako. Laburbilduz, artikuluak aipatzen duenez, txinatarrek merkatua «oparotasunez beteriko txoko epel gisa ikusten zuten, ez min-iturri gisa... [Baina] gaur egun, badirudi txinatarrek kexu direla, eta gobernua ere oharturik dago bere herritarren atsekabearen larriaz». Bestalde, artikuluan esaten da ezen, *People's Daily* egindako aurreikuspenaren arabera, krisi ekonomikoaz gain krisi politikoa ere egongo dela, %27ko inflazio-tasak kalte handia egin dielako soldata finkoa duten hiritarrei.

Txinatar asko arduratuta daude, gobernua «burdinazko arroz-katilua» hausteari buruz hitz egiten ari delako. Burdinazko arroz-katilua zera da: «bizi guztirako lanpostuen sistema, Txinako fabriketan alferkeriarekin lotu ohi dena». Fabriketako kudeatzaileek langile ez-eraginkorrak egozteko edo garai txarretan aldi baterako kaleratzeko eskubidea izan nahi dute. Gobernua «kontu handiz norabide horretan mugitzen ari bada ere, ez da kaleratze masiborik egon oraingoz, ezta Shenyangen ere, non plana inon baino gehiago garatu den». Mendebaldeko diplomatiko bat kezkatutik agertu da; izan ere, lantokiaren li-

beralizazioak kaleratze ugari eragin ditzake eta horrek, aldi berean, legez kanpoko greba larriak eta ezinegon soziala ekar ditzake. «Herritar askok bere horretan utzi nahi dute burdinazko arroz-katilua», dio Asiako diplomatiko batek. «Sistema ona da gogorregi lan egin nahi ez dutenentzat». ⁶⁹

«Burdinazko arroz-katilua» ez da langileak galtzear dau- den berme bakarra. Beste bat ere badago: etxebizitza. 1989ko martxoaren 1ean, «Chinese Face Epochal Wait for Housing» [Etxebizitza lortzeko itxaronaldi historikoa Txinan] artikulua argitaratu zuten *New York Timesen*; han aipatzen zenez, Zhao Ziyang-ek erabaki zuen etxebizitza-erreformak «ekonomia na- zionalaren oinarrietako bat» izan behar zuela. Honela azaldu zuten artikuluan: «Etxebizitzen jabetza pribatizatzeke erabakia ez zen arinki hartu, kuestionatu egiten baitu gizartearen oinarria –hemen gizartearen oinarritzat ulertu izan dena–. Azken berro- gei urteetan, «langile-unitateek» edo enplegatzaileek etxebizitza kasik doakoz hornitu dituzte langileak, eta hori, hiri-eremuko txinatarrentzat, arroza edo fideoak bezain funtsezkoa izan da. Enpresaburu batek dioenez, etxebizitzak ongizate-sistema mo- duko bat ziren. «Oso merke alokatzen genituen, baina ez ziren nahikoak, gehiago behar ziren. Orain, etxeak erostera bultzatzen ditugu langileak». Amaitzeko, hala dio artikulua: «Prezioen in- guruko adostasuna gero eta handiagoa da: alokairuak baxuegiak dira. Lauko familia baten kasuan, adibidez, hileko errenta sei zentimoren baliokidea da». Orain, erreformarekin, merkatuan dauden etxebizitzek 13.000 eta 41.000 \$ bitartean balio dute, «izugarritzko dirutza, kontuan hartuta hileko batez besteko sol- data 25 \$-ekoa dela». ⁷⁰

Horrek guztiak azaltzen du, neurri handi batean, zergatik Txinako eta AEBko komunikabideek ez zuten ezer esan Tianan- men Plaza ikasleekin batera hartu zuen «mugimendu sindikal berriari» buruz. Azaltzen du, halaber, zergatik agerrarazi zuten protestagile gehienak ikasleak zirela, nahiz eta gero gobernu

69 Nicholas D. Kristof, «Beijing Journal; Second Thoughts: Laissez Faire or Plain Unfair?», *New York Times*, 1989ko apirilaren 20a, 2018ko maiatzaren 20an eskuratua, <https://www.nytimes.com/1989/04/06/world/beijing-journal-second-thoughts-laissez-faire-or-plain-unfair.html>.

70 Nicholas D. Kristof, «Chinese Face Epochal Wait for Housing», *New York Times*, 1989ko martxoaren 1a, 2018ko maiatzaren 20an eskuratua, <https://www.nytimes.com/1989/03/01/world/chinese-face-epochal-wait-for-housing.html>.

komunistak langileenganako amorrua agertu, nagusiki. Udaberi hartako «krimen»ak aintzat hartuta exekutatutako gehienak langile gazteak eta gizon langabeak izan ziren. Guztiarekin ere, herritarrak *laissez-faire* politikaren abantailez konbentzitu guran zebiltzan garai hartan, lan-gatazka arazo handiago baten zati bat besterik ez zen.

Iraultza haren funtsezko arrazoietako bat landa-eremuan gertatutako aldaketek osatzen dute, hamarkada batez luzatutako lur-jabetzaren pribatizazio-prozesuaren eta nekazaritzaren komertzializazioaren atzetik etorri direnak. Aldaketa haiek, orobat Txinak bere esportazio-gaitasuna areagotu izanak, egiturazko ondore sakonak eragin dituzte landa- eta hiri-eremuetako bizi-kondizioetan, eta horren ondorio nagusietako bat da lantariak lurretatik egozten ari direla. Beste era batera esanda, Txinan itxitura-prozesu masibo bat gertatzen ari da, beste ezein herrialdetakoa baino maila handiagokoa, ziurrenik.

Adituen ustez, gaur egun 100 milioiko gainpopulazioa dago, eta mendearen amaierarako 200 milioira iritsiko da. Horrez gain, eta gobernuak egindako kalkuluen arabera, 50 milioi pertsonako biztanleria mugikor bat dago; lurretatik egotziak izan diren nekazariak dira, hirien artean alderrai dabiltzanak, haietan egoteko legezko eskubiderik gabe. Shanghai-n, 1987ko egun arrunt batean, halako 1,3 milioi pertsona egon omen ziren; Canton-en, milioi bat, eta Beijingen, 1,1 milioi; haietatik erdiek hiru hilabeteko gutxieneko egonaldia egiten zuten hirian. Hirietako funtzionarioek ere onartzen dute iragaitzazko biztanleek alderdi positiboak ere badituztela, aldi baterako lanak hartzen dituztelako, eskale bihurtu barik. Baina, halaber, iragaitzazko herritarrak omen dira hirietako krimen-kasu guztien heren baten erantzuleak, eta, gainera, biztanleria iraunkorrari zuzendutako janari diruz lagundua xahutzen dute: Cantonen bakarrik, 400.000 kilo barazki eta 130.000 kilo haragi eguneko. Arazoa, beraz, «zerbitzuetan eragiten duten hondamena da». Txinatar ekonomialari batzuen ustez, irtenbide bakarra da dirulaguntzak apurka kentzea eta «balioaren legean» oinarritutako «sortu ahala konpondu» formula erabiltzen duen sistema bat ezartzea. *The Economist*ek honela jarraitzen du: «[Agintariak] beren kasa utziz gero, epe laburrean zera lortuko da: soldaten arteko des-

berdintasuna gero eta handiagoa izatea, inflazioa handitzea eta biztanleak urduritzea».

Nekazaritza komertzializatzeak beste ondorio bat ere izan du: prezioen igoera. Igoera hori hain izan da handia, non, beharbada, Txinatarrek goseteari aurre egin beharko dioten (lehen aldiz, «Aurrerako Jauzi Handia» plangintza haren ondotik). 1988ko urriaren 28an, *New York Times*eko artikulu batek zera zioen: urte hartako maiatzean gobernuak nekazaritzaren alorreko salneurri ugariaren gaineko kontrola kendu zuela, eta «merkatuaren esku» utzi zuela «hainbat produktu eta zerbitzuren kostua zehazteko ardura»; ondorioz, prezioak izugarri igo ziren, eta jendeak izuak eragindako erosketak egin zituen. Hiri batzuetan, inflazioa %50era iritsi zen.⁷¹ *Wall Street Journal*ek inflazio etengabe gorakorra biztanleen bizi-kondizioetan eragiten ari zen ondorio batzuk aipatu zituen: 1987an, hirietako soldatapekoen bizitza-estandarra %21 jaitsi zen, eta, hondamen haren kariatara, hiritarrek izuak eragindako erosketak egiteari ekin zioten, dirua atera zuten baketatik, eta grebak egin zituzten estatua-ren jabetzako zenbait fabrikatan.⁷² Hiritarrak gero eta haserreago zeuden gobernuarekin. Horrek guztiak erakusten duenez, 1989ko udaberriko protesta *laissez-faire* ekonomia-politikaren kontrako erresistentzia-prozesu luze baten azken adierazpena izan zen, baita apartekoena ere, eta Hirugarren Munduan zehar «egiturazko doikuntzaren» aurka egindako protestekin bat zetorren, hala nola 1989ko udaberrian Venezuela, Argentina, Myanmar eta Nigerian egin ziren manifestazio jendetsuak, prezio-igoe-ren, dirulaguntzak kentzearen eta ekonomia liberalizatzearen aurkakoak.

Nolanahi ere, ez da harritzekoa ikasleak izatea ekintzetan aurrea hartu zutenak; izan ere, froga batzuek erakusten dute-nez, azken urteetako inflazio-espiralak ikasleei ere eragin zien. Komunikabideetan begiratzuz gero, hezkuntzarako aurrekontua igotzearen harira gobernuak egindako promesei buruzko informazio erdi-estalia aurki daiteke. *Laissez-faire* politikaren eta

71 Edward A. Gargan, «China Explains Policy Shift Retightening Economic Grip», *New York Times*, 2018ko uztailaren 13an eskuratu, <https://www.nytimes.com/1988/10/28/world/china-explains-policy-shift-retightening-economic-grip.html>.

72 Adi Ignatius, «China's Restructuring Is Enriching Peasants but Not City Dwellers», *Wall Street Journal*, 1988ko urriaren 10a.

liberalizazioaren ondorioak ikusita, erraz imajina dezakegu zer neurritan eragin zien ikasleei dirulaguntzen murrizketak. Horrekin lotuta, beste kontu bat ere azpimarratu behar da: 1989ko maiatzaren 25ean *New York Times*en argitaratutako «Aspiring Party Leaders at the Forefront of Revolt» [Alderdiko buruzagiaiak iraultzaren lehen lerroan] artikuluan aipatzen denaren arabera, iraultzaren buruak ez ziren izan Bejingeko Unibertsitateko ikasleak, baizik eta Herriaren Unibertsitatekoak –proletarioagoak, Mendebaldearen eragina maila txikiagoan bizi zutenak–, haiek baitziren dirulaguntzen murrizketaren ondorioak gehien pairatuko zituztenak.⁷³ Egun bereko *New York Times*en, ikasleek gainditu beharreko oztopoez diharduen beste artikulua bat ere badago; ikasle batek zioenez, Cantoneko ikasleek, Bejingekoek ez bezala, erraz aurkitzen zuten bigarren lan bat, hilabetearen amaierara heltzen laguntzen ziena. «Jendeak beti aurki dezake lan osagarri bat, hotel batean edo taxi bat gidatzen».⁷⁴

Nola ez, ikasleen artean ere badaude komunikabideetan gehien agertzen den irudiarekin bat egiten dutenak; esan nahi baita, Mendebaldearen aldeko intelektual antikomunistak, adierazpen-askatasunari jarritako mugak inork baino gehiago pairatzen dituztenak. Nolanahi ere den, komunikabideek beste irudi bat ere erakusten dute, alegia, Txinako ikasleen mugimendua Hirugarren Munduko beste toki batzuetako ikasle-mugimenduen ildo beretik doala; lehenik eta behin, Txinatik gertuen dauden ikasle-mugimenduekin alderatzen dute, Hego Koreakoarekin eta Myanmarrekoarekin.

Adibidez, Myanmarreko ikasleek haien posizio soziala eta antolakuntzarako baliabideak erabili zituzten gobernuaren eta haren ustelkeriaren aurkako protesta masiboen oinarriak ezartzeko. Urtebetez baino gehiagoz, langile eta langabeek masakreen eta torturen aurka egiten zituzten protestekin bat egin zuten. Era berean, Txinako ikasleek «begi gorrien gaixotasuna» zutenen eskaera bera aldarrikatzen zuten: «Ustelkeriarik ez!»;

73 Fox Butterfield, «Aspiring Party Leaders at the Forefront of Revolt», *New York Times*, 1989ko maiatzaren 25a, 2018ko maiatzaren 20an eskuratu, <https://www.nytimes.com/1989/05/25/world/aspiring-party-leaders-at-forefront-of-revolt.html>.

74 Barbara Basler, «Upheaval in China; Canton's Prosperous Students March», *New York Times*, 1989ko martxoaren 25a, 2018ko maiatzaren 20an eskuratu, <https://www.nytimes.com/1989/05/25/world/upheaval-in-china-canton-s-prosperous-students-march.html>.

Txinako Alderdi Komunistaren kapitalizazioari buruz ari ziren, hau da, Alderdi Komunistako funtzionarioak kapitalista bihurtu izanari buruz. Protesten alderdi hori sinbolikoki ere adierazi zuten; 1989ko maiatzaren 25eko *New York Times*eko «Upheaval in China; Chinese Take Umbrage at Attack on Mao's Portrait» [Aztoramena Txinan; Mao-ren erretratu baten aurkako erasoak txinatarrek erresumindu ditu] artikuluan adierazi bezala, «azkenaldian, langile eta ikasle batzuk Maoren txapak eta pinak jartzen hasi dira; itxura batean, haren garaiko berdintasunaren, zintzotasunaren eta altruismoaren mira dutela adierazi nahi dute».⁷⁵

Azkenik, ikus ditzagun 1989ko ekainaren 6an *New York Times*en agertu ziren bi artikulua, hau da, Beijingeko masakreak gertatu eta bi egunera, gerra zibila guztien ahotan zebilenean: «Crackdown in Beijing; Civil War for Army» [Neurri zorrotzak Beijingen; gerra zibila armadarentzat] eta «Crackdown in Beijing; An Army with Its Own Grievances». [Neurri zorrotzak Beijingen: armadaren arrangurak]. Lehen artikuluan aipatzen zenez, «Txinako goi-mailako ofizial guztiek harreman handia izan dute Amerikako militarrekin, eta ikastaroak egin dituzte AEBko eskola militarretan». Eta honela jarraitzen zuen: «Txinan ernatzen ari den pentsamendu militarra eredu amerikarrean oinarrituta dago, eta Txinaren modernizazio-programa Amerikako teknologiaren eta ekipamenduaren mende dago zati handi batean». Bitartean, atsekabea da nagusi tropen artean.⁷⁶ Bigarren artikulua azaltzen zuen Txinako Armadari agindu zitzaiola bere burua mantentzeko gai izan behar zuela. «Ondorioz, zenbait unitatek beren kamioiak erabili dituzte garraio-konpainiak sortzeko; konponketa-tailerrak garaje komertzial bihurtu dituzte, eta ospitale militarretan paziente pribatuak onartzen dituzte». Honela dio artikulua, lehorki: «Zenbait kasutan, soldadu eriak

75 Sheryl Wudunn, «Upheaval in China; Chinese Take Umbrage at Attack on Mao's Portrait», *New York Times*, 1989ko maiatzaren 25a, 2018ko maiatzaren 20an eskuratu, <https://www.nytimes.com/1989/05/24/world/upheaval-in-china-chinese-take-umbrage-at-attack-on-mao-portrait.html>.

76 Bernard E. Trainor, «Crackdown in Beijing; Civil War for Army», *New York Times*, 1989ko ekainaren 6a, 2018ko maiatzaren 20an eskuratu, <https://www.nytimes.com/1989/06/06/world/crackdown-in-beijing-civil-war-for-army.html>.

alde batera utzi dira, ordaintzen duten pazienteei leku egiteko. Horrek etsipen handia eragin du».⁷⁷

AEBko edozein aldizkari-denda ongi hornituta esku-
ra daitezkeen artikulu guztiak elkarrekin jarritz gero, erraz ikus
daiteke Txinako ikasle eta langileen mugimendua ez zela izan
hiltzorian zegoen sozialismoaren azken kapitulua, baizik eta
sozialismoaren ondorengo lehen borroka antikapitalista. Tia-
nanmen Plazako ikasleen protestek atea ireki zioten aspaldi
iragarritako langileen eta gobernuaren arteko konfrontazioari.
AEBrentzat, berriz, errepresioa egokia eta «saihestezina» izan
zen; izan ere, neurriak gogortu aurreko hilabeteetan komuni-
kabideetan aipatu bezala, erabakigai zegoena ez zen proletario
antikapitalisten eskaerak baztertu behar ziren ala ez, baizik eta
nola baztertu behar ziren.

77 Fox Butterfield, «Crackdown in Beijing: An Army with Its Own Grievances», *New York Times*, 2018ko maiatzaren 20an eskuratua, <https://www.nytimes.com/1989/06/06/world/crackdown-in-beijing-an-army-with-its-own-grievances.html>.

BOST

KOMUNAGINTZATIK ZORRERA: FINANTZARIZAZIOA, MIKROKREDITUAK ETA KAPITAL-METAKETAREN ARKITEKTURA ALDAKORRA

Sarrera: finantzarizazioa eta zor-ekonomiaren areagotzea

David Graeber-ek argiro azaldu zigun bezala,⁷⁸ zorrak leku garrantzitsu bat bete izan du beti gizateriaren historian eta klase-borrokan. Jada antzinako Atenasen, K.a. VI. mendean, zordunen matxinadak ohikoak izaten ziren, helburu zutenak zorrak bertan behera uztea eta zorraren esklabotza debekatzea.⁷⁹ Erroman, K. a. 63. urtean, *populares* zeritzen aristokrata-taldearen buru Katilina-k zordunez osatutako gudaroste bat gidatu zuen patrizioen aurka.⁸⁰ Aro Modernoan, zor publikoa «metatze primitiboaren palankarik eraginkorrenetako bat» bilakatu zen; hala adierazi zuen Marxek, «Kapitalista industrialaren sorrera» kapituluan.⁸¹ Massachusetts mendebaldeko Shays-en matxinadan –1786an gertatu zen, AEBko Independentzia Gerra amaitu eta hiru urtera–, zor-biltzaileak zeuden jomugan.⁸² Ehun urte geroago, Alderdi Populistik nekazarien amorrua plazaratu zuen, zorrak ordaindu ezinik geratu zirenez bankariek etxaldeak kendu zizkietelako.⁸³ Depresio Handiaren garaian, zorren eta hipoteken betearazpen-

78 David Graeber, *Debt: The First 5000 Years* (Brooklyn: Melville House, 2011).

79 Graeber, *Debt*, 230.or. -31.or., 427nn24–25.

80 George Caffentzis, «Two Cases in the History of Debt Resistance», argitaratu gabeko testua, Occupy University Fall Series on Debt ekitaldirako egindako aurkezpen batean oinarritutakoa, the Elizabeth Foundation for the Arts, 2012ko urriaren 17a, 3.

81 «Aberastasun nazional deituriko horri dagokionez, nazio moderno baten jabetza kolektibo izatera igarotzen den zati bakarra zor nazionala da»; Marx, *Capital: A Critique of Political Economy*, 1. bol., arg. Friedrich Engels, itz. Ben Fowkes (Londres: Penguin, 1990), 919.

82 Howard Zinn, *A People's History of the United States: 1492-Present* (New York: HarperCollins, 1999 [1980]), 3.

83 Zinn, *A People's History of the United States*, 284.

mehatxuen aurrean, «zentabo-enkante»ak [penny auctions] sortu ziren Wisconsin-en, eta, handik, Ameriketako Mendebalde Er-tainaren zati handi batera zabaldu ziren. Labur esanda, klase gidariak menderen mendetan erabili du zorra, zertarako-eta es-plotazioa eta esklabotasuna ahalbidetzeko. Nolanahi ere, zorra ez da «unibertsal politiko»tzat jo behar; zorrak berak ere eral-daketa esanguratsuak jasan ditu, zorrarekin batera garatu diren klase-gizarteek aldaketak pairatu dituzten era berean.

Azken baieztapen horrek inoiz baino balio handiagoa du gaur egungo testuinguruan; izan ere, garapen kapitalistaren bila-kaera neoliberalak «zor-ekonomia»⁸⁴ berri bat eragin du, metatze kapitalistaren arkitektura aldatzeaz gain klase-harremana eta zorra bera ere aldatzen ari dena. Zorra nonahikoa bihurtu da, eta mundu osoko milioika pertsonari eragiten die, lehenengo aldiz bankuekin zorrak dituztenak. Baina gobernarien eta finantza-rien helburua ez da soilik aberastasuna metatzea; horrez gain, zorra elkartasun soziala ahultzeko erabiltzen dute, eta baliatzen dute, halaber, komuna sozialak zein kapitalismoaren ordeko sistemak sortzeko munduan zeharreko mugimendu ugariak egi-ten ari diren ahalegina zapuzteko.

1979an piztutako «zor-krisi»arekin,⁸⁵ Erreserba Federalak dolarraren interes-tasa igo zuen. Izan ere, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), nazioarteko kapitalaren ordezkari gisa, dolarraren «egiturazko doikuntza» bat egin zuten, eta horrek, *de facto*, iraganeko mundu kolonialaren zati handi ba-ten birkolonizazioa ekarri zuen, zeinaren ondorioz hainbat eta hainbat eskualde zor handi batean murgildu baitziren, urteekin kitatu ez-eta, handituz joan dena.⁸⁶ «Zor-krisia» dela-eta, kolo-

84 *Zor-ekonomiaren kontzeptua* Maurizio Lazzarato-rengandik hartu dut: *The Making of the Indebted Man*, Semiotext(e) Intervention Series 13. zk. (Cambridge, MA: MIT Press, 2012).

85 Gaur egun, zor-krisiari buruzko argitalpen bolumena izugarria da. Erreferentziak nahi izanez gero, ikus Elmar Altvater et al., *The Poverty of Nations: A Guide to the Debt Crisis from Argentina to Zaire* (Londres: Zed Books 1991 [1987]); George Caffentzis, «The Fundamental Implications of the Debt Crisis for Social Reproduction in Africa», in *Paying the Price: Women and the Politics of International Economic Strategy*, arg. Mariarosa Dalla Costa eta Giovanna F. Dalla Costa (Londres: Zed Books, 1995), 153. or. -87.or.; Federici, «Zorraren krisia, Afrika eta itxitura berriak» liburu honetan; Harry Cleaver, «Notes on the Origins of the Debt Crisis», *New Enclosures, Midnight Notes* 10. zk. (1990eko udazkena).

86 Latinoamerika da salbuespena, non kanpo-zorra BPGd-ren %59koa baitzen batez beste 2003an, eta egun, berriz, haren %32koa den; «Database: *Latin Macro Watch*»,

nien aurkako borrokaren bidez erdietsitako lorpenak hutsean geratu ziren herrialde askotan, eta ordena ekonomiko berri bat ezarri zuten indarrez, herri asko ordura arte inoiz ezagutu gabeko pobrezia kondenatu zituen. Hori oinarri hartuta, munduko ekonomia politikoa berregituratzeko prozesu bat jarri da mar-txan, Afrikako, Latinoamerikako eta «zor-krisia»n harrapatuta dauden herrialde guztietako baliabideak sistematikoki Europara, AEBra eta, oraintsuago, Txinara bideratu dituen.

«Zor-krisia» hain izan da baliagarria «Hirugarren Mun-dua»ren zati handi bat birkolonizatzeko, non mekanismo hori bera erabili baita Ipar Amerikako eta (oraintsuago) Europako langileen artean diziplina ezartzeko; hori erakutsi dute hainbat herrialdetan –besteak beste, Grezian,⁸⁷ Espainian, Italian eta Erre-suma Batuan– ezarritako austeritate-neurri zorrotzek. Horren erakusgarri da, orobat, zor publikoa udalerri txikietan eragiten ari den suntsipena;⁸⁸ «horren ondorioz, gizarte batzuk zordun bihurtu dira».⁸⁹ Halere, zor-ekonomia berri hau eragin duen lo-gikaren adierazpiderik argiena banakoen zor-molde berrietan ikus daiteke. Kapitalismoaren garapenak neoliberalismorantz egin duen heinean, ugaritu egin dira banakoez zorrak metatu ahal izateko mekanismoak: ikasleen mailegu-zorrak, hipotekak, kreditu-txartelen zorrak eta, batez ere, munduan zeharreko mi-lioika herritarri eragiten dien mikrofinantzen zorra.

Zer du berezia zorraren erabilera berri horrek, aintzat hartuta zorra esplotazio-baliabiderik zaharrena dela? Artikulu honetan, galdera horri erantzuten saiatuko naiz, eta hau argu-diatuko dut: banakoen zein taldeen zorrak, estatuaren zorraren ondorio ekonomikoak areagotzeaz gain, aldaketak eragiten dituzte

2018ko maiatzaren 21ean eskuratua, <https://www.iadb.org/en/databases/latin-macro-watch/latin-macro-watch-country-profiles%2C18579>. html.

87 Greziako «zor-krisiari» dagokionez, ikus TPTG (The Children of the Gallery), «Burdened with Debt: 'Debt Crisis' and Class Struggles in Greece», in *Revolt and Crisis in Greece: Between a Present Yet to Pass and a Future Still to Come*, arg. Antonis Vradis and Dimitris Dalakoglou (Oakland: AK Press, 2011), 245.or. -78.or.; David Graeber, «The Greek Debt Crisis in Almost Unimaginably Long-Term Historical Perspective», in Vradis eta Dalaoglou, *Revolt and Crisis in Greece*, 229.or. -44.or.

88 1970eko hamarkadaren amaieran, diru-arazoak diru berria sortuz konpontzea debekatzen zuten lege eta hitzarmenak onartzen hasi ziren, eta, horren ondorioz, estatuek eta udalerriek finantza-merkatu pribatueta jo behar izan dute garai hartatik aurrera egindako zorrak ordaindu ahal izateko; Lazzarato, *The Making of the Indebted Man*, 18.

89 Lazzarato, *The Making of the Indebted Man*, 8.

kapitalaren eta lanaren arteko harremanetan, baita langileen artekoetan ere; oinarri autogestionatuago bat ematen diote esplotazioari, eta elkar laguntzeko xedez herritarrak eraikitzen ari diren komunitateak elkar esklabo egiteko baliabide bihurtzen dituzte. Hori da zor-erregimen berriaren kaltegarritasun larriaren arrazoia, eta horregatik zaigu hain garrantzitsua horren atzean dauden mekanismoak ulertzea.

Ongizate-estatuaren amaiera eta soldata-komunaren krisia

2008ko *subprime* krisiaren ondorioz, banakoen eta familien zorrak jendearen arreta bereganatu zuen, eta horri buruzko ikerketen emaitzak hainbat eta hainbat testu akademikotan argitaratu dira: zorraren sorburua eta zorrak gizartearen eragindako ondorioak; egunerokotasunaren finantzarizazioarekin⁹⁰ eta erreprodukzioarekin zorrak duen erlazio geroz eta handiagoa;⁹¹ nola zorrak subjektibitate-modu berriak eragin dituen;⁹² eta, ororen gainetik, zorraren kontrako mobilizazio-modu eraginkorrenak.⁹³

Adostasun zabalarekin onartzen da estrategia politiko neoliberalak ezinbestean behar duela «zorreen oinarritutako» ekonomia bat (kontuan izan behar da estrategia hori 1960ko eta 1970eko hamarkadetan metatze kapitalista krisira eraman zuen borroka-zikloari erantzunez sortu zela, eta ziklo hori, era berean, garai fordistik indarrean zegoen kapitalaren eta langileen arteko kontratu soziala desagitearen ondorioz piztu zela). Ziurrenik, emakume, ikasle eta langileen borroketatik ikasi zuen klase kapitalistak langile-klasearen erreprodukzioan inbertitzea ez dela «errentagarria», ez lanaren produktibitate handiagoaren ikuspegitik, ez lan-indar diziplinatuagoa lortzeko helburuaren ikuspuntutik. Beraz, kontua ez da bakarrik «ongizatearen estatua» desagitea, «erreprodukzioaren finantzarizazioa» ere hartu behar da aintzat; izan ere, gero eta jende gehiagok (ikasleek, ongizatearen alorreko baliabideen onuradunek, pentsionistek) bankuetara jo eta dirua mailegatzea beste aukerarik ez du, lehen estatuak diruz laguntzen zituen zerbitzuak ordaindu ahal

90 Randy Martin, *Financialization of Daily Life* (Philadelphia: Temple University Press, 2002).

91 Christian Marazzi, *The Violence of Financial Capitalism*, Semiotext(e) Intervention Series, 2. zk. Cambridge, MA: MIT Press, 2010.

92 Lazzarato, *The Making of the Indebted Man*.

93 Caffentzis, «Two Cases in the History of Debt Resistance».

izateko (osasun-laguntza, hezkuntza, pentsioak); halandaze, erreprodukzio-jarduera asko metatze kapitalista berehalakorako gune bihurtu dira.

Hori guztia ondo ulertua dugu. Guztiok onartzen dugu zorra baliagarria dela austeritate soziala inposatzeko, erreprodukzioarako baliabideak pribatizatzeko eta mendekotasunaren mekanismoa areagotzeko.⁹⁴ Onartzen da, halaber, erreprodukzioaren finantzarizazioa, zeinaren bidez sortzen baita banakoen eta familien zorraren parte handi bat, ez dela ekonomia erreala-ren gainean eraikitako zerbait, baizik eta «ekonomia erreala» bera dela, pertsonen eguneroko lanaren antolamenduaren erantzule zuzena den neurrian. Halere, zorrari buruzko testu berrietan ez da behar adina azpimarratzen zer paper jokatzten duten zor-molde berriek elkartasun komunalen deuseztapenean, eta elementu hori da, hain zuzen, zor horiek eta proletarioek iraganean izandako zorrak bereizten dituen. Izan ere, gogoratu behar dugu zorra beti izan dela bizitza proletarioaren alderdirik ohikoetako bat. XIX. mendetik Bigarren Mundu Gerraren osteko garaia arte, langile-klaseen komunitateetan kredituari esker bizi ziren urtearen zati handi batean; dendariei soldata-egunean ordaintzen zieten, eta dirua uzten zioten elkarri, hilaren amaierara iritsi ahal izateko. Testuinguru horretan, zorra elkar laguntzeko modu bat izan da askotan, baliabide bat zeinaren bidez komunitateetako kideek beharrian handiena zuten haien eskuetan jartzen baitzituzten beren baliabide urriak. Kolonia industrialetan ere, zordunak ez ziren bakardadean erortzen, ze, morrontza komunaren ondorioz, langileek bat egiten zuten esplotatzaileen aurkako erresuminean. Zorraren konnotazioa epekako erosketaren bidez hasi zen aldatzen lehen aldiz, 1920ko hamarkadarako jada ohikoa zena.⁹⁵ Gero, Bigarren Mundu Gerraren osteko garaian, hipoteken luzapena etorri zen, batez ere gizonezko langile zuriek lortzen zutena; estatuak soldata bermatzen zuen, eta sindikatuek, berriz, abal gisa jokatzten zuten. Hipotekek eragindako zorrek eta kontsumitzaileen gastuek bi alde zituzten, aldi berean baitziren garaipena eta porrota. Garaipena, langileei kreditua emateak atzekoz aurrera jartzen zuelako «lehenengo lan

94 Lazzarato, *The Making of the Indebted Man*.

95 Ikus Gary S. Cross, *Time and Money: The Making of a Consumer Culture* (New York: Routledge, 1993), 148.

egin, gero kobratu» dioen printzipio ontologiko kapitalista; aldatetaren eraginez, proletarioak kredituan lan egiten hasi ziren. Porrota, berriz, zorra soldaten eskuragarritasunari, errendimenduari eta, maiz, arrazagatiko pribilegioei lotua zegoelako, eta horrek komunitatearen barruko kohesioa murrizten zuelako.⁹⁶

Nolanahi ere, 1980ko hamarkadarako, langileen balio soziala beren zorraren bidez neur zitekeen. Hamarkada hartan, Eraldaketa Handia gertatu zen, zor-ekonomia berriaren azpiegitura finkatu zuena. Ordurako, aldatua zen zorrak harreman sozialen testuinguruan zuen izaera, hainbat faktoreren eraginez: kreditu-txartelaren erabilera hedatu egin zen, eta langileei banku-kreditua luzatzen zieten; lana gero eta prekarioagoa zen; lukurreriaren kontrako legeak kendu zituzten estatu gehienetan; eta hezkuntzaren zein osasun-laguntzaren komertzializazioa gero eta handiagoa zen.

Kreditua hazten zihoan heinean –bai soldaten jaitsieragatik, bai gero eta pizgarri gehiago zeudelako egunerokoan behar ziren oinarrizko gauzak berriz ere merkatuan eskuratzeko–, elkartasunaren oinarri materialak ere gehiago ahuldu ziren. Ironikoa ere bada: lanpostu bat lortzea zailagoa eta arriskutsuagoa bihurtu zen neurrian, zorpetzea ikaragarri erraztu zen. Ezaguna denez, ahalik eta jende gehien jarri nahi zuten bankuen kontrolpean, eta, horretarako, iruzurra eurrez erabili zuten. Baina, nire ustez, garrantzitsuena ez da finantza-munduarien eskutik etorri zen manipulazioa; niretzat, *inportanteena da gizarte-egitura desegin duen zor-ekonomia finkatu zela, pentsatuz, gainera, nazioarteko banku-sistemak sortutako finantza-baliabideak langileen eskura ere egongo zirela, eta ez bakarrik bizitzan beharrezkoak diren gauzak erosteko, baita sisteman aurrera egiteko ere.*

Artikulu honetan ez ditut aztertuko prozesu hori ahalbide duen klase-dinamika konplexuak. Nahikoa da esatea hainbeste jenderen zorpetzea eta soldaten zein «eskubide sozial»en aurkako eraso neoliberala ez ziratekeela posible izango baldin eta ideologia neoliberaletako langile batzuek ez bazuketeen onartu izango merkatuarien bidezko oparotasuna. Ikuspuntu horretatik, bankuekiko zorpetzea areagotu izana continuum batean

96 «Kontsumitzaileen gastu»aren hazkuntzaren eta langile-klasearen harreman sozialen pribatizazioaren arteko erlazioa ikusteko, ikus Cross, *Time and Money*, 168.or. -83.or.

koka dezakegu: langile batzuek enpresaren akzioak onartzen dituzte soldataren eta irabazien ordezt, eta okerrera doan egoera ekonomikoa etxeko kapital sozialaren bidez hobetzen saiatzen dira; horrek azalduko luke, hein batean, zergatik herritarrak ez diren oldartzen ikusten dutenean estatuak ez dituela erabiltzen metatuak dauzkan baliabideak gure erreprodukzioa bermatzeko.

Baina, 2008ko Wall Street-eko finantza-porrotak hain gordinki erakutsi zigun bezala, ez da bete finantzarizazioaren bidez lanpostuen eta soldaten desagertpenari aurre egiteko irtenbide edo altematiba bat lortzeko genuen itxaropena. Bankuak erreskatatu dituzte, baina langile-klaseko zordunak erreskatatu barik utzi dituzte, eta erabaki horrek argi utzi du zorra langile-klasearen egoera estandarra izateko diseinatuta dagoela; ez, beharbada industrializazioaren hasierako fasean baino maila apalagoan, baina bai, klase-elkartasunaren ikuspegitik, garai hartan baino ondorio suntsigarriagoekin. Izan ere, hartzekoduna jada ez da herriko dendaria edo gure auzokidea, ezpada bankaria, eta, interes-tasa handiak direla-eta, zorra, minbizia legez, etengabe handitzen da. Gainera, 1980ko hamarkadatik aurrera, goitik beherako kanpaina ideologiko bat antolatu da, bankuei erreprodukzioarako mailegua eskatzea nortasun ekintzailea izatearen parekotzat aurkeztzen duena, erabat nahastuz klase-harremanak eta haiei lotutako esplotazioa. Ondoriozt, zorraren bidez gauzatzen den kapitala/lana gatazka eduki ordezt, milioika mikroekintzaile dauzkagu beren erreprodukzioan «inbertitzen» –ehunka dolar gutxi batzuk baino ez dauzkaten arren–, ustezt «aske», arrakastarako zein porroterako, beren lanerako prestutasunak eta ermetasunak uzten dien heinean.

Baina kontua ez da bakarrik «erreprodukzioa» «autointertsio» gisa aurkeztzen dela. Mailegua/zorra-makina erreprodukzioarako baliabiderik behinena bilakatzen den neurrian, klase-harreman berri bat sortzen da, non esplotatzaileak ezkutuago dauden, ezabatuago; esplotazio-mekanismoak ere askoz indibidualizatuago daude, eta erruduntasun handiagoa eragiten dute. Garai bateko industria astunean hain nabarmenak izan ziren lana, esplotazioa eta, batezt ere, «nagusiak» eduki beharrean, orain zordunak dauzkagu, aurre egin behar diotenak ez enplegatzaile bati, baizik eta bankuari, eta aurre egin behar diotenak, gainera, banan-banan, ez kolektibo bateko kide gisa eta

harreman kolektibo baten barruan, soldatapeko langileek egiten zuten bezala. Hartara, langileen erresistentzia lausotu egiten da, hondamendi ekonomikoek dimentsio moralizatzaile bat hartzen dute, eta zorra, langileengandik lana ateratzeko baliabide gisa, ezkutatuta geratzen da, ikusi dugun bezala, autoinbertsioaren mozorroa jantzita.

Mikrofinantza eta makrozorra

Orain arte, azaletik azaldu ditut AEBko langile-klasearen zorraren hastapenaren nondik norakoak. Halere, mailegua/zorra-makinaren emaitzak ikusteko, hobe da *mikrokreditu-* edo *mikrofinantza-programaren* politika aztertzea. Programa hori 1970eko hamarkadaren amaieran abiatu zen, zalaparta handiz, Blangadesheko ekonomialari Muhammad Yunus-en eskutik eta Grameen Bank fundazioaren laguntzarekin, eta, orduz geroztik, munduko bazter guztietara zabaldu da. Mikrofinantza munduko «pobrezia arintzeko» baliabide gisa iragarri zuten, baina, egiazki, zorra sortzeko makina bat da, nazio-mailako eta tokiko gobernu, GKE eta bankuek –Munduko Bankua lehena– osatutako sare erraldoi bat barne hartzen duena eta nagusiki «pobreen» –batez ere emakumeen–⁹⁷ lana, energia eta asmamena eskuratzeko balio duena. Mujeres Creando⁹⁸ elkarteko Maria Galindok *La pobreza: un gran negocio* liburuaren hitzaurrean Boliviari buruz idatzi bezala, mikrofinantza-programa baliabide finantzario eta politiko bat da, 1980ko egiturazko doikuntzak gizonezkoen enpleguan eragindako krisiari erantzunez emakume pobreek sortutako iraupen-estrategiak berreskuratu eta suntsitu nahi dituen. Lehenengo, emakumeei ziurtatzen diete mailegu txiki batekin arazo ekonomiko guztiak konpondu ahal izango dituztela, eta, gero, haien jarduera informalak –haien gisako emakume langabe pobreekin egindako trukean oinarrituak– ekonomia for-

97 «Pobre» hitza komatxo artean jarri dut, kontzeptu horrek inplizituki duen mistifikazioa nabarmentzeko. Ez dago «pobre»rik, pobretutako jendeak eta populazioak baizik. Garrantzi gutxi bereizketa dirudi, baina beharrezkoa da bereizketa hori egitea, «pobre» kontzeptuak sustatzen duen pobretzearen normalizazioa eta naturalizazioa saihesteko.

98 Mujeres Creando Boliviako erakunde feminista autonomo garrantzitsua da. 2002az geroztik La Paz-en kokatua, mikrofinantzen zorraren kontrako borrokan jardun du, eta, besteak beste, aipatutako liburuaren sorburua den mikrofinantzei buruzko ikerketa sustatu du. Gai horri dagokionez, ikus Galindo, María, «La pobreza: un gran negocio», *Mujer Pública* 7. zk. (2012ko abendua).

malaren barruan subsumitzen dituzte, eta emakumeak astero diru-kantitate bat ordaintzera behartzen dituzte, mailegatutako dirua itzultzeko.⁹⁹ Beraz, Galindok ohartarazten digun bezala, mikrofinantza-programa emakumeak ekonomia formalaren kontrolpean jartzeko mekanismo bat da, eta baieztapen hori beste herrialde batzuetara ere zabaldu daiteke, baita Galindoren beste baieztapen hau ere: maileguak iruzur bat dira, eta oso emakume gutxi lortzen dute haietatik etekinen bat ateratzea edo haietatik beren buruak askatzea.

Esanguratsua da nola maileguak, sarri oso diru gutxikoak izaten direnak, nagusiki emakumeei ematen zaizkien, bereziki emakume-taldee, nahiz eta, askotan, senarrak edo familiako beste gizon batzuk diren haiek erabiltzen dituztenak.¹⁰⁰ Izan ere, finantza-aholkulariek nahiago dituzte emakumeak; aitor-tzen dutenez, emakumeak gizonak baino arduratsuagoak dira transakzio ekonomikoetan, beren familien erreprodukzioa bermatzeko baliabide ekonomiko egonkor baten mendekotasun handiagoa dutelako eta gizonezkoen larderiaren aurrean zaurgarriagoak direlako. Emakumeen komunitateak aztertzea ere iritsi dira, eta emakumeek «gizarte-harremanetarako duten sistema berenganatu dute, beren helburuak lortzeko erabili ahal erabiltzeko»;¹⁰¹ sistema hori kapital sozialtzat jo dute, eta, horrenbestez, emakume-talderik ez dagoen kasuetan ere, taldeka antolatzea bultzatzen dituzte.

Mikromaileguak taldee ematen dizkiete; izan ere, taldeko kideek mailegua amortizatzeko erantzukizuna hartzen dute banan-banan, eta, baten batek ordaintzen ez badu, pentsatzekoa da gainerakoek zerbait egingo dutela hura ordaintzera behartzeko. Gainera, erantzukizun partekatua ondoz ondoz –eta Lamia Karim-ek *Microfinance and its discontents* (2011) liburuan azaltzen duenez–, areagotu egin dira pertsonak kontrolatzeko

99 Galindo, «La pobreza: un gran negocio», 8.

100 Hori da Bangladesheko egoera, Lamia Karim-ek azaldutakoaren arabera; berak egindako ikerketan aurkitu zuenez, «dirua eskatzen zuten emakumeen %95ek beren senarrei edo gizonetako beste mailegu-hartzaile batzuei ematen zizkieten eskuratutako maileguak»; Lamia Karim, *Microfinance and Its Discontents: Women in Debt in Bangladesh* (Minneapolis: University of Minnesota Press, 2011), 86.

101 María Galindo, «Prólogo», in Graciela Toro Ibáñez, *La pobreza, un gran negocio: un análisis crítico sobre oeneges, microfinancieras y banca* (La Paz: Mujeres Creando, 2010), 10.

erabiltzen diren teknologiak, eta emakumeak etengabe ari dira elkar zelatatzen eta arazo-zantzuen berri arduradunei ematen.¹⁰² «Sistema horren bidez», dio Maria Galindok, «emakumeen egunerokotasunari eusten dion gizarte-egitura bera erabiltzen da zorren ordainketa bermatzeko».¹⁰³ Guztiarekin ere, frogatuta geratu da oso mekanismo eraginkorra dela; izan ere, mikromailleguak landa-eremuko kodeak dituzten gizarteetan ematen dira –antzinako iraupen-taktikekin lotura estua dutenak–, zeinetan mailegua amortizatzea ohore-kontu bat bihurtzen baita, eta, jakina denez, emakumeen ohorea bereziki garrantzitsua da familiak komunitatean duen estatuserako. Hala, Karimek dioen bezala, emakumeen ohorea abal-antzeko baten gisan erabiltzen da.¹⁰⁴ Beraz, horra paradoxa: mailegu-hartzaileak munduko pobreenak dira, eta amortizazio-tasak, berriz, munduko handienak.

Autokontrol kolektiboa «arrakasta» horren zati baten erantzulea besterik ez da, eta hori bezain garrantzitsuak izan dira hartzaileek mailegua ordaindu ez duten kasuetan erabilitako estrategiak. Bankuak, nazioarteko agentziak eta GKEak zinezko lotsaren *etnografia* batean nahasi dira: lehenengo eta behin, komunitate batek bere arau etikoak ezartzeko erabiltzen dituen mekanismo kulturalak aztertzen dituzte; gero, mekanismo horiek erabiltzen dituzte, mehatxuekin eta larderia fisikoarekin batera. Zordunen etxeetara joaten dira, eta haiek laidoztatzeko hamaika metodo erabiltzen dituzte, ikaratu eta mailegua ordaintzera behartzeko. Herrialde batzuetan, hala nola Nigerian, zorrak amortizatu ez dituzten emakumeen argazkiak bankueta-ko ateetan jartzen dituzte.¹⁰⁵ Bolivian, mikrofinantza-erakunde batzuek maileguak ordaintzen ez dituztenen etxeak markatu izan dituzte, eta posterrak jarri haien auzoetan.¹⁰⁶ Bangladeshen, berankorrek zigortzeko metodorik ohikoena da haien etxeetan indarrez sartzea; hori egiten dute GKE-etako ordezkariak: etxeetan indarrez sartu, eta erroetatik ateratzen dituzte ateak, zoruko

102 Karim, *Microfinance and Its Discontents*, 73.or. -74.or.

103 Galindo, «La pobreza: un gran negocio» 10.

104 Karim, *Microfinance and Its Discontents*, 198.

105 Informazio hau Ousseina Alidou irakaslearekin 2012ko irailean egindako elkarrizketa batean eskuratu nuen -Alidoi New Brunswick-eko Rutgers Unibertsitateko Afrikar Ikerketetarako Zentroko zuzendaria da-.

106 Graciela Toro Ibáñez, *La pobreza: un gran negocio* (La Paz: Mujeres Creando, 2010), 135.

oholak eta teilatuak, ordaindu gabeko maileguaren ordainetan haiek berriro saltzeko.¹⁰⁷ Halere, «zigor eta isun publikoekin batera datoz, halaber... jipoiak, galipota gorputzaren gainean isurtzea, emakumeei ilea larru-arras moztea, koroa-moduko bat utzita... jendaurrean tu egitea, aldamenetik igarotzen den bakoitzean».¹⁰⁸ GKE-ek poliziara ere jo dute, halaber epaitegietara eta tokiko eliteetara. Horrekin guztiarekin, maileguak ordaintzeko gaitasunik ez izateko arriskuan daudenak izuak jota bizi dira; egoera horrek gaitzondoa eta etsaitasuna areagotzen du emakumeen artean, eta, askotan, beste biderik ikusi ez-eta, besteren etxeetan indarrez sartzen laguntzera iristen dira. Horregatik dira amortizazioak hain garestiak, nahiz eta gutxi batzuek baino ezin duten esan eskuratutako kapitalarekin arrakasta handirik lortu dutenik.

Mikrokredituen bidez «ahalduntzea» ez da balentria handia; ez, behintzat, mailegu-hartzaile gehienentzat. Pobrezia eta miseria ez dira sortzen kapital faltagatik, baizik eta aberastasunaren banaketa bidegabekoagatik, eta arazo hori ezin da konpondu edo arindu dolar gutxi batzuekin. Egunero honda-mendiaren ertzean bizi diren familien eskuetan ehunka gutxi dolar jarritz gero, edo beharbada gehiago, laster desagertuko dira, eta gutxitan inbertituko dira diru gehiago egiteko. Senarra gaixotu egin da, ahuntza hil egin da, haurrek ez daukate oinetakorik eskolara joateko; denbora gutxira, maileguaren hartzaileak hura amortizatu ezinik aurkitzen dira, eta dirua eskatzen diete beste mailegu-emaile batzuei, bankuko zorrak ordaindu ahal izateko. «Bertutezko» inbertsio bati esker pobrezia atzean uztetik urrun egoteaz gain, are pobreago bilakatzen dira; mailegu-emaile txikietatik mailegu-emaile handiagoetara joaten dira, eta, batetik besterako bidean, maiz beren buruaz beste egiten amaitzen dute.¹⁰⁹ Fisikoki hiltzen ez direnean ere, mailegu-hartzaile asko sozialki hiltzen dira. Batzuek, zorrak ordaintzeko ezintasunaren

107 Karim, *Microfinance and Its Discontents*, 85, 117.

108 Karim, 85.

109 Suizidio asko egon dira, baita zorra emaztearekin batera sinatu zuten gizonen artean ere. Vandana Shiva-ren esanean, azken urteetan Indian bere buruaz beste egin duten hamabost mila laborarien artean, asko dira kategoria horretan sartzen diren zorren zamagatik egin dutenak; Vandana Shiva, «The Suicide Economy of Corporate Globalization», *crosscurrents.org*, 2004ko apirilaren 5a, 2018ko maiatzaren 21ean eskuratua, <https://www.countercurrents.org/glo-shiva050404.htm>.

lotsa ezin eramanik, herrixketatik alde egiten dute. Bangladeshen, zenbait gizonek beren emazteak abandonatu dituzte, maileguak ezin ordaindurik jendaurrean desohoratuak izan direlako. Argi dago, aurrerantzean ere mailegua ordaindu ezinik ibiliko den jende asko egongo da, ez soilik bizi duten krisi-egoera etengabeagatik, baita maileguei ezarritako interes-tasa handientzat ere, %20koak edo handiagoak izan ohi direnak.¹¹⁰ Kapitalak honela arrazoitzen ditu interes-tasa handi horiek: pobreei dirua maileguz ematea lan nekeza da, lanaren alderdia eta alderdi soziala kudeatzeko makina handi bat behar baitu atzetik, ziurtatzeko zordunek ez diotela itzuri egiten beren mailegu-emaileen kontrolari; eta, mailegua diruz ordaindu ezin badute, beren azken odol-tantarekin ordainduko dute, odol hori edonondik datorrela ere: lur-zati txiki bat, txabola ñimiño bat, ahuntz bat edo eltze zein zartagin bat. Bangladeshen, mailegua ordaintzen ez duten emakumei familiaren elikagai den arroza prestatzeko darabilten eltze handia kentzen diete, emakume batek jasan dezakeen lotsarik gorenena eta komunitatearen aurreko umiliazio jasanezina; horren ondorioz, senarrak emaztea abandona dezake, eta, batzuetan, emakumeek beren buruaz beste egiten dute.¹¹¹ Hori da, beraz, emakume asko pairatzen ari direna: beren etxeetara indarrez sartzea eta noizbehinka eraso fisikoak jasatea.

Egoera horretan, zergatik ugaritzen dira oraindik mikro-maileguak? Zerk bultzatzen du jendea mailegu horiek hartzera, eta zer lortzen da zorra modu orokor horretan hedatuta? Hona erantzuna: gaur egun, oso gutxi dira iraupen hutsetik bizi daitezkeenak, baita nagusiki nekazaritzan diharduten eremuetan ere. Lurren desjabetzeak, diruaren debaluazioak eta enpleguaren zein gizarte-zerbitzuen murrizketak, merkatu-harremanen hedapenarekin batera, diru-sarrerak bilatzera bultzatzen dituzte baita nagusiki nekazaritzatik bizi direnak ere. Gainera, GKE-ek maileguak eta marketin-planak konbinatzen ikasi dute; maileguekin batera, askotariko salgaiak eskaintzen dituzte, hala nola botikak edo jatekoa, eta mailegu-hartzaileak haiek erostera bultzatzen dituzte.¹¹² Hartzaile batzuek lortzen dute beren egoera

110 Toro Ibáñez, *La pobreza*, 146.or. -52.or.

111 Karim, *Microfinance and Its Discontents*, 91.

112 Bangladeshen, GKE-ek hitzarmenak egin dituzte hainbat konpainiarekin –Danone, kasu, jogurtak haurren osasunerako ezinbestekoak direla sustatzeko–; Karim,

hobetzea, baina gutxienak dira eta, askotan, GKE-ekin kolaboratu behar izaten dute, beste hartzaile batzuk kontrolatzen edo haiek zor duten dirua biltzen.¹¹³ Antzekotasunak ikus ditzakegu Boliviako edo Bangladesheko emakume hartzaileen eta AEBko ikasleen artean. Ikasleak prest egoten dira, askotan, maileguen truke interes-tasa handiei aurre egiteko, uste osoa baitute modu horretan eskuratutako unibertsitate-graduarekin soldata handiagoak lortuko dituztela; egiatan, baina, haietako askok gorriak ikusiko dituzte graduatu ondoren lana aurkitzeko, edo, gutxienik ere, haiek espero duten soldata-maila duen lan bat aurkitzeko, edo beren zorrak amortizatzeko adinakoa.

Inbertsoreek askotariko arrazoiak dituzte programa hori bultzatzen jarraitzeko, nahiz eta gero eta kritika gehiago jasotzen dituzten eta gero eta agerikoagoa den ez dutela lortu pobrezia desagerraraztea.¹¹⁴ Inbertitutako diruaren errentagarritasuna faktore bat baino ez da, eta hori bezain garrantzitsuak dira zorren eraginez klase-harremanetan gertatzen ari diren aldaketak, orobat proletarioen artean sortzen direnak. Mikrofinantzen bidez, nazioarteko kapitalak zuzenean kontrola eta esplota ditzake munduko proletarioak, nazio-estatuen bitartekaritza saihestuta eta, beraz, bermatuta erdietsitako mozkin oro zuzenean bankuetan metatuko dela eta ez dutela tokiko gobernuak be-

Microfinance and Its Discontents, 67, 196. Indian protesta handia egon zen, zenbait GKE Monsantoekin tratua egiten saiatu zirenean, maileguak ematearekin batera haien hazien berri emateko; ikus UNIBIG, Policy Research Development Alternative, «The Monsanto Initiative: Promoting Herbicides Through Micro-Credit Institutions», 1998, ez dago aktibo, 2018ko ekainaren 2a, <http://membres.multimania.fr/ubinig/monsanto.htm>. Ikus baita «Vandana Shiva Responds to the Grameen Bank», *Synthesis/Regeneration* 17 (1998ko udazkena): 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <http://www.greens.org/s-r/17/17-15.html>, Shivak Grameen Bankuko buruari garai hartan idatzi zion gutuna; Karim, *Microfinance and Its Discontents*, xx.

113 Maria Galindok nabarmentzen duenez, gainerakoen zaintza-lanetan onak diren emakumeek bere gain hartzen dute auzoetako lidergoa, eta GKE-en kolaboratzaile bihurtzen dira. Gainera, Galindok dioenez, «ahalduntzeak» zaintzari lotutako alderdi espezifiko bat du; Galindo, «Prólogo», 10.

114 Ikus Barbara Crossette, «UN Report Raises Questions about Small Loans to the Poor», *New York Times*, 1998ko irailaren 3a, A8; Milford Bateman, *Why Doesn't Microfinance Work? The Destructive Rise of Local Neoliberalism* (Londres: Zed Books, 2010); «In Micro-finance Boom Echoes of Subprime», *Bloomberg Business Week*, 2010eko ekainaren 21.or. -27.or.; Sylvia Chant, arg., *The International Handbook of Gender and Poverty. Concepts, Research, Policy* (Londres: Edward Elgar Publishing, 2010); Kentaro Toyama, «Lies, Hype, and Profit: The Truth about Microfinance», *Atlantic*, 2011ko urtarrilaren 28a, 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://www.theatlantic.com/business/archive/2011/01/ lies-hype-and-profit-the-truth-about-microfinance/70405/>.

renganatuko. Era berean, kapitalak emakumeen lana esplota dezake, haien gizonezko senideen bitartekaritza aintzat hartu gabe, eta emakumeen indarra erabil dezake, zeinak «egiturazko doikuntz»en ondoren gai izan baitira iraupen-molde berriak sortzeko diru-ekonomiaren ertzetan; hain justu ere, iraupen-molde horiek dira orain kapitala diru-harremanen eta bankuen mende jartzen saiatzen ari dena, mikrokredituen programaren bidez. Azkenik, baina ez hargatik garrantzi gutxiagokoa, zorrak eragiten dituzten beste politika batzuen antzera, mikrofinantzak ere askotariko gizarte-harremanekin esperimentatzeko baliabideak dira, non komunitate, talde edo familiak «barneratu» egiten baitu elkar zaindu eta kontrolatzeko zeregina; esplotazioa, itxura batean, autogestionatu egiten da, eta porrotak min handiagoa egiten du, herritarrek arazo eta zorigaitz indibidual gisa bizi dutelako.

Kasu honetan ere, jarraitutasun bat ikusten dugu Egipto, Niger, Bangladesh edo Boliviako emakume zorpetuen eta AEBko ikasle zorpetuen edo *subprime* krisiaren biktimen artean. Bi kasuetan, estatua eta enplegatzaileak ez dira agertzen erauzitako lanaren zuzeneko onuradun gisa, eta, beraz, ezta aldarrikapen eta gatazken itu gisa ere. Mikroekintzailearen ideologia ere hor dago, lana eta horri lotutako esplotazioa ezkutatzen dituen. Eta arrakastarako edo porroterako arrazoen indibidualizazioa ere badago, bakarka pairatutako lotsa, erruduntasun-politika; horren ondorioz, jendea ezkutatu egiten da eta bere burua isilarazten du, eta saihezi egiten du inori bere berri eman behar izatea.

Orain arte, estrategia horrek arrakasta handia izan du, baina, luzera begira, bistakoa da jasanezina dela, eta ez bakarrik pobreentzat. Egia esan, hasita dago jada bere mugak agertzen. Mikrofinantzen ondoriozko pobretzea larritzen eta pobreak xurgatzen jarraitzeko gaitasuna txikitzen doazen heinean, mikromaileguen sareak jende aberatsagoa dagoen tokietara begira jarri dira, eta, gero eta gehiagotan, munduaren iparralderantz mugitzen ari dira. Adierazgarria da, halaber, Grameen Bank-ek –literalki, Herriaren Bankua– sukurtsalak zabaldu izana AEBko hirietan; lehenengoa, New Yorken.¹¹⁵ Luzera begira, zorraren es-

115 Iragartzen duenez, Grameen America-k mikromaileguak eskaintzen ditu, 1.500 \$-ekoak

trategiak kinka larrian jartzen du kapitalismoa; munduko ezein tokitan ezin da jasan hainbeste jenderen erabateko pobretzea, baldin eta mundu-mailako produkzioak ez badu dagoen horretan geratzeko edo, are gehiago, murrizteko asmorik. Bestalde, eta hau da garrantzitsuena, esan daiteke kapitalismoa ari dela iristen puntu batera non munduko jende asko eta askoren pobretzetik eta desjabetzetik erdietsitako onura ezerezean geratzen ari baitzaio, ez delako gai bere buruaren aurka eragiten ari den erresistentziari aurre egiteko.

Zorraren aurkako mugimenduak Latinoamerikan

1990eko hamarkadan, Mexikoko zorraren aurkako mugimendurik indartsuena El Barzón (uztarria) zen. Oso urte gutxian, nazio osora zabaldu zen, eslogan honekin: «Dirua zor dut, ez dut ukatzen. Baina bidezkoa dena ordainduko dut».¹¹⁶ Bolivian ere izan zen zordunen mobilizazio bat: 2001eko maiatzean, herrialdeko bazter guztietatik joandako milaka pertsona, gehienak emakumeak, La Paz hiriko kaleetan bildu ziren, eta bankuak setiatu zituzten, laurogeita hamabost egunez.¹¹⁷ Bangladeshen, gorrotoa hartu diote Grameen Bank izenari berari; herritarrentzat, bankuaren sortzaileak eta administrariak pobreen lepotik aberastutako diru-mailegatzaille hutsak besterik ez dira.¹¹⁸ Estatu Batuetan ere, zorraren aurkako mugimenduak hazten jarraitzen du; esate batera, gero eta hiri gehiagotan sortzen ari den *Strike Debt!* mugimendua,¹¹⁹ edo 2012ko azaroan New Yorken

gehienez. Kide dituen banku komertzialen bidez aurrezki-kontuak eskaintzen ditu, eta banku haietako bezeroek dirua sartu behar dute aurrezki-kontu horietan.oro har, pertsona batek mailegu bat jasotzeko, pobrezia-mailatik behera bizi behar du, Grameen America bankuaren bulego bat dagoen komunitatean bizi behar du eta «berdin pentsatzen duten» bost kideko gogaide-talde bat sortzeko edo halako baten kide izateko prest egon behar du. Horrez gain, eskatzaileek hitzordu bat dute astero, haien maileguak ordaintzeko; «Grameen America», *Wikipedia*, 2018ko maiatzaren 31n eskuratua, https://en.wikipedia.org/wiki/Grameen_America.

116 Ana Cristina Samperio, *Se nos reventó el Barzón: radiografía del movimiento barzonista* (Mexico, DF.: Edición, 1996); Daniel Chávez, «El Barzón: Performing Resistance in Contemporary Mexico», *Arizona Journal of Hispanic Cultural Studies* 2 (1998): 87.or. -112.or.

117 Ana Ibañez, *La pobreza*, 137.or. -44.or.

118 Karim, *Microfinance and Its Discontents*, 192.or. -93.or.

119 *Strike Debt!* New Yorkeko Occupy Wall Street mugimendutik sortutako erakunde bat da. Jendeak hartutako zorraren legezkotasuna auzitan jartzea du helburu, aintzat hartuta etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta gainerako oinarritzko zerbitzuak ez liratekeela izan behar haien truke ordaindu dezaketen pertsonen eskura bakarrik

abiatutako *Rolling Jubilee* ekimen arrakastatsua.¹²⁰ Erresistentzia-molde horien emaitza oraindik ikusteko badago ere, esan daiteke «zorretik askatzeko» mugimendu bat sortu izana bera ere garaipen bat dela; izan ere, diru-ekonomiak duen boterearen arrazoi garrantzizkoetako bat da zorraren ondorioak bakardadean pairatzen direla. *Debt Resisters' Operations Manual* [Zorraren Erresistenteen Ekintzen Gidaliburua] eskuliburuan jasota dagoen bezala, «horrenbeste lotsa, frustrazio eta beldur dago gure zorraren inguruan, [ezen] oso gutxitan hitz egiten dugula argiro horretaz beste jende batzuekin».¹²¹

Hortaz, ezinbestekoa da zorrak mundu osoan eragin duen beldurrezko eta erruduntasunezko hesia eraistea, Mexikon El Barzónek egin zuen bezala 1990eko hamarkadan, edo Boliviako emakume zorpetuek 2001ean, La Paz hiriko kaleetan bildu eta bankuak setiatu zituztenean. Ikasleek, batez ere Estatu Batuetakoek, paper berezi bat jokatzen dute prozesu horretan; izan ere, gure unibertsitateetan garatutako ikerketetatik ateratzen dira GKE-ek eta banku-sistemek erabiltzen dituzten baliabide kultural ugari, zeinen bidez emakumeak zorrak egitera bultzatzen dituzten eta mailegu-hartzaileak, berriz, zorra ordaintzeraino lotsarazi –haien bizitzaren truk izan behar badu ere–. Antropologoek, bereziki, «paper garrantzitsu bat jokatu dute, pobreek alienazioaren, gabetzearen eta marjinazioaren aurrean» bizirauteko duten gaitasunaren berri eman baitiote munduari.¹²² Julia Elyachar-ek dioen moduan, antropologoei ezker jakin zuten ekonomia-aholkulariek zer era bitxien bidez lortzen duten pobreek iragarpen guztien kontra bizirautea eta zer garrantzitsuak diren harreman-sareak jendearen biziraupenerako. Esaten du, halaber, mikrofinantzek, beharbada, ikerlariek espero ez zituzten

dauden produktua; ikus Strike Debt and Occupy Wall Street, *The Debt Resisters' Operations Manual* (Oakland: PM Press, 2014); 2012ko argitaraldia hemen eskura daiteke: <http://strikedebt.org/The-Debt-Resistors-Operations-Manual.pdf>.

120 Rolling Jubilee ekimena Strike Debt! erakundearen estrategia bat izan zen; beharpen handiko zor handiak erosi zituzten bigarren mailako merkatuetan, ikusarazi nahirik milioika pertsona bankuen esklabu bihurtu direla, haietako asko bizitza osorako, gainera. 2014an, Strike Debt! erakundeak bigarren fasea jarri zuen abian, Debt Collective izenekoa; <https://debtcollective.org>.

121 Strike Debt and Occupy Wall Street, *The Debt Resisters' Operations Manual*, 2012, iv, <http://strikedebt.org/The-Debt-Resistors-Operations-Manual.pdf>.

122 Julia Elyachar, «Empowerment Money: The World Bank, Non-Governmental Organizations, and the Value of Culture in Egypt», *Public Culture* 14, 3. zk (2002ko udazkena): 499.

ondorio batzuk ere izan dituztela. Guztiarekin ere, urrats txiki bat baino ez zen egin behar kultura eta gizarte-harremanak baliabide ekonomikotzat jotzetik «ekintza-programa» bat zehaztera igarotzeko.¹²³

Elyacharren hitzek erakusten dute zer garrantzitsuak diren gure unibertsitateak herritarrak diziplinatzeko eta haiengandik lana erauzteko eredu berriak sortzeko.¹²⁴ Beraz, ikasleen zorraren aurkako mugimenduari dagokienez, bi gauza egin behar dira. Alde batetik, mugimenduak ezin du onartu ikasleen mailegua, legez kontrakoa delako; hezkuntza ez litzateke izan behar erosi eta saldu egin daitekeen produktu bat. Bestetik, uko egin behar lioke zorra eragiten duen ezagutza sortzen laguntzeari, eta uko egin behar lioke, orobat, zorra ordainarazteko eta porrot eginen dutenak psikologikoki torturatzeko tresna gisa erabil daitekeen ezagutza sortzeari.

Mikrokredituen aurkako borroka ere gero eta sendoagoa da. Nikaraguan, adibidez, *No Pago* [Ez dut ordainduko] mugimendua sortu da. Eta mikrokredituen aurkako protestak Indiara ere zabaltzen dira, non 2010. urterako kasik hartzaile guztiek beren mailegua ordaintzeari utzi baitzioten, ia-ia industria-sektorearen kolapsoa eragin zutelarik.¹²⁵ Mikrofinantzen sorlekua den Bangladeshen, eta *Economistek* argitaratutakoa aintzat hartuta, Sheik Hasina Wazed Lehen Ministroak berak ere esan du mikrofintantzak «pobreen odola xurgatzen» ari direla, «pobrezia arintzen ari direlakoan», eta Bangladesheko herritarrak «akuri gisa» erabiltzen dituztela.¹²⁶ Bolivian, *Mujeres Creando* erakundeak zorra ezereztea du helburu nagusi, eta salatu du bankuak

123 Elyachar, «Empowerment Money», 508.

124 Zordunak kudeatzeko oinarriak diren ezagutza-formen artean, Lamia Karim-ek «pobrezia-ikerketak» izendatzen duena dago, zeinaren bidez «pobreei buruzko ezagutza xehearren artxibo bat» sortzen baita; Karim, *Microfinance and Its Discontents*, 164.or. -77.or. Egin behar dena da «eredu horiek agerian utzi», jende arruntarentzat ulergarriak izan daitezen; Karim, 166.

125 Lydia Polgreen and Vikas Bajaj, «India Microcredit Sector Faces Collapse from Defaults», *New York Times*, 2010eko azaroaren 17a, 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://www.nytimes.com/2010/11/18/world/asia/18micro.html>.

126 «Saint Under Siege: A Microfinance Pioneer Is Under Attack in His Homeland», *Economist*, 2011ko ekainaren 6a, 2018ko ekainaren 4an eskuratua, <https://www.economist.com/node/17857429>; ikus baita Lydia Polgreen and Vikas Bajaj, «Microcredit Pioneer Ousted Head of Bangladeshi Bank Says», *New York Times*, 2011ko martxoaren 2a, 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://www.nytimes.com/2011/03/03/world/asia/03yunus.html>.

eta GKEak emakumeen etorkizuneko lana, denbora eta itxaro-
na lapurtzen ari direla; era berean, mailegu-molde tradizionalak
berreskuratzeko deia egin die emakumeei, «dirua emakume
batetik bestera igaro» dadin, «adiskidetasunean eta elkarreki-
kotasun-harremanetan oinarriturik».¹²⁷ Oro har, mugimendu
berriak sortzen ari dira; esate batera, AEBko *Strike Debt!*, zo-
rraren krisia klasea birmoldatzeko aukera gisa ikusten duena;
mugimendu horretan, elkarrekin borrokatzen dira hipotekei
aurre egin ezin dietenak, zorpetutako ikasleak, mikromaile-
guak ordaindu ezin dituzten hartzaileak eta kreditu-txartelen
jabeak. Baina, Galindok zuzen baino zuzenago sumatu bezala,
mugimendu horiek arrakastatsuak izan daitezzen, zorraren aurka
protesta egitearekin batera zorrak suntsitutako komunak birsor-
tu eta birmoldatu behar dira ezinbestean.

127 Toro Ibañez, *La pobreza*.

II. ATALA: KOMUNAK

SARRERA

Gaur egungo komunekin gertatzen den antzera, atal hone-tako artikuluek ere ez dute eskaintzen irudi bateratu bat. Aldiz, toki batetik bestera dabilta, argitu nahian zer printzipiotan oinarritzen diren gizarte komunitarioak eta zer erronka garaitu behar diren egungo komunak defendatzeko eta berriak eraikitzeke. Hortaz, ez dut, inondik ere, argazki zehatz bat aurkeztuko.

Nire lehen helburua da harreman komunalen potentziala azaleratzea. Horretarako, kontuan hartuko dut harreman komunalek biziraupena bermatzeko duten gaitasuna, orobat erresistentziarako ahalmena areagotzeko duten indarra. Baina ez hori bakarrik. Harago joan nahi dut, eta, beste ezeren gaine-tik, erakutsi nahi dut zer neurritan erabil ditzakegun harreman komunalak gure subjektibitatea eraldatzeko, eta zer neurritan erabil ditzakegun inguratzen gaituen mundua (hau da, natura, beste pertsona batzuk, animalien mundua...) arrisku gisa ez ikus-teko eta, gainera aberastasun- eta ezagutza-iturri gisa ulertzeko.

Atal honetako artikulua une desberdinetan eta arra-zoi desberdinengatik idatzi ditut, baina, halere, continuum bat osatuko balute bezala irakurtzea gomendatzen dizuet. Izan ere, artikulua guztiek hari nagusi bati jarraitzen diote: komunen prin-tzipioa erreproduzio sozialaren antolamenduan aplikatzeko ahalegina.

Atal hau ontzeko prozesuan, ez dut burutik kendu zer esango luketen jada bizitza komunitario batean murgilduta daudenek: «Komunak bizi egiten dituzu; ezin duzu haiei bu-ruz hitz egin, are gutxiago haien inguruan teorizatu». Arrazoia dute, jakina, zaila baita hain bizipen min eta bakanak hitzetara

ekartzea: zer esan nahi ote du gure bizitza indibidualetik harago doan zerbaiten parte izateak, «gizon-emakumeen lur honetan» bizitzea ez kanpotar edo arrotz moduan, kapitalismoak gure bizitoki diren espazioak sentiarazi nahi dizkigun eran, baizik eta etxean bezala. Halere, hitzak ezinbestekoak dira; batez ere, gizarte-harremanak ia erabat desartikulatuak dauden eremuetan bizi garenontzat.

BAT

ESTATU BATUEN AZPIAN, KOMUNAK

Nazio guztien, edo ia guztien, historia primitiboa funtsezko bi gertakaritan oinarrituta dago, biak ere berez sortuak: pertsonak ahaide-tasunaren arabera elkartzea eta lurraren jabetza komunala.

Friedrich Engels, «The Mark».¹²⁸

Komunitateari buruz hitz egiten diguten antzinako ahotsek ere iragartzen dute posible dela beste mundu bat. Komunitatea –produktzioarako eta bizitzarako molde komunala– tradizio amerikarretan zaharrena da, guztietan amerikarrena; lehen garaietakoa eta lehen jendeena da, baina etortzekoak diren garaietakoa ere bada, eta Mundu Berri bat iragartzen du.

Eduardo Galeano, *Las tradiciones futuras*.¹²⁹

Baldin eta gizarte amerikarrak zentzuz kopiatuko balitu askotariko nazio natiboen tradizioak, emakumeek toki garrantzitsu bat izango lukete gizartean, ondasuna eta boterea berdintasunean oinarriturik banatuko lirateke eta adineko pertsonak errespetatu, ohoratu eta babestu egingo lirateke, funtsezko baliabide sozial eta kultural gisa.

Paula Gunn Allen, «Who Is Your Mother?

Red Roots of White Feminism».¹³⁰

128 Friedrich Engels, «The Mark», in *Socialism: Utopian and Scientific* (New York: International Publishers, 1935).

129 Eduardo Galeano, *The Book of Embraces* (New York: W.W. Norton, 1991), 135.

130 Paula Gunn Allen, «Who Is Your Mother? Red Roots of White Feminism», in *Multicultural Literacy: Opening the American Mind*, arg. Rick Simonson and Scott Walker (Saint Paul, MN: Graywolf Press, 1988), 3.or. -12.or.

Sarrera

1930eko hamarkadaren amaieran, hainbat historialari komunista –Paul Kosok tartean– klase-gizartearen jatorria aztertzen ari ziren, eta ohartu ziren Peru Erdialdeko Nazca herriaren lurretan antzinako ureztatze-sistema baten aztarna nabarmenak eta lekukotasun sinesgarriak zeudela. Hori ikusita, pentsatu zuten aurkikuntza hark klase-harremanen eta estatuaren jatorriari buruzko informazio argigarria ekarriko zuela. Begi hutsez ezinezkoa zen zantzu haiei erreparatzea, baina, lurraldea hegazkin batetik behatuta, berehala ikusi zituzten urteetako erosioak ezabatu gabeko irudi bihurriak, eredu bati jarraitzen ziotenak.

Adibide hori etorri zait gogora, bai eta horrek barruan gordetzen duen indar metaforikoa ere, ohartu naizenean ezen Estatu Batuetan idatzia den komunei buruzko liburu batek ezinbestean hasi behar duela kontinenteko lehen komuneroekiko zorra onartzuz: lehen komuneroak Amerikako herri natiboak izan ziren, hots, Lehen Nazioak, mendeen joanean lur komunalari eutsi ziotenak, hura ohoratuz, haren eskuzabaltasuna ospatuz, hartatik hartuz bizirauteko behar zuten doia ez besterik, haren aberastasuna ahitu gabe, eta jasotako oparotasun bera utziz ondoren etortzekoak ziren zazpi belaunaldiei, natiboen jakinduriak agintzen zuen bezala. Gaur egungo amerikar arruntari begiratuta, badirudi ezer gutxi geratzen dela Lehen Nazioetako komuna haietatik, ez bada autobidean aurkitzen ahal diren hamaika izenak, aspaldi lekualdatutako komunitateak izendatzen dituztenak. Erreserbak dira, itxura batean, zutik geratzen diren bakarrak, eta haiek ere lur natiboen lapurreta federal etengabeek eta erauzketa-jarduerak eragindako kutsadurak urratuak daude. Halere, Nazca herriaren lurretan historialariek aurkitutako sarearekin gertatu bezala, herrialde honetako aberastasunaren zati handi bat –elikagaiak, botikak, sendatze-jarduerak, baita instituzioetako batzuk ere, Paula Gunn Allen-ek gogorarazten digun gisan– amerikar natiboa da jatorriz. Are gehiago, hau da Lehen Nazioen mundutik biziraun duena: *jabetzarekin zein oraindik ere gure irudimena elikatzen jarraitzen duen lurrarekin pertsonen duten harremana ulertzeko modua*.

Gainera, komuna indigenak desagertzetik urrun daude. Erregimen komunitarioren arabera gobernatutako lurralde zabalak ez dira soilik kontinente amerikarraren hegoaldeko kontuak;

izan ere, mugimendu zapatistak erakutsi bezala, etengabe ari dira sortzen gizartea antolatzeko molde komunal berriak.

Filosofia politiko burgesaren arabera, jabetza pribatua zen askatasunerako baldintza, eta hori zen zibilizazioaren eta basatasunaren arteko ezaugarri bereizgarria. Herri natiboentzat, berriz, jabetzarik ezaren mendekoa zen askatasuna.¹³¹ Europarrak iritsi zirenean, gauzen jabetza komunala hain zen unibertetsala kontinente amerikarrean non, Kolon-ek idatzi bezala, eltzea bera ere edozeinen eskura baitzegoen, nahiz eta gosete-garaia izan. Bi mende geroago, Thomas Morton-ek ere esan ahal izan zuen, Ingalaterra Berrian bizi ziren Bost Nazioei buruz, «jabe bakoitzak bere ondasunak zein diren jakin arren... gauza denak, irauten dutena irauten dutela ere, guztien artean erabiltzen dituzte».¹³² Lurren jabetzaren ideia hain zitzaien bitxia amerikar natiboei, ezen banakoek ez baitzuten ahaleginik egiten erabiltzen zituzten lurak eskuratzeko; askotan mugitzen ziren beste lur batzuetara, eta partekatu ere gogo onez partekatzen zituzten berenetara etorri berriekin. Kirkpatrick Sale-k idatzi bezala, «lurraren jabe izatea, lurak saltzea, ideia arrotzak ziren, hodeien edo haizearen jabe izatea eta haiek saltzea bezainbat».¹³³ William Cronon-ek ere honela idatzi zuen: «Jabetza pertsonalarekiko jarrera laxoa oso ohikoa zen Ingalaterra Berriaren luze-zabalean».¹³⁴ Jakina

131 Gai horri buruz gehiago jakiteko, ikus William Brandon, *New Worlds for Old: Reports from the New World and Their Effects on the Development of Social Thought in Europe, 1500-1800* (Athens: Ohio University Press, 1986), 23.or. -24.or. Brandonek dio ezen askatasunaren kontzeptua bera, hau da, erabakiak hartzeko aske izatearen ideia, XVII. mendean sartu zela Europako pentsamendu sozialean, «Mundu Berri»tik zetozten ezin konta ahalaren erreportajaren bidez, zeinetan biztanle indigenak berdintasun-egoera batean eta inoren jabetzaz arduratu gabe bizi ziren eta nagusirik ez zuten herri gisa irudikatzen baitzituzten.

132 Thomas Morton, hemen aipatua: William Cronon, *Changes in the Land: Indians, Colonists, and the Ecology of New England* (New York: Hill and Wang, 2011), 61. Thomas Morton hastapeneko kolono amerikar bat izan zen. 1626an, Merrymount sortu zuen, eskandaluzko kolonia bat, auzoko kolonia puritanoaren esanetan, arau moral laxoak zituelako eta inguruko algonkiar herriekiko joera handia zuelako, zeinak Mortonek asko miretsi eta errespetatzen baitzituen. Plymouth Koloniako agintarien ustez, bereziki eskandalagarria zen Merrymounteko biztanleek May Day jaia ospatzea, zeinean kolonoak zutoin baten inguruan dantzatzen baitziren, emakume natiboei batera. Thomas Mortoni buruz gehiago jakiteko, ikus Peter Linebaugh, *The Incomplete, True, Authentic, and Wonderful History of May Day* (Oakland: PM Press, 2016), 15.or. -17.or., 85.or. -86.or.

133 Kirkpatrick Sale, *The Conquest of Paradise: Christopher Columbus and the Columbian Legacy* (New York: Knopf, 1990), 314.

134 Cronon, *Changes in the Land*, 61.or. - 63.or.

denez, europarrek gaizki ulertu zuten jabetza pertsonala partekatzeko prestasun hori, ondorioztatu baitzuten ez zela jabetzarik existitzen. Hortaz, kolonizatzaileak Ingalaterra Berrira joan zirenean, uste izan zuten indiarren lurraldea *terra nullius* zela, ikusi baitzuten hango biztanleek jarrera nasaia zutela jabetza pertsonalarekiko eta aldizka beste lur batzuetara mugitzen zirela. Egiatan, baina, familia indiarrek bermatua zuten beren soroak eta beren oihal-etxolen kokaleku ziren lurrak erabiltzeko eskubidea, nahiz eta ez ziren jabetza finkoak. Ez zen ahaleginik egiten familia batek erabiltzen zuen soroa etengabe mugarritzeko, eta soroak, zenbait urtez erabili ostean, bazterrera uzten ziren, berriz ere zuhaixkek har zitzaten. Pertsonak lurren erabileraren eta uzta-
 ren jabe ziren; horiek ziren elkarrekin trukatzeko zituzten gaiak, eta usufrukturako eskubide horrek ez zuen galarazten besteren batek ere lur berak erabiltzea. Are gehiago, hainbat pertsona-talde izan zezakeen lur berarekiko eskubidea, batzuen eta besteen erabilera desberdina izan zitekeelako.¹³⁵ Zenbait herrikkak erreka beretan jardun zezaketen arrantzan, guztiek besteen eskubideak onartuta. Eta pertsona batek klanetik alde egiten zuenean, ordura arte edukitako jabetza guztiak atzean uzten zituen. Halere, tribu aske, nomada haiek europar pribatizatzaileek baino askoz ere batasun sakonagoa zuten lurrarekin eta nekazaritzarekin, eta askoz ere errespetu handiagoa haiekiko; nahiz eta «lurretik atera izan duten bizigaia mendeetan zehar, ehizan, bazka bila, ereintzan, arrantzan, eraikuntzan, bidez bidez», europarrak iritsi ziren garaian «Ipar Amerikako lurra basoalde jori eta emankorra zen oraino, inolako salbuespenik gabe, eta fauna ugaria zeukan bere uretan, basoetan eta airean».¹³⁶

Amerikako herri natiboek jabetza pribatuarekiko zuten atxikimendu falta haren ondorioz, ikuspegi komunal bat zegoen, balio handia ematen ziona lankidetzari, talde-nortasunari eta kulturari. Lur indiarretan, adibidez, europarrak iritsi zirenean, batek jatekorik ez bazeukan inork ez zeukan jatekorik; hori dela eta, are aipagarriagoa da herri natiboek kolonizatzaileei eskainitako laguntza. Halakoa zen metaketa indibidualari zioten ezinikusia, non *potlach* erritua asmatu baitzuten, hau da, aberas-

135 Ikus Cronon, *Changes in the Land*, 62.or. -63.or.; John Hanson Mitchell, *Trespassing: An Inquiry into the Private Ownership of Land* (Reading, MA: Perseus Books, 1998).

136 Sale, *The Conquest of Paradise*, 315.

tasunaren aldizkako birbanaketa, beren burua metatze hartatik askatzeko. Sendakuntza ere modu kolektiboan egiten zuten, eta hala egiten dute gaur egun; izerditarako etxoletan, gorputzak elkarren ondoan jartzeaz gain, beren buruak ere elkartzen dituzte, lurrarekin, suarekin eta komunagintza sustatzen duen bizipen sakon horretatik sortzen den indar berebizikoarekin.

Gaurko egunean historia eta ondare hori aitortzeak ez du esan nahi –batzuetan argudiatzen den lege– artifizialki eraikitako subjektu indiar bat idealizatzen ari garenik, ezta kolonizatzailearen begiradatik abiatuta sortutako identitate etniko bat naturalizatzen dihardugunik ere. Helburua da aitortza bat egitea kontinente amerikarreko itxituren aurka historian zehar gehien sufritu duten eta gehien borrokatu diren herriei, eta uko egitea ezjakinez jokatzeari etorkizuneko komunaren kokalekutzat jotzen dugun lurra garai batean habitatu zuten haien aldarrikapenen aurrean. Estatu Batuak bi injustizia handi ditu oinarri: batetik, amerikar natiboen desjabetzea eta genozidioa; bestetik, milioika afrikarren esklabotasuna, Berreraikuntza osteko aroan ere jarraitu zuena eta zentzu askotan gaur egunera arte iritsi dena. Eta, egia esan, injustizia horiei buru eman eta dagokienei erreparazioa eskaini arte, ezinezkoa izango da herrialde honetan aldaketa politiko esanguratsurik egitea. Are gehiago, Paula Gunn Allen-ek idatzi bezala, memoriaren galera da zapalkuntzaren erroa; izan ere, iraganarekiko arduragabetasunak zentzugabe bilakatzen du gure mundua, esanahi oroz husten ditu gure bizilekuak, ahazten baitugu zeren truke zapaltzen dugun oinazpietan darabilgun lurra eta noren istorioak dauden zizelkatuak harrietan, soroetan eta inguratzen gaituzten eraikinetan.¹³⁷

Feminismoari eta komunei buruzko eztabaida bat abiatu nahi badugu, beste bi arrazoiengatik ere jo behar dugu, nahitaez, kontinente amerikarreko herri natiboen komunagintzaren historiara. Lakota herriaren lurretan eraikitako Keystone Oliobi-deak ondo agerian utzi bezala, Lehen Nazioen jabetzako ondasun komunaren lapurreta eta suntsiketak ez du etenik.¹³⁸ Latinoameri-

137 Allen, «Who Is Your Mother?», 18.or. -20.or.

138 Keystone Oliobidearen jabea TransCanada Corporation erakundea da, eta, diotenez, Ipar Amerikako oliobiderik aurreratuena da. Alberta-n (Kanada) hasi eta Texas-era arte, bi mila kilometro inguru izango ditu. Herri indigenen lurretatik igaroko da, eta haien leku sakratuak eta urak mehatxatuko ditu. Ingurumenaren aldeko taldeek ere kexa agertu dute; salatu dutenez, TransCanada erakundeak proiektuak ingurumenean

karen luze-zabalean, herri indigenek sortu dituzten erregimen komunitarioek eginahalean dihardute bizirik irauteko, eta, era berean, eutsi egiten diete beren instituzio sozialei, aukera eman dietenak lurrarekiko harremana mantentzeko, beren burua gobernatzeko eta beren komunitateak antolatzeko estatuarenetik erabat desberdina den logika baten arabera.¹³⁹ Horrenbestez, lehenbailehen heldu behar diogu herritar natiboen komunekiko dugun harremanaren auzi politikoari. Gainera, eta ikusi dugun bezala, komuna natiboen historian aurkitzen dugu *jabetza pribatuaren ezein aldarrikapenik gabe* –edo araudi baztertzailerik gabe– *gauzatutako baliabideen erabilera komunalaren adibiderik egoki* eta zehatzena.

Liburu honi dagokionez, bereziki inportantea da emakumeek komunitate natiboetan zeukaten boterea, zeina lotuta egongo baitzen, ziurrenik, komunitate haiek jabetza pribaturako eta metaketarako guraririk ez izatearekin. Lewis Henry Morganez azaldu bezala,¹⁴⁰ hainbestekoa zen emakumeen boterea bost nazio iroketan, non bakearen edo gerraren aldeko hautua egin

izango duen inpaktuari buruzko informazio faltsua eman du.

139 Erregimen komunitarioek lurrarekiko harremana mantentzeko eta beren buruak gobernatzeko egin dituzten borrokei buruz gehiago jakiteko, ikus Gladys Tzul Tzul aditu eta ekintzaile kitxuaren lana, bereziki *Sistemas de gobierno comunal indígena: mujeres y tramas de parentesco* (Guatemala: Sociedad Comunitaria de Estudios Estratégicos, 2016) eta «Gobierno comunal indígena y estado guatemalteco», Departamento Ecuémico de Investigaciones, 2018ko apirilaren 25a, 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <http://www.deicr.org/+presentacion-de-libro-gladys-tzul->. Tzul Tzulek herri indigenen lurrarekiko harremana babesten duten erakunde komunalak aztertu ditu, eta, batez ere, Totonicapán-eko (Guatemala) berrogeita zortzi eskualdeetako herri indigena kitxuei begiratu die. Bizitza-molde eta gizarte-harreman autonomoak sortzeari dagokionez, Tzul Tzulek hiru faktore azpimarratzen ditu: lan kolektiboa; erabakiak kolektiboki hartzea, batzar komunalen bidez; eta tradizio handiko errituak (jaiak, adibidez).

140 Lewis Henry Morgan, *Ancient Society* (Cambridge, MA: Harvard University Press, 1964 [1877]). Ikerketaren bidez, eta Ingalaterra Berriko zein dakoten lurraldeetako herri natiboekin izan zituen harremanen bidez, Morganez zera aurkitu zuen: europarrak Ameriketara iritsi ziren garaian, leinuen ondorengotza emakumearen partetik egiten zen (79). Emakumeek boto-eskubidea zuten kontseiluan –Morganez batzar demokratiko gisa deskribatzen du–, non «emakume zein gizon heldu guztiek kontseiluan aurkeztutako auzi guztien gainean beren iritzia emateko eskubidea zuten». Ohartu zen, halaber, emakumeei izenak ematen zizkietela beren seme-alabentzat, orobat klaneko beste kide batzuentzat, bizitzako uneraren batean aldatu behar bazituzten, eta klaneko kide guztiek emakumezko arbaso jakin batetik abiatuta azaltzen zutela beren leinua (65). Dena den, eta Morganez berak zioenez, horretaz guztiaz ohartu zenerako gauzak aldatzen hasiak zeuden, europarren eraginaren eta presioaren ondorioz; esate batera, tribu batzuk emakumeengan oinarritutako ondorengotzatik gizonengan oinarritutakora igarotzen ari ziren.

baitzezaketen. Allenek dioenaren arabera, herri natiboek askatasunari, hierarkien gabeziari eta berdintasunezko harremanei ematen zieten garrantziak eragin handia izan du ez bakarrik Europako eta Amerikako pentsamendu sozialistan, baita, bereziki, feminismo amerikarrean ere; eta eragin hori sinbolikoki adierazi zen Estatu Batuetako lehen biltzar feministan, indiarrena izandako lurraldean egin baitzen, Seneca Falls-en.¹⁴¹

Beraz, kontinente honi dagokionez, eta ez halabehar hutssez, amerikar natiboak –zapatistak– izan ziren lurralde baten berreraikuntza komunaren printzipioetan oinarritzen lehenak; gainera, beren antolamendua Emakumeen Lege Iraultzailean ardaztu zuten, eta emakumeen eskubideen sorta zabal bat onartu zuten, aurrekaririk gabea ezein herrialdetan.¹⁴² Berritoki ere ez halabeharrez, kontinente latinoamerikarraren luze-zabalean –Suaren Lurraldetik Amazonas-era, Chiapas-etik Hego Dakota-ra– emakumeak dira beren komunaren aldeko borroka gidatzen dituztenak, eta, prozesu horretan, komunak eratzeko molde berriak sortzen ari dira. Standing Rock erreserbako lur sakratuetako zulaketen aurkako borrokan indar-koalizio zabal bat elkartu bazen ere, emakumeak izan ziren, zati handi batean, zazpi mila lagun baina gehiagori hainbat hilabetez akanpatzeko aukera eman zien azpiegitura eraiki zutenak –non-eta herrialdeko alderik hotzenetako batean, non neguan tenperaturak zerotik behera egiten baitu nabarmen–, eta haiek antolatu zituzten elikagaien zein arropen hornidura eta umeentzako eskolak, bai eta borrokarako esloganak sortu ere. Zalantzarik gabe, «uraren babesle» haiek erakutsitako ausardiari eta sormenari zor zaio, zati

141 Emakumeen eskubideen aldeko AEBko lehen biltzarra du aipagai. Seneca Falls-en egin zen, New York estatuen iparraldean, 1848ko uztailaren 31an, Sei Nazioenak izandako lurraldeetan.

142 Emakumeen Lege Iraultzailea 1992an onartu zen, altxamendu zapatistaren garaian. Emakumeen zazpi eskubide garrantzitsu jasotzen ditu: borroka iraultzailean parte hartzeko eskubidea, haiek nahi eta behar duten gisan; lan egiteko eta soldata jasotzeko eskubidea; zenbat seme-alaba izan nahi dituzten eta zenbat haur zaindu nahi dituzten erabakitzeko eskubidea; komunitatearen auzietan parte hartzeko eta aginte-kargua izateko eskubidea, baldin eta askatasunez eta demokratikoki hautatuak izaten badira; hezkuntza-eskubidea; bikotekidea hautatzeko eskubidea; eta lehen mailako arreta jasotzeko eskubidea, osasunari eta nutrizioari dagozkien gaietan. Legearen testua eskuratzeko, ikus *Zapatistas! Documents of the New Mexican Revolution* (Brooklyn: Autonomedia, 1994). Legea onartzea ekarri zuen prozesuari buruzko debate bat irakurtzeko, ikus Hilary Klein, *Compañeras: Zapatista Women's Stories* (New York: Seven Stories Press, 2015).

batean, kanpaldiak jasotako babes. Laurehun tributako ordezkarien elkartasuna jasotzeaz gainera, herrialdeko toki guztietako ekintzaileak ere –adin guztietako gizon-emakumeak– joan ziren kanpaldira; hartara, hautsi egin da herri natiboek Gizon Zuriari buru egitean bizi izan duten bakartasuna, eta komuna amerikarren defentsaren eta aldarrikapenaren aldeko interes komun bat azaleratu da.

BI

KOMUNAK: KAPITALISMOAREN AURKA ETA KAPITALISMOTIK HARAGO (GEORGE CAFFENTZIS-EKIN)

Gure ustez, ezin dugu esan, besterik gabe, «Komunarik ez, komunitaterik gabe». Horrez gain, esan behar dugu «Komunarik ez, ekonomiarik gabe», aintzat hartuta oikonomia, hau da, familia sozial eta naturalaren barruan garatzen den giza erreprodukzioa. Horregatik, komunak berrasmatzeko prozesua loturik dago ekonomia komunala berrasmatzearekin eta komunak oinarri dituen ekonomiarekin.

Maria Mies eta Veronika Bennholdt-Thomsen, *The Subsistence Perspective*.

Gaur egun, «komunak» alor guztietako hizkuntzetan agertzen dira, dela politikan, dela ekonomian, dela, halaber, ondasun higiezin munduan. Ezker zein eskuin, neoliberal zein neokeynestar, kontserbadore zein anarkista, kontzeptu bera darabilte guztiek ahotan beren agerraldi politikoetan. Munduko Bankuak berak ere bereganatu du; 2012ko apirilean, adierazi zuen handik aurrera erakundeak kudeatu edo diruz babestutako ikerkuntza guztiek izan behar zutela «sarbide irekikoak, Creative Commons-en egile-eskubideetan oinarrituak –Creative Commons irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, zeinak ego-kitu egin baititu egile-eskubideak, kontuan hartuta Internetek eskaintzen duen erabilera-aukera zabala–».¹⁴³ Neoliberalismoaren erraldoia den *The Economist* astekariak berak ere erakutsi du begiko duela komunen kontzeptua; besteak beste, hitz hauekin laudatu zuen Elinor Ostrom, komunen ikerkuntzaren dama eta

143 Munduko Bankua. «Bank Publications and Research Now Easier to Access, Reuse». 2012ko apirilaren 10a, 2018ko maiatzaren 23an eskuratu, <https://tinyurl.com/7axc7j3>.

merkatu-totalitarismoaren aurkako kritikaria, haren heriotza-oharrean jasotako goraipamenean:

Elinor Ostromi iruditzen zitzaion munduak zentzu komunezko gorputz handi bat zeukala barruan. Haren ustez, jendeek, beren kasa utziz gero, bizirauteko eta aurrera egiteko arrazoizko bideak aurkituko lituzkete. Nahiz eta mundu honetan dauden lur emankorrak, basoak, ur geza eta arrantza-tokiak finituak izan, posible zen haiek partekatzea, erabat agortu gabe, orobat haiek zaintzea, borrokara jo gabe. Nahiz eta batzuek etsipenez idatzi zuten komunen tragediari buruz, mugarik gabeko gutizian gehiegizko arrantza eta gehiegizko nekazaritza besterik ez zutelako ikusten, Ostrom andreak, bere barre bizi eta arropa are biziagoekin, kontrakoa irudikatu zuen, irudi baikor eta alegera bat.¹⁴⁴

Azkenik, zaila da kasurik ez egitea ondasun higiezinaren diskurtsoan «komun» eta «komunak» terminoek duten erabilera etxekalteari, bai unibertsitate-campusetan, bai merkataritza-guneetan, bai komunitate hesietan. Ikasleek urtean 50.000 \$ ordaindu behar dituzten eliteko unibertsitateetan, «informazioaren komunak» deritze beren liburutegiei. *Gizarte garaikidean, ia arau bihurtu da ezen komunak, zenbat eta gehiago eraso, hainbat eta gehiago ohoratzen direla.*

Saiakera honetan, bilakaera horren arrazoiak aztertuko ditugu, eta komunero antikapitalistek buru egin beharreko galderetako batzuk erantzungo ditugu. Zer adierazi nahi dugu «komuna antikapitalistak» terminoarekin? Nola eraiki dezakegu produkzio-molde berri bat, lanaren esplotazioan oinarrituko ez dena, gure borroken emaitza diren komunitatetik abiatuta? Nola eragotz dezakegu inork komunak bereganatzea eta, kapitalismoaren ordezkotza gisa erabili beharrean, hondorantz doan klase kapitalista baten plataforma bihurtzea, haren aberastasuna berreraikitzeko?

Historia, kapitalismoa eta komunak

Komunei buruzko ikuspegi historiko batetik hasiko gara, aintzat hartuta historia bera ere komuna bat dela –zer eratan izan garen bereiziak erakusten duenean ere–, baldin eta asko-

144 «Elinor Ostrom, Defender of the Commons, Died on June 12th, Aged 78, *Economist*, 2018ko maiatzaren 31n eskuratu, <http://www.economist.com/node/21557717>.

tariko ahotsen bidez kontatua bada. Historia gure memoria kolektiboa da, gure gorputzaren luzapen bat, zeinak lotzen baikaitu gure jardun politikoari zentzua eta indarra ematen dioten askotariko borrokekin.

Historiak erakusten digu milaka urtez gizakiek *komunagintza* printzipioaren arabera antolatu dutela beren existentzia lur honetan. Peter Linebaugh-ek dioen bezala, ez dago ia gizarte bakar bat ere bihotzean komunak ez dituenik.¹⁴⁵ Gaur egun ere, jabetza-sistema komunalek eta komunagintza sustatzen duten harreman sozialek indarrean jarraitzen dute munduko hainbat tokitan, batez ere Latinoamerika, Afrika eta Asiako herri indigenen artean.

Komunei buruz hitz egiten dugunean, ez dugu kontuan hartzen errealitate jakin bat, edo eskala txikiko saiakuntza-multzo bat, esate batera, Ipar Kalifornian 1960ko hamarkadan sortutako komuna landatarrak, haien garrantzia edozein dela ere.¹⁴⁶ Eskala handiko eraketa sozialak ditugu gogoan, kasu batzuetan kontinente osoa hartzen zutenak; adibidez, kolonizazioaren aurreko Amerikan ehundutako komuna-sareak, gaur egungo Txiletik hasi eta Nikaragua zein Texasera hainbat ziren, eta hartu-eman jori baten bidez –opariak eta trukeak– loturik zeudenak. Afrikan ere, lurraren jabetza-sistema komunalek gaur eguneraino iraun dute, nahiz eta buru egin behar izan dioten sekula ikusi gabeko kanpaina bati, «lurrak bigabeki eskuratzeari» helburu zuena.¹⁴⁷ Ingalaterran, herri-lurrak faktore ekonomiko garrantzizkoak izan ziren XX. mendearen hasierara arte. Linebaughen kalkuluen arabera, 1688an, Ingalaterra eta Gales hartzen zituen eremuaren laurden bat herri-lurrek osatzen zuten.¹⁴⁸ Bi mendez baino gehiagoz itxiturak sortzen – eta milioika akreren pribatizazioa eragiten – jardun ondoren, eta betiere *Britannica Entziklopediaren* hamaikagarren edizioaren

145 Peter Linebaugh, *The Magna Carta Manifesto: Liberties and Commons for All* (Berkeley: University of California Press, 2008).

146 Iain Boal et al., *West of Eden: Communes and Utopia in Northern California* (Oakland: PM Press, 2012).

147 Fred Pearce, *The Land Grabbers: The New Fight Over Who Owns the Earth* (Boston: Beacon Press, 2012).

148 Peter Linebaugh, «Enclosures from the Bottom Up», in *The Wealth of the Commons: A World beyond Market and State*, arg. David Bollier eta Silke Helfrich (Amherst, MA: Levellers Press, 2012), 114.or. -24.or.

arabera, 1911. urtean 1.500.000-2.000.000 akre herri-lur geratzen ziren, lurralde ingelesaren %5, gutxi gorabehera. XX. mendearen amaieran, herri-lurrek lurraldearen %3 osatzen zuten oraindik.¹⁴⁹

Gogoeta horiek garrantzitsuak dira, baina ez bakarrik iraganeko komunei eta jarduteko ohiturei buruz daukagun irudia osatzeko. Izan ere, baldin eta harreman kapitalisten erasoei aurre egiteko gaitasunik ez dutela erakutsi duten iraganeko gizarte-moldeei nostalgiaz begiratzen badiegu, nekez eraiki ahal izango dugu gizarte alternatibo bat. Komuna berriek gure borrokaren emaitza izan behar dute. Halere, zenbait mendez atzera egiteak gauza baterako balio du: gezurtatzeko ezen guk proposatzen dugun gizartea, komunetan oinarritua, utopia bat dela, edo talde txikietarako bakarrik balio dezakeen proiektu bat, eta erakusteko komunak auziak esparru politiko bat eskaintzen digula eta, esparru horretan, kapitalismoa ordeztzeko aukera posibleei buruz hausnar dezakegula.

Komunak milaka urtez existitu dira, eta, gainera, oraindik ere badira gure inguruan jardun komunalean oinarritutako gizarte baten elementuak, nahiz eta eraso etengabeak jasan behar izaten dituzten, are gehiago azkenaldian. Garapen kapitalistak ezinbestekoa du jabetza eta harreman komunalak deusezteak. XVI. eta XVII. mendeetako «itxiturak» hizpide zituelarik –haien bidez, Europako nekazariak landa-eremuetatik egotzi zituzten, gizarte kapitalista modernoaren jaiotza eraginez–, Marxek «metatze primitiboa» aipatu zuen. Ohartu gara, halere, jazoera hura ez zela izan kolpe bakarreko kontu bat, espazioan eta denboran mugatua, baizik eta zenbait mendetako prozesu bat, gaur egun ere indarrean dagoena. Metatze primitiboa, edo, hobeto esanda, jatorrizko metaketa, klase kapitalistak krisi-garaian erabili ohi duen baliabide bat da; izan ere, hauek dira «boterearen oreka egokia» berrezartzeko eta klase-borrokan abantaila ateratzeko metodorik eraginkorrenak: langileak lurrez gabetzea eta esplotatua izateko prest dagoen lan-indarra areagotzea.

Neoliberalismoaren eta globalizazioaren garaian, estrategia hori muturreraino garatu eta normalizatu da; metatze primitiboa eta ondasun komunalen pribatizazioa prozesu eten-

149 «Common Land», *naturenet*, maiatzaren 23an eskuratua, 018, <http://naturenet.net/law/commonland.html>.

gabe bat bihurtu da, gure existentziaren eremu eta alderdi guztietara hedatzen ari dena. Lurrak, basoak eta arrantza-tokiak xede komertzialetarako beretzen ari dira, inoizko dimentsiorik handiena hartzen ari den «lur-eskuratze» berri honetan. Gaur egungo mundu honetan, guztiak du prezio bat, edo, bestela, patentatuta dago, berdin edaten dugun ura zein gure gorputzeko zelula eta genomak; bestalde, sekulako ahalegina egiten da bermatzeko enpresek eskubidea dutela lurreko espazio ireki guztiak ixteko eta gu haien erabileraren truke ordaintzera behartzeko. New Delhi eta New Yorketik Lagos eta Los Angeleseraino, hirietako espazio guztiak pribatizatzen ari dira. Debekatzen ari dira ordaindu gabe kalean saltzea edo espaloietan esertzea edo hondartzan etzatea. Ibaietan presak jartzen dituzte, basoak botatzen dituzte, urak eta akuiferoak boteilaratu eta merkaturatu egiten dituzte, jakintza-sistema tradizionalak harrapakatzen dituzte jabetza intelektualaren araudien bidez, eta eskola publikoak irabazi asmoko enpresa bihurtzen dituzte. Horregatik, ondasun komunen ideia oso erakargarria da gure imaginazio kolektiborako; galtzen ditugunean, hobeto ulertzen dugu haien existentziaren garrantzia, eta piztu egiten zaigu haiekiko jakin-mina.

Komunak eta klase-borroka

Komunak askotan eraso badituzte ere, sekula ez diote utzi existitzeari. Massimo De Angelisek argudiatu bezala, kapitalismotik «kanpo» beti egon izan dira klase-gatazkan funtsezko papera jokatu duten komunak, elikatu dutenak, batetik, irudimen utopiko/erradikala eta, bestetik, komunero askoren sabelak.¹⁵⁰ Aipatu «kanpo» horren adibidetzat har dezakegu, esaterako, langileek elkar laguntzeko sortu zituzten elkarteak, ondoren ongizatearen estatuak ordezkatu zituenak.¹⁵¹ Hala ere, guretzat bada hori baino garrantzitsuagoa den beste kontu bat: komuna berriak sortzen ari dira etengabe. Software librearen mugimendutik ekonomia solidarioaren mugimenduraino, gizarte-harreman berrien mundu oso bat ari da sortzen, truke

150 Massimo De Angelis, *The Beginning of History: Value Struggles and Global Capitalism* (Londres: Pluto Press 2007).

151 David T. Beito, *From Mutual Aid to the Welfare State: Fraternal Societies and Social Services, 1890-1967* (Chapel Hill: University of North Carolina Press, 2000).

komunalaren printzipioan oinarritzen dena,¹⁵² izan ere, jendea ohartu da kapitalismoak guretzat gordeta daukan bakarra dela lan gehiago, gerra gehiago, eta miseria eta bereizketa gehiago. Amaigabeko krisialdiaren eta gure lanpostu, soldata eta espazio sozialen aurkako etengabeko erasoen aurrean, komunen erakuntza biziraupenerako ezinbesteko baliabidea bilakatzen ari da. Ez halaberharrez, Grezian, non soldatak eta pentsioak %30 jaitsi diren batez beste eta, gazteen artean, langabezia %50era iritsi den, azken urteetan elkar laguntzeko molde asko azalera-tu dira: osasun-zerbitzuak doan eskaintzea, nekazariek beren produktuak doan banatzea hiriguneetan, eta fakturak ez ordaintzeagatik mozturiko kableak «konpontzea» elektrikariek.

Azpimarratu behar dugu, halere, gure inguruan ugaritzen ari diren ekimen komunalak –«denbora-bankuak», hiri-ortuak, komunitateek sustatutako nekazaritza, elikagaien kooperatibak, dirua, Creative Commons lizentziak, truke-ekintzak, informazioa partekatzea– gure bizibideen kontrako eraso neoliberaliei aurre egiteko eraikitzen ditugun murruek baino zerbait gehiago direla. Autohornikuntzarako saiakerak dira, eta garatzen ari den produkzio-molde alternatibo baten haziak. Modu berean ikusi behar genituzke 1980ko hamarkadatik aurrera mundu osoko hainbat hiritako aldirietan sortu diren okupa-mugimenduak; lur-desjabetzeen ondorioz sortu badira ere, munduko ekonomia formaletik «deskonektatutako» hiritarren multzo gero eta handiago baten seinale ere badira, orain beren erreproduzioa estatuen eta merkatuaren kontrolatik kanpora antolatzen ari direnak.¹⁵³ Raúl Zibechi-k iradokitzen duenez, hiri-lur okupatu haiek hobeto irudikatzen dira «komunen planeta» bezala, non pertsonen «hirirako eskubidea» gauzatzen duten,¹⁵⁴ eta ez Mike Davis-ek deskribatutako «miseria gorriko hirien planeta» gisa.¹⁵⁵

Ameriketako herri indigenek beren lurren pribatizazio gero eta handiagoaren aurrean erakutsitako erresistentziak bul-tzada berri bat eman dio komunen aldeko borrokari. Zapatistek konstituzioa berritzeko eta jabetza kolektiboa onartzeko eskaera

152 Bollier and Helfrich, *The Wealth of the Commons*.

153 Raúl Zibechi, *Territories in Resistance: A Cartography of Latin American Social Movements* (Oakland: AK Press, 2012), 190.

154 Zibechi, *Territories in Resistance*.

155 Mike Davis, *Planet of Slums* (New York: Verso, 2006).

egin zioten Mexikoko gobernuari, baina gobernuak ez zien jaramonik egin; aldiz, Venezuelako konstituzio berrian onartu egin zen herri indigenek beren lurretako natura-baliabideak erabiltzeko eskubidea dutela; Bolivian ere, jabetza komunala onartu zuten 2009ko konstituzio berrian. Horrekin guztiarekin, ez dugu esan nahi exijitzen ari garen gizarte komunala sustatzeko legezko estatu-aparatuetan oinarritu behar dugunik, hala egitea kontraesana izango bailitzateke; nabarmendu nahi duguna da zer ahaltsuak diren jende xeheak soziabilitate- eta hornikuntza-molde berriak –kontrol komunalaren mendeakoak eta kooperazio sozialaren printzipioaren arabera antolatuak– aldarrikatuz egiten dituen eskaerak.

Kapitalismoak indarrez beretu eta hesitako komunak

Bilakaera horren aurrean, orain egin behar duguna da ulertu nola lot ditzakegun errealitate desberdin horiek eta, batez ere, nola berma dezakegun eratzen ditugun komunek benetan eraldatuko dituztela gure gizarte-harremanak. Izan ere, komuna batzuk estatuak bereganatu ditu, beste batzuk itxita eta «hesituta» daude, eta beste batzuek, oster, oinarritzko elikagaiak ekoizten dituzte eta, azkenean, merkatuaren kontrolpean amaitzen dute.

Hurrengo lerroetan, kapitalismoak beretutako komunen bi adibide ikusiko ditugu. Urte luzez, nazioarteko sistema kapitalistaren parte bat (bereziki, Munduko Bankua) pribatizazio-eredu leunago bat sustatzen aritu da, komunen printzipioa aintzat hartzen duena. Esate batera, «mundu-mailako komunak» babesten dituelakoan, Munduko Bankuak basoetatik kanpora bidali ditu belaunaldiz belaunaldi han bizi izan diren herriak, eta baliabide haiek erabiltzeko aukera eman die ordaintzeko modua dutenei, argudiatuz merkatua dela –jolas-parke gisa, ekoturismoarako gune bezala– haien kontserbazioa bermatzeko tresnarik egokiena.¹⁵⁶ NBE ere mundu-mailako baliabideen erabilera kudeatzeko eskubidearen alde agertu da, hala nola atmosfera, ozeanoak, Amazoniako oihana; kasu honetan ere, «humanitatearen ondasun komuna»ren kontserbazioarekin arduratuta dagoelakoan.

156 Ana Isla, «Who Pays for the Kyoto Protocol?» in *Eco-Sufficiency & Global Justice: Women Write Political Economy*, arg. Ariel Salleh (Londres: Pluto Press, 2009).

Era berean, komunalismoaren aitzakiarekin, gobernuek lanerako boluntarioak lortzen dituzte. Esate batera, Britainia Handiko lehen ministro ohi Cameron-ek honako hau proposatu zuen «Big Society» [Gizarte Handia] programaren barruan: pertsonen energia erabiltzea krisi ekonomikoaren karietara gizarte-zerbitzuetan egindako murrizketak konpentsatzeko. 1980ko hamarkadan, Margaret Thatcher honela mintzatu zen: «Ez dago Gizartearen izeneko zerarik»; eta, hori esanda, murrizketak egin zituen alde guztietan, eskola-umeen bazkaritako esne-basoa kentzeraino. Orain, ordea, eten ideologiko bat egin da tradizio harekiko. «Gizarte Handia» programak hainbat lege ditu atzetik; horien artean, Zerbitzu Publikoen (Balio Sozialaren) Legea. Lege horrek jarraibideak ematen dizkie gobernuak diruz lagundutako erakundeei (eguneko zentroei, liburutegiei, klinikei...) tokiko artistak eta gazteak kontratatzeko, zeinek, trukean ordainsaririk jaso gabe, «balio soziala» areagotzen duten jardueretan parte hartuko baitute, «balio sozial» horren definizioa izanik gizarte-kohesioari egindako ekarpena eta erreproduktzio sozialaren kostuaren murrizketa. Beste era batera esanda, adinekoei zuzendutako programak eskaintzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeek gobernuari dirulaguntzak eskatzeko aukera izango dute, baldin eta erakusten badute gizarte-kohesioa eta «balio soziala» sortzen dutela, zeina faktore aritmetiko berezi baten arabera neurtzen baita, kontuan hartzen dituen ekonomia kapitalista batean txertaturik dagoen eta gizartearen zein ingurumenaren ikuspegitik jasangarria den gizarte baten abantailak.¹⁵⁷ Hartara, merkatutik kanpo bizitza-molde solidario eta kooperatiboak eraikitzeke ahalegin komunalak programa batean subsumituta geratzen dira, helburu duena erreproduktzio sozialaren kostua murriztea eta ordainpeko funtzionarioen kaleratzak bizkortzea.

Bi adibide horietan, estatuek (nazionalek zein mundu-mailakoek) jardunbide komunalak erabiltzen dituzte beren helburu ez-komunalak lortzeko. Bestalde, beste era bateko komunak ere badaude (bizitegi-komunitate hesituak, kontsumitzaileen kooperatibak, zenbait lur-fideikomiso eta etxebizitza-koopera-

157 Emma Dowling, «The Big Society, Part 2: Social Value, Measure and the Public Services Act», *New Left Project*, 2012ko uztailaren 30a, 2018ko maiatzaren 31n eskuraturia, <https://tinyurl.com/yamy6evv>.

tiba, eta abar), komunako kideen artean baliabide komunalen erabilera zuzentasunez eta demokratikoki partekatzen badute ere «arrotzen» interesez arduratzen ez direnak, edo, are gehiago, «arrotzak» etsaitasunez ikusten dituztenak. Komuna horiei komuna «hesitu» deritzegu, eta iruditzen zaigu harreman kapitalistarekin bateragarriak direla neurri handi batean. Egia esan, haietako askok korporazio gisa jarduten dute, eta komuneroak akziodun-antzekoak izaten dira. Beren buruari komuna deitzen dioten instituzioen sektorea osatzen dute, azkar hazten ari dena.

Komuna horiek hausnarketa hau dute oinarrian: garai neoliberal honetan, non merkatuaren ideologia den nagusi, banakoek ezinbestekoa dute beren buruak merkatuaren «akats» eta «katastrofeetatik» babestea. Komunek merkatuetan esku hartzeko aukagun indar kolektiboa areagotu dezakete. Hala, komunitate «hesitu» ugaritan askotariko azpiegitura eta zerbitzuak dauzkate: igerilekuak, golf-zelaiak, liburutegiak, egurra lantzeko tailerrak, antzokiak, ordenagailuen gela komunak, eta abar.

Komunero «hesituek» edozein banakorentzat erosi eta gozatzeko zailak, garestiak edo ezinezkoak diren baliabideak partekatzen dituzte. Baina baliabide horiek kontu handiz babesten dira «arrotzetatik»; batez ere, haietako kide izateko tarifa, sarri dirutza bat izaten dena, ordaintzeko gai izango ez liratekeen haietatik.

Esate batera, etxebizitza-kooperatibak komuna «hesituak» dira. AEBn, milioi bat etxebizitza-unitate baino gehiago daude kooperatiba gisa antolatuak. Nahiz eta haietako gehienek komunaren printzipioak onartzen dituzten beren «akziodunentzat», askotan banan-banan erantzun behar izaten diete beren diru-interesei, legeak hala aginduta. Kooperazioa maila instrumentalean geratzen da, eta oso gutxitan igarotzen da izaera eraldatzailea izatera.

Komuna «hesitu» guztiak kontuan hartuz gero, esan dezakegu milioika pertsonaren oinarritzko beharrak (jatekoa, etxebizitza, aisia) asetzen dituztela egunero. Hori ekintza kolektiboaren indarra da. Baina ez dute eratzen gizarte-harreman desberdinik, eta, gainera, arrazan eta klase-arteko harremanetan oinarritutako zatiketa areagotu dezakete.

Salgaiak produzitzen dituzten komunak

Komuna «hesituekin» batera, merkaturako salgaiak ekoizten dituzten komunak ere badaude. Horien artean, Alpe suitzarretako belardi hesitugabeak daude, uda oroz esne-behien bazka-larre bihurtzen direnak, esneki-industria esnez hornitzeko. Belardi horiek behitegietako baserritarren elkarrekin kudeatzen dituzte. Garrett Hardin-ek ezin izango zukeen idatzi *Komunen tragedia* lana, inoiz ikertu izan balu gazta suitzarrak bere hozkailura iritsi aurretik egiten zuen bidea.¹⁵⁸

Bada merkatuarentzako ekoizten duen beste komuna bat, askotan aipatzen dena: Maine-ko abakando-haztegiak, mila baino gehiago orotara, kostaldeko 200.000 km baino gehiagotan dihardutenak, non milioika abakando bizi, hazi eta hiltzen baitira urtero. Mende batez baino gehiagoz, abakando-arrantzaleek harrapatutakoa partekatzeko sistema komunal bat garatu dute: kostaldea hainbat eremutan banatzea adosten dute, eta eremu bakoitza hango herritar-talde batek kudeatzen du; gainera, guztien artean erabakitzen dute zenbat abakando-ale harrapatu ahal izango dituzten. Jakina, beti ez da izan prozesu baketsua. Maineko herritarrak beren indibidualismo zakarraz loriatzen dira, eta, norberekoikeria horren ondorioz, behin baino gehiagotan gertatu da taldeen arteko akordioak bertan behera geratzea. Kasu horietan, indarkeria azaleratu da, eta borroka lehiatsuak egon dira esleitutako arrantza-eremuak gehiago hedatzeko edo harrapaketa-mugak gainditzeko. Baina arrantzaleek bizkor ikasi zuten horrelako borroken ondorioz abakando-erreserbak hondatu egiten direla, eta, denborak aurrera egin ahala, erregimen komunala berrezarri dute.¹⁵⁹

Orain, arrantza kudeatzeaz arduratzen den herri-administrazioaren sailak ere onartu egiten du arrantza-molde komunal hori; halere, hainbat urtez legeak kanpokoak izan da, monopolioaren aurkako legeak urratzen omen zituelako. Denborarekin, baina, administrazioak jarrera aldatu du, ikusi duelako ingurumen-inpaktuari dagokionez zer alde dagoen bi arran-

158 Robert McC. Netting, *Balancing on an Alp: Ecological Change and Continuity in a Swiss Mountain Community* (Cambridge: Cambridge University Press, 1981); Garrett Hardin, «The Tragedy of the Commons», *Science* 162, 3859. zk. (1968Ko abendua): 1243.or. -48.or., <http://science.sciencemag.org/content/sci/162/3859/1243.full.pdf>.

159 Colin Woodward, *The Lobster Coast: Rebels, Rusticators, and the Struggle for a Forgotten Frontier* (New York: Penguin Books, 2004).

tza-mota hauen artean: batetik, abakandoaren arrantza, eta, bestetik, hondoko arrantza (hau da, bakailaoa, eglefinoa, mihi-arraina eta antzekoak), Maineko Golkoan eta Georges Bankuan egiten dena, Golkoak ozeanoarekin bat egiten duen tokian. XX. mendearen azken laurdenean, abakandoaren arrantzak jasangarritasun-maila erdietsi zuen, eta eutsi ere eutsi zion (baita zenbait atzeraldaldi ekonomikotan ere); aitzitik, 1990eko hamarkadatik aurrera, hondoko arrain-espezieak gehiegi ustiatu dira bat bestearen atzetik, eta, horren ondorioz, Georges Bankua ofizialki itxi behar izan zuten hainbat urtez.¹⁶⁰ Arazo horren mui-nean, bi kontu daude: (1) hondoko arrantzan eta abakandoaren arrantzan erabiltzen diren teknologien arteko desberdintasuna; eta, batez ere, (2) harrapakinaren arrantza-lekuen arteko desberdintasuna. Abakandoaren arrantzak abantaila bat du: baliabide komunala kostaldetik gertu dago, estatuaren jurisdikziopeko uretan; hori dela eta, abakandoaren harrapaketa kudeatzeaz arduratzen diren herritar-taldeek zenbait eremu bereiz ditzakete harrapaketarako. Georges Bankuko ur sakonak, berriz, ezin dira erraz banatu; gainera, Georges Bankua estatuaren jurisdikziopeko hogeit mila milietatik harago dagoenez, 1977ra arte arraste-ontzi handiko kanpotarrek ere erabil zezaketen arrantzarako; urte hartan, estatuaren jurisdikziopeko uren hedadura berrehun miliatara zabaldu zen. Nolanahi ere, 1977a baino lehen ezinezkoa zen inori sarrera debekatzea, eta, ondorioz, arrantza-tokia azkarrago agortu zen. Azkenik, abakando-arrantzaleek erabiltzen zuten teknologia nahiko zaharkitua zegoen, eta horrek ere ez zuen sustatzen kanpotarrekiko lehia. Kontrara, 1990eko hamarkadaren hasieratik aurrera «hobetu» egin zen hondoko arrantzarako teknologia, sare «hobeak» merkaturatu ziren eta arrainak «modu eraginkorragoan» detektatzeko gai ziren ekipo elektronikoak agertu ziren; horrek guztiak hondamena eragin du erabilera librearen printzipioan oinarritutako industria hone-tan (txalupa bat eskuratzen baduzu, arrantza egin ahal izango duzu). Harrapakinak detektatu eta arrantzatzeko teknologiaren aurrerakuntzak eta merkatzeak talka egin du «nor bere buruaren aurka eta natura guztion aurka» esloganaren arabera gobernatua izan zen industriaren antolamendu lehiakorrarekin, eta,

160 Woodward, *The Lobster Coast*, 230.or. –31.or.

azkenean, Hardinek 1968an irudikatutako «komunen tragedia» gertatu da.

Baina kontraesan hori ez da gertatu bakarrik Maineko hondoko arrantzaren kasuan. Mundu osoko arrantzaile-komunitate ugari suntsitu ditu; orain, arrantzaren industrializazioa eta arraste-ontzi handien botere hegemonikoa daukagu haren lekuan, arraste-sareekin ozeanoak agortzen dituztenak.¹⁶¹ Newfoundland-eko arrantzaileek ere Georges Bankukoek bizi izan zutenaren antzeko egoera bizi izan dute, eta horrek ondorio hondatzaileak izan ditu beren komunitateen bizibidean.

Abakando-komunak aukera garrantzitsu bat dira lehiaren logikari aurre egiteko. Bestalde, nazioarteko itsaski-merkatuaren barruan daude, eta, azken finean, horrek baldintzatuko du haien patua. Abakandoaren merkaturak kolapsatzen bada, edo estatuak erabakitzen badu baimena ematea Maineko Golkoan zulatze-plataformak eraikitzeke, abakando-komunak desagertu egingo dira, ez baitute inolako autonomiarik merkatu-harremanetikiko.

Komunen definizioaren bila

Beraz, ikusita komuna «hesituak» eta oinarritzko produktuak ekoizten dituztenak ere badirela, ohartzen gara komuna-molde asko daudela. Hori dela eta, aztertu behar dugu, alde batetik, jarduera komunalen zer alderdik bereizten dituen estatutik zein merkatutik eta, bestetik, zer alderdik kokatzen dituen kapitalismoaren ordezkia izan daitekeen antolamendu sozial baten printzipioaren barruan. Gogoeta hori egiteko –eta ahaztu gabe Massimo De Angelisek egindako gomendioa, komuna-«ereduak» zehaztearen aurkakoa–,¹⁶² zenbait irizpide proposatu nahi ditugu, burkideekin izandako eztabaidetatik eta gure lan politikoaren jardunetik ondorioztatuak:

1.Epe luzera begira ekoizpen-molde berrien eraikuntza sustatzeko, komunak espazio autonomoak izan behar lirateke, eta helburu izan behar lukete gure arteko bereizketak gainditzea eta autogobernurako ezinbestekoak diren ahalmenak garatzea.

161 Mariarosa Dalla Costa and Monica Chilese, *Our Mother Ocean: Enclosure, Commons, and the Global Fishermen's Movement* (Brooklyn: Common Notions, 2015).

162 Massimo De Angelis, *Omnia Sunt Communia: On the Commons and the Transformation to Postcapitalism* (Londres: Zed Books, 2017).

Gaur egun, ikusten dugu gizarte berriaren pusketa batzuk bakarrik daudela eraikuntza-prozesuan, Erdi Aroaren hondarrean Europako zenbait hirigunetan kapitalismoaren pusketa batzuk ikus zitezkeen bezalatsu, hala nola Florentzian, non XIV. mendearen erdialderako langile-talde handiak ikusten baitziren oihalgintzaren industrian.

2. Komunen definizioaren erdigunean jabetza partekatu bat dago, hau da, ondasun natural edo sozial partekatu bat –lurrak, urak, basoak, jakintza-sistemak, zaintzarako gaitasunak–; ondasun hori komunero guztiek erabil dezakete, haien artean inolako bereizketarik egin gabe, baina ez dago salgai. Komunako kide guztiek (erre)produktzio-baliabideak eskuratzeko aukera bera izan behar dute, hori da-eta bizitza komunalararen oinarria. Garrantzitsua da hori hala izatea, harreman hierarkikoak garatuz gero komunek itxitura izaten amai dezaketelako.
3. Komunak ez dira gauzak, ezpada gizarte-harremanak. Horregatik, batzuek (adibidez, Peter Linebaughek) nahiago dute *komunen eraikuntza* edo *komunagintza* [commoning] terminoa erabiltzea; termino horrek ez du jartzen indarra ondasun material partekatuan, baizik eta partekatzean, partekatzeke ekintzan, eta partekatze-prozesu horretan eratzen diren lotura solidarioetan.¹⁶³ Kapitalismoaren begietara, komunagintza ez da eraginkorra. Izan ere, komunak eraikitzeke ezinbestekoa da kooperazio-lanetan denbora asko igarotzeko prestasuna izatea, eztabaidan, negoziatzen, eta gatazka zein desadostasunei aurre egiten ikasten. Nolanahi ere, modu horretan bakarrik eraiki daiteke komunitate bat non jendeak jabetzen baitira berezkoa dutela elkarrekiko mendekotasuna.
4. Komunak aurrez ezarritako arauetan oinarritzen dira, xedatzen dutenak nola erabili eta zainduko den ondasun komunala, hau da, zehazten dutenak zein diren komuneroen eskubideak eta betebeharrak.

163 Linebaugh, *The Magna Carta Manifesto*, 50.or. –51.or.

5. Komunek komunitate baten beharra dute, eta, beraz, hau da printzipioa: «komunarik ez, komunitaterik gabe». Hori dela eta, ezin dugu esan «mundu-mailako komunak» edo «komuna globalak» daudenik; bestela, mundu-mailako kolektibitate bat dagoela onartuko genuke.

«Mundu-mailako komunak» eta «gizateriaren ondare komunala» babesteko aitzakian, Munduko Bankuak beste pribatizazio-kanpaina bat abiatu zuen, halako moldez non belaunaldiz belaunaldi oihanetan bizi izandako herriak beren bizilekuetatik kanpora bidali baitzituzten.¹⁶⁴ Munduko Bankuak kolektibitate globala ordezkatzeko rola bereganatu du, izan ere, Bigarren Mundu Gerraren ondoren ezarritako Nazio Batuen sistemaren barruan sartzen baita kapitalismo kolektiboaren aldaera guztiak ordezkatzeari (Sobietar Batasuneko eta Txinako Herri Errepublikako bertsio estatistikak ere bai). NBEk bere burua aurkezten du ez bakarrik izan baden kapital kolektibo baten ordezkari gisa, baita existitzen ez den gizateria kolektibo baten ordezkari gisa ere! Horretan oinarriturik, baliabide komunaren erabileraren kudeaketa bere gain hartzen du, hala nola atmosferarena eta ozeanoena, existitzen ez den (eta etorriko ote den ere ez dakigun) gizateriaren izenean.

2012ko ekainaren 14an, Itsas Legearen berrespenari buruzko entzunaldia egin zuten AEBko Senatuko Kanpo Harremanetarako Batzordean, eta han izandako eztabaidan agerian geratu zen «mundu-mailako komunak» kontzeptuaren atzean ezkutatzen den iruzurra. Berrespen haren helburua zen itsasertza duten nazio gehienek aldarrikatzen duten Ereku Ekonomiko Esklusiboko berrehun miletatik haragoko ozeanoen erabilera sistematikoki arautzea. Entzunaldi hark aurrez aurre jarri zituen Donald Rumsfeld defentsako idazkari ohia eta John Kerry eta Richard Lugar senatariak. Rumsfeld hitzarmenaren aurka zegoen; izan ere, akordioa onartuz gero, ozeanoko «ondasun komunalak» ustatzen dituzten konpainiek (hau da, beren jatorrizko estatuei dagokien 200 miliako eremutik harago joaten direnek) ekarpen bat egin beharko lukete «gutxiago garatutako herrialdeak» konpentsatzeko xedez sortutako funts batean, herrialde haietako konpainiek ez dutelako molde hartako

164 Isla, «Who Pays for the Kyoto Protocol?»

ustiaketa bat egiteko baliabide teknologikorik ez kapitalik. Rumsfeldek adierazi zuen aberastasunaren birbanaketan oinarritutako printzipio «berritzaile» hark ez zeukala, bere ustez, «muga argirik», eta «aurrekari bat» bihur litekeela «kanpo-espazioko baliabideentzat».

Kerryk eta Lugarrek, berriz, Itsas Legearen hitzarmena berrestearen alde hitz egin zuten, baina ez itsasoak ustiaketa kapitalistatik babesteko, ez; bi senatari haiek uste zuten hitzarmen hark itsas hondea ustiatzeko baimen legal argi bat ematen ziela konpainiei. «AEBko erakundeek itsas hondoko baliabide mineral ugarien gainean egiten dituzten aldarrikapenak babesteko eta eskakizun haietan aurrera egiteko modu bakarra Itsas Legearen Hitzarmena onartzea da»; hala dio hainbat erakundek –tartean, Amerikako Petrolio Institutua eta AEBko Merkataritza Ganbera– ekainaren 13an Kerry eta Lugar jaunei bidalitako eskutitzak.¹⁶⁵ Mundu-mailako komuneroen arteko «debatean», hau da, Rumsfeld, Kerry eta Lugarren artekoan, haxe zen erabaki beharrekoa: historiako itxitura espazialik handienak eskura jarritako aberastasunak lortzeko lehiatu ezin diren kapitalistak erosi behar diren ala ez. Horraino iritsi zen «gizateriaren ondasun komuna»ren printzipioa, 2012ko ekainaren 14an.

«Mundu-mailako komuneroak» izendapena azpizoko iruzurti bat besterik ez da, eta ezin dugu onartu termino hori erabiltzea. Gauza bera gertatzen da Nazio Batuen Erakundeak hiriburu eta eremu geografiko batzuk «gizateriaren ondasun» izendatzen dituen; udalerriak zein gobernuak leku haiek «babeesteko» eta balio handiagoz hornitzeko neurriak hartze-
ra behartzen dituzte, biak ala biak onuragarriak turismoaren industriarentzat; bitartean, tokiko herritarren kondizioak hobetuko lituzketen lanpostuak sortzeko erabili beharreko dirua beste zeregin batzuetara desbideratzen dute.

6. Komunak hiru oinarri hauen gainean eraikitzen dira: kooperazio soziala; elkarrekikotasun-harremanak; eta parte-

165 Kristina Wong, «Rumsfeld Still Opposes Law of the Sea Treaty: Admirals See It as a Way to Settle Maritime Claims», *Washington Times*, 2012ko ekainaren 14a, 2018ko ekainaren 2a, <http://www.washingtontimes.com/news/2012/jun/14/rumsfeld-hits-law-of-sea-treaty/?page=all>.

katuriko aberastasun natural edo ekoitzia erreproduzitzeko erantzukizuna. Beste pertsonetikiko errespetua eta askotariko esperientziak onartzeko prestasuna –betiere lankidetzarako arauak zainduta–, hori da komunak komunitate hesituetatik bereizten dituen; izan ere, komunitate hesitueta praktika arrazista eta baztertzailleak bultzatzea daiteke, nahiz eta, aldi berean, komunitateko kideen arteko elkartasuna sustatu.

7. Komunak erabaki kolektiboen bidez antolatzen dira, batzar-
rak eta demokrazia zuzenaren alorreko beste tresna batzuk
baliatuta. Erabakiak hartzeko, hiru botere-mota hartzen dira
kontuan: komunako kide arruntena, hutsetik abiatutakoa eta
gaitasun egiaztatuetatik eratorritakoa. Bestalde, lidertzak eta
autoritateak gai edo alor batetik bestera txandakatzen dira,
burutu beharreko zereginen arabera. Hori da komunak eta
komunismoa bereizten dituen, azken horrek boterea esta-
tuari ematen baitio. Komunagintzaren bidez, gure bizitzei
dagozkien oinarritzko erabakiak hartzeko boterea aldarrika-
tzen dugu, eta hori kolektiboki egitekoa. Komunen alderdi hori
horizontalidad [horizontaltasuna] kontzeptuaren antzekoa da;
Argentinan erabili zuten lehenengo aldiz, 2001eko abendu-
aren 19-20 bitartean piztutako matxinadan, eta, harrezkeroztik,
ezaguna egin da gizarte-mugimenduen artean, batez ere Hego
Amerikan. Horizontaltasunak alderdi politikoen egitura hier-
rarkikoa hausten du; erabakiak batzarretan hartzen dira (ez
aurrez zehaztutako batzorde zentraletan), eztabaidaren bidez
eta elkar hartuz.¹⁶⁶

8. Komunen ikuspegiak interes komun bat sustatzen du bizitza-
ren eta lan politikoaren alderdi guztietan; horregatik, komunek
borroka-zelai guztietan lan-eremuko hierarkiak eta desber-
dinkeriak errefusatzeko konpromisoa dute, halaber egiazko
subjektu kolektibo baten garapena lehenestekoa.

9. Ezaugarri horiek guztiek *komunala* eta *publikoa* bereizten dituz-
te. Azken horren jabeak estatuak dira, eta haiek eta haien zat

166 Marina A. Sitrin, *Everyday Revolutions: Horizontalism and Autonomy in Argentina* (Londres: Zed Books, 2012).

kudeatu, kontrolatu eta arautzen dute, jabetza pribatu berezi bat eratuz. Horrek ez du esan nahi, noski, baliabide publikoak pribatizatzearen aurka borrokatu behar ez garenik. Erdibideko eremu gisa, guri komeni zaiguna da interes komertzialek baliabide publikoak bere ez egitea; dena den, ezin dugu begien bistatik galdu bereizketa hori. Ezin dugu estatua abandonatu, hor metatu baita gure iraganeko eta gaur egungo lanaren bidez ekoizitako aberastasuna. Gainera, gutako gehienon biziraupena kapitalaren mende dago, gutako gehienok ez daukagulako ez lurrik, ez bizibidea ateratzeko beste modurik. Halere, lanean jarraitu behar genuke, estatutik eta kapitaletik harago goazela ziurtatzeko.

Ondorioak

Komunen kontzeptuak eztabaida eta esperimentazio asko eragiten ditu. Zalantza asko ebatzi gabe daude oraindik, baina argi dago komunagintza areagotuz joango dela, estatua eta merkatua ez direlako gai gure erreprodukzioa bermatzeko. Testuinguru horretan, gure erronka ez da ekimen komunak areagotzeko bideak bilatzea, baizik eta adostea nola jarriko ditugun gure antolamenduaren erdigunean, batetik, guk sortutako ondasunaren birjabetze kolektiboa, eta, bestetik, hierarkia zein desberdinkeria sozialen abolizioa. Funtsezko galdera horiei erantzunez bakarrik berreraiki ahal izango ditugu komunitateak, eta erantzun horien bidez bermatu ahal izango dugu komunak ez direla eraikiko beste batzuen ongizatearen lepotik eta ez direla oinarrituko kolonizazio-molde berrietan.

HIRU

UNIBERTSITATEA: EZAGUTZA-KOMUNA BAT?

2011ko apirilean, Minnesota-ko Unibertsitateak antolatutako biltzar batean parte hartzeko gonbidapena jaso nuen. Biltzarraren izenburua «Unibertsitatearen azpian, komunak» zen, eta zalantza sortu zitzaidan, zer esan nahi izango ote zuten harekin. Biltzarrean bertan ere, izenburuak hainbat interpretazio izan zituen. Esate batera, Jason Read-ek gogorarazi zigun unibertsitatea berez dela komuna potentzial bat; ikasleak, familia-giro indibidualizatzailea atzean utzita, komunitate batera bildu eta jarduera kolektiboetan engaiatzen dira. George Caffentzis-ek, berriz, ezagutza-komunei buruz hitz egin zuen, espazio fisikoe-tatik hasi, hala nola liburutegiak, eta printzipio filosofikoetara arte, adibidez, Platonen garai urrunetik gure garaira arte heldu zaigun debekua, ezagutzaren merkantilizazioaren aurkakoa.

Neuri dagokidanez, biltzarraren izenburuak irudi-olde bat ekarri zidan gogora. Haietako batean, ikasgelen eta liburutegien oinarrian zetzan zementupeko belarra eta lurra ikusten ziren, literalki, iradokiz unibertsitate baten eraikuntza ere itxitura baten sorreratzat har daitekeela. Nire erreakzio hura, zati batean, Port Harcourt-eko unibertsitateko oroitzapenek eragin zuten, non irakasle jardun bainuen 1984tik 1986aren bukaerara arte; eta handik gertu zegoen Calabar-ko Unibertsitateko oroitzapenek ere izango zuten zerikusiren bat, jakina, Port Harcourten igarotako garaian askotan joaten bainintzen hara.

Irudi haien guztien artean, bereziki hiru nabarmendu ziren. Garai hartan, Uniport unibertsitatea eraiki berria zen, 1970eko hamarkadaren azken urteetako petrolio-boometik eratorritako diruarekin. Han gertuko Alu herrixkari desjabetu-

tako lurretan eraiki zuten, baina herritarrak ez zeuden amore emateko prest. Goizero, bizikleta hartu eta eskolak emateko bi-dean nindoala, emakumeak ikusten nituen errepidearen luzera osoan, unibertsitateak zementuz estali gabeko lur-zati txikiak ere laborantzarako profitatzen. Urtarrilean, lursailak moztu eta erretzeko lanak egiteko sasoiari, uztondoari zerion kea campusean barrena hedatzen zen; baina, nik dakidala behintzat, inork ez zuen sekula kexarik agertu. Ziurrenik, ikasgelara oinez joaten ziren ikasleek usteko zuten aihotza eskuan eta makurtuta lan egiten zuten emakume haiek ezikasiak zirela, ezjakinak, beren hezkuntzari ezelango ekarpenik egiteko gaitasunik gabeak. Nolanahi ere, ni berehala ohartu nintzen emakume haiek nik baino hobeto –eta ikasle ugari baino hobeto– ezagutzen zituztela campuseko kontuak, eta haien berri ematen zutela merkatuan, emakume afrikarren komuna handi hartan. Adibidez, 1986ko udaberrian ikasle bat hil zuten, eta merkaturako emakumeek nire iritzia eskatu zidaten; nire lankideengandik jasoa nuena aditu zutenean, buruarekin ezezkoa egin zidaten, destainaz.

Port Harcourteko Unibertsitateko garaiari dagokionez, bada oraindik gogoan dudana beste irudi bat, alegia, nola joaten nintzen iluntzean basora, palmondoen artean eguzkia sartzen ikustera. Pedalei eragiten nielarik, lankide batzuen autoak pasatzen ziren nire ondotik; laster konturatu nintzenez, unibertsitateko lurretan landatuak zituzten laboreen aitzinamendua ikuskatzera joaten ziren. Ez ziren lurraren jabeak, eta ez zuten berek lantzen, baina pentsaezina zitzairen laborantzarako lur proposa eskura izanda handik abantailarik ez ateratzea eta erabat soldataren mende bizitzea. Beste behin ere, guztiek zuten jardun haren berri, eta ez zen inor kexatzen.

Gainera, behiak ere bazeuden. Udaberriro, behiak ekartzen zituzten gure aldameneko Calabar-ko Unibertsitatara. Iparraldetik etortzen ziren, bazkatzera, saltzeko asmoz hegoalderaino gidatu zituzten behizainek lagundurik; saldu aurretik, euri-oihanaren inguruko belar aberatsarekin loditu nahi izaten zituzten. Unibertsitatea ohitu egin zen urteroko kontu hartara, eta ez zuen eragozpenik jartzen behiak bere lurretan hartzeko.

Nolanahi ere, desagertzeari uko egiten zieten komunak irudi haiek –nahiz eta desagabetutako herrixka batekoak izan, eta iraupen laburreko petrolio-boom batean eskuratutako di-

ruarekin eraikitako unibertsitate batekoak– aienatu egin ziren biltzarraren nondik norakoak ikertzen hasi nintzenean. Kontatu zidatenaren arabera, Minnesotako Unibertsitatea lurren fideikomisoaren jabe zen, eta garai batean inguru hartan bizi izan ziren sioux herrien merkatu izandako eremu batetik gertu eraiki zen. Kolonoek beharturik, jende haiek beste leku batera aldatu behar izan ziren, eta, lekualdatzearen aurka altxatu zirenean, sarraski batekin erantzun zieten; besteak beste, 1862ko abenduaren 26an hogeita hemezortzi buruzagi erail zituzten, guztiak ere Lincoln presidentek hautatuak hirurehun izenetik gorako zerrenda batetik, Emantzipazio Aldarrikapena egin baino egun batzuk lehenago.

Ezin izan dut egiaztatu St. Paul-eko campusaren eremuari buruz esan zizkidatenak egia diren ez. Halere, istorio hark erakutsi zidan zer erraza den unibertsitate batera joan eta hango campus batean lan egitea, deus ere jakin gabe ez haren historiari edo oinarritzko azpiegitura materialari buruz, ez hango langileen inguruan.

Biltzarrean, azpimarratu nahi izan nuen unibertsitatea aldatu eta «ezagutza-komunak» eraikitzeko ez dela aski curriculumaren edukiaz arduratzea eta, are garrantzitsuagoa dena, ikasteak duen kostuaz, nahiz eta bi-biak funtsezkoak izan, dudarik gabe. Zalantzan jarri behar duguna zera da: batetik, unibertsitate baten produkzioan parte hartzen duten kondizio materialak; bestetik, unibertsitatearen historia eta hark inguruko komunitateekin dauzkan harremanak. Bereziki AEBn, non instituzioek erabilitako lurraren zati handi bat aurreko biztanleen desjabetze odoltsu baten ostean eskuratu baitzen, ezinbestekoa da kontu horiek garbitzea.

Horrekin batera, ezagutzari buruz dugun ikusmoldea aldatu behar dugu, orobat ezagutzaren ekoizletzat jo ditzakegun pertsonen ingurukoa. Gaur egun, campusetako ezagutza-produkzioa bizitza akademikoari eusten dion azpiegitura-lan eskergatik bakandurik dago, zeinak askotariko subjektuak behar baititu (garbitzaileak, kafetegiko langileak, mantentze-lanetakoak...) ikasle eta irakasleak egunero ikasgelara itzuli ahal izateko. Halere, emakumeek egiten duten lan erreproduktiboarekin gertatzen den antzera, lan hau ere ikusezina da neurri handi batean. Eguna joan egunak etorri, «eskuekin lan egiten dutenek» (Brecht)

posible egiten dute «buruarekin lan egiten dutenak» eta megamakinak berriz abian jartzea, baina, onenean ere, lan egiteari uko egiten badiote soilik aitortuko zaie beren lana. Era berean, ziurtzat jotzen da haiek ez dutela ezagutza ekoizteko gaitasunik, aintzat hartu barik AEBko campusetako pertsonalaren artean gero eta langile migratu edo asilo-eskatzaille gehiago daudela, beren lana nazioarteko esperientziez eta eskarmentu politiko aberatsez hornitzen dutenak. Halaxe zen nik irakasle jardun nuen Hofstra Unibertsitateko langile askoren kasuan ere. Unibertsitate hura El Salvadorretik AEBra etorritako migratzailez osatutako bigarren komunitaterik handienaren erdian kokatuta dago; hain zen politikoki garrantzitsua, ezen, gerra amaitu ondoren, FMLNkoek –orain agintean dagoen alderdikoek– haiengana jotzen baitzuten erabaki estrategiko bat hartu behar zuten bakoitzean. Unibertsitateak komuna bihurtu nahi baditugu, lanbanaketan oinarrituriko hierarkiak gainditu behar ditugu. Eta, gaur den egunean, bereziki garrantzitsua da horrela jokatzeari, aipatu ditugun unibertsitate-langileetako asko deportatuak izateko arriskuan daudelako.

LAU

FEMINISMOA ETA KOMUNEN POLITIKA METATZE PRIMITIBOAREN GARAIAIN

Gure egiten dugu munduko komuneroen ikuspegia: gorputzak eta premiak dauzkaten gizon-emakumeak, zeinen tradizioarik funtsezkoena baita bizitza kooperazioaren bidez sortu eta mantentzea; halere, sufrimendua pairatuz egin behar izan dute, elkarrengandik, naturatik eta belaunaldiz belaunaldi sortu dugun ondasun komunalek bereizirik.

Emergency Exit Collective, *The Great Eight Masters and the Six Billion Commoners*, Bristol, May Day 2008.

Emakumeek egiten duten iraupen-lana eta komunek tokiko herri-tarren biziraupen zehatzari egiten dioten ekarpena idealizatu egiten dira, eta, ondorioz, ikusezin bihurtzen dira; bi-biek, antzekoak izateaz gain, sustrai berak dituzte... Nolabait ere, emakumeak komunak bezala tratatzen dira, eta komunak emakumeak bezala tratatzen dira.

Marie Mies eta Veronika Bennholdt-Thomsen, *Iraupenaren ikuspuntua*.

Erreproduktzioa gizarte-produktzioaren aurretik doa. Emakumea ukitzen baduzu, arroka ukituko duzu.

Peter Linebaugh, *The Magna Carta Manifesto*.

Sarrera: zergatik komunak?

1993ko abenduaren 31n, zapatistek San Cristobal de las Casas-eko Zócalo plaza hartu zuten, Mexikoko ejido edo herri-lurrak desagerraraziko zituen legediaren aurka protesta-tzeko. Bada, garai hartatik gutxienez, «komunak» kontzeptua gero eta ezagunagoa egin da nazioarteko zein AEBko ezkertiar

erradikalen artean, eta oinarri bateratzaille gisa agertu da, anarkistak, marxistak, sozialistak, ekologistak eta ekofeministak bildu ditzakeena.¹⁶⁷

Komunen ideia hori zaharkitua egon daiteke, itxura batean; nolanahi ere, gaur egungo gizarte-mugimenduen eztabaida politikoaren erdigunean kokatu da, garrantzi handiko hainbat arrazoiengatik. Horien artean, bi nabarmentzen dira. Alde batetik, iraultza-eredu estatistaren desagertzea dago, zeinak ahuldu egin baitu hainbat hamarkadaz kapitalismoaren ordezkotako sistema ekonomiko eta soziala eraikitzen saiatu diren mugimendu erradikalen ahalegina. Bestetik, sistema neoliberala bizitza- eta ezagutza-molde oro merkatuaren logikaren mende jartzen saiatzen da, eta, ondorioz, gero eta nabariagoa da zer arrisku dakarren mundu honetan bizitzeak; jada ez dugu itsaso zein zuhaitzetara iristeko modurik, ez animaliengana ez gure hurkoengana, ez bada diru bidezko harremanen bidez. Halaber, «itxitura» berriek jabetza eta harreman komunalez osaturiko mundu bat azaleratu dute, askok jada desagertutzat jotzen zutena edo pribatizazioaren mehatxuaz jabetu arte aintzat hartu ez zutena.¹⁶⁸ Ironikoki, «itxitura» berriek erakutsi dute komunak ez direla desagertu, eta erakutsi dute, orobat, gizarte-lankidetzarako molde berriak sortzen ari direla etengabe, baita aurretik inoiz komunarik izan ez den eremuetan ere; adibidez, Interneten.

Testuinguru horretan, komun(ar)en kontzeptuak aldatiba logiko eta historiko bat eskaini die estatuari zein jabetza pribatuari, batetik, eta estatuari zein merkatuari, bestetik; aukera eman digu, halaber, fantasia bat gezurtatzeko, hots, elkar-uka-

167 Komunen politikari eta haren oinarri teorikoei buruzko iturri garrantzitsu bat Erresuma Batuko *The Commoner* onlineko aldizkaria da, zeinaren hamabosgarren alea 2012an argitaratu baitzen. Lehenagoko aleen edukiak, kritikak eta informazio gehiago www.commoner.org.uk webgunean aurki daitezke.

168 Horren adibide da Maineko komunitate askotan Nestlé-ren aurka egiten ari diren borroka, enpresa hori Maineko urak bereganatzen ari delako Poland Spring izeneko ur botilatua sortzeko. Nestléren lapurreta horren harira, herritarrek ur horien eta akuiferoen garrantziaz ohartu dira, eta, horren ondorioz, elkarrengana bildu eta benetako komuna bat osatu dute. «Nestlé's Move to Bottle Community Water», *Food and Water Watch Fact-Sheet*, 2009ko uztaila, 2018ko maiatzaren 31n eskuratua, https://www.foodandwaterwatch.org/sites/default/files/nestle_bottle_community_water_fs_july_2009_1.pdf. Food and Water Watch erakundeak honela definitzen du bere burua: «AEBn eta munduan zehar ur garbia eta elikagai seguruak bermatzeko lan egiten duen irabazi asmorik gabeko erakundea»

tzaileak direla eta gure aukera politiko guztiak barne hartzen dituztela. Bestalde, komunaren kontzeptuak funtzio ideologiko bateratzaile bat ere izan du; izan ere, ezker erradikala sortu nahian dabilen gizarte kooperatiboari neurria hartzeko balio izan du. Nolanahi ere, kontzeptu horren interpretazioan anbiguotasunak eta desberdintasun nabarmenak daude oraindik, eta ezinbestekoa da kontu horiek argitzea, baldin eta komunaren printzipiotik abiatuta proiektu politiko koherente batera iritsi nahi badugu.¹⁶⁹

Esate batera, zer behar da komuna bat osatzeko? Lurra-
ren, uraren eta airearen komunak dauzkagu, bai eta komuna digitalak ere; eskuratuak ditugun eskubideak (adibidez, gizarte-segurantzaren pentsioak) komuna gisa azaltzen dira askotan, orobat hizkuntzak, liburutegiak eta iraganeko kulturetako produktu kolektiboak. Baina, potentzial politikoari begiratuz gero, balio bera dute komuna horiek guztiek? Bateragarriak dira? Nola ziurta dezakegu ez dutela aditzera ematen oraindik erai-ki gabe dagoen batasun bat? Azkenik, «komunak» erabili behar genuke, pluralean, ala «komuna», singularrean, autonomista marxistek proposatzen duten gisan, izendatuz horrekin, beren ustez, postfordismoko produkzio-molde nagusiaren bereizgarri diren gizarte-harremanak?

Galdera horiek gogoan hartuta, oraingo honetan ikuspegi feminista bati helduko diot komunaren politikak aztertzeko. «Feminista» adjektiborekin, zera adierazi nahi dut: diskriminazio sexualaren aurkako eta lan erreproduktiboaren eremuko borrokaren ondorioz taxututako jarrera bat. Izan ere, lan erreproduktibo hori gizarte honen oinarri-oinarrian dautzan arroka da –Lineabaughen sarrerako aipua parafraseatuz–, eta gizarteredu ororen egokitasuna arroka horren gainean probatu behar da. Beraz, nire ustez, ezinbestekoa da mahai gainean jarritako azterketa hau egitea; horren bidez, komunaren politika hobeto zehazteko aukera izango dugu, eta, gainera, argitu ahal izango dugu zer baldintzatan bihur daitekeen komun(ar)en printzipioa programa antikapitalista baten oinarri. Azterketa horretan, bi auzi nagusi hartu behar dira kontuan.

169 Komunaren inguruko egungo eztabaidak irakurtzeko gune bikain bat Erresuma Batuan argitaratzen den mugimenduari buruzko aldizkari bat da: *Turbulence: Ideas for Movement* (2009ko abenduaren 5a); 2018ko ekainaren 2an eskuratua, http://www.turbulence.org.uk/wp-content/uploads/2009/11/turbulence_05.pdf.

Mundu-mailako komunak, Munduko Bankuaren komunak

Lehen auziari helduko diogu. 1990eko hamarkadatik aurrera, gutxienez, Munduko Bankuak eta Nazio Batuek komunen alorreko hizkuntza berenganatu dute, eta, hori eginez, pribatizazioaren zerbitzura jarri dute. Biodibertsitatea babesten eta komuna globalak kontserbatzen dabiltzalakoan, bankuek erreserba ekologiko bihurtu dituzte euri-oihanak, eta kanpora bota dituzte mendeen mendetan sustengua handik atera duten herriak. Aldi berean, oihanetan sartu eta nahierara erabiltzeko eskubidea ziurtatu die aukera horren truke ordaintzeko behar adina diru dutenei; hala jokatu dute, adibidez, ekoturismoarekin.¹⁷⁰ Nazio Batuak, bere aldetik, ozeanoen erabilera arautzen duen nazioarteko legea berrikusi du, eta itsas urak esku gutxiagotan uzteko aukera eman die gobernuari; kasu honetan ere, humanitatearen ondare komuna babesten ari direlakoan.¹⁷¹

Halere, Munduko Bankua eta Nazio Batuak ez dira komun-ideia merkatu-interesetara egokitzen ari diren bakarrak. Arrazoi desberdinengatik, komun-ideia balioa handitzearen aldeko joera bat dago ekonomialari nagusien eta aholkulari kapitalisten artean; ikus, adibidez, nola ugaritu den literatura akademikoa alor horretan eta antzekoetan: kapital soziala, dohainaren ekonomia, altruismoa. Ikus, baita, joera horrek 2009an jaso zuen aitortza ofiziala, Ekonomiaren Nobel Saria arlo hartako aholkulariaren, Elinor Ostrom zientzialari politikoari, eman ziotenean.¹⁷²

170 Gai honi buruz gehiago jakiteko, ikus «Who Pays for the Kyoto Protocol?» artikulua garrantzitsua, by Ana Isla, in *Eco-Sufficiency and Global Justice*, arg. Ariel Salleh (New York, Londres: Macmillan Palgrave, 2009). Autoreak azaltzen du biodibertsitatearen kontserbazioak aitzakia bat eman diela Munduko Bankuari eta nazioarteko beste erakunde batzuei euri-oihanak hesitzeko, «karbono-hustulekuak» eta «oxigeno-sortzaileak» direlakoan.

171 Itsas Legeari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean, 1994ko azaroan onartua, berrehun miliako muga ezartzen da, eta Ekonomia Ereku Esklusibo bat zehazten da, non nazioek baliabideak esplotatu, kudeatu eta babestu ditzaketen, arrantza-sektoreko enpresetatik hasi eta gas naturalaren sektoreko industrietaraino. Itsas zabaleko meatzaritza ere arautzen du, orobat handik ateratako diru-etekinen erabilera ere. «Humanitatearen ondasun komuna»ren kontzeptuak Nazio Batuen Erakundearen barruan izandako bilakaerari buruz gehiago jakiteko, ikus Susan J. Buck, *The Global Commons: An Introduction* (Washington, DC: Island Press, 1998).

172 Ostromeak baliabide komunak aztertzen ditu, eta «nola gizakiek eta ekosistemek elkarri eragiten dioten, epe luzera begira ere baliabide jasangarrietatik etekinak lortu ahal izateko»; «Elinor Ostrom», *Wikipedia*, 2018ko maiatzaren 24an eskuratua, https://en.wikipedia.org/wiki/Elinor_Ostrom.

Garapena planifikatzeaz arduratzen direnak eta legebileak ohartu dira ezen, kondizio egokiak izanez gero, baliabide naturalen kudeaketa kolektiboa pribatizazioa baino eraginkorragoa izan daitekeela eta, gainera, kudeaketa-eredu horrek gatazkak eragiteko arrisku txikiagoa izan dezakeela. Ohartu dira, halaber, posible dela komunek oso modu egokian produzitzea merkatuentzat.¹⁷³ Eta onartu dute, orobat, gizarte-harremanak produktu bihurtzeko nahia muturrera eramateak kontrako eragina izan dezakeela. Den-dena produktu bihurtzeko aukera gizarte-egituraren bazter guztietara zabaltzearen kontu hori, neoliberalismoak bultzatua, muga ideal bat da ideologo kapitalistentzat; alabaina, proiektu gauzaezina izateaz gain, gomendagaitza ere bada, sistema kapitalistaren epe luzeko erreprodukzioaren ikuspuntutik. Oinarriko egiturari dagokionez, metatze kapitalistak nahitaez izan behar du merkatutik kanpokoa dirudien lan eta baliabide pila bat libreki eskuratzeko modua, hala nola emakumeek egindako etxeko lan ordainik gabea, zeina enplegatzaileek erabiltzen baitute, lan-indarra erreproduzitzeko.

Hortaz, Wall Street-eko porrota baino askozaz ere lehenago, eta ez halabeharrez, askotariko ekonomialariek eta teoriarari sozialek ohartarazia zuten bizitzaren eremu guztiak merkaturatzea kaltegarria dela merkatuaren funtzionamendu egokiarentzat. Esaten zutenez, merkatuek ere diru oinarri ez duten harremanak ere behar dituzte, esate batera, konfiantzan eta dohaintzan oinarritutako harremanak.¹⁷⁴ Labur esanda, kapitala ondasun komunalen bertuteez ohartzen hasi da.

Beraz, komunei buruzko diskurtsoa kontu handiarekin eraiki behar dugu, krisian dagoen klase kapitalistak bere burua berpizteko erabil ez dezan. Eta erabili, zer zentzutan? Bada, esate batera, bere burua agertuz ingurumenaren zaintzailea izango balitz bezala.

Zer eratako komunak?

Esan bezala, bigarren auzi bat ere badago. Ikusi dugunaren arabera, nazioarteko erakundeek ondotxo dakite nola jar ditza-

173 Gai honi buruz gehiago jakiteko, ikus Calestous Juma eta J.B. Ojwang, arg., *In Land We Trust: Environment, Private Property and Constitutional Change* (London: Zed Books, 1996), jabetza komunalaren harremanek garapen eta ahalegin kapitalistaren testuinguruan duten eraginkortasunari buruzko lehenengotariko tratatua.

174 David Bollier, *Silent Theft: The Private Plunder of Our Common Wealth* (New York: Routledge, 2002), 36.or. -39.or.

keten komunak merkatuaren zerbitzura; aitzitik, argitu gabe dago oraindik nola bihur daitezkeen komunak ekonomia ez-kapitalistaren oinarri. Peter Linebaughen lanak –batez ere, *The Magna Carta Manifesto* (2008) delakoak– erakutsi digu komunek hari bat osatu dutela; hain zuzen ere, klase-gatazkaren historia gure garaiarekin konektatu duen haria. Eta hala da, bai: komunak aldeko borroka gure inguruan dabil. Maine-ko herritarrak, adibidez, arrantza-tokiak enpresa handien jabetzakoak diren floten erasoetatik babesteko borrokatzen dira; Appalachia-ko bizilagunak, oster, lur gaineko meatzaritzak mehatxatutako mendiak babesteko elkartu eta antolatzen dira; kode irekiaren eta software librearen aldeko mugimenduak, aldiz, ezagutzaren merkantilizazioaren aurka egiten ari dira, eta, horrekin batera, komunikaziorako eta lankidetzarako espazio berriak irekitzen dihardute. Gainera, Ipar Amerikan badira komunak eratzea helburu duten hainbat jarduera eta komunitate ikusezin, Carlsson-ek *Nowtopia* (2007) liburuan aipatzen dituenak. Carlssonek erakusten duen gisan, jendea sormen handia erabiltzen ari da «komuna birtualak» eratzeko eta sozializazio-molde berriak sortzeko, diruaren/merkatuaren ekonomiaren radarrari itzuri egin eta aurrera jarraitzea lortzen dutenak.

Dena den, bada horrek guztiak baino garrantzi handiagoa izan duen beste kontu bat: hiri-ortuen sorrera. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, AEBren luze-zabalean hedatu ziren, batez ere Afrikako, Karibeko eta Estatu Batuen Hegoaldeko komunitate migratzaileen ekimenez. Hiri-ortuen garrantzia ez da gutxiestekoa: «hiri-eremu landatarra» [*rurbanization*] eraikitze-ko prozesuaren bidea ireki dute, zeina nahitaezkoa baita gure elikagaien ekoizpena berriro kontrolatu ahal izateko, gure ingurumena leheneratzeko eta gure bizibidea bermatzeko. Izan ere, ortuak ez dira elikagai-iturri soilak, askoz gehiago dira: sozializaziorako, ezagutzarako eta ekoizpenerako zentroak dira, kulturartekotasuna eta belaunaldien arteko harremanak lantzeko tokiak. Margarita Fernandezek New Yorkeko ortuei buruz idatzi du; haren hitzetan, jendea ez da joaten ortuetara lurra lantzeko bakarrik; horrez gain, kartetan egitera joaten dira, ez-kontzak ospatzera, jaiotzak, urtebetetzeak... eta, ortuen bidez,

«sendotu egiten da komunitatearen barruko kohesioa».¹⁷⁵ Gainera, ortu batzuek harreman handia dute inguruko ikastetxeekin, eta ingurumenaren alorreko hezkuntza eskaintzen diete haurrei, eskolaz kanpoko orduetan. Bestalde, ortuen bidez «askotariko ekintza kulturalak transmititzen dira, eta elkarrekin lan egiteko eta elkarren berri izateko topaguneak sortzen dira»; esate batera, ortuek aukera ematen dute Afrikako eta Karibeko barazkiak eta nekazaritza-moldeak nahasteko.¹⁷⁶

Halere, hiri-ortuen ezaugarriak behinena da auzoan kontsumitzeko ekoizten dutela, ez merkaturako. Horrek beste komuna erreproduktibo batzuetatik bereizten ditu, zeinek merkaturako ekoizten baitute, Maineko «Abakandoaren Kostalde»ko arrantza-tokiek bezala,¹⁷⁷ edo merkatuan erosten baitira (halakoak dira, esate batera, aire zabaleko espazioak babesten dituzten lur-fideikomisoak). Halere, arazo bat dago: hiri-ortuek herritarren ekimenez eta naturaltasunez sortzen jarraitu dute, eta AEBko mugimenduak oso gutxitan saiatu dira ortu-mota hori hedatzen eta lurra erabiltzeko eskubidea borrokarako funtsezko eremu bilakatzen. Modu orokorragoan hitz eginda, bada galdera bat ezkerak oraindik mahaigaineratu ez duena, alegia, nola batera daitezkeen etengabe sortzen diren eta herritarrek borrokatuz defendatu eta garatzen dituzten komuna ugariak, haien bidez osotasun kohesionatu bat sortzeko eta ekoizpen-molde berri baterako oinarria prestatzeko.

Salbuespen bat dago: Antonio Negri eta Michael Hardt-ek *Empire* (2000), *Multitude* (2004) eta *Commonwealth* (2009) obre-

175 Margarita Fernandez, «Cultivating Community, Food and Empowerment», argitaratu gabeko testua, 2003, 23.or. -26.or. Hiri-lorategiei buruzko lehen lanetako bat, eta garrantzitsuenetakoa, gainera: Bill Weinberg eta Peter Lamborn Wilson, arg., *Avant Gardening: Ecological Struggle in the City and the World* (Brooklyn: Autonomedia, 1999).

176 Wilson, *Avant Gardening*.

177 Maineko arrantza-komunak mehatxupean daude orain, kontserbazioaren izenean ezarritako pribatizazio-politika berri baten karietara, ironikoki «harrapaketa-kuotak» izendatu dutena. Sistema hori Kanadan eta Alaskan erabiltzen dute, non tokiko gobernuek mugatu egiten baitute harrapa daitekeen arrain-kopurua, kuota indibidualak ezarri, itsasontziek iraganean arrantzatutako kopuruetan oinarrituta. Egiaztatu denez, sistema hori oso txarra da arrantzale txiki eta autonomoentzat, eta sistema ezarri eta lasterrera beren kuota saldu behar izaten diete eskaintzaile onenari. Gaur egun, sistema horren aplikazioaren aurkako protestak prestatzen ari dira Maineko arrantza-komunitateetan. Ikus Laurie Schreiber, «Catch Shares or Share-Croppers?» *Fishermen's Voice* 14, 12. zk. (2009ko abendua): 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <http://www.fishermensvoice.com/archives/1209index.html>.

tan proposatutako teoria, zeinak esaten baitu jada «komunen» printzipioaren gainean eraikitako gizarte bat garatzen ari dela, produkzioaren informatizaziotik eta «kognitibizazio»tik abiatzen dena. Teoria horren arabera, produkzioa Interneten bidez antolatutako ezagutza, kultura eta subjektibitatearen produkzio bilakatzen den heinean – pentsatzekoa den gisan–, espazio komun bat eta aberastasun komun bat sortzen dira, inklusio- eta eskusio-arau zehatzten beharrik ez dutenak. Izan ere, espazio eta aberastasun haiek erabiliz ez dira murrizten sarean eskuragarri dauden baliabideak, alderantziz, ugaritu egiten dira, eta horrek erakusten du posible dela ugaritasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzea. «Ugaritasun» horri dagokionez, konpondu beharreko kontu bakar bat garatzen da, alegia, nola saihesti ekoizitako aberastasun hori sistema kapitalistak «harrapatzea».

Teoria horrek badu bere xarma: ez ditu bereizten «komunaren» eraikuntza, batetik, eta lanaren eta produkzioaren antolakuntza, bestetik; aitzitik, bi kontzeptu horiek gertu-gertukotzat jotzen ditu. Muga bat ere badu, ordea: komunak irudikatzean, absolututzat jotzen du munduko biztanle gehienek eskura ez dauden trebetasunak dauzkaten gutxi batzuen lana. Bestalde, alde batera uzten du lan horrek funtsezko produktuak ekoizten dituela merkaturako, eta ez du aintzat hartzen onlineko komunikazioa eta produkzioa hainbat jarduera ekonomikoren mende daudela –meatzaritza; mikrotxipen eta lur arraroen ekoizpena–, zeinak, gaur egun antolatuta dauden eran, guztiz suntsitzaileak baitira gizartearen zein ekologiararen ikuspuntutik.¹⁷⁸ Are gehiago, ezagutza eta informazioa azpimarratu, eta egunerokotasunaren erreprodukzioaren auzia saihesten du. Nolanahi ere, gauza bera esan daiteke komunak diskurtso orokorrari buruz; izan ere, komunak existitzeko beharrezkoak diren aurrebaldintza formalez arduratzen da, nagusiki, eta ez ho-

178 Egindako kalkuluen arabera, ordenagailu pertsonal bat ekoizteko 33.000 litro ur eta 15-19 tona material behar dira; ikus Saral Sarkar, *Eco-Socialism or Eco-Capitalism? A Critical Analysis of Humanity's Fundamental Choices* (Londres: Zed Books, 1999), 126; Elizabeth Dias, «First Blood Diamonds, Now Blood Computers?» *Time*, 2009ko uztailaren 24a, 2018ko maiatzaren 31n eskuratua, <http://content.time.com/time/world/article/0,8599,1912594,00.html>. Diasek baliabideekin zerikusia duten gatazkak prebenitzeko lan egiten duen Global Witness erakundearen baieztapenak aipatzen ditu; esaten du industria elektronikoaren bihotzean dagoen mineral-salerosketak Kongoko Errepublika Demokratikoko gerra zibila hornitzen duela.

rrenbeste komunetan oinarritutako ekonomia bat –soldatapeko lanarekiko eta harreman kapitalistekiko mendekotasunari aurre egiteko aukera emango diguna– eraikitzeke ezinbestekoak diren baldintza materialez.

Emakumeak eta komunak

Testuinguru horretan, garrantzitsua da komunak ikuspegi feminista batetik aztertzea. Horretarako, lehenik eta behin, ohartu behar gara emakumeek –lan erreproduktiboaren subjektu nagusiak, historikoki zein gaur egun– gizonen baino mendekotasun handiagoa izan dutela natura-baliabideen eskuragarritasunarekiko; baliabide horien pribatizazioak gehiago kaltetu ditu, eta gizonak baino gehiago engaiatu dira haien defentsan. Garapen kapitalistaren lehen fasean, eta *Caliban eta sorgina* (2004) liburuan idatzi nuen bezala, emakumeak lurren itxituren aurkako borrokaren lehen lerroan egon ziren, Ingalaterran zein «Mundu Berrian», eta haiek izan ziren kolonizazio europarrak suntsitu nahi izan zuen kultura komunalaren defendatzaile porrokatuenak. Perun, konkistatzaile espainiarrek hango herrixken kontrola hartu zutenean, emakumeek goi-mendietara ihes egin zuten, eta, han zeudela, bizitza kolektiboaren moldeak errepikatuz zituzten, gaur egunera arte iritsi direnak. Ezaguna denez, XVI. eta XVII. mendeetan munduaren historian emakumeen aurka inoiz izan den erasorik bortitzena gertatu zen: sorginak izatea leporatu, eta emakumeak jazarri zituzten. Gaur egun, metatze primitiboaren prozesu berri baten aurrean gaudelarik, emakumeak dira, nagusiki, naturaren erabateko komertzializazioari aurre egiten dion indar sozialaren sustatzaileak, haiek baitira lurraren erabilera ez-kapitalista eta iraupen-nekazaritza bultzatzen dutenak. Emakumeak dira munduko iraupen-nekaziariak. Afrikan, herritarrek kontsumitzen duten janariaren %80 emakumeek ekoizten dute, nahiz eta Munduko Bankua eta beste erakunde batzuk saiatu diren haien jarduerak labore komertzialetara bideratzen. 1990eko hamarkadan, elikagaien prezioen igoerari erantzunez, emakumeek herriarenak ziren lursailak berenganatu eta artoa, babarrunak eta manioka landatu zituzten Afrikako herri askotan, «errepide bazterretan... parkeetan, trenbideetan»; prozesu hartan, aldaketak eragin zituzten Afrikako paisaia hiritarrean, eta eremu hiritarraren eta landa-

eremuen arteko bereizketa hautsi zuten.¹⁷⁹ Indian, Filipinetan eta Latinoamerikan, emakumeek zuhaitzak birlandatu zituzten baso suntsituetan, eskuz esku jardun zuten egurketariak uxatzeko, meatzaritza-lanen eta presak eraikitzeko beharren aurkako setioak antolatu zituzten, eta uraren pribatizazioaren aurkako iraultza lideratu zuten.¹⁸⁰

Erreprodukzioarako ezinbestekoak diren baliabideen erabilerara zuzenaren alde emakumeek egiten duten borrokaren beste aldean, Hirugarren Munduan –Cambodia-tik Senegal-eraino–sortu eta zabaldu diren kreditu-elkarteak daude, diru-komunak balira legez jarduten dutenak.¹⁸¹ Izen desberdinak hartzen dituzte, eta Afrikako leku batzuetan, adibidez, tontine deritze. Emakumeek sustatutako banku-sistema autonomo eta autogestionatuak dira, eta dirua eskaintzen diete bankuetara jotzeko aukerarik ez duten banako eta taldeei; dirua emateko, eskatzaileenganako uste onari bakarrik begiratzen diote. Alde horretatik, ez dute zerikusirik Munduko Bankuak bultzatutako mikrokreditu-sistemekin, elkar zelatatzean eta lotsan oinarritzen direnak; Nigerian, adibidez, maileguak ordaintzen ez dituzten emakumeen argazkiak leku publikoetan jartzen dituzte, eta, ondorioz, emakume batzuk beren buruaz beste egitera bultzatzen dituzte.¹⁸²

Lan erreproduktiboa kolektibizatzeak ahaleginean ere, emakumeak joan dira aurretik, bai erreprodukzioaren kostua merkatzeko, bai elkar babesteko pobrezia-aren, estatu-indarkeriaren eta gizonen indarkeriaren aurrean. Horren adibide nabarmena da *ollas comunes* (lapiko komunak) ekimena, Txileko eta Peruko emakumeek 1980ko hamarkadan abiatu zutena, inflazio latz baten ondorioz erosketa-saskia beren kabuz bete

179 Donald B. Freeman, «Survival Strategy or Business Training Ground? The Significance of Urban Agriculture for the Advancement of Women in African Cities», *African Studies Review* 36, 3. zk. (1993ko abendua): 1.or. -22.or.; Federici, «Witch-Hunting, Globalization and Feminist Solidarity in Africa Today», *Journal of International Women's Studies* 10, 1. zk. (2008ko urria): 29.or. -35.or., berrinprimatzea: Federici, *Witches, Witch-Hunting, and Women* (Oakland: PM Press, 2018), 60.or. -86.or.

180 Vandana Shiva, *Staying Alive: Women, Ecology and Development* (Londres: Zed Books, 1989).

181 Leo Podlashuc, «Saving Women: Saving the Commons», in *Eco-Sufficiency and Global Justice: Women Write Political Ecology*, arg. Salleh, Ariel (Londres: Macmillan Palgrave, 2009).

182 Informazio hau Ousseina Alidou-ri zor diot, New Jersey-ko Rutgers Unibertsitateko Afrikar Ikasketen Zentroko zuzendariari.

ezinik geratu zirenean.¹⁸³ Lurrak aldarrikatzearekin eta tontineak sortzearekin batera, lapiko komunen gisako ekintzak oraindik ere lotura komunal sendoak dituen mundu baten seinale dira. Baina jarduera horiek ezin dira jo aurrepolitikotzat «natural»tzat, edo, besterik gabe, «tradizio»aren emaitzatzat. Kolonizazio-fase ugariaren ostean, jada ez da naturarik edo tradizioz geratzen munduko ezin tokitan, ez bada haiei eusteko eta haiek berrasmatzeko herritarrak borrokatu diren lekuetan. Leo Podlashuc-ek «Saving Women: Saving the Commons» artikuluan adierazi bezala, emakumeen komunalismoak errealitate berri bat dakar berekin, identitate kolektibo bat; kontrabotere bat da, etxean zein komunitatean, eta ahalduzko-prozesu bat abiarazi du, norberaren burua balioesteko eta norberaren erabakiak hartzeko, zeinetatik asko ikas baitezakegu.

Hona hemen borroka horietatik guztietatik atera dezakegun lehen irakaspena: interes kolektiboa piztu eta elkarrekiko loturak sortzeko mekanismoak baliagarriena erreproduzio-baliabide materialak «komunal bihurtzea» da. Era berean, mekanismo hori esklabutzan oinarritutako bizimoduaren aurkako borrokaren lehen osagaia da, orobat espazio autonomoak eraikitzeke baldintza ezinbestekoa ere, barrutik ahultzen baitu kapitalismoak gure bizitzan gainean duen kontrola. Jakina, azaldu ditudan esperientzia horiek ezin dira leku batetik hartu eta beste leku batera eraman. Ipar Amerikan, adibidez, erreproduzio-baliabideak komunal bihurtzeko aldarrikapenak beste forma bat izan behar du ezinbestean. Baina Ipar Amerikan ere, gure baliabideak bateratuz eta guk ekoiztutako aberastasuna berriz geureganatuz, has gaitezke deslotzen gure erreproduzioa merkatu globaleko salgai-fluxuetatik, zeinak mundu osoko milioika herritarren desjabetzearen erantzule baitira. Has gaitezke gure bizimodua askatzen ez bakarrik merkatu globaletik, baita gerra-makinatik eta espetxe-sistematik ere, zeinaren mende baitago gaur egun AEBko ekonomia. Zehatzago esan, mugimenduaren barruko harremanen ezaugarri izan ohi den elkartasun abstraktutik harago joan gaitezke, zeren eta elkartasun-mota horrek mugatu egiten du gure konpromiso-maila eta paimenerako dugun gaitasuna,

183 Jo Fisher, *Out of the Shadows: Women, Resistance and Politics in South America* (Londres: Latin America Bureau, 1993); Carol Andreas, *When Women Rebel: The Rise of Popular Feminism in Peru* (Westport, CT: Lawrence Hill, 1985).

eta mugatu egiten du, halaber, gure iritzian onargarria izan daitekeen arrisku-maila.

AEBn, non jabetza pribatua munduko armategirik handienaren bidez defendatzen baita, non hiru mendeko esklabutzak banaketa sakona eragin baitu gizartean, komun(ar)en berre-raikuntza sekulako eginkizun gisa ageri da, modu bakarrean gauzatu daitekeena, alegia, epe luzeko prozesu bat garatuz, aukera emango duena esperimentatzeko, aliantzak eraikitzeko eta erreparatzeko. Une honetan, beharbada, eginkizun hori orratz baten begitik igarotzea baino zailagoa irudituko zaigu; halere, hori da modu bakarra gure autonomiaren espazioa hedatzeko eta ez onartzeko gure erreprodukzioa munduko beste komunero eta komuna batzuen bizkar egitea.

Berreraikitze feministak

Maria Miesek ondo baino hobeto azaltzen du zer den zeregin horrek berekin dakarrena. Azpimarratzen du komunak eraiki aurretik eraldaketa sakon bat egin behar dugula gure eguneroko bizitzan, sistema kapitalistaren lan-banaketa sozialak bereizitakoa berriz bateratzeko.

Produkzioa erreprodukzioetik eta kontsumotik urrunduta dagoenez, ezin dugu jakin zer baldintzatan ekoizten diren gure jakiak, gure arropak, gure lanabesak, ez dakigu zer kostu duen ekoizpen horrek gizartearentzat eta ingurumenarentzat, eta ez dakigu zein den guk produzitutako zaborra irensten duten herrien patua.¹⁸⁴ Beste era batera esanda, nahitaezkoa da sistema kapitalistaren lan-banaketa sozial suntsigarriaren kausaz egiten ditugun ekintzek dituzten ondorioekiko bizi dugun axolagabetasun-egoera gainditzea; osterantzean, gure bizitzaren produkzioak beste batzuen heriotza produzitzen jarraituko du. Miesek azpimarratzen duenez, globalizazioak okerragotu egin du krisi hau, zabaldu egin baitu ekoiztakoaren eta kontsumitutakoaren arteko distantzia, eta –mundu-mailako interkonexioa areagotu egin dela dirudien arren– handitu egin baitu gure jakietan, erabiltzen dugun petrolioan, janzten ditugun arropetan

184 Maria Mies eta Veronika Bennholdt-Thomsen, *The Subsistence Perspective: Beyond the Globalized Economy* (Londres: Zed Books, 1999).

eta elkar komunikatzeko erabiltzen ditugun ordenagailuetan dagoen odolarekiko axolagabekeria.¹⁸⁵

Ikuspegi feminista batetik, ahanztura-egoera hori gainditzeko nahitaezkoa da lehenik eta behin komunak berreraikitzea. Ezinezkoa da komuna bat eraikitzea, baldin eta uko egiten ez badiogu gure bizitza eta gure erreprodukzioa beste batzuen sufrimenduan oinarritzeari, uko egiten ez badiogu geure burua haienetatik bereizia ikusteari. Komunagintzak zerbaitetarako balio behar baldin badu, izan behar du geure burua subjektu komun gisa produzitzeko. Modu horretan ulertu behar dugu «komunarik ez, komunitaterik gabe» eslogana. Baina «komunitatea» ezin da ulertu errealitate hesitu gisa hau da, jende-multzo bat, beste jendeetatik bereizten dituen interes eskusiboen ondorioz elkarrengana bildua, erlijioan edo etnían oinarrituta sortzen diren komunitateekin gertatzen den bezala; «komunitatea» ulertu behar da harremanen ezaugarri gisa, lankidetzarako printzipio gisa, beste jendeetik eta lur, baso, itsaso eta animaliekiko erantzukizun gisa.

Jakina, komunitate horren lorpena, orobat eguneroko lan erreproduktiboaren kolektibizazioa, hasiera baino ez da. Horrek ez ditu ordezkatzeko pribatizazioaren aurkako kanpaina zabalagoak, eta ez du ahalbidetuko gure ondasun komunalak berreskuratzea. Baina funtsezko parte bat da, eta gobernu kolektibo bat osatzeko behar dugun ezagutza gureganatzen eta historia proiektu kolektibo bat dela ulertzen laguntzen digu; eta hori da, agian, kapitalismoaren garai neoliberal honen biktima nagusia. Horregatik, guk ere txertatu behar dugu gure agenda politikoan etxeko lanen komunalizazioa, eta, horren bidez, tradizio feminista berpiztu; AEBn, tradizio feminista hori XIX. mendearen erdialdeko esperimendu sozialista utopikoekin abiatu zen, eta XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen hasiera bitartean «feminista materialistek» etxeko lanak –eta, beraz, baita etxea eta auzoa ere, etxeko lanen kolektibizazioaren bidez– berrantolatze eta gizarteratzeko egin zituzten saiakeretara arte luzatu zen; saiakera haiek 1920ko hamarkadara arte iraun zuten, «bel-dur gorriak» desagerrarazi zituen arte.¹⁸⁶

185 Mies and Bennholdt-Thomsen, *The Subsistence Perspective*.

186 Dolores Hayden, *The Grand Domestic Revolution: A History of Feminist Designs for American Homes, Neighborhoods, and Cities* (Cambridge, MA: MIT Press, 1985)

Ekintza haiek berrikusi, eta merezi duten balioa eman behar zaie; bereziki gogoan hartzekoa da zer-nolako ahalmena izan zuten iraganeko feministek lan erreproduktiboak giza jardueraren eremu garrantzitsu eta ukaezin gisa ikusteko, goitik behera aldatu beharrekoak.

Bizitza-molde kolektiboak eratzekeo arrazoi nagusieta-ko bat da gizakien erreprodukzioa lurreko lanik egitekotsuena dela, eta, zati handi batean bederen, mekanizazioak ordezkatzina. Ezin dugu mekanizatu ez umeen zaintza, ez osasunaren zaintza, ez gure oreka fisiko zein emozionala berreskuratzeko egin beharreko lan psikologikoa. Industrialari futuristak ahalegin handia egiten ari badira ere, ezin dugu zaintza robotizatu, ez bada izugarritzko kostua eraginez hori jasan beharko luketen pertsonen. Inork ez ditu onartuko robot erizainak zaintzarako, batez ere haurrak edota adinekoak tartean direla. Zaintza egokia bermatzeko modu bakarra dago: zaintzailearen osasunaren bizkar garatuko ez den erantzunkidetasuna eta elkarlana. Hainbat mendez, gizakien erreprodukzioa prozesu kolektibo bat izan da, familia zabalen eta konfiantzazko komunitateen lana, batez ere langile-auzoetan eta bakarrik bizi ziren pertsonen kasuan; modu hartan, zahartzaroak ez zuen eragiten gure zaharrek orain bizi duten bakardade eta mendekotasun hondagarriarik. Kapitalismoaren etorrerarekin, erreprodukzioa erabat pribatizatu da, eta prozesu hori hainbeste zabaltu da, ezen gure bizitzak suntsitzen ari baita. Joera hori irauli egin behar da baitezpada, eta une egokia da proiektu hori aurrera eramateko.

Krisi kapitalistak mundu osoko milioika pertsonaren funtsezko erreprodukzio-baliabideak suntsitu ditu, baita Estatu Batuetan ere; horregatik, posible da gure eguneroko bizitza berreraikitzea, eta, gainera, hala egiteko beharra dugu. Grebekin gertatzen den antzera, krisialdi sozioekonomikoek ere soldatapeko lanaren diziiplina hausten dute, eta sozializazio-molde berriak ekartzen dizkigute. Hori gertatu zen Depresio Handiaren garaian: etxebakoen mugimendu bat sortu zen, merkantzia-trenak bizileku komunaltzat hartu zituen; pertsona haiek mugitzeko gaitasunean eta nomadismoan bilatzen zuten

[1981]]; Hayden, *Redesigning the American Dream: The Future of Housing, Work and Family Life* (New York: W.W. Norton, 1986).

beren askatasuna.¹⁸⁷ Trenbideen gurutzaguneak hartu, eta etxerik gabekoez osatariko oihan-antzekoak antolatu zituzten; hau da, haietako askoren ametsa zen mundu komunista irudikatu zuten, bere elkartasun-sarearekin eta autogobernu-arauekin.¹⁸⁸ Baina, *Boxcar Bertha* batzuk alde batera utzita,¹⁸⁹ mundu nagusiki maskulinoa zen, anaitasun bat, eta, epe luzera, ezinezkoa izan zen hari eustea. Krisi ekonomikoa eta gerra amaitu zirenean, lan-indarra finkatzeaz arduratzen ziren bi makina handiek –familiak eta etxeak– arlote haiek ere otzandu zituzten. AEBko kapitalak, depresio-garaian langile-klasearen berrantolamenduak eragindako mehatxuaz jakitun, bikain aplikatu zuen geroztik bizitza ekonomikoaren antolamendua ezaugarritu duen printzipioa: lankidetzat produkzio-gunean, bereizketa eta atomizazioa erreprodukzio-gunean. Hiri-inguruetakoa Levittown auzoetakoa familia-etxe atomizatu eta sailka antolatuek.¹⁹⁰ Haien zilbor-apendizea zen automobilarekin batera, langilea sedentarismora bultzatu zuten, eta, gainera, bukaera eman zieten arloteek trenbideetako oihanetan irudikatu zituzten langile autonomoen komunei.¹⁹¹ Gaur egun, Estatu Batuetako bankuak milioika etxe eta auto bahitzen ari diren garaian, hipoteken egikaritzeak, etxegabetzeak eta enpleguaren galera masiboa berriz ere sistema kapitalistaren lan-diziplinaren zutoinak eraisten ari direnean, komuna-eremu berriak itxuratzen hasi dira berriro; esate batera, herrialdearen kostalde batetik bestera hedatzen diren kanpadenda-hiriak. Guztiarekin ere, oraingoan emakumeak dira komunak eraiki behar dituztenak, ez daitezen izan iragaitzazko espazioak, aldi baterako eremu autonomoak, eta bilaka daitezen erreprodukzio sozialerako molde berrien oinarri.

187 George Caffentzis, «Three Temporal Dimensions of Class Struggle», ISAren urteko bileran arukeztutako txostena, San Diego, CA, 2006ko martxoak.

188 Nels Anderson, *On Hobos and Homelessness* (Chicago: University of Chicago Press, 1998); Todd DePastino, *Citizen Hobo* (Chicago: University of Chicago Press, 2003); Caffentzis, «Three Temporal Dimensions of Class Struggle».

189 *Boxcar Bertha* (Los Angeles: American International Pictures, 1972), 88 min., Ben Reitman zinema-zuzendariaren *Sister of the Road* (Oakland: AK Press, 2002 [1937]) filmean oinarrituta Martin Scorsese-k egindako moldaketa, Bertha Thompson izeneko erradikal alderrai baten autobiografia gisa aurkeztutako kontakizun fikzionatua.

190 Bigarren Mundu Gerraren ondoren AEBn eta Puerto Ricon eraikitako etxebizitzak, William Levitt-en enpresak sortuak, gerratik itzultako beteranoei eta beren familiei bizileku eskuragarri bat eskaintzeko. [I.O.]

191 Hayden, *The Grand Domestic Revolution*.

Etxea oikos bada, non ekonomia eraikitzen baita, orduan emakumeak dira –hau da, historian zehar etxe-langileak izan direnak eta etxean gatibu egon direnak– etxea bizitza kolektiboaren erdigune gisa aldarrikatzeko prozesuan aurrea hartu behar dutenak; askotariko pertsonak eta lankidetzak molde zeharkatutako bizitza, segurtasuna eskaintzen duena eta bakartzerik eta obsesiorik eragiten ez duena; komunitatearen ondasunak partekatzea eta haien zirkulazioa ahalbidetuko duena, eta, batez ere, erreproduktzio-molde berrietarako oinarria eskainiko duena. Orain baino lehen esan dugun bezala, proiektu hori gauzatzeko behar ditugun ideiak hartzeko, XIX. mendearen erdialdeko feminista materialistengana jo dezakegu; emakume haiek argi zuten etxea «emakumeen zapalkuntzaren osagai espazial» garrantzitsu bat zela, eta, horregatik, jantoki komunak eta etxebizitza kooperatiboak antolatu zituzten, eta erreproduktzioaren kontrola langileen eskuetara igaro zedin eskatu zuten.¹⁹²

Gaur egun, helburu horiek oso garrantzitsuak dira. Etxeko bizitzak dakarren bakartasuna eraistea ez da aurrebaldintza huts bat, gure beharrik oinarritzkoenak asetzeko eta enplegatzaileen zein estatutaren aurrean gure boterea handitzeko aukera ematen diguna.

Massimo De Angelisek dioen bezala, bakartasun hori gainditzea hondamendi ekologikotik babesteko bidea ere bada. Izan ere, ukaezinak dira aktibo erreproduktiboaren ugaritze «ez-ekonomikoak» berekin dakartzan ondorio suntsigarriak, orobat orain etxetzat ditugun bizileku itxiek, neguan beroa airera barreiatzen dutenak eta udan bero jasanezinaren mende jartzen gaituztenak. Are garrantzitsuagoa dena, ezin dugu eraiki gizarte alternatibo bat eta bere burua erreproduzitzeko gai den mugimendu sendo bat baldin eta ez badugu antolatzen gure erreproduktzioa modu kooperatiboago batean eta ez badugu erabat amaitutzat jotzen pertsonalaren eta politikoaren arteko bereizketa, orobat aktibismo politikoaren eta eguneroko bizitzaren erreproduktzioaren artekoa ere.

Amaitu aurretik, gauza bat argitu behar dugu. Erreproduktzioa ikuspegi komunal edo kolektiboaren bidez antolatzeko zeregina emakumeen lepo jartzeak ez du esan nahi femenino-

192 Hayden, *Redesigning the American Dream*.

tasunaren ikuskera naturalista onartzen dugunik. Ulergarria denez, feminista ugarik heriotza bera baino patu okerragotzat dute aukera hori. Gure kontzientzia kolektiboan sakon zizelkatu-rik dago emakumeak gizonen ondasun komunaltzat izendatuak izan direla, aberastasun- eta zerbitzu-iturri natural bat, gizonek nahieran bere egin dezaketena, kapitalismoak naturaren aberas- tasuna bere egin duen gisan. Baina, Dolores Hayden-en hitzak erabiliz, lan erreproduktiboaren berrantolamendua –eta, beraz, etxebizitzarena eta espazio publikoena– ez da identitate-kontu bat; lanarekin lotutako kontu bat da, eta, gehituko dugu geuk, boterearekin eta segurtasunarekin lotutako kontu bat.¹⁹³ Hona iritsita, Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST, Lurrik Gabeko Laborarien Mugimendua) mugimenduko ema- kumeen esperientziarekin akordatu naiz. Beren komunitateek okupatuak zituzten lurrei eustea lortu ondoren, behin eta berriz eskatu zuten etxe berriak barruti bat osatuz eraiki behar zire- la, etxeko lanak modu komunalean egiten jarraitu ahal izateko: elkarrekin garbitu, elkarrekin janaria prestatu, gizonekin txan- daka egon –gatazkak iraun zuen bitartean egin zuten bezala–, eta, gizonek emakumeak jazarritz gero, berehala elkar babesteko prest egon. Lan erreproduktiboa eta etxeko lanak kolektibizatze- ko prozesuaren buru emakumeek izan behar luketela esatean, ez dugu adierazi nahi etxeko lana emakumeen bokazio gisa naturalizatzen dugunik. Adierazi nahi duguna da ezin dugu- la onartu esperientzia kolektiboak eta ezagutza ahaztea, ezta lan erreproduktiboen alorrean emakumeek metatu dituzten gatazkak ahaztea ere, haien historia funtsezkoa izan baita kapi- talismoaren aurkako borrokarako. Gaur egungo emakume zein gizonentzat, oso garrantzitsua da historia horrekin berriro bat egitea, modu horretan lortuko baitugu gure bizitzetan generoa- ren arabera eraikitako arkitektura desegitea eta gure etxeak zein gure bizitzak ondasun komunal gisa berreraikitzea.

193 Hayden, *The Grand Domestic Revolution*, 230.

BOST

LURREN ALDEKO EMAKUMEEN BORROKA AFRIKAN ETA KOMUNEN BERRERAIKUNTZA

[E]hiztariek Gusii lurraldean agertu zen azken elefante alderraia hil zutenean [1956an]... eta inguruko lurretako jendeek doako haragia azken aldiz jan zutenean, gertaera hura abesti herrikoi batean jasota geratu zen... «'doako jangaiei ama' hil da Gesabakwa-n». Handik aurrera, jangaiaak diru-truke saltzen hasi ziren, eta, inork besterik espero bazuen, beti galdera erretoriko berarekin ihardesten zioten, «ez duzu entzun 'doako jangaiei ama' hil dela Gesabakwan?».

Justus M. Ogembo, *Contemporary Witch-Hunting in Gusii, South-western Kenya* [Sorgin-ehiza garaikidea Gusii-n, Kenyako hego-mendebaldean].

Sarrera

Komunen kontzeptua gai nagusi bilakatu da justizia sozialaren aldeko nazioarteko mugimenduen testugintzan, eta erakutsi du oso erabilgarria dela analisi politikoaren irismena soldataren aldeko borrokaren mugetatik harago zabaltzeko. Komunak «publiko»aren eta «pribatu»aren erdibidean kokaturik daude, baina ezin dira sailkatu ez kategoriatan ez bestean; izan ere, komunen ideiak jabetzaren ikuspegi zabalago bat adierazten du, eta bere barnean biltzen ditu komunitate batean –ez estatuarenak, ez ezein banakorenak– diren ondasun sozialak –lurrak, lurraldeak, basoak, landak eta errekek, komunikaziorako espazioak–, komunitate horrek kolektiboki kudeatu eta kontrolatzen dituenak. Jabetza «publikoak» ezinbestekoak ditu merkatu-ekonomia bat eta jabetza pribatua, eta, gainera,

jabetza-mota hori «estatuak administratu ohi du»;¹⁹⁴ aitzitik, komunen ideiak lankidetzaz sozial biziko irudiak ekartzen dizkigu gogora. Bestalde, kontzeptu horrek klase-gatazkaren historia berriazteko aukera ematen du, halako moldez non herri indigeen Ameriketako desjabetze kolonialaren aurrean erakutsitako erresistentzia continuum batean koka baitaiteke, itxitura ingelesez aurka landatarrek agertutako erresistentziarekin batera, eta Indiako nekazarien borrokak, berriz, software librearen aldeko mugimenduko kide diren jabetza antiintelektualaren programatzaileen borroken osagarri gisa. Azken batean, guztiak dira «komuneroak».¹⁹⁵

Alabaina, benetako komunekin gertatu bezala, kontzeptuak berak ere manipulazio eta inorentze asko jasan ditu, batez ere azken xedetzat jabetza komunalaren abolizioa duten erakundeek aldetik.

Ikus, adibidez, nola definitzen dituen Munduko Bankuak «mundu-mailako komuna» gisa itsasoak, ur-baliabideak eta oihanak. Izendapen horrekin, itxitura berriak legitimatzen ditu –«kontserbazioaren» izenean, agidanez–, eta herri aborigenak beren lurretatik kanpora egozten ditu, gero, diru-ordainaren truke, lur horiek berak erabiltzeko aukera emateko. Antzeratsu, Munduko Bankuak «komunitatean oinarritutako» laborantza-erreformak sustatu ditu Afrikan, esanez lur komunalen esleipen bidezkoagoa bermatu nahi duela; baina, egiaz, interes komertzialak sustatzen ari dira, eta herritarrek eska ditzaketen baliabideak murrizten. Beste arazo bat ere badago: kapitalismoa hedatzearekin batera, lehendik zeuden komunetan gizartean oro har aurkitzen ahal diren bereizketak eta gatazkak agertu dira, eta nazioarteko finantza-erakundeek azken muturreraino ustiatzen dute egoera hori.

194 Anatole Anton, «Public Goods as Common Stock: Notes on the Receding Commons», in *Not for Sale: In Defense of Public Goods*, arg. Anatole Anton, Milton Fisk, eta Nancy Holmström (Boulder, CO: Westview Press, 2000), 4.

195 George Caffentzis, «The Fundamental Implications of the Debt Crisis for Social Reproduction in Africa», in *Paying the Price: Women and the Politics of International Economic Strategy*, arg. Mariarosa Dalla Costa eta Giovanna Dalla Costa (Londres: Zed Books, 1995), 15.or. -41.or.; Massimo De Angelis, *The Beginning of History: Value Struggles and Global Capital* (Londres: Pluto Press, 2007); Peter Linebaugh, *The Magna Carta Manifesto: Liberties and Commons for All* (Berkeley: University of California Press, 2008).

Auzi horiek gogoan harturik, bi eratako emakume-mugimendua aztertu ditut, biak ere eragin zuzena dutenak Afrikako lur komunalen etorkizunean. Lehenik eta behin, lur-eskubideen alde borrokatzeko 1990eko hamarkadan abiatutako emakumeen mugimendua ikertu dut, ohiturazko lur-jabetzaren aurka agertu dena, emakumeak diskriminatu ohi dituelakoan. Bigarrenik, hiriguneetan ekintza zuzenaren alde egin duten emakumeen mugimendua aztertu dut, lur publikoak hartu eta landu dituztenak, baliabide natural guztiak diruzko hesi batekin inguratzeko saiakera neoliberalak irauliz eta mundua gure komuna dela dioen printzipioa berretsiz.

Bi mugimendu horien gainean jardungo dut, bi arrazoi-rengatik. Batetik, irakaspen ugari atera ditzakegulako emakume haiek aberastasun komunalaren aldeko defentsan jokatzeko roletik. Bestetik, erakusten digutelako igualitarismoa biziraupen-kontu bat dela komuentzat; izan ere, generoan oinarritutako desberdintasuna dela-eta, emakume askok lurren pribatizazioaren funtsa den makineria legala zorrozteko exijitzen dute.¹⁹⁶

Afrikak komunen lurra izaten jarraitzen du

Afrika aurrekari ona da lurraren jabetza komunalari buruz berba egiteko –lurraren jabetza komunala da, hain zuzen ere, gainerako jabetza-mota komunal guztien oinarri materiala (basoak, oihanak, urak)–; izan ere, jabetza-mota hori Afrikan ari da irauten beste ezein tokitan baino luzaroagoan, nahiz eta eredu horren kontra dauden behin eta berriro saiatu diren «eskandalu» hori desagerrarazten. Nairobini bizi den Liz Alden Wily «lurren jabetzan eta landa-garapenean aditua» da, eta honela dio: «Mende batez jardun dute ohituraz kanpoko jabetzaren ideologia eta legedia berariaz barnerarazten... eta, halere, erregistratu gabeko ohiturazko jabetzak zutik dirau; are gehiago, hori da, alde handiz, lurraldean zehar zabalduen dagoen jabetza-mota. Alde batera uzteko edo murrizteko estrategiek ez dute arrakastarik

196 L. Muthoni Wanyeki, arg. *Women and Land in Africa: Culture, Religion and Realizing Women's Rights* (Londres: Zed Books, 2003); Aili Mari Tripp, «Women's Movements, Customary Law, and Land Rights in Africa: The Case of Uganda», *African Studies Quarterly* 7, 4. zk. (2004ko udaberria): 1.or. -19.or.; Judy Adoko, «Land Rights: Where We Are and Where We Need to Go», *Mokoro*, 2005eko iraila, 2018ko maiatzaren 31n eskuratua, http://mokoro.co.uk/wp-content/uploads/lemu_land_rights_where_we_are_and_where_we_need_to_go.pdf.

izan».¹⁹⁷ Eta, izan ere, hala da: Afrikako landa-eremuko jende gehiena jabetza-sistema komunalen arabera bizi da,¹⁹⁸ nahiz eta, estatutu-zuzenbidearen arabera, jabetza-titulu indibidualak ere izan ditzaketen, Afrikako herrialde askotan lege-erregimen bi-koitza edo anizkoitza dutelako.¹⁹⁹

Nolanahi ere, gaur egungo komuna afrikarrek ez dute eredu «trazional»en antz handirik, ez behintzat kontuan hartzen badugu orain arte berreraiki ahal izan duguna ahoz jasotako istorioen bidez eta kolonializazioaren aurreko gizarte afrikarrei buruzko ezagutzarekin.²⁰⁰ Gai honi buruzko testu ugaritan dokumentatu izan den bezala, bai iraupen-nekazaritzatik laborantza komertzialera aldatu izanak, bai kolonizazioaren garaian sartutako jabetza pribatuko erregimenak –tituluetan eta ondasun indibidualen itxituretan oinarrituak–, gero eta gehiago ahuldu dute «berdintasunean oinarritutako gizarte-antolamendua» izan ohi zena.²⁰¹ Deskolonializazioak ez zion kontra egin joera horri. Xedetzat garapen kapitalista zein garapen sozialista zutelarik, Afrikako nazio independenteek lur-sistema komunalak ahultzen lagundu zuten, lur guztiak estatuaren jabetzakoak bihurtuz eta, hartara, aukera emanez estatuari lurak nahieran bereganatzeko, proiektu publikoak aurrera eraman ahal izateko. Garapen haien ondorioz, 1970eko hamarkadaren amaierarako handituz

197 Liz Alden Wily, «Reconstructing the African Commons», *Africa Today* 48, 1. zk. (2001eko udaberria): 85, 2018ko maiatzaren 31n eskuratua, <https://pdfs.semanticscholar.org/31e4/4633588b0c258364e7e82c8785e166d7fd25.pdf>.

198 Kolonizazio aurreko Afrikako gizarteetan bitzita eta lurraren kudeaketa eta banaketa arautzen zituzten tradizioen multzoa da ohiturazko legea. Afrikako herrialde gehienetan, lege-sistemaren parte da oraindik, estatutu-legeekin batera, bai eta, maiz, lege britainiarrekin eta Sharia legearekin batera.

199 Lorenzo Cotula, Camilla Toulmin, eta Ced Hesse, *Land Tenure and Administration in Africa: Lessons of Experiences and Emerging Issues* (Londres: International Institute for Environment and Development, 2004), 2.

200 Ohiturazko legeak nola berreraiki ziren azaltzen duen adibide bat hemen dago jasota: G.S. Snell, *Nandi Customary Law* (Nairobi: Kenya Literature Bureau, 1986 [1954]), xii. Snell antropologo britainiarrak elkarriketa sakonak egin zituen tokiko buruzagiekin, britainiarren aginte kolonialaren mende zeudela, legeak nola aldatu ziren ebaluatzen saiatzeko. Nabarmendu zuenez, denborarekin soilik bihurtu ziren ohiturazko legeak kode estatiko; izan ere, lurren eta bestelako baliabideen ugaritasuna zela-eta, xedapenak oso malguak ziren hasiera batean, eta, gainera, ez zituen behar zehaztasun handirik.

201 Ron J. Lesthaeghe, «Production and Reproduction in Sub-Saharan Africa: An Overview of Organizing Principles», in *Reproduction and Social Organization in Sub-Saharan Africa*, arg. Ron J. Lesthaeghe (Berkeley: University of California Press, 1989), 13.or. -59.or.; Snell, *Nandi Customary Law*, 112.or. -13.or.

zihoan lurraren eskasia landa-eremuan, berebat klase-desberdintasuna.

Oro har, aho batez onartzen da gertaera haiek nagusiki emakumeei egin zieten kalte. Izan ere, lurra urriagoa eta balio-tsuagoa bihurtu ahala, gizonak arau berriak ezartzen zituzten askotan, emakumeek lurak erabiltzeko aukera gutxiago izan zezaten, ordura arteko sistema tradizionalak beti bermatu zutena. Geroago itzuliko gara puntu horretara. Orain, azpimarratu nahi dut ezen «zorraren krisia»k eta Afrikako ekonomia politikoen liberalizazioak inflexio-puntu bat ezarri zutela lur-jabetzarekiko harremanei dagokienez. Ikusi dugun bezala, Munduko Bankuak eta nazioarteko beste erakunde kapitalista batzuek krisiaren harira aukera historiko bat ikusi zuten Afrikako lur-jabetzaren sistema komunalei azkena emateko.²⁰² Hori izan zen egiturazko doikuntza-programen lehen helburua.²⁰³ Programa haietan idatzitako baldintzapen guztiak –elikagaiak ekoiztetik esportaziora bideratutako nekazaritzara aldatzea, Afrikako lurak atzerriko inbertsioei irekitzea, laborantza komertzialak lehenestea iraupen-nekazaritzaren aurretik– lurak pribatizatzeak kanpaina batean oinarritu ziren, gero jabetza-titulu indibidualen eta ondasunen erregistroaren bidez gauzatu behar zena.

Baina aurreikuspen haiek zati batean bakarrik bete dira. Afrika berriro «arpilatu» dute, eta komuna emankor eta minaretan aberatsenak desjabetu eta enpresa hasiberriei besterendu zaizkie. Halere, 1990. urterako, Afrikako lur komunalaren ehuneko txiki bat bakarrik zegoen erregistratua, eskualde batzuetan ehuneko bat baino gutxiago. Nekazari txikiek ez zuten horretarako beharrik ikusten, uste zutelako lurak jada berenak zirela eta ez zituztelako pagatu nahi jabetza-tituluak eta erregistroak berekin zekartzaten ordain eta zerga handiak. Beste modu batean ere eutsi zioten, «eskubide guztiak pertsona bakar bati emanda».²⁰⁴ Okerrago oraindik, balizko inbertitzaileen ikuspegitik, lurak erregistratu ziren eremuetan ere ohiturazko araudiaren arabera

202 *Sub-Saharan Africa: From Crisis to Sustainable Growth* (Washington, DC: Munduko Bankua, 1989).

203 Caffentzis, «The Fundamental Implications of the Debt Crisis for Social Reproduction in Africa», 28.

204 Adoko, «Land Rights», 6.

jokatzen dutela ohartu dira, jendeak ezin baitzuen ulertu jada lurrak ez zirela ondasun kolektibo bat.²⁰⁵

Arazo haien berri izanik, eta oharturik 1990eko hamar-kadatik aurrera nekazarien mugimendu gero eta handiago bat ari zela sortzen Afrikan zein Afrikatik kanpora, okupazioaren bidez lurrak bereganatzen zituena, gobernu afrikarrek eta Munduko Bankuak bide leun eta gatazka gutxiagoko bat hautatu dute lurrak pribatizatzeko. Pentsaturik lurrak pribatizatzeko zereginaren zati handi bat merkatuaren eskuetan utz daitekeela, erreforma-eredu berri bat bultzatu dute, jabetza komunala onartzearekin batera lurra besterentzeko eta lurraren merkaturia hedatzeko aukera bermatzen duena.²⁰⁶

Erreforma berri hori gauzatu da dagoeneko Afrikako hainbat herrialdetan, eta haietako gehienetan «pobreen aldeko eta landa-eremuen garapenerako politika» gisa aurkeztu da. Hiru berrikuntza ditu ardatz. Bat, lur komunalen administrazioa eta kudeaketa deszentralizatzen ditu, politikoki izendaturiko kontseilu baten edo hautetsitako «herri-batzorde» baten eskuetan utzirik, biak ere gobernu zentralaren mendekoak. Bi, «talde-jabetza» kontzeptua ezartzen du, zeinaren bidez lurrak lur-elkarteen zein banakoen izenean erregistra baitaitezke. Hiru, tokiko erakunde kudeatzaileek edo elkarteek lurrak sal diezazkiekete arrotzei negozioetarako, baldin eta aldi baterako enpresa-elkarteak badira.²⁰⁷ Laburtuz, bi mailako sistema bat ezartzen du, nekazari txikiei aurrez aurre buru egitea saihesten duena eta, aldi berean, tokiko elite kapitalistari aukera ematen diona bere interesen alde jokatzeko eta atzerriko inbertitzaileei ateak irekitzeko.

Nekazaritza-erreforma berrietan genero-bereizkeriaren aurkako xedapenak ere jasotzen dira, senar-emazteen arteko jabeakidetzak-eskubidea onarturik.²⁰⁸ Izan ere, genero-berdintasunari garrantzi handia ematen zaio erreformaren aurkezpen

205 Bondi D. Ogolla eta John Mugabe, «Land Tenure Systems and Natural Resource Management», in *In Land We Trust. Environment, Private Property and Constitutional Change*, arg. Calestous Juma eta J.B. Ojwang (Londres: Zed Books, 1996), 102.or. -3.or.

206 Masao Yoshida «Land Tenure Reform Under the Economic Liberalization Regime: Observation from the Tanzanian Experience», *African Development* 30, 4. zk. (2005): 141; Tripp, «Women's Movements», 11.

207 Wily, «Reconstructing the African Commons», 88; Cotula, Toulmin eta Hesse, *Land Tenure and Administration in Africa*, 5.

208 Wily, «Reconstructing the African Commons», 92.or. -93.or.

ideologikoan. Baina xedapen horiek ez dituzte ase emakumeen lur-eskubideen alde borrokatzeko 1990eko hamarkadan eratutako emakume-erakundeak. Haien ustez, lurraren kudeaketaren gaineko erabakiak hartzeko prozesua tokiko erakundeen esku uzteak eta tokiko tradizioak onartzeak ahultasun-egoera batean uzten ditu emakumeak. Eskatzen dutena da ohiturazko jabetza desagertzea eta eskubideetan oinarrituriko sistema bat ezartzea, legezko erreforma legislatibo baten bidez, hartara emakumeek eskubidea izan dezaten lurraren jabetza-tituluak erosi, eduki, saldu eta eskuratzeko; emakumeek aldarrikatzen dutenez, ohiturazko zuzenbidearen arabera titulu horiek gizonen borondate onaren bidez soilik eskura ditzakete.²⁰⁹

Gai horri buruzko artikulua xehe batean, Aili Mari Tripp feminista ugandarrak estrategia horren alde egiten du, eta azaltzen du hori dela emakume-erakunde gehienek iritzia, batez ere Afrika Ekialdean; esaten du, halaber, pastoral-erlijioa zenbait talderen babesa ere lortu duela. Era berean, onartzen du hainbat ahots emakumeen lur-eskubideen aldeko taldeak salatzen ari direla, kanpo-inbertitzaileen agenda sustatzen dutelakoan.²¹⁰ Izan ere, une honetan bi eztabaidagai nagusi dituzte: alde batek, argitu behar dute ea jabetza pribatua finkatzea emakumeen aldekoa izan daitekeen; bestetik, ikusi behar dute ea posible den ohiturazko jabetza desagerraraztea landa- eta hiri-eremu etako herritarren bizibideetan ondorio larriak eragin gabe.²¹¹

Desadostasunak desadostasun, denak bat datoz esatean ohiturazko zuzenbidearen testuinguruan emakumeek bizi duten bereizkeriak zerikusi gutxiago duela «tradizio»arekin nekazaritzaren komertzializazioaren eta lur komunalaren galeraren ondorio diren presioekin baino.

Emakumeak, ohiturazko zuzenbidea eta komunen maskulinizazioa

Gaur gertatzen denaren antzera, kolonizazioaren aurreko ohiturazko araudiek ere gizonak lehenesten zituzten lur-jabetzaren eta kudeaketaren eremuan, segurutzat jotzen baitzuten emakumeak ezkondu egingo zirela eta klanetik alde egingo

209 Tripp, «Women's Movements», 2.

210 Tripp, 13.

211 Yoshida, «Land Tenure Reform Under the Economic Liberalization Regime»; Ambreena Manji, *The Politics of Land Reform in Africa* (Londres: Zed Books, 2006).

zutela; hortaz, ezinbestekoa zuten klanaren lurra babestea.²¹² Kolonizazioaren aurreko garaietan ere, emakumeek senarrekiko eta gizonezko ahaideekiko harremanen bidez erdiesten zuten lurra erabiltzeko eskubidea; baina eskubide haiek ez ziren beti berdinak izaten, sistema matrilineala edo patrilineala izateak eta beste faktore historiko eta kultural batzuek zuzenean eragiten baitzieten. «Jabego» hitzak, ordea, estatutu-zuzenbidean jasotakoaren oso bestelako esanahia zuen, ohiturazko zuzenbidea «inklusioaren printzipioa»n oinarritzen zelako, eta ez esklusioarenean.²¹³ Lurraren jabeak lurra erabiltzeko eskubidea zuen, halaber hura kontrolatzeko ahalmena, fiduziario gisa, familia-ko beste kideen izenean, baita etortzekoak ziren belaunaldien izenean ere. Lurraren gaineko jabegoak ez zuen ematen haren erabateko jabetza, ezta haiek saltzeko eskubidea ere. Hortaz, zela beren familien bidez, zela beren senarren bitartez, emakumeek beti izaten zituzten lurak beren mende eta beti izaten zituzten beren laboreak, eta emakumeek berek kontrolatzen zituzten lur landuak emandako produktuak saltzetik lortutako irabaziak.²¹⁴

Gauzak aldatu egin ziren, halere, nekazaritzaren komertzializazioarekin eta nazioarteko merkatura zuzendutako ekoizpenaren hastapenarekin. Arau gisa, lurraren eskaria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta zorrotzagoak ziren «emakumeek lurra erabiltzeko [ezarritako] mugak».²¹⁵

Helburu hori erdiesteko asmoarekin, estrategia desberdin ugari erabili izan dira. Afrika Ekialdeko leku batzuetan, gizonak uko egin izan diote emaztegaiairen prezioa ordaintzeari, eta nahiago izan dute ihes eginda ezkontzea; hartara, errazagoa da haientzat emaztearekin duten harremana ezereztea eta emazteari lurra besterentzeko edo emateko beharrari uko egitea. Kenya hego-mendebaldeko Gussi lurraldean egindako ikerketa baten arabera, 1980ko hamarkadan argitaratua, eremu hartako ezkontzen %80 ihesaldian gauzatu ziren, eta, ondorioz, «emakume lurgabeen kategoria oso bat» sortu zen, eskualde hartan

212 Wanyeki, *Women and Land in Africa*; Tripp, *Women's Movements, Customary Law, and Land Rights in Africa*, 2, 10.

213 E.G.C. Barrow, «Customary Tree Tenure in Pastoral Land», in Juma eta Ojwang *In Land We Trust*, 264.

214 Wanyeki, *Women and Land in Africa*, 187.or. -88.or.

215 Tripp, «Women's Movements», 2.

ordura arte sekula ikusi gabea.²¹⁶ Antzeko beste ikerketa batek erakutsi zuen ezen Ruandako herrixka batean, 1990eko hamar-kadaren amaieran, bikoteen bi heren emaztegaiaren prezioa ordaindu barik ezkondu zirela. Berriz ere, argi geratzen ari da landa-eremuko emakumeak beren burua babesteko duten bide nagusiak galtzen ari direla; izan ere, senargaiak emaztegaiari dagokion ezkonsaria ordaindu ezean, ezkondu ostean emazteak ez du lurrak aldarrikatzeko eskubiderik, eta edozein unetan senarraren etxetik alde egiteko eska diezaiokete.²¹⁷ Emakumeen lur-eskubideei uko egiteko beste taktika bat izan da ahaidetasunaren esanahia berrikustea, hau da, klaneko kide nor den eta nor ez den berriz zehaztea. Kenyako Rift Haranean gertatu berri diren gatazkek erakutsi duten bezala, «alteritate-» edo «bestetasun»-politikak eta «kidetza»-politikak erabili dira hainbat talde etniko edo erlijioso lurretatik kanporatzeko. Baina politika berak erabili dira emakumeek lurra erabiltzeko duten eskubidea murrizteko, emazteak arrotz eta familiatik kanpoko kideztat joz. Sorginkeria-salaketak –azken bestetasun-estrategia– ere erabili dira helburu horretarako.²¹⁸ Mozambiken, azken urteetan, senar hilen lurrak exijitu dituzten emakumeak edo jasotako uztatik dagokien partea aldarrikatu dutenak sorgintzat salatu dituzte, eta haien ondasunak oinordetzan hartzeko helburuarekin senarrak erail izanaz akusatu dituzte.²¹⁹

Lurrak eta laboreak ere birkalifikatu dituzte –beren dirubalioa handitzearekin batera–, erakusteko gizonak direla haien gaineko titulu bakarraren jabe.²²⁰ Baina, baliabide horiek alde batera utzita, emakumeek lurra erabiltzeko duten eskubidea gero eta prekarioagoa da, sistema legal bikoitzak aukera ematen dielako gizonen emakumeei kentzeko haiei dagokiena. Lurra eta Berdintasuna Mugimendua deritzon taldeko Judy Adoko eta

216 Thomas Hakansson, «Landless Gusii Women: A Result of Customary Land Law and Modern Marriage Pattern», Working Papers in African Studies 29. zk., African Studies Programme, Antropologia Kulturaleko Saila, Uppsala-ko Unibertsitatea, 1988; Leslie Gray eta Michael Kevane, «Diminished Access, Diverted Exclusion: Women and Land Tenure in Sub-Saharan Africa», *African Studies Review* 42, 2. zk. (1999ko iraila): 15.or. -39.or.

217 Gray and Kevane, «Diminished Access», 21.

218 Silvia Federici, «Witch Hunts in Africa», *WAGADU* (2008ko ekaina).

219 Liazat Bonate, «Women's Land Rights in Mozambique: Cultural, Legal and Social Contexts», in Wanyeki, *Women and Land in Africa*, 115, 122.

220 Gray and Kevane, «Diminished Access», 22.

Simon Levine ugandarrek dioten bezala, «ohituraz, emakume batek bere senarraren bidez eskuratzen zuen lurra erabiltzeko eskubidea; orain, oster, eskubide hori banan-banako jabetzaren inguruko kontzeptuekin nahasten da (nahita). Beraz, 'orain gizonak ohiturazko zuzenbidearen arabera sekula izan ez dituzten eskubideak aldarrikatzen ari dira', esate batera, familiarekin kontsultatu gabe –ezta emaztearekin ere– lurak saldu ahal izatea».²²¹

Batez ere, emakume alargunak, dibortziatuak eta seme-rik ez dutenak zigortu dira. Askotan, alargunek ezin diote ezta bikoteak elkarrekin eskuratutako jabetzari eutsi.²²² Izan ere, ezkonfamiario kideek desjabetzearekin mehatxatzen dituzte, eta senarraren jabetzak aldarrika ditzakete; alargunak semeak baditu eta jabetza haien izenean badago, baliteke senarraren ondasun batzuetan famiario amore ematea.²²³

Emakumeen «lur-eskubide»ei buruzko bibliografian, askotan agertzen dira ondasunez gabetuak izan diren alargunen istorioak, hildakoaren ahaideek etxetik alde egitera behartuak. Ezaguna den kasu batean, emakume batek, senarra ehortzi berrian, haren ahaideen aurka borrokatu behar izan zuen, bere sorora joan eta batatak lurpetik ateratzen hasiak zirelako, haurrentzat zerbait uzteko erreguei jaramonik egin gabe. Beste kasu batean, alargun ugandar batek honela jakin zuen bere senarraren famiario bikotearenak izandako lurak saldu zituela, berari ezer esan gabe: erosle berriak lur haietatik kanpora bidali zuenean.²²⁴ Mary Kimani-k kontatzen duenez, Zambiaro emakumeen heren batek baino gehiagok famiarioarenak ziren lurak erabiltzeko eskubidea galdu zuen senarra hiltzean.²²⁵ Familia poligamoetako emakumeak ere galtzen ateratzen dira; gizonek emazte bakarria erregistratzen dute, eta, dibortziatu edo hilez gero, gainerako emakumeek ez dute ezelango eskubiderik.

221 Adoko, «Land Rights», 11.

222 Gray and Kevane, «Diminished Access», 18.

223 Fenella Mukangara eta Bertha Koda, *Beyond Inequalities: Women in Tanzania* (Harare: Southern Africa Research and Documentation Centre, 1997); Tripp, «Women's Movements»; Wanyeki, *Women and Land in Africa*, 267.

224 Mary Kimani, «Women Struggle to Secure Land Rights: Hard Fight for Access and Decision-Making Power», *Africa Renewal* 22, 1. zk. (2008ko apirila): 10, 2018ko maiatzaren 24an eskuratu, <http://www.un.org/en/africarenewal/vol22no1/221-women-struggle-to-secure-land-rights.html>.

225 Kimani, «Women Struggle to Secure Land Rights».

Labur esanda, ohiturazko legeek, gaur egun ezarrita dauden gisan, emakumeak baztertzin dituzte, nahiz eta Afrikako nekazari gehienak emakumezkoak diren; elikagaien ekoizle nagusiak dira –herrialde askotan, biztanleek kontsumitzen duten janariaren %70 baino gehiago produzitzen dute–, eta nekazaritzako zeregin gehienak egiten dituzte: erein, belar txarrak jorratu, uzta bildu, biltegiratu, prozesatu eta merkatura eramane.²²⁶

Kontraesan horiek direla eta, emakumeek Afrikako komunitetan duten rola «zerbitzari» eta «neskame»arenarekin alderatu izan da. Beren gizonezko kideei askotariko lan ordaingabeak eskaintzeko prest egon behar dute, eta ez dute lantzen duten lurarren gaineko kontrolik edo hura erabiltzeko bermerik.²²⁷

Lurraren gaineko kontrolik ez edukitzeak esan nahi du, halaber, beren sexualitatearekiko eta beren ugaltze-funtzioekiko kontrolik ez izatea. Askotan, lurra erabiltzeko eskubidea portae-ra sexual tatxagabearen mendekoa izaten da; horrekin batera, senarraren ezkontzaz kanpoko harremanak onartzeko prestasunaren mende ere egoten da, eta, are garrantzitsuagoa dena, semeak izateko gaitasunaren mende.²²⁸ Emakume batzuek nahi baino ume gehiago izaten dituzte, lurra erabiltzeko eskubidea bermatzeko. Oro har, lurrarekiko kontrolik eza dela-eta, emakume laborarientzat gaitza da autonomia apur bat izatea, eta ahalmen txikiagoa dute beren familiaren barruan negoziatzeko; azkenean, sexu-jazarpena eta etxeko indarkeria jasateko aukera handiagoa dute.²²⁹ Bestalde, eragina dauka, orobat, elikagaiak eskuratzeko segurtasunean. Iraupen-nekazaritzan diharduten gehienak emakumeak dira. Testuinguru ekonomiko batean non elikagaiak esportatu egiten diren, lurra produkzio-sistematik kanpo ateratzen diren –meatzaritzarako edo beste negozio berri batzuetarako edo jangarriak ez diren laboreetarako erabiltzeko–, eta nazioarteko erakundeek Afrikako gobernuak presionatzen

226 Margaret C. Snyder eta Mary Tadesse, *African Women and Development: A History* (Londres: Zed Books, 1995), 17.

227 Winnie Bikaako eta John Ssenkumba, «Gender, Land and Rights: Contemporary Contestations in Law, Policy and Practice in Uganda», in Wanyeki, *Women and Land in Africa*, 262; Robin Palmer, «Gendered Land Rights–Process, Struggle, or Lost Cause?» *Mokoro*, 2001eko azaroaren 28a; 2018ko ekainaren 2an eskuratu, http://mokoro.co.uk/wp-content/uploads/gendered_land_rights.pdf.

228 Bikaako and Ssenkumba, *Gender*, 263.

229 Bikaako and Ssenkumba, 246.

dituzten premiazko laboreak inportatzeko, emakumeek nekazaritzaren alorrean egiten dituzten jarduerak ezinbestekoak dira herritarren biziraupenerako.

Lurra emakumeen eskubidea da: lurraren pribatizazioaren aldeko emakumeen mugimendu bat?

Egoera hori aintzat hartuta, ez da harritzekoa emakumeek lurrarekin eta jabetza komunalarekin duten harremana Afrika-ko politika feministaren gai nagusi bilakatu izana. Halere, Nazio Batuen Erakundea izan zen lurraren auzia agenda feministara ekarri zuena, emakumeen eskubideen alde egindako kanpainaren bidez, eta ez Afrikan bakarrik.²³⁰ Izan ere, Latinoamerikan ere sortu dira Afrikan 1990eko hamarkadan sortu ziren mugimenduen antzekoak, estrategia eta eskaera berdintsuekin.²³¹ 1990eko hamarkadarako, nazioarteko legegile eta sustatzaileak ohartuak zeuden «emakumeen ekarpena aintzat hartu ez izana» izan zela laborantza komertzialaren ekoizpena bultzatzeko asmoarekin sortutako landa-garapenerako hainbat egitasmo ez gauzatzearen arrazoia. Ziurtzat jo zuten gizonezko nekazariak erraz lortuko zutela beren emazteek ordainik gabeko laguntzaile gisa lan egitea, kontuan hartu gabe emakume afrikarrek beti izan dituztela beren jarduera ekonomikoak, senarrenetatik bereiziak, eta lurrak eta beste baliabide batzuk erabiltzeko eskubidearen inguruko segurtasun ezak areagotu egiten zuela beren senarren esanetara eta ordainik gabe lan egiteko gogogabetasuna. Emakumeen eskubideen aldeko Nazio Batuen kanpainak konponbide bat eskaini zion egoera hari, eta Munduko Bankuak ere ahalegin hura bikoizten lagundu zuen, ordurako jabetua baitzen bere agendan genero-ikuspegia txertatzeko beharraz. Beraz, hortik etorri zen 1995ean Beijing-eko Munduko Emakumeen Konferentzian lurraren auziari eman zitzaion garrantzia; biltzar haren ondorioz, emakumeen lur-eskubidearen aldeko mugimenduak abiatu ziren mundu osoan.

Afrikan, NBEko erakundeen eta nazioarteko GKE-en babesa dela-eta, erakunde pila bat sortu dira, eta ugaritu egin dira emakumeen lur-eskubideen aldeko konferentzia, lantegi

230 Tripp, «Women's Movements».

231 Carmen Diana Deere eta Magdalena León de Leal, *Empowering Women: Land and Property Rights in Latin America* (Pittsburgh: University of Pittsburgh Press, 2001).

eta argitalpenak. Bitartean, aukera izan dutenek lurra erosteko baliabideak bildu dituzte, emakumeen ohiko aurrezte-sistema informalak erabiliz, askotan, senarrak hilez gero lurrik gabe ez geratzeko.

Orain arte, baina, nahiz eta erakundeen babesa izan, mugimenduak gauza gutxi lortu ditu, eta erdietsitako lorpenek gehiago izan dute «deklamaziotik errealitatetik baino».²³² Etio-pian eta Eritrean bakarrik lortu dute emakumeak «laboratzen duten luraren jabe» izendatzea.²³³ Dena den, bi herrialde haie-tan ere mugimenduak borroka akigarri bati aurre egin behar izan dio; izan ere, estatutu-zuzenbideak emakumeen eskubideak indartu dituen arren, autoritateak, askotan, haiek ezartzea-ren kontra agertu dira. Emakumeei lur-eskubide zabalagoak ematearen aurkako mugimenduaren erroez jabetzeko, hona hemen adibide bat: 1998an, Ugandan Lurraren Lege berria onar-tu zutenean, emakume-elkarteen mugimenduak ez zuen lortu klausula zehatz bat txertatzea, alegia, andrazkoei luraren jabe-tza partekatua izateko eskubidea aitortzen ziena –azaldu behar dugu Museveni presidenteak zeresan handia izan zuela eraba-ki hartan-. Ezezko hura kontuan hartuta, errazago uler daiteke zergatik emakume ugarik irmo adierazi duten xedapen legal eta konstituzional zorrotzagoak behar direla.²³⁴

Halere, arazo bat dago: jabetza pribatua sendotzen eta jabetza komunala ezerezten duten legeen alde egitean, emaku-meen lur-eskubideen aldeko erakundeek liberalizazio-programa babestu dute, zeinaren bidez milaka akre lur atzerriko inber-titzaileei transferitu zaizkien eta milioika nekazari lurgabetu diren, haietako asko emakumeak. *The Politics of Land Reform in Africa* (2006) [Nekazaritza-erreformaren aldeko politika Afrikan] lanean, Ambreena Manji-k honela dio: lur-jabetzaren erreforma legalaren bidez, emakumeen lur-eskubideen aldeko mugimen-duak gizarte-aldaketa bat lortu nahi zuen; baina, horretan ari delakoan, nazioarteko finantza-erakundeen hizkuntza berega-natu du, eta kolonizazioaren amaieratik afrikarren eskaerarik garrantzitsuena izan den auzia, lurren birbanaketarena, bazte-rraan uzten lagundu du. Halaber, babesa eman die nazioarteko

232 Wily, *Reconstructing the African Commons*, 88; Cotula, Toulmin, eta Hesse,

233 Cotula, Toulmin, eta Hesse, *Land Tenure and Administration in Africa*.

234 Tripp, «Women's Movements» 9.

finantza-erakundeei lur-jabetzaren legea beren nahierara erabil dezaten edo, beste era batera esanda, harreman kapitalistak mundu osora hedatzeko eta afrikar eremuak botere-egitura transnazional baten kontrolpean jartzeko.²³⁵

Manjik esan nahi duena da emakume afrikarrak lur gehiagoren alde borrokatu behar liratekeela, ez lege gehiagoren alde; lur-jabetza indibiduala indartzeak gutxirako balio du, baldin eta egoerarik hedatuena bada lurrik ez egotea. Baina Manji ez da hala mintzatzen den bakarra. Badago halako irudipen orokor bat, emakumeen lur-eskubideen aldeko kanpainak soilik emakume-talde jakin batzuen interes eta ikusmoldea ordezkatzan dituela, hots, emakume ikasiak, dirudunak, nagusiki klase ertaineko emakume hiritarrak, dirua dutenak lurra erosteko, legezko tituluak eskuratzeko ordaindu beharreko zergak pagatzeko eta, beharbada, nekazaritzaren alorreko negozioren batean inbertitzeko.²³⁶

Zentzuzko beste kezka bat ere badago: oraindik geratzen diren jabetza komunaleko lurra desagertzean, bereizi egingo dira Afrikako landa-eremuko gizarteak eta areagotu egingo dira lurren gainerako borroak. Afrikar gehienentzat, batez ere emakumeentzat, lurra da, oraindik ere, produktiorako eta bizibidea ateratzeko baliabide nagusia. Afrikako «gizarte-segurantzako sistema» da, dirua eta soldatak ameriarentzat edo europarentzat direna baino garrantzitsuagoa, europar zein afrikarrak ohitu egin baitira, jada, diru-harremanak eragiten duen amaigabeko prekarietatera eta abstrakziora. Askorentzat, hil ala biziko kontua da herrixkan lur-zati bat izatea edo lan-bizitzaren amaieran lur-zati bat edukitzeko aukera izango dutela pentsatzea; gero eta gehiagotan, horrek markatzen du Afrikan bizi ahal izatearen eta migratu beharraren arteko aldea. Ez da harritzekoa, beraz, lurren ingurukoak izatea gatazkarik latzenak, heriotza gehien eragiten dutenak; askotan, benetako gerren eitea hartzen dute. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da gogoetatzea ea legezko erreforma pribatizatzaile batek landa-eremuko emakumeen maila ekonomikoa okerragotuko duen, haiek baitira erreformaren ondorioak modu zuzenagoan pairatuko lituzketenak. Galdera garrantzitsua

235 Manji, *The Politics of Land Reform in Africa*, 67.or. -68.or., 99.or. -121.or.

236 Sam Moyo, «Land in the Political Economy of African Development: Alternative Strategies for Reform», *Africa Development* 32, 4. zk. (2007): 1.or. -34.or.; Palmer, «Gendered Land Rights».

da, kontuan hartuta lurren jabetza komunalak baliabide-multzo zabalagoa erabiltzeko aukera ematen duela askotan, hala nola zuhaitzak, larreak-artzainen «aurrezki-kutxak», basoak, aintzirak eta urmaelak.²³⁷

Landa-eremuko emakumeek, dela banako gisa, dela beren organizazioen bidez, interes gutxi erakutsi dute lurren jabetza ofizialean; hori hala izan da, hain justu ere, gizonezko nekazariek tituluen eta erregistroaren garrantzia arbuiaitzeko izan duten arrazoi beragatik. Landa-eremuko emakumeek badakite lur gutxi dagoela, komunitatea dela haren jabea eta aberatsek bakarrik eros dezaketela, eta ez dituzte ordaindu nahi –ezin dute, gainera– jabetza ofiziala eskuratzeko beharrezkoak diren zergak. Beraz, nahiz eta lur gehiago eta segurtasun handiagoa izateko beharra hil ala bizikoa izan, ez zaie iruditzen titulu indibidualek horretarako bidea emango dietenik. Gainera, emakume batzuk beldur dira: lurra erosiz gero, baliteke beren senarrak mehatxatuak sentitzea, haien boterearen aurkako eraso gisa ulertuta.

Aurkakotasun horien aurrean, emakume-elkarte batzuek uste dute akordio hobea lor dezaketela ohiturazko lege-sistemen «barruan» eta eskubideen eremutik «kanpora» lan eginda, betiere botere-harremanak errotik aldatuko dituzten hezkuntza-kanpainak alde batera utzi gabe. Winnie Bikaako eta John Ssenkumba teoriarari politikoek dioten moduan, «badirudi elkarren arteko adostasunetik etorriko dela irtenbidea, ez lege eta praktika erabat ezeztatzaileetatik, ez lurra merkatuaren eskuetan uztetik».²³⁸

Ziur aski, egoera asko aldatuko litzateke baldin eta landa-eremuko batzordeetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea areagotuko balitz; kasu horretan, ez litzateke beharrezkoa izango emakume nekazari gehienen desjabetzea eragiteko arriskua duten polituketara jotzea. Aitzitik, lurren merkaturatzeak aurrera egiten badu eta lurren birbanaketak letra hila izaten jarraitzen badu, litekeena da komunitate-mailako negoziazioek aldaketa esanguratsu handirik ez ekartzea emakumeen lurrarekiko segurtasunari. Izan ere, arazorik nabarmenena da gero eta komuna gutxiago daudela eta,

237 Barrow, *Customary Tree Tenure in Pastoral Land*, 267.

238 Bikaako and Ssenkumba, *Gender*, 276.

era berean, komunetan oinarritutako berdintasuna modu bake-tsuan lortzeko ezinbestean bete beharreko premisa bat dagoela: lur gehiago izatea.

Afrikar emakumeak itxituren kontra, lurrak berenganatuz eta hiri-nekazaritza jorratuz

Beraz, emakumeen ikuspuntutik, zein da Afrikako lur komunalen patua? Lurraren inguruko indar-orekaren emaitza saihestezinak ote dira etengabeko pribatizazioa eta maskulinizazioa? Kenyan zein Hegoafrikan lurra eskuratzeko egin izan diren borrokek erakutsi duten bezala, egoera ez da baikorra, inondik inora. Afrikako esaera batek dioen legez, «elefanteak borrokatzen direnean, azpiko belarra zanpatuta geratzen da», eta horrek galdera bat azaleratzen du: nola lor dezakete emakumeek lur gehiago, baldin eta beren komunitateak deuseztatuak izaten ari badira, lurra lortzeko lehiak jendea desesperaziora bultzatu duelako? Afrikako ekonomiaren «egokitzapen»arekin batera, lurraren inguruko eztabaidak eta lur-desjabetzeak daude, orobat, 1980ko hamarkadatik 1990eko hamarkadara Afrikan gauzatu ziren sorgin-ehizen erroetan.²³⁹

Hori guztia kontuan hartuta, feministak bat etorriko dira nirekin esaten dudanean emakumeen boterea eraikitzeko eta emakumeen lur-eskubideak bermatzeko oinarri zabaleko mobilizazio bat behar dela ezinbestean, bizitzaren esparru guztiei –osasuna, hezkuntza, enplegua eta lan erreproduktiboa– eragingo diena. Horrez gain, irabazi guztiek aldi baterakoak izan behar lukete, eta, gehienak, nekez lortzeko modukoak. Nolanahi ere, beste era bateko borroka bat gertatu da, alor honetako literaturatik eta ekimenetatik kanpo geratu dena, bi horiek marko neoliberalaren barruan mugitzen direlako, neurri handi batean, eta instituzioen babesa duten GKE-ek menderatzen dituztelako.

Emakumeen lur-eskubideen aldeko erakundeak jabetza pribatuaren arloko lege zorrotzagoen alde borrokatu diren bitartean, areagotu egin dira desjabetzeari aurre egiten dioten landa-eremuko mugimenduak, lurren pribatizazioaren aurka borrokatzen direnak, haiek kontrolpean hartuz eta okupatuz.

239 Justus M. Ogembo, *Contemporary Witch-Hunting in Gusii, Southwestern Kenya* (Lewiston, NY: Edwin Mellen Press, 2006); Federici, «Witch Hunts in Africa».

Adibide gisa, Hegoafrikako Herri Lurgabeen Mugimendua aipa dezakegu, nagusiki emakumez eta gaztez osatua. Birbanaketan oinarritutako nekazaritza-erreformaren ezarpena gobernuarekin negoziatzan ari badira ere, lurren okupazioa ere babesten dute, 2004ko plangintzan jasoa duten bezala, «Lurak berreskuratze kanpaina»ren barruan.²⁴⁰ Landa-eremuko mugimendu gehiago ere izan dira Hegoafrikako beste leku batzuetan, ekintza zuzeneko taktikak erabili dituztenak.²⁴¹

Baina, beharbada, lurren aldeko mugimendurik esanguratsuenak halakotzat agertu izan ez den bat da, bat-bateko eta banakako ekintzen multzo baten gisan azaleratu dena. «Mugimendu» hori herrietara migratu duten emakume lurgabeek osatzen dute, ekintza zuzeneko taktiken bidez inork erabiltzen ez dituen herri-lurren zati bat berenganatu eta landu dutenak. Praktika hori ez da atzokoa. Kultura komunala oso errotua dago Afrikako gizarteetan, eta, gaur egun ere, hainbat hamarkadaz salerosketan jardun ostean, espazio publikoaren erabilera hain da arrunta non pentsaezina izango bailitzateke Europan edo AEBn modu berean jardutea. Ohikoena bide bazterreko salmenta da, baina hori baino gehiago ere bada: adibidez, laboreak unibertsitate-campusetan hazten dira, eta, Nigeria hegoaldeko zenbait unibertsitatetan, urte-saso batzuetan behiak campusetako belardietan larratzen dira, merkatura iritsi aurretik.

Emakumeek –hau da, iraupen-nekazaritzan diharduten pertsona gehienek– beti jorratu izan dituzte beren inguruko lur-zati libreak. 1980ko hamarkadatik aurrera, eta egoera ekonomikoak okerrera egitearekin batera, praktika hori are gehiago hedatu da, batez ere hiri-eremuetan, iraupen-laborarietako askok hiriguneetara migratu dutelako. Lurrik gabeko emakumeentzat, orobat gizon batzuentzat, hiri-nekazaritza jarduera ekonomiko garrantzitsua bilakatu da, eta familia askok horri esker lortzen du aurrera egitea. Accra-n (Ghana), hirian kontsumitzen den barazkien %90 hiri-ortuetan ekoizten da. Dar es Salaam-en (Tanzania), bost pertsona heldutik batek frutak edo barazkiak hazten ditu. 1980ko hamarkadaren hastapenean, Ginea-Bissau-ko kapitalean eta beste hiri batzuetan, emakumeak etxe inguruetan

240 Bongani Xezwi, «The Landless People Movement», 10. ikerketa-txostena, Center for Civil Society, *RASSP Research Reports 2005* 1, 185.or. -87.or.

241 Moyó, «Land in the Political Economy of African Development», 16.or. -18.or.

ortuak jartzen hasi ziren, manioka eta frutarbolak landatzen, eta ezurteetan, adibidez, nahiago izaten zuten salmenta bidezko irabaziei uko egin eta etxekoen bazka bermatzea. Kongoko Errepublika Demokratikoan ere, gero eta gehiago laboratzen eta larratzen dituzte hirietako lur-zatiak. Theodore Trefon-ek azaltzen duen gisan, «hiri guztian zehar manioka landatzen da, eta ahuntzak Kinshasako Eliseo Zelaian parekotzat jotzen den erdi-guneko bulebar batean bazkatzen dira»,²⁴² Argazki hori Christa Witcherich-ek ere baieztatzen du; iraupen-nekazaritzari eta hiri-ortugintzari «eltze-ekonomia» deritze, eta honela idazten du:

Dar es Salaam-en, soldata eskaseko funtzionarioen urbanizazioen aurrealdean, parterreen ordezkulak eta papaia-zuhaitzak zeuden; Lusakan, oiloak eta bananondoak etxe osteko lorategietan; barazkiak Kampalako errepide adarkatuetako erdibitzaile zabaletan, batez ere Kinshasan, non elikagaiez hornitzeko sistema kolapsatua baitzegoen neurri handi batean... [Kenya] hirietan, bazterbideko zerrenda berdeak, etxe aurreko lorategiak eta lugorriak berehala betetzen ziren artz, landarez eta sukuma wikiz (aza-motarik ezagunena; hitzez hitz, «luzatu astea» esan nahi du).²⁴³

Emakumeek lantzen dituzten lur gehienak bazterbide, trenbide eta parkeetako lur publiko edo pribatuak dira, eta inori baimenik eskatu barik edo ezer ordaindu barik eskuratzen dituzte. Alde horretatik, lur-zati horietako bakoitza komuna baten abiapuntua dela esan dezakegu; izan ere, emakumeek lur-zati bat berenganatzen dutenean, espazio publikoarekiko harreman desberdin bat sortzen da: kudeaketa eta erantzukizun zuzeneko harremana, herritarren eta ingurune naturalaren arteko sinbiosia lehengoratzen duena.

Lurra garbitu eta lantzeak zama handia eransten dio emakumeen ohiko lan-kargari, batez ere, jorratzen duten lur-zatia etxetik gertu izaten ez badute. Arriskuak ere baditu: laboreen lapurreta edo suntsiketa, poliziaren jazarpena eta, jakina, hirikutsadura. 1990eko hamarkadaren hasieran Nairoibiko hainbat emakume nekazarirekin izandako elkarriketetan oinarrituz,

242 Theodore Trefon, «The Political Economy of Sacrifice: Kinois and the State», *Review of African Political Economy* 29, no. 93.or. -94.or. (2002): 490.

243 Christa Witcherich, *The Globalized Woman: Reports from a Future of Inequality* (Londres: Zed Books, 2000), 73.

Donald B. Freeman-ek azaltzen du ezen emakumeek baliabide asko erabiltzen dituztela arazo horiei aurre egiteko eta beren uzta ezkutatzeke. Guztiarekin ere, oztupoak gainditzen ibiltzeak ordain bat izaten du azkenean, emakumeak kontent geratzen baitira beren familiei elikagai gehiago eta dieta aberatsagoa eskainita eta beren burua mantentzeko gai direla ikusita. Emakumeentzat, hiri-ortugintza beren autonomia berresteko modu bat ere bada, beren familiekiko eta merkatuarekiko apur bat independenteak izateko aukera ematen dielako. Gainera, emakume batzuek jarduera osagarri bat erdiesten dute hiri-ortugintzatik abiatuta; esate batera, berek hazitako elikagaiak prozesatu eta saltzen dituzte.²⁴⁴ Ez da harritzekoa, beraz, Freeman ohartu bezala, enplegua duten emakume askok ere hiri-ortuak lantzea; horrek erakusten du, beste gauza batzuen artean, iraupen hutsa baino zerbait gehiago dagoela jokoan.

Jokoan dagoen hori azaltzeko, Fantu Cheru-ren hitzak erabiliko ditugu: «pobreen iraultza isila».²⁴⁵ Berba horiekin, Cheruk laborarien eta hirietako pobreen artean gero eta ugariagoak diren autolaguntzarako jarduerak adierazi nahi ditu. Haien us-tez, estatua «hutsal bihurtzen ari da, eta, beraz, nazio-estatu modernoak agertu arte haiena zen autorresilientzia» aldarrikatzen dute.²⁴⁶ Antolamendurik gabeko iraultza bat da, eta, itxura batean, gero eta ugariagoak diren ekimen indibidualen multzo ez-egituratu bat baino ez da; hau da, ez da prozesu kolektibo bat. Baina irudi hori engainagarria da. Ekintza horien atzean, gogoeta arduratsu eta estrategiko bat dago; alegia, lurraren eta uztaren alde borrokatzeko prestutasuna. Hirietako emakume laborariak elkarrengandik ikasten dute, eta elkar behatuz lortzen dute autofinantzazio-maila handiagoa erdiesteko ke-mena. Horrez gain, esan gabeko legeak ere badaude, arautzen dutenak zer lur eskura daitezkeen eta nork duen lur eskuragarri haiek erabiltzeko lehentasuna. Bestalde, hirietako errealitate sozial eta fisikoaren eraldaketa kolektibo bat ere badago. Hiriko

244 Donald B. Freeman, «Survival Strategy or Business Training Ground? The Significance of Urban Agriculture for the Advance of Women», *Africa Studies Review* 36, 3. zk. (1993ko abendua): 14.

245 Fantu Cheru, «The Silent Revolution and the Weapons of the Weak: Transformation and Innovation from Below», in *The Global Resistance Reader*, arg. Louise Amoore (New York: Routledge, 2005), 78.

246 Cheru, «The Silent Revolution and the Weapons of the Weak».

legeak desobedituz –eta hirigintza-planen arduradunen etsiperako, kolonizazioaren garaitik saiatu direnak Afrikako hiriak elitearentzat gordetzen–, hirietako laborariak hiriaren eta landa-eremuaren arteko bereizketa hausten ari dira, eta Afrikako hiriak baratze bihurtzen.²⁴⁷ Era berean, hirigintza-planak eta etxebizitza komertzialak mugatzen ari dira, deuseztatzen dituztenak bai komunitateak, bai haietan bizi direnek nekazaritzaren bidez beren burua mantentzeko duten gaitasuna.

Horren adibide da emakumeek Kampalako (Uganda) Kawaala auzoan egin zuten borroka. 1992-1993 urteen bitartean, Munduko Bankuak, Udalarekin batera, etxebizitza-proiektu handi bat bultzatu zuen, aurrera eginez gero desagerrarazi egingo lukeena herriarren etxe inguruetako alor landuen zati handi bat, iraupen-nekazaritzarako erabilia. Emakumeak haren aurka antolatu ziren, kemen handiz; auzotarren batzorde bat eratu zuten, eta, azkenean, bankua proiektua alde batera uztera behartu zuten. Emakumezko lider batek honela azaldu zuen:

Emakumeek [gizonek baino] zarata handiagoa atera zuten, zuzenean eragiten zielako. Emakumeentzat oso zaila da diru-sarrerarik gabe eustea... [E]makume haietako gehienak beren haurrak mantentzen ari diren pertsonak dira, eta diru-sarrerarik eta jatekorik gabe ezin dute aurrera egin... Han agertu eta beren bakea eta beren diru-sarrerak kentzen badizkiezu, borrokatu egingo dira, ez hala nahi dutelako, baizik eta zapalduak eta erreprimituak izan direlako.²⁴⁸

Era horretako gatazkak ez dira gertatu Kawaala auzoan bakarrik. Badakigu Afrikako eta Asiako hainbat lekutan ere antzeko gatazkak egon direla: emakume nekazarien elkarteak industria-eremuen ezarpenaren aurka azaldu dira, haiek eta haien familiak lekuz aldatzera behartuko lituzketenak edo ingurumena kutsatuko luketenak. Borroka horiek erakusten dute ezen interes komertzialek bultzatutako erasoetatik lurrak defendatzean –eta «lurra eta bizitza ez daude salgai» printzipioa baieztatzean– emakumeak beren historia eta beren kultura ere defendatzen ari direla. Kawaala auzoko kideak hainbat belau-naldiz bizi izan ziren han, eta beren senideak han lurperatuak

247 Freeman, «Survival Strategy or Business Training Ground?» 19.or. -20.or.

248 Quoted in Tripp, «Women's Movements», 183.

zituzten; ugandar askorentzat, hori da lurraren jabetza egiaztatzeko frogarik behinena. Tripp-en hitzetan:

Bizilagunak, batez ere eragindako emakumeak, komunitatea mobilizatzeko arau berriak instituzionalizatu nahian zebiltzan, ez bakarrik Kawaalan, baizik eta eremu zabalagoan, beste proiektu komunitario batzuentzat eredu izateko. Ahalegin kolaboratiboago baten ikuspegia zuten: emakumeen, alargunen, haurren eta adinekoen beharrak hartzen zituzten abiapuntutzat, eta lurrarekiko mendekotasuna onartzen zuten.²⁴⁹

Ikuspegi inplizitu horrek zentzuz janzten ditu emakume afrikarren okupazio eta borrokak. Lurra berenganatuz, Munduko Bankuak eta nazioarteko beste sustatzaile batzuek bultzatzen duten ekonomiaren oso bestelakoa den «ekonomia moral» baten aldeko botoa ematen ari dira; izan ere, bi horiek iraupen-nekazaritza desagerrarazten saiatu dira hainbat urtez, argudiatuz lurra banku-kredituen berme gisa aurkezturik soilik bihurtzen direla produktibo. Emakumeek, oster, elkertasunean ardaztuturiko bizitza-molde ez-lehiakor batean oinarrituriko ekonomia bat proposatzen dute. Veronika Bennholdt-Thomsen-ek eta Maria Mies-ek «beste» ekonomia deitzen diote: «[Beste ekonomia horrek] planeta honetan bizitza produzitzeko eta mantentzeko beharrezkoa den guztia jartzen du jarduera ekonomiko eta sozialaren erdigunean, ez diru hilaren metaketa amaigabea».²⁵⁰

Emakume afrikarrak komunaren alde egiten ari diren borroka natura-baliabideen suntsiketaren aurkako mobilizazio ere bihurtu da. Testuinguru horretan, ekimen ezagunena «Gerriko Berdearen Mugimendua» da: Wangari Maathai buru dela, gerriko berde bat jarri dute Kenyako hiri nagusien inguruan; 1977tik aitzina, milioika zuhaitz landatu dituzte, baso-soiltzea, lurzorua-aren galera eta basamortutzea saihesteko.²⁵¹ Nolanahi ere, basoen iraupenaren aldeko borrokarik deigarriena Niger Delta-koa da: petrolioaren ekoizpena mangladiak mehatxatzen ari da, eta haren aurkako jarrera areagotu egin da azken hogeitaz urteetan. Gatazka Ogharefe-n hasi zen, 1984an, eremu hartako milaka emakume

249 Tripp, 194.

250 Maria Mies eta Veronika Bennholdt-Thomsen, *The Subsistence Perspective: Beyond the Globalized Economy* (Londres: Zed Books, 1999), 5.

251 Wangari Maathai, *Unbowed: One Woman's Story* (Londres: Arrow Books, 2008).

Pan Ocean konpainiaren ekoizpen-instalazioa setiatu zutenean, uraren, zuhaitzen eta lurraren suntsipenaren truke ordain bat eskatzeko. Irmotasuna erakusteko, beren eskariak bete ezean arropak erantziko zituztela mehatxu egin zuten, baita mehatxua bete ere. Konpainiako zuzendaria instalaziora iritsi zenean, bere burua milaka emakume biluziren erdian aurkitu zuen, madarikazio larria Niger Deltako komunitateen begietara. Azkenean, kalte-ordainen aldarrikapena onartu behar izan zuen.²⁵²

Ondorioak

Gaur egun, Afrikaren aldeko beste borroka bat dago martxan, eta, testuinguru horretan, emakumeak ez dira beren komunitateetan gertatzen ari diren lur-desjabetzeen behatzaile hutsak; alderantziz, lur gehiagoren eta segurtasun gehiagoren alde egiten ari diren borroka giltzarria izango da etorkizuneko komuna afrikarren eraikuntzan. Halere, itxura batean, behintzat, badirudi une honetan beren estrategiak aurkako noranzkoan doazela. Guztiarekin ere, aztergai izan ditugun borroketatik ondorio garrantzitsu bat atera dugu: komunen eraikuntza krisian dago Afrikan, ahuldua, ez bakarrik kanpo-eragileen kausaz, orobat komuneroen arteko desadostasunengatik, emakumeen eta gizonen artekoak zein emakumeen artekoak.

Horrekin batera, komuna berriak eraikitzen ari dira, eta baieztza dezakegu lur-pribatizazioaren aurkako ahalegina gero eta handiagoa izango dela. «Elikagaien krisiak» –beste «hondamendi» batzuekin batera– erakusten duen bezala, planeta osoko milioika pertsonarentzat ezinbestekoa da lurrak berreskuratzea eta diru-ekonomiaren zein merkatuaren ordezkoko sistemak sortzea, ez bakarrik autonomia pertsonal eta kolektiboa bermatzeko, baita fisikoki bizirik irauteko ere.

252 Terisa E. Turner eta M.O. Oshare, «Women's Uprising against the Nigerian Oil Industry», in *Arise Ye Mighty People! Gender, Class and Race in Popular Struggles*, arg. Terisa E. Turner eta Brian J. Ferguson (Trenton, NJ: Africa World Press, 1994), 140.or. -41.or.

SEI

LURRAREN ETA ONDASUN KOMUNEN ALDEKO EMAKUMEEN BORROKAK LATINOAMERIKAN

Dilma Rousseff-en gaineko prebarikazio-salaketa Brasilen, krisi ekonomiko eta politiko sakona Venezuelan, eta eskuineko hautagaiaren garaipena Argentinako hauteskundeetan; guztiak ere Latinoamerikako politikaren fase bat amaitzear dagoen seinale. Amaitzen ari dena da askok buruan erabili zuten itxaropena, hots, ezkerreko gobernu «aurrerakoi»en sorrerak lurralde hartako politika eraldatzeko gaitasuna izango zuela, gizarte-mugimenduek hainbat hamarkadaz aldarrikatutako erreformak ezarriko zirela eta justizia soziala sustatuko zela. Oro har, helburu horiek ez dira lortu. Venezuelako «bolibariar iraultza»ren adibideari jarraituz, Morales, Correa, Kirchner eta Lula da Silvaren gobernuek sektore popularrei transferitu diete herrialdearen diru-sarreraren zati bat, haurren hezkuntzarako eta oinarritzko beste behar batzuetarako dirulaguntzak ematen dituzten gizarte-laguntzako programak ezarrita (*bolsas familiares*). Era horretan, pobrezia-molderik muturrekoenak arintzea lortu dute. Baina neurri horiek urrun daude gizarte-mugimenduek espero zutenetik. Brasili begiratzuz gero, adibidez, kalkulatu dute hogeita hamar milioi pertsona baino gehiago direla Lularen gobernuak sustatutako gizarte-laguntzako programen onurak jaso dituztenak. Guztiaz ere, gizarte-arlorako bideratutako dirua meatzaritza- eta nekazaritza-enpresetara zuzendutakoaren hamarren bat izan da, eta bi horiek rol hegemoniko bat jokatzeko jarraitu dute herrialdeko politikan. Ohi bezala, garapen ekonomikoaren eredu nagusia estraktibismoa izan da, eta ez da gauzatu Langileen Alderdia (PT, Partido de los Trabajadores) boterera eraman zuten mugimenduek defendatutako nekazaritza-erreforma. Ostera,

lurraren jabetza esku gutxi batzuetan kontzentratuak dago gero eta gehiago –kontinenteko mailarik altuenetako bat dute–, eta, lehen aldiz, herritar indigenen lurrek eraso zuzena jasan dute, modernizazioaren izenean.²⁵³ Bizkitartean, poliziaren indarkeriak bere horretan dirau, eta, estatistika ofizialen arabera, poliziak milaka pertsona erailtzen ditu urtero, batez ere gazte etxegabe beltzak; 2016an, 4.224 izan ziren erailak. Horrek azal dezake zergatik izan diren erlatiboki gutxi Dilma Rousseff berriz bere kargura itzultzeko eskatuz kalera irten diren proletarioak haren azken epaiketaren ondoren, nahiz eta epaiketak berak gaitzespen zabala jaso duen, konstituzioaren kontrakoa eta iruzurrezkoa delakoan. Mães de Maio mugimenduaren sortzaile eta buruetako bat den Débora Maria da Silva-k hitz hauek esan zituen Sao Paulo-n izandako mitin batean, 2016ko irailaren 13an: «Ez dut negarrik egingo Dilmagatik, gure faveletan diktadura ez baita sekula amaitu».²⁵⁴

Bolivia, Ekuador eta, azken hauteskundeetan aurretik, Argentinako gobernuak ere garapen «aurrerakoi»aren eredu brasildarraren alde egin dute, tokian tokiko aldaerekin. Eredu horrek aberastasunaren banaketa berdinzaleago bat lortzea du helburu, eta, horretarako, oinarri ditu, batetik, ongizatearen eta estratibismoaren arteko konbinazio bat, eta, bestetik, esportaziora zuzendutako ekonomiarekiko mendekotasuna. Chavismoak ere, botere popularraren aldekoagoa izan arren, petrolioaren erauzketara jo du bere programa sozialak diruz hornitzeko, eta ez dio eman herrialdeari epe luzerako oinarri material bat, lehengaien merkatu globalaren apeten mende egongo ez dena.

Aurrerakoitasunaren aldeko korrontea ez da gai izan agindutakoa betetzeko, eta, gainera, ikusten ari gara eskuina

253 Lularen gobernuaren nekazaritza-politikei buruz jakiteko, ikus Raúl Zibechi, *Brasil potencia: entre la integración regional y un nuevo imperialismo* (Malaga: Badre y Zambra, 2012), bereziki 307.or. -11.or. Zibechi-k idazten duenez, «Lula eta Dilmaren gobernuen laguntza irmoarekin nekazaritzaren industriak izan duen hedakuntza izugarriak krisira eramán du nekazaritza-erreformaren ahalegina».

254 Mães de Maio mugimendua 2006ko maiatzean sortu zen, poliziak São Pauloko favela batean mila pertsona baino gehiago erail eta aste bat geroago –iturri ofizialen arabera, sei ehun izan ziren hildakoak; erailketa masibo hartako biktima baten amaren arabera, mila baino gehiago–. Mães de Maio mugimenduaren jatorriari eta lanari buruz jakiteko, ikus *Fala Guerreira* 3. zk, «Especial Mães de Maio 10 anos», 2016ko martxoaren 22a, 2018ko ekainaren 23an eskuratua, https://issuu.com/falaguerreira/docs/03_revistafala_guerreira.

instituzioen kontrola bereganatzen ari dela; halere, ez litzateke zuzena izango ondorioztatzea aldaketa erradikala azkenera iritsi dela Latinoamerikan. Gizarte-mugimenduak halako indarra hartu du –eta ez bakarrik eremu hartan–, non Raúl Zibechi teorialari zorrotzak berak ere «mugitzen ari diren gizarteak» hartu dituen berbabide.²⁵⁵ Berezikari esanguratsua da ezen eraso horren eta harreman kapitalisten hedapenaren aurkako erresistentziaren ondorioz bizitza-molde kooperatiboagoak sortzen ari direla eta balizko gizarte ez-kapitalista baten ikuspegia ernatzen ari dela. Artikulu honetan baieztatzen dudana bezala, emakumeak dira aldaketa horren protagonista nagusiak. Izan ere, gaur egungo Latinoamerikan, emakumeen aktibismoa da gizarte-aldaketarako indar nagusia. 2017an, munduko alde hartako hainbat tokitako hirurogeita hamar mila emakume elkartu ziren Chaco-n (Argentina), Emakumeen Topaketa Nazionalaren hogeita hamabigarren edizioaren harira; urtero egiten da, beti urriaren 11ko astean, erabakitzeko zer egin behar den, zer estrategiari heldu behar zaion mundua aldatzeko.

Ez dira harritzekoak halako mobilizazio jendetsuak, Latinoamerikako politika instituzionalaren lerrotatze berri batekin batera azaleratu direnak. Emakumeek paper garrantzitsu bat jokatzen dute gatazka sozialetan, haiei eragiten dietelako, nagusiki, lurgabetzeek eta ingurumenaren narriadurak, eta eguneroko jardunetan zuzen-zuzenean pairatzen dituztelako politika publikoen ondorioak. Haiena da petrolioak eragindako kutsaduraren ondorioz –edo janaria prestatzeko eta etxea zein gorputzak garbitzeko erabilitako ura toxikoa delako– gaixotzen direnak zaintzeko ardura, eta haiek dira familia elikatu ezinik geratzen direnak lurgabetzeen eta tokiko nekazaritzaren suntsipenaren ondorioz.²⁵⁶ Hortaz, gaur egun emakumeak jartzen dira meatzaritzaren eta nekazaritza industrialaren alorreko korporazio transnazionalen aurkako borrokaren lehen lerroan, korporazio horiek baitira landa-eremuak indarrez hartu eta ingurumena suntsitzen dutenak. Lisset Coba Mejía aditu eta ekin-

255 Raúl Zibechi, *Territories in Resistance: A Cartography of Latin American Social Movements* (Oakland: AK Press, 2012).

256 Ikus Colectivo Miradas Críticas del Territorio Desde el Feminismo, *La vida en el centro y el crudo bajo tierra: El Yasuní en clave feminista* (Quito: Colectivo Miradas Críticas del Territorio Desde el Feminismo, 2014).

tzaile ekuadortarrak azpimarratu duen bezala, emakumeak dira Amazoniako eskualdean uraren alde borrokan ari diren jendeen liderrak.²⁵⁷ Era berean, petrolio-erazketaren aurkari nagusiak dira, ohartzen direlako beren jarduera produktiboak suntsitzen dituela eta, Acción Ecológica erakundeko Esperanza Martinezek dioen bezala, «matxismoa areagotzen» duela; izan ere, petrolio-konpainiek gizonexko enplegatuei ordaintzen dizkieten soldatek generoen arteko desberdintasuna areagotzen dute, alkoholaren kontsumoa sustatzen dute eta emakumeen aurkako indarkeria larriagotzen dute.²⁵⁸ Petrolio-erazketaren aurka borrokan ari diren emakume amazoniar ugari bere egiten dituzte Martinezen hitzak, eta kexatu egiten dira. «Ezin ditugu gure haurrak petrolioarekin elikatu», dio Patricia Gualinga buruzagi kitxuak; Sarayakuko-a da bera, Amazoniako oihaneko herrixka batekoa. «Ez dugu nahi alkoholismorik, ez dugu nahi prostituziorik, ez dugu nahi gizonen jipoirik. Ez dugu nahi bizitza hau, ze, eskolak, bainugelak eta zinkeko etxeak ematen badizkigute ere, duintasuna kentzen digute».²⁵⁹

Aurkakotasun hori dela-eta, azken urteetan emakumeak Ekuadorreko Rafael Correa presidentearekin borrokatu behar izan dira aurrez aurre. Liskarrik handiena 2013ko urriaren 16an izan zuten; emakume indigenen erakundeetako ehun buruzagi euri-oihaneko lurretatik abiatu eta Quito-raino joan ziren, oinez eta haurrak besoetan hartuta, presidenteak erabaki zuelako oihanak babesteko plana alde batera uztea eta munduko ekosistemarik aberatsenetakoa den Yasuni Parke Nazionalean petrolio erauzten hastea. Emakume haiek beste emakume batzuen urratsei jarraitu zieten, urtebete lehenago modu berean kapitalera joan zirenak; orduko hartan, milaka izan ziren Quito-raino ibili zirenak, eta beren lurretako urak babestera joan ziren, Correaren gobernuak Ecuacorriente konpainia txinatarrekin kontratatutako meatzaritza-proiektu baten aurka egitera. Baina, harrotasunez eta batere errespeturik gabe, eta Ekuadorrek inoiz

257 Lisset Coba Mejía, «Agua y aceite: La sostenibilidad de la vida en crisis en la Amazonía», *Flor del Guanto* 5. zk. (2016ko urtarrila): 7.

258 Martínez, Esperanza, «La actividad petrolera exacerba el machismo». In Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro y el crudo bajo tierra*, 42.or. -45.or.

259 Patricia Gualinga-ri elkarrizketa, «La voz y la lucha de las mujeres han tratado de ser minimizada», in Colectivo Miradas Críticas, *Lavida en el centro*, 48.or. -50.or.

izan duen presidenterik misoginoenaren fama baietsiz, Correak ez zituen hartu Quitoraino oinez joandako emakumeak.²⁶⁰

Bolivian ere, emakume indigenek zalantzan jarri zuten gobernuaren «aurrerakoitasuna», batez ere Evo Morales presidenteak *Pachamama* (ama lurra) babesteko egindako aldarrikapena. 2011 eta 2012an, autobide baten aurkako martxak antolatatu zituzten, zeinak, gobernuaren planaren arabera, Isiboro Sécure Parke Nazionala zeharkatuko baitzuen, indigenen lurraldea. Askotan gertatu ohi den bezala, emakumeek antolatatu zuten martxak egin ahal izateko ezinbestekoa zen azpiegitura, janaritik hasi eta tapakietaraino, eta errepidearen ondoan jarritako kanpalekuen garbitasuna ere haiek atondu zuten; gainera, bermatu zuten gizonek ere haiei zegokien lana egiten zutela.²⁶¹ Bestalde, emakume landatar/indigenak, hainbat sare feministarekin batera –Emakumeen Mundu Martxa, adibidez–, Herrien Gailurra [Cumbre de los Pueblos] topaketaren erdigunean ere egon ziren; gizarte-mugimenduak elkartu zituen jardunaldi hura Rio de Janeiron egin zen, 2012ko ekainean, Rio+20 ekitaldiaren barruan, hau da, Nazio Batuen Garapen Jasangarriari buruzko konferentzian, 1992ko Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentziatik hogeitaz urtera egin zena.²⁶²

Emakumeen mugimendu berri horien guztien ezau-garrietako bat da gero eta indar handiagoz islatzen dutela erradikalizazio politikoaren prozesua. Emakumeak ohartzen dira ez dela aski aktibismoaren bidez beren komunitateetako bizitzak babestea konpainia transnazionalen ekintzen aurrean, edo elikagaien subiranotasunagatik borrokatzea, edo hazien ingeniarietza genetikoaren aurka –esate batera, hazi-bankuak eraikiz–. Horretaz guztiaz gain, garapen ekonomikoaren eredua eraldatu behar da, eta gizakiekiko eta lurrarekiko adeitasunez jokatu duen eredu baten alde borrokatu behar da. Konturatzen

260 Amazoniako emakume buruzagiek Quitora egindako martxa, ikus «Conversatorio con Ivonne Ramos», in Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro*, 82.or. -85.or.; ikus, baita, 69.or. -76.or.

261 Helen Álvarez, «La Marcha de la Mujeres», *Mujer Pública* (La Paz: Casa Virgen de Los Deseos), «Mujer globalizada, riqueza aniquilada» gaiari buruzko zenbakia.

262 Cumbre de los Pueblos delakoan emakumeen erakundeek parte-hartzeari buruz, ikus SOF (Sempreviva Organização Feminista), *En lucha contra la mercantilización de la vida: la presencia de la Marcha Mundial de las Mujeres en la Cumbre de los Pueblos* (São Paulo, 2012).

dira borrokatu beharreko arazoen sorburua ez dela soilik politika edo konpainia zehatz batzuk; arazoen jatorria metatze kapitalistaren logika mertzenarioa da, zeina, «ekonomia berde»aren sustapena aitzakia gisa hartuta, ingurumenaren garbitasunetik beretik ere espekulaziorako eta irabaziak lortzeko beste iturri bat sortzen ari den.

Erradikalizazio horren erakusgarri, beste alderdi bat ere bada: emakume landatar/indigenak nola ari diren barneratzen herri-mailako feminismoak azaleratutako auziak, hala nola etxeko lanen debaluazioa, emakumeek beren gorputzak eta ugaltze-gaitasuna kontrolatzeko duten eskubidea, eta gero eta larriagoa den emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko beharra. Prozesu hori ez zen piztu hausnarketa ideologikoen bidez, ezpada emakumeek beren egunerokotasunean –baita kide diren erakundeetan ere– bizi izan dituzten askotariko kontraesanen ondorioz.²⁶³

Ohiko adibide bat emakume zapatistena da, gero eta nabarmenagoa baita beren komunitateetan patriarkatuaren aurka egindako borrokan jokatu zuten papera. Hilary Klein-ek *Compañeras* (2015) eta Mária Millán-ek *Des-ordenando el género/¿Des-centrando la nación?* (2014) lanetan ondo azaltzen duten gisan, emakumeek gidatu dute zapatismoaren norabidea, haren lehen egunetik beretik; mugimendua hastapenetan zegoenean, Chiapas-eko mendietan elkartzen hasiak ziren lehen taldeekin bat egin zuten, ez bakarrik beren bizitza-kondizioak aldatzeko, baita zapalkuntza instituzionalaren aurka borrokatzeko ere. Haien ekimenaren bidez, eta haien proposamen eta eskakizunetan oinarriturik, 1993an Emakumeen Lege Iraultzailea onartu zen, zeinak, Kleinek dioen bezala, «aintzat harturik garai hartan Chiapaseko landa-eremuetan emakume indigenek bizi zuten errealitatea, jarrera erradikal bat erakusten zuen eta... munta handiko hainbat aldaketa ekarri zituen».²⁶⁴

Lege horren hamar puntuetan, emakumeen aldeko hainbat eskubide jasotzen dira: borroka iraultzailean haiek nahi duten eran parte hartzeko eskubidea, betiere beren ahalmenak

263 Garapen kapitalistaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arteko harremanari buruz, ikus SOF, *En lucha contra la mercantilización de la vida*, 24 ff.

264 Hilary Klein, *Compañeras: Zapatista Women's Stories* (New York: Seven Stories Press, 2015), 72.

kontuan hartuta; eduki eta zaindu nahi duten haur-kopurua zehazteko eskubidea; bikotekidea hautatzeko zein ez ezkontzeko eskubidea; komunitateari dagozkion auzietan parte hartzeko eta autoritatearekin lotutako kargua izateko eskubidea, baldin eta libreki eta demokratikoki hautatuak izaten badira; erakundeetan buruzagi-karguak hartzeko eta indar armatu iraultzailean maila militarra izateko eskubidea.²⁶⁵ Kleinen arabera, lege horren onarpenak «mugarri» bat ezarri zuen, «komunitate zapatatetako bizitza publiko eta pribatua eraldatu» zuena.²⁶⁶ Halere, emakumeek bazekiten beren lana ez zela han amaitzen. Legea jendaurrean aurkeztu ondoren, emakume batzuek lurralde zapatatetetan zehar bidaiatu zuten, haren aplikazioa sustatzeko eta alkoholaren debekua ezartzeko, argi baitzuten hura zela emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoi nagusia.²⁶⁷

Beste kontu bat ere bada, kontzientzia feministaren goraldia berresten duena. Emakume indigenen artean jarrera kritiko berri bat sortzen ari da, beren komunitateak gobernatzen dituzten egitura patriarkalak zalantzan jartzen dituen; bereziki, lurralderen transmisioari dagokionez, askotan patrilinealki egiten dena. Izan ere, «inklusio bereizgarri»²⁶⁸ horrek ondorio garrantzitsuak ditu. Gladys Tzul Tzul Guatemalako Totonicapán eskualdeko aditu eta ekintzaile indigena da, eta, berak dioenez, «familia-ondasunaren erregistroari eragiten dio, haurren tutoretzari, eta ezkontzaz kanpo haurrak izateak duen esanahi sinbolikoari».²⁶⁹

265 Klein, *Compañeras*, 71; ikus, baita, Mária Millán, *Des-ordenando el género/¿Descentrando la nación? El Zapatismo de las mujeres indígenas y sus consecuencias* (Mexico Hiria: Ediciones del Lirio, 2014), 74.or. -81.or.

266 Klein, *Compañeras*, 72.

267 Emakume zapatistek alkoholaren kontra egindako mobilizazioari buruz gehiago jakiteko, ikus Klein, *Compañeras*, 61.or. -66.or. Ekimen horren esanahia gobernu zapatistaren bost guneetako bat den Morelia hiriko *Caracolen* Klein-ek elkarriketatu zuen emakume-talde batek laburbildu zuen: «Emakumeak antolatzen hasi ginen, gure senarrek izugarri sufriarazten zigutelako. Senarren abusuak eta jipoiak jasaten zituzten emakume ugari ikusi genituen, eta zerbait egin behar genuen egoera haren aurrean. Erakundeetan, emakumeen bizitzak aldatu egin dira, eta orain ez gaude hain zapalduak. Lehen, emakumeen bizitzaren parte zen gizonek alkohola edaten zutenean haien abusuak pairatzea. Martxa bat egin genuen pankartekin, eta udaletxera joan ginen presioa egitera, lege lehorra indarrean jar zezaten. Komunitate askotako 250 emakume zeuden. Oihu eta garrasi egin genuen»; Klein, *Compañeras*, 62.

268 Gladys Tzul Tzul, *Sistemas de gobierno comunal Indígena: mujeres y tramas de parentesco en Chuimeq'ena'* (Puebla: Sociedad Comunitaria de Estudios Estratégicos, 2016), 71.or. -76.or.

269 Tzul Tzul, *Sistemas de gobierno comunal Indígena*, 168.

Adibidez, beren jatorrizko talde etnikotik kanpora ezkontzen diren emakumeen seme-alabek klan haren lur komunala erabiltzeko eskubidea gal dezakete. Tzul Tzulek azaltzen duenez, kontua da nola lortu ohitura hori aldatzea, aldi berean lurraren jabetza indibiduala sustatu gabe, horrek lurraren pribatiziorako joera legitimatzen baitu; hain justu, Munduko Bankuak 1995eko Beijingo Biltzarraz geroztik defendatu duen bidea.

Mugimendu indigenetako emakumeek hainbat estrategia erabili dituzte beren marjinazioari aurre egiteko; besteak beste, emakumeen espazio autonomoak sortzea. Horren adibide da Hijas del Maíz, «Ekuadorreko kostaldeko, mendilerroko eta Amazoniako komunitate landatar eta indigenetako emakumeen topalekua».²⁷⁰ «Gure herrien bizimodua asko aldatu da», dio Blanca Chancosa-k, elkartearen sortzaileetako batek. «[Gizonek] migratu egin dute... [eta] hemen geratu direnak... emakumeak dira. Horrek esan nahi du ezagutza handiagoa behar dugula aurrera egiteko... Horregatik behar dugu emakumeen espazio bat, gure ideien inguruan hausnartu ahal izateko».²⁷¹ Emakumeen autonomia bultzatu eta haien parte-hartze soziala sustatzeko, antzeko beste estrategia bat ere erabili dute, hots, emakumez soilik osatutako mugimendu landatarrak sortzea. Horietako bat da Movimiento de Mujeres Campesinas de Brasil, zeinak, Roxana Longo-ren arabera, «mugimendu feministaren teoria eta praktikak berreskuratu» baititu.²⁷² 1983an sortu zen, landa-eremuetako herrietan «Iraultza Berdea»ren ondorio kaltegarriak igartzen hasi zirenean;²⁷³ nekazaritzako hainbat alorretan parte hartuta-

270 Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro*, 51.

271 Blanca Chancosa, «Saramanta Warmikuna (Hijas del Maíz) un espacio de aliadas naturales», in Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro*, 51.or. -53.or.

272 Roxana Longo, *El protagonismo de las mujeres en los movimientos sociales: Innovaciones y desafíos* (Buenos Aires: America Libre, 2012), 151ff.

273 «Iraultza Berdea» Nazio Batuek, Estatu Batuek eta Elikadurarako eta Nekazaritzarako Erakundeak sustaturiko nekazaritza-programa zabal bat da, Hirugarren Munduan nekazaritza hobetzeko aurkeztutako irtenbidea. European eta AEBn dagoeneko erabiltzen diren nekazaritza industrialeko metodoak kolonia izandako lurraldeetan hedatzea du helburu. Plana onartzen duten herrialdeetan (Mexiko, Filipinak) presak eraikitzea eskatzen du, ureztapena areagotzeko, bai eta ongariak, pestizidak eta genetikoki eraldatutako haziak erabiltzea. Iraultza Berdeak are gehiago sakondu ditu klase-banaketak, lurra gehiago kontzentratzea eragin du eta lurjabe txiki ugari bota ditu landa-eremuetatik, nekazaritza-teknologia berriak erosteko gastuei aurre egin ezin zietenak. Iraultza Berdeari buruzko kritika bat irakurtzeko, ikus, besteak beste, Vandana Shiva, *Monocultures of the Mind: Perspectives on Biodiversity and Biotechnology* (Londres: Zed Books, 1993), 39.or. -49.or.; Shiva, *Staying Alive: Women, Ecology and*

ko emakumeak dira, eta emakume landatarren identitate soziala aldatzeko borrokatu dira, hots, langile gisa onartuak izan daitezzen eta gizarte-segurantzarako eskubidea izan dezaten. 1995ean, sare nazional bat eratu zuten, emakume landatarren taldeek eta askotariko mugimendu landatar mistoetako emakumeek osatua; amatasun-baimen ordaindua lortu zuten, eta osasun-zerbitzu publikoak defendatzeko borrokatu ziren.²⁷⁴ Gainera, enpresa transnazionalen jardueren aurkako protesta-ekintzetan parte hartu zuten, jakitun baitziren haien presentziak beren komunitateen amaiera ekarriko zuela.

Parte-hartze politikoa handitu ahala, emakume-elkarre ugarri autoikaskuntzaren eta formazio politikoaren beharraz jabetu dira; izan ere, nazioartean moldatutako logikaren araberako indar sozialei aurre egin behar dietenez, ezinbestekoa dute nazioarteko politika ezagutzea. Aktibismo sozialaren bidez eskuratutako autoestimuekin batera, jardun horiek subjektibitate-molde berriak eragiten dituzte, zerikusirik ez dutenak nazioarteko erakundeek zabaltzen duten emakume landatarren irudiarekin, hots, iraganera lotuak daudenak eta galzorian dauden ezagutza zaharkituak besterik ezagutzen ez dituztenak. Hego Amerikako emakume landatarrak ez dira arduratzen bakarrrik beren laborantza-eskubideez edo beren familien ongizateaz, ez horixe. Batzarretan parte hartzen dute, gobernuari eta polizia-ri aurre egiten diete, eta beren burua lurraren zaindaritzat jotzen dute. Izan ere, enpresa transnazionalentzat errazagoa da gizonak berenganatzea, eta, askotan, soldata handiak promestuz limurtzen dituzte; soldata horiek emakumeen gaineko botere handiagoa ematen diete gizonei, eta emakumeen aurkako indarkeria sustatzen duen kultura matxista elikatzen dute.²⁷⁵

Emakumeek gizonek baino rol handiagoa jokatzeko dute ezagutza tradizionala babesten eta transmititzen; horregatik, haiek baino garrantzi handiagoa dute lurren eta ondasun komunalen zaintzan. «Memoriaren ehuleak» [*tejedoras de memoria*] diren aldetik,²⁷⁶ Mina Navarro teorialari eta ekintzaile mexikarrak

Development (Londres: Zed Books, 1989), 96.or. -98.or., 135.or. -40.or., 143.or. -45.or.

274 Longo, *El protagonismo de las mujeres en los movimientos sociales*, 156.or. -57.or.

275 Mirabel Álvarez, «Las Actividades extractivas convierten a la gente en esclavos», in Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro*, 57.

276 Mina Navarro, *Luchas por lo común: Antagonismo social contra el despojo capitalista de los bienes naturales en México* (Puebla: Bajo Tierra Ediciones, 2015), 264.

dioen bezala, erresistentziarako baliabide garrantzitsu bat osatzen dute, babesten eta partekatzen duten ezagutzak identitate eta kohesio kolektibo handiagoa eragiten duelako lurren desjabetzearen aurrean.²⁷⁷ Testuinguru horretan, oso garrantzitsua da emakume indigenek mugimendu berrietan parte hartzea; izan ere, iraganarekin loturik dagoen etorkizun baten ikuspegia dakarte berekin, eta gizakiaren eta naturaren jarraitutasunaren sentipen sendo bat. Latinoamerikako kultura indigenen ezaugarri diren «kosmobisio»ei dagokienez, feminista batzuek «feminismo komunitario» terminoa sortu dute, zeinaren bidez ulertzen baita komunen kontzeptuak espazio, denbora, bizitza eta giza gorputzaren ikuskera zehatz bat adierazten duela. Francesca Gargallo-k *Feminismos desde Abya Yala* (2013) liburuan dioen bezala, feminista komunitarioek –Guatemalako Lorena Cabnal feminista xinkak, besteak beste– kontzeptu berriak ekarri dituzte; esate batera, lurralde-gorputza [*cuerpo-territorio*]. Kontzeptu horren bidez, gorputza lurrarekiko continuum baten barruan kokatzen da, eta, hori kontuan hartuta, jaioberrien plazenta lurperatu egiten da askotan, biek –lurrak eta gorputzak– memoria historikoa dutelako eta askatasun-prozesuan modu berean parte hartzen dutelako.²⁷⁸ Dena den, arbasoen jatorria defendatzen badute ere, feminista komunitarioek ez dute onartzen kultura indigena askotan dagoen patriarkatua, ezta kolonizatzaileek ezarritakoa ere, eta «fundamentalismo etniko»tzat jotzen dute.²⁷⁹

Emakumeen borroka eta komuna hiritarren eraikuntza

Landa-eremuetako borroka hirietara ere zabaltzen da, landa-eremuetatik egotziak izan diren gizon eta emakumeek komunitate berriak eratzen baitituzte hirialdeetan. Espazio publikoak okupatzen dituzte, eta aterpeak, errepideak eta janari-dendak eraikitzen dituzte, guztiak ere lan kolektiboaren eta erabakitze-prozesu komunaren bidez. Kasu honetan ere, emakumeak dira liderrak. Beste inon ere idatzi izan dudana bezala,²⁸⁰

277 Navarro, *Luchas por lo común*, 248.

278 Francesca Gargallo, *Feminismos desde Abya Yala* (Buenos Aires: America Libre, 2013), 227.

279 Gargallo, *Feminismos desde Abya Yala*, 230.or. -37.or., 245.

280 Federici, «Commoning the City», *Journal of Design Strategies* 9, 1. zk. (2017Ko udazkena): 33.or. -37.or.; Parsons New School for Design-ek argitaratua, New York State.

Latinoamerikako hiri erraldoien kanpoaldean –zati handi batean ekintza kolektiboaren bidez okupatuak izan diren eremuetan–, eta krisialdi ekonomiko amaigabeari aurre eginez, emakumeak ekonomia politiko berri bat sortzen ari dira, gizartearen erreprodukzioarako molde kooperatiboak proposatzen dituenak; emakumeen “hirirako eskubidea» zehaztu dute, eta erresistentzia- eta aldarrikapen-jarduera berrietarako oinarriak ezartzen ari dira.²⁸¹

Bestalde, erreprodukzio-jarduerak sozializatzea ere garrantzitsua izan da (jarduera horien artean daude, besteak beste, erosketak egitea, janaria prestatzea eta jostea). Sozializazio horrek historia luzea du. Kolpe militarren ondorengo Txilen, 1973an, kokaleku proletarioetako emakumeek, beldurrak geldiaraziak eta austeritate-programa latz baten mende zeudelarik, beren lan-indarra eta baliabideak elkartzea erabaki zuten. Bizileku zuten *barrioetan*, hogeiko edo gehiagoko taldetan banatu, eta erosketak eta janaria elkarrekin egiten hasi ziren. Beharrianak bultzatutako ekimen haiekin, mugatuak ziren baliabideei etekin handiagoa ateratzea baino askoz gehiago lortu zuten. Elkarrengana bildu eta Pinochet-en erregimenak ezarri nahi zien bakartasunari uko egitean, beren bizitzak kualitatiboki eraldatu ziren; autoestimua eskuratu zuten, eta gobernua izuaren estrategiaren bidez bultzatutako paralisia hautsi zuten. Gainera, elkarrekin lan egitean informazioaren eta ezagutzaren zirkulazioa ere berpiztu zuten, erresistentziarako ezinbestekoa dena. Ama eta emazte on izatearen esanahia eraldatu zuten, eta kontzeptu horren definizio berri bat eman zuten: etxetik atera eta borroka sozialetan parte hartzen duen emakumea.²⁸² Erreprodukzio sozialarekin lotutako lanek etxean eta bakarrik egin beharreko kontuak izateari utzi zioten; etxeko lanak kalera atera ziren, lapikoekin (*ollas*) batera, eta dimentsio politiko bat eskuratu zuten.

Agintariak bazuten horren guztiaren berri, eta herri-jantokiak ekintza iraultzaile eta komunistatzat jotzen zituzten.

281 Honi egiten dio erreferentzia: David Harvey, *Rebel Cities: From the Right to the City to the Urban Revolution* (Londres: Verso, 2012).

282 Ikus Jo Fisher, «The Kitchen Never Stopped»: Women's Self-Help Groups in Chile's Shanty Towns», in *Out of the Shadows: Women, Resistance, and Politics in Latin America* (Londres: Latin America Bureau, 1993), 17.or. -43.or.

Boterearen aurkako mehatxu hari erantzuteko, lapikoak apurtzeko sarekadak egin zituzten barrioetan. Honela gogoratzen dituzte garai haiek herri-jantokietan parte hartu zuten zenbait emakumek:

Sara:

30 pertsonak parte hartzen genuenez, zaila zen isil-gordeka ibiltzea. Hona etorri eta elikagaien apalak hankaz gora jarri zituzten, janariaren prestateta bertan behera uztera behartu gintuzten, eta buru guztiak atxilotu zituzten... Askotan etortzen ziren, baina jantokiak aurrera jarraitu zuen.

Olga:

Polizia etorri zen: «Zer gertatzen da hemen? Jantoki komunitario bat? Zergatik egiten duzue, badakizue-eta debekatuta dagoela». «Gose garelako». «Utziozue janaria prestatzeari». Ekintza politiko bat zela esaten zuten. Babarrunak erdi-egosiak zeuden, eta bota egin behar izan genituen... Polizia askotan etorri zen, baina jantokiarekin aurrera jarraitzeko modua aurkitu genuen, aste batean etxe batean, hurrengoan beste batean».²⁸³

Gauza bera diote gehienek: biziraupenerako estrategia haiek komunitatearen elkartasun- eta identitate-sena sustatu zuten, eta erakutsi zuten emakumeak gai zirela merkatuaren erabateko mendekotasunik gabe beren bizitzak erreproduzitzeko; modu hartan, emakume haiek ere lagundu zuten kolpe militarren ondorengo garaian Allende boterera eraman zuen herri-mugimenduari bizirik eusten. 1980ko hamarkadarako, herri-mugimendu hura aski sendoa zen, eta gai zen diktaduraren aurkako erresistentzia antolatzeko.

Erreproduktzio sozialerako molde kolektiboak Perun, Argentinan eta Venezuelan ere ugaritu dira. Raúl Zibechi teorialari sozial uruguaiarraren arabera, 1990eko hamarkadan hamabost mila herri-erakunde zeuden Lima hirian; hurrei esnea edo gosaria eskaintzen zieten, eta herri-jantokiak eta auzo-batzordeak antolatzen zituzten.²⁸⁴ Argentinan, berriz, *piqueteras* izeneko emakume langileak daude, beren umeekin eta gizon gazte askorekin batera rol garrantzitsua jokatu zutenak 2001ean, hainbat hilabetez herrialdea geldiarazi zuen krisi ekonomiko katas-trofikoaren aurrean. Barrikadak atundu, kanpalekuak eraiki eta piketeak antolatu zituzten, kasu batzuetan astebete baino

283 Fisher, «The Kitchen Never Stopped», 32.or. -33.or.

284 Zibechi, *Territories in Resistance*, 236.or. -39.or.

gehiago iraun zutenak. Zibechik Maiatzeko Plazako Ama ongi ezagunei buruz idatzitakoa parafraseatuz,²⁸⁵ piketerek «espazio publikoa okupatzeak duen garrantzia ulertu» zuten. Erreproduktio sozialerako jarduerak kalean berrantolatatu zituzten, janaria prestatu zuten, garbitu egin zuten, haurrak zaindu zituzten eta gizarte-harremanei eutsi zieten, eta prozesu haren bidez grina eta adorea transmititu zioten borrokari, hura indartuz eta aberastuz.²⁸⁶ Horren harira, esanguratsua da gizarte-zientzietako ikerlaria den Isabel Rauber kubatarraren lekukotasuna:

Hasieratik beretik, lehenengo piketeetatik... emakumeak eta haien haurrak ezinbestekoak izan ziren. Lapikorako zerbait lortu arte etxera itzuliko ez zirela erabakita, emakumeak piketeetara joan ziren, beren bizitzak zain eta muin defendatzera. Beren helburuak lortzeko irmotasunarekin, berehala hasi ziren barrikadetan parte hartzen –askotan, egun bat baino luzeagoak izaten ziren– eta hango eguneroko bizitzaren antolamendua bermatzen. Kanpadendak jarri behar baziren, piketeetako segurtasuna zaintzeko txandak egin behar baziren, janaria prestatu behar bazen –gizonekin batera, jakina–, barrikadak eraiki eta hartutako posizioak defendatu behar baziren, hantxe zeuden emakumeak.²⁸⁷

Rauberrek zera azpimarratzen du (eta nik erantsiko nuke gauza bera esan daitekeela gaur egun Latinoamerikan eta beste leku batzuetan emakumeak egiten ari diren borrokei buruz): pertsonen bizibidea ateratzeko dituzten baliabideen aurka neoliberalismoak eraso genozida bat egiten duten bakoitzean, emakumeek borrokan duten papera funtsezkoagoa bilakatzen da. Horren aurkako borroka gure bizitzak erreproduzitzen dituzten ekintzetatik sortu behar da. Hari berari jarraituz, Rauberrek gizonezko militante baten hitzak aipatzen ditu: «Ororen jatorria gure eguneroko bizitzan dago, eta, gero, politikaren alorreko hizkuntzara itzultzen da. Eguneroko bizitzarik ez dagoen lekuan ez dago antolamendurik, eta antolamendurik ez dagoen lekuan ez dago politikarik».²⁸⁸

285 Raúl Zibechi, *Genealogía de la revuelta: Argentina: la sociedad en movimiento*, (La Plata: Letra Libre, 2003).

286 Isabel Rauber, «Mujeres piqueteras: El caso de Argentina», in *Economie mondialisée et identités de genre*, arg. Fenneke Reysoo (Geneva: Institut Universitaire d'Études du Développement, 2002), 115.

287 Rauber, «Mujeres piqueteras», 113.

288 Rauber, 115.

Piketeren mugimenduko Natalia Quiroga Díaz-ek eta Verónica Gago-k ere Rauberren ikuspegia baieztatzen dute. Haien ustez, 2001eko krisi ekonomikoak «ekonomiaren feminizazioa» bultzatu zuen, «eta, horrekin batera, erreproduktibitateko beharrezkoak diren baliabideen desprivatizazioa sustatu zuen».²⁸⁹ Ekonomia ofiziala kolapsatu eta berehala, enpresak –baita bankuak ere– ixten ari zirela eta jendea aurrezkiak berreskuratu ezinik zebilela, ekonomia «femenino» desberdin bat azaleratu zen. Oinarri-oinarrian etxeko lanen logika zuen, baina era kolektiboan antolatua zegoen, espazio publikoetan; modu hartan, agerian geratu zen lan erreproduktiboaren izaera politikoa eta balio soziala. Emakumeek kaleak hartu zituztenean, lapikoak eta zartaginak barrikadetara eta auzo-bileretara eramanez, eta truke-sareak zein askotariko kooperatibak antolatu zirenean, iraupen-ekonomia azaleratu zen. Hari esker, milaka pertsonak aurrera egin ahal izan zuten, eta, aldi berean, balioaren esanahia berrikusteko eta haren jatorria zalantzan jartzeko beharra sortu zen; gero eta maizago, balioa gure bizitzaren erreproduktibitate era kolektiboan kudeatzeko gaitasunarekin identifikatzen zen, gure erritmoak eta beharrak baitira espazio hiritarra eta denbora birmoldatzen dituztenak.

Orduz geroztik, piketeren mugimendua desmobilizatu egin da, baina, halere, jendeak ez ditu ahaztu handik ateratako irakaspenak. Aitzitik, berehalako krisi bati erantzuteko sortu zena errealtate sozial zabal baten eta iraupen luzeagoko gizarte-egitura baten parte bihurtu zen Argentinako auzo proletario askotan. Marina Sitrin-ek dokumentatu duen bezala, 2002ko matxinadatik hainbat urtetara, zutik diraute oraindik piketeen ondorioz sortutako auzo-batzarrek eta ekintzarako eta kooperatibitateko molde kolektiboak.²⁹⁰ Argentinako villa ezagunetan ikus dezakegu beste inon baino hobeto nola bilaka daitezkeen herri-tarrak piketeak eraikitza bultzatu zituen pobretze ekonomikoa eta lurren gabetzea mundu berri bat eraikitze tresna.²⁹¹ Hango

289 Natalia Quiroga Díaz, eta Verónica Gago. «Los comunes en femenino: cuerpo y poder ante la expropiación de las economías para la vida», *Economía y Sociedad* 19, 45. zk. (2014ko ekaina):

290 Ikus Marina A. Sitrin, *Everyday Revolutions: Horizontalism and Autonomy in Argentina* (Londres: Zed Books, 2012), 81.or. -83.or.

291 Argentinan, villa esaten diete nekazal-eremuetatik kanporatutako jendeak eta migranteek eraikitako hiri-kanpamentuei.

emakume askoren egoera hain da larria, ezen haien eguneroko bizitzaren une oro hautu politiko baten adibide bihurtzen den, ez baitira ezeren jabe eta ez baitute ezer bermatua; oro lortzen da negoziazioaren edo borrokaren bidez, eta oro behar da etengabe defendatu. Edateko ura eta elektrizitatea estatuarekin kontratatu behar dira, halaber errepideak eraikitze behar den materialaren parte bat, zeinak ezinbestekoak baitira euriaren ondorioz kaleak lokatz-erreka bihur ez daitezen. Baina baliabide horiek lortzeko borrokatzen diren emakumeek ez dute espero eta ez dute nahi estatuak beren bizitza antolatzerik. Elkarlanean, garaituak izango ez diren ziurtasunarekin eta pobretze sozial eta ekonomikoari itzuri egingo dioten uste osoarekin, inoren jabetzakoak ez diren espazio berriak sortzen ari dira, eguneroko bizitzaren erreproduktzioari buruzko erabakiak elkarrekin hartzeko; esate batera, ekimen hauetan parte hartzen duten guztiei zerbitzuak eskaintzea. Honela deskribatzen du Zibechik Buenos Aires-eko hogeita bat kanpamentuetako bat den Villa Retiro Bis-eko egoera:

Badira auzotar batzuk herri-jantokietan bazkaltzen dutenak... eta gero, gauez, lehen hezkuntzako eskolara joaten direnak, eta emakumeen etxeetan sozializatzen direnak... Jakina, espazio prekario horiek loturaren bat edo beste daukate estatuarekin eta merkatuarekin, baina lotura txiki-txikiak dira, bazterrekoak. Garrantzitsuena da proiektu horiek elkarri lagunduz ateratzen dituztela aurrera, autogestioaren bidez, elkarrekin lan eginez eta senidetasunez.²⁹²

Ni 2015eko apirilean egon nintzen villa hartan, eta ikusi nuen zer harro zeuden emakumeak, guztiak ere Corriente Villera Independiente mugimenduko kideak, beren lanarekin lortutakoaz. «Ikusten duzun guztia», esan zidaten, «gure eskuekin eraiki dugu». Eta, haien laguntzaz zolatutako kaleetan zehar gindoazela, *comedores populares* edo herri-jantokiak bisitatuz –non ehunka bazkari zerbitzatzen zituzten egunero, txandaka lan eginez–, edota haiek antolatutako Zapalduen Antzerkiaren emankizun bat ikusten ari ginela,²⁹³ ohartzen nintzen oinpean

292 Raúl Zibechi, *Descolonizar el pensamiento crítico y las prácticas emancipatorias*, (Bogotá: Ediciones Desde Abajo, 2015), 108.

293 Augusto Boal brasildar aktore, hezitzaile eta antzerki-zuzendariak sortu zuen

zuten espazioa beren espazioa zela, ez herritarrok zeharkatu ohi dugun lurralde arrotza, geurerik ezer ez duena eta ezein modutan kontrolatu ezin duguna. Ni hara joan aurretik, Buenos Airesko agintariak horma bat eraiki zuten, *villa* hura gehiago hedatu ez zedin; bada, emakumeek laster batean eraitsi zuten horma haren zati bat, aldarrikatuz «aske ibili nahi dugu, ez dugu hesirik onartuko».

Iraupen-nekazaritzaren krisiak, politika neoliberaletan eraginak, partzialki autogestionatutako kanpalekuen sorrera ekarri du askotan, aztertu ditugun *villa* horietan aurki daitezkeen antzekoak. Bolivian, aldiz, ohikoagoa izan da kale-saltzaileen ugaritzea; «kopuru zenbatezinetan» hiriguneak okupatu, eta *ciudades mercado* [merkatu-hiri] bihurtu dituzte, «milaka eta milaka emakumeren lan etengabearen» bidez, hein handi batean.²⁹⁴ Nekazaritza-lurretatik lekualdatuak eta beren komunitateen pobretzeari aurre egin beharrez, emakume proletario askok beren lan erreproduktiboa etxetik kanpora atera eta «merkatuak beren eguneroko bizitzarako espazio bihurtu dituzte». Han egiten dute «janaria prestatu, haurrak zaindu, arropak lisatu, telebista ikusi eta elkar bisitatu; eta, hori guztia, salerosketak berekin dakartzan hara-hona guztien erdian».²⁹⁵

Maria Galindo Mujeres Creando erakunde anarko-feministako kidea da. Berak dioenez, emakumeak biziraupenaren alde egiten ari diren borrokak etxe barruko unibertsoa eta etxekotasuna hautsi ditu. Eten egin du etxeko lanen ezaugarri den bakartasuna, eta iraganeko kontu bihurtu du beti etxean sartutako emakumearen irudia. Lanaren prekarizazioari eta gizonezkoen soldaten krisiari aurre egiteko, erresistentziaren kultura azaleratu da. Emakumeek kaleak berenganatu dituzte, eta «hiria etxeko esparru bihurtu dute»,²⁹⁶ denbora gehiena han ematen dutelarik; askotariko produktuak saltzen dituzte, hala nola elikagaiak, kontrabandoko produktuak, pirateatutako

Zapalduen Antzerkia [The Theatre of the Oppressed], 1960ko hamarkadan. Antzerki politiko bat da, eta publikoa izan ohi da protagonista, ikusleek antzerkian azaldutako arazoak konpontzen laguntzen baitute.

294 Lucia Linsalata, *Cuando manda la asamblea: lo comunitario popular en Bolivia*, (Mexiko Hiria: SOCEE, 2015), 64.or. -65.or.

295 Linsalata, *Cuando manda la asamblea*, 65.

296 María Galindo, «La pobreza, un gran negocio», *Mujer Pública* 7. zk. (2012ko abendua): 111.or. -12.or.

musika, eta abar, «herritar guztien bizi-kostua merkatzen dutenak»; beste emakume batzuekin antolatzen dira, eta poliziari aurre egiten diete; eta, prozesu horretan, «gizartearekiko duten harremana berrasmatzen dute».²⁹⁷ Mujeres Creando elkarteak laguntza eskaini die emakumeei hiriko espazioa berenganatu dezaten: zentro sozial bat zabaldu dute, Virgen de los Deseos [Desioen Birjina] izeneko –Galindoren hitzetan, «erreproduktzio makina» bat, aintzat harturik han egiten diren ekintzen aniztasuna–, eta bereziki kaleko emakumeei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzte, hala nola eguneko zaintza, elikagaien salmenta, irati-transmisore bat –beren borrokei buruzko berriak zabaltzeko edo jasandako abusuak salatzeko erabiltzen dute– eta material politiko eta hezigarrien argitalpena.

Lehen begiratuan, kalean produktuak saltzea ez da ekintza erradikal bat. Baina estatuaren baimenik gabe espazio publikoa okupatu ahal izateko –batez ere, gaur egun– eratu behar diren gizarte-harreman korapilatsuak ezagutzen dituenak badaki irudipen hori ez dela zuzena. *Vendedor ambulante* [saltzaile ibiltari] gehienak emakumeak dira; bada, negozioazio ugari eta antolamendu handia behar da egunaren parterik handiena kalean igarotzeko kondizioak sortzeko, beren produktuak babes-teko –batez ere, poliziaren erasoetatik– eta elkarrekin bakean lan egiteko, espazioaren eta denboraren erabilera partekatua eta garbitasun-jarduerak koordinatuz eta salneurriak adostuz. Ahalegin horretatik, autoritateek alde batera utzi ezin duten kontrabotere bat sortzen da. Horregatik, munduan zeharreko gobernuek «txukuntze-kanpainak» egiten dituzte, hobekuntza sanitarioen eta apainketa-lanen aitzakian hirigintza-planak mehatxatzen dituzten presentziak deuseztatu ahal izateko, orobat gobernuaren autoritatea mehatxatzen dutenak, espazio publikoa okupatzen dutelako eta begi-bistan daudelako.

Saltzaile ibiltariak aurre egin beharreko mehatxuen artean, Unión Popular de Vendedores Ambulantes 28 de Octubre erakundearen kriminalizazioa aipa dezakegu.²⁹⁸ Merkatuko sal-

297 Galindo, «La pobreza, un gran negocio» 114.

298 1973ko urriaren 28an, poliziak sarekada bortitz bat egin zuen aire zabaleko merkatu bateko saltzaileen kontra, eta han zauritu eta erail zituztenen omenez hartu zuen taldeak 28 de Octubre izena. Saltoki ugari su eman zieten, eta haur bat erreta hil zen. Sarekadari buruzko kontakizuna eta erakundeak antolatzen dituen jarduerak jaso ditu Sandra C. Mendiola García-k testu honetan: «Vendors, Mothers, and Revolutionaries:

tzaileen organizazio hori Puebla hirian (Mexiko) finkaturik dago, eta herriaren etsai izendatu du orain dela gutxi Enrique Peña Nieto presidenteak. Gizonezko lider gehienak kartzelan edo heriotza-mehatxupean daudenez –non eta zoritxarrez erailketa politikoen kopuru handiagatik ezaguna den herrialde batean–, orain erakundeko emakumeek egiten dute lan politikoa. Amaparen, emaztearen eta kale-saltzailearen rola betetzen dute, espetxeratuak eta haien haurrak zaintzen dituzte, eta, gainera, ordu luzeak igarotzen dituzte lanean; horren guztiaren bidez, antolamendu politikoaren lana beren gain hartzen dute. Egoera horretan, etengabe arduratuta bizi dira, atseden hartzeko astirik gabe eta ezein eratako aisialdirako aukerarik gabe. Halere, emakume-elkarteetan ohikoa denez, harrotasuna adierazten dute beren hitzetan, harrotasuna beren lorpenengatik eta hainbat alorretan eskuratzen ari diren esperientzia indibidual eta kolektiboagatik: munduaren ikuskera, larderiaren aurreko jarraia eta beren buruarekiko eta beste emakumeekikiko errespetua. Emakume haiei erreparatuta, ohartzen gara posible dela beste mundu bat eraikitzea, non justizia sozialarekiko eta lankidetzarako konpromisoak politikaren ikuskera berri batean bat egiten baitute, jendeak oro har onartzen duenaren antitesia dena. Bien arteko desberdintasunaz jabetzeko, aski da 28 de Octubre elkarteko emakumeen antolamendu-ekintzei begiratzea: horizontaltasunaren printzipioan oinarrituta daude, eta garrantzi handia ematen diote erabakiak modu kolektiboan hartzeari; horretarako, auzo-bilerak egiten dituzte, eta guztiek hartzen dute parte.

Gai izango ote dira emakume-mugimendu berri horiek harreman kapitalistak hedatzeko ahaleginei aurre egiteko? Beren lur eta komunitateak berriz kolonizatzeko saiakerei erantzuteko ahalmena izango ote dute? Ez dago erantzun ziurrik. Halere, argi dago krisi latzeko uneetan, ekonomia politiko kapitalistaren osagarri diren mekanismoak erori direnean, emakumeek aurrera egin dutela, ahalegin kolektiboari esker erreproduktzio sozialerako funtsezko moldeak bermatu dituztela eta beren komunitateak

Street Vendors and Union Activism in 1970 Puebla Mexico», *Oral History Forum*, Special Issue on Oral History and the Working Class (2013): 1.or. -26.or., 2018ko maiatzaren 25ean eskuratua, <http://www.oralhistoryforum.ca/index.php/ohf/article/view/463/542>.

preso zeuzkan izu-hesia eraitsi dutela. Krisi politiko eta ekonomiko bat «normalizatzen» denean, emakumeek sortzen duten ordezeko ekonomia desegin egiten da askotan, baina antolamendu komunalerako bide berrien arrastoak uzten ditu beti atzean, erakusten dutenak gauzak era askotan egin daitezkeela.

Hortaz, Raúl Zibechik askotan esan izan duen bezala, Argentina, Mexiko eta Peruko *villa* edo hiri-kanpamentuetan, orobat Latinoamerikako komunitate landatar/indigenetan eta afrikarren ondorengo komunitateetan, mundu berri bat eta politika berri bat eraikitzen ari dira. Mundu horrek bizitasun berri bat eman dio neurrigabe erabilitako komunen kontzeptuari, eta esanahi berri bat ere ekarri dio. Komunak, orain, ez dio erreferentzia egiten soilik ondasunak partekatzeko beharrari; adierazten du, halaber, bizitzea merezi duen bizitza baten aldeko printzipioarekiko konpromisoa, edo, Latinoamerikan gaztelaniaz esaten duten bezala, *una vida digna de ser vivida*. Raquel Gutiérrez-ek idatzi bezala, bizitza horren erdigunean daude bizitza materialaren erreprodukzioa, haren zaintza eta kolektiboki produzitutako aberastasunen berreskurapena, modu iraultzailan antolaturik; izan ere, horren oinarrian zera dago: «giza jarduerak eta giza sormena helburu autonomoetarako artikulatzeko» ahalbidea.²⁹⁹

Pueblako Unibertsitate Autonomoan (Mexiko), ikerketa zientifikoaren alorrean idazten duten hainbat emakume aditu eta ekintzailez osatutako talde bat dago, eta Gutiérrez da haren sustatzailea. Beste batzuekin batera, orain baino lehen azaldu ditudan esperientzien artikulazioari Latinoamerikan ekarpen handiena egiten ari diren pertsonetako bat da. Esperientzia horien bidez, posible da komunitate indigenetan belaunaldiz belaunaldi sustraitu diren jardun, ezagutza, balio eta ikuspegiak berreskuratzea eta, esanahi berriz jantzirik, aurrera jarraitzeko molde berriak sortzea. Bere lana, eta berarekin batera lanean jardun izan duten emakumeena –Mina Lorena Navarro, Gladys Tzul Tzul, Lucia Linsalata–, borrokaren parte garrantzitsu bat da, izan ere «ezagutza-komuna» baten adibide argi bat da. Alde batetik, testuinguru akademiko batean diharduen arren, akademiak ezagutzaren ekoizpenari ezarritako printzipioen aurka

299 Raquel Gutiérrez Aguilar, «Políticas en Femenino: Transformaciones y subversiones no centradas en el estado», *Contrapunto* 7. zk. (2015eko abendua): 126.or. -27.or.

egiten du. Bestetik, ahalegina egiten du ahotsa emateko komunitate barruko harremanak sortzeko ezinbestekoa den lurzoru ongarrtua osatzen duten afektu eta emozio konplexu nagusiki ikusezin eta artikulatu gabeei. Gaur egun, lan hori inoiz baino beharrezkoagoa da, erakusten duelako komunak eraikitzeko bidea ematen duten harremanek sustrai sakonak dauzkatela gure bizitza afektiboan, eta funtsezkoak direla gure iraupenerako eta gure bizitzari balioa emateko. Gainera, kolonizazioaren goren alditik kapitalismoak elkartasun sozial ororen gainean egindako eraso arras bortitz eta basatiei aurre egiteko adorea eta indarra ematen digu. Erakusten du komunagintza gure bizitzaren parte menderaezin bat dela, ezein bortizkeriak suntsitu ezin deza-keena, ze, gure existentziarako ezinbestekoa denez, behin eta berriro sortzen da.

ZAZPI

MARX, FEMINISMOA ETA KOMUNEN ERAIKUNTZA

Gure ustez, komunismoa ez da gauzen egoera bat, oraindik zehazteke dagoena, ezta ideal bat ere, zeinetara errealitatea egokitu egin beharko den. Gauzen egungo egoera deuseztatzen duen benetako mugimenduari deritzogu guk komunismo. Mugimendu horretarako baldintzak gaur egun indarrean diren premisen ondorio dira.

Karl Marx eta Friedrich Engels, *The German Ideology* [Ideologia alemana].³⁰⁰

Sarrera

Gaur den egunean, zer tresna, printzipio eta ideia ekar diezazkie marxismoak teoria eta politika feministei? Imajina dezakegu harreman bat marxismoaren eta feminismoaren artean, Heidi Hartman-ek 1979ko saiakera ezagun hartan irudikatutako «zorigaiztoko ezkontza»ren bestelakoa?³⁰¹ Marxismoaren zer alderdi dira garrantzitsuak XXI. mendean feminismoa eta komunismoa berrirudikatu ahal izateko? Eta nola elkar ditzakegu Marxen komunismoarekiko ikusmoldea eta komun en printzipioa, hau da, pentsamendu feminista erradikalean hainbesteko eragina izaten ari den paradigma politikoa?

Galdera horiek erantzuteko ahaleginean, bat egiten dut planetan zeharreko hainbat kanpaldi eta plazetan abiatutako elkarriketarekin, kapitalismoa ordeztuko duten sistemen eraikuntza helburu duenarekin; kontraesanez josia dagoen arren,

300 Karl Marx eta Friedrich Engels, *The German Ideology*, 1. zatia, ed. C.J. Arthur (New York: International Publishers, 1988), 56.or. -57.or.

301 Heidi I. Hartmann, «The Unhappy Marriage of Marxism and Feminism: Towards a More Progressive Union», *Capital and Class* 3 (1979ko uda).

aukera berriak bilatzeko irudimena dauka. Hala, «komunero»en gizarte bat sortzen hasi da, merkatu kapitalistaren logikak gobernatzen ez dituen espazio eta harreman sozialak eraikitzeko ahalegina egiten ari dena.

Alabaina, ez da erraza esatea zer eratako ekarpena egin diezaiokeen Marxen komunismoarekiko ikusmoldeak XXI. mendeari. Izan ere, Marxen pentsamoldea oso konplexua da; gainera, bizitzaren azken urteetan, Pariseko komunaren porrotaren ondoren, badirudi Marxek alde batera utzi zituela bere axioma politiko batzuk, batez ere gizarte komunista baten eraikuntzarako ezinbestekoak ziren aurrebaldintza materialei zegozkienak.³⁰² Horrekin batera, onartua dago desberdintasun handiak daudela bere bi obra nagusien artean –*Kapitala* eta *Grundrisse*³⁰³– eta Marxen pentsamenduak ezin direla ulertu adierazpen gutxi batzuetatik abiatuz; izan ere, «azterketa-mailaren sakontasuna etengabe aldatzen zuen, jomuga politikoarekin batera».³⁰⁴

302 Argudio hau Marxen *Ethnological Notebooks* [Koaderno etnologikoak] eskuizkribuetan irakurritakoetan oinarrituta dago; Marxek hondar urteetan idatzitako oharrek dira, gai horri buruzko lan mardul bat apailatzeko asmoarekin bilduak. Hemengo oharrek erakusten dute Lewis Henry Morgan-en *Ancient Society* [Antzinako gizartea] obrako idatziek, eta, «batez ere, irokesei buruzko kontaketa xeheek», «historian benetan existitu zen gizarte libre baten aukera zehatzei buruzko ideia batzuk» eman zizkiotela Marxi «bere bizitzan lehen aldiz», bai eta harreman kapitalisten garapenaren meko ez zen bide iraultzaile baten aukerari buruzkoak ere. Rosemont-ek dioenez, Marxek Morgan zerabilen buruan –errusiar iraultzaileekiko elkarrekikotasunean– Errusiarako baliagarria izango litzatekeen prozesu iraultzaile baten aukeraz hausnartu zuenean, eta zuzen-zuzenean jabetza komunalerantz joko zuen prozesu bat irudikatu zuen, errusiar nekazarien komunetan oinarrituko zena, ez haien desagerpenean. Ikus Franklin Rosemont, «Karl Marx and the Iroquois» 2009ko uztailaren 2an. [http://libcom/ http://libcom.org/library/karl-marx-iroquois-franklin-rosemont]. Gai honi buruz gehiago jakiteko, ikus baita Kevin B. Anderson, «Marx's Late Writings on Non-Western and Precapitalist Societies and Gender», *Rethinking Marxism* 14, 4. zk. (2002ko negua): 84.or. -96.or.; eta T. Shanin, *Late Marx and the Russian Road: Marx and the «Peripheries» of Capitalism*. (New York: Monthly Review Press, 1983), 29.or. -31.or.

303 Antonio Negri, adibidez, adierazia du *Grundrisse* lana Marxen pentsamenduari goren-unetzat jo behar dela eta *Kapitalari* garrantzi handiegia eman zaiola; izan ere, *Grundrisse* obran garatu zituen Marxek bere kontzeptu nagusiak eta komunismoaren definizioirik erradikalena. Ikus Antonio Negri, *Marx beyond Marx: Lessons on the Grundrisse*, ed. Jim Fleming eta itz. Harry Cleaver (New York eta Londres: Autonomedia-Pluto, 1991): 5.or. -4.or., 8.or. -9.or., 11.or. -18.or. Ordea, George Caffentzis-ek dio *Kapitala* kapitalismoaren kontzeptu integratzaileagoa aurkeztu zuela Marxek, eta obra horretan alde batera utzi zituela aurrez *Grundrisse* lanean proposatutako tesi nagusietako batzuk; adibidez, kapitalismoa balio-legeaz haraindi joan daitekeela produkzioaren automatizazioaren bidez. Ikus George Caffentzis, «From the Grundrisse to Capital and Beyond: Then and Now», in *Workplace: A Journal for Academic Labor*, 15. zk. (2008ko iraila): 59.or. -74.or. [http://www.cust.educ.ubc.ca/workplace].

304 Ariel Salleh, *Ecofeminism as Politics: Nature, Marx and the Postmodern* (Londres

Bi gauza, halere, ziurrak dira

Kapitalismoaz haragoko mundu batean pentsatu nahi badugu, oraindik ere Marxengandik jasotako hizkuntza politikoa erabili behar dugu ezinbestean. Kapitalismo garaikidea ulertzeko, nahitaezkoak ditugu, aski ez izan arren, Marxek gainbalioari, diruari eta salgaien formari buruz egindako analisia eta, batez ere, bere metodoa, esparru ekonomikoaren eta esparru politikoaren arteko banaketari uko eginez oinarri material bat eman ziena historiari eta klase-borrokari. Ez da harritzekoa, beraz, mundu-mailako krisia handitzearekin batera Marxekiko interesa berriz piztu izana, nahiz eta 1990eko urteetan inork ez zuen halakorik espero izango, orduko jakitun nagusiek hiltzat jotzen baitzuten Marxen teoria. Baina ez zegoen erabat hila, eta sozialismo errealizatuaren hondakinen artean hainbat auziri buruzko eztabaida zabalak sortu dira; esate batera, «metatze primitibo»ari, «trantsizio»-moldeei eta komunismoaren garrantzi eta posibilitate historiko eta etikoari buruzkoak. Printzipio feminista, anarkista, antiarrazista eta *queer*-ekin batera, Marxen teoriak eragina du oraindik Europako, Ameriketako eta beste toki batzuetako desobedienteen artean. Hortaz, feminismo antikapitalista batek ezinezkoa du Marx alde batera uztea. Izan ere, Stevi Jackson-ek esan bezala, «1980ko hamarkadako lehen urteetara arte, teoria feministaren barruko ikuspuntu nagusiek marxismotik edaten zuten, edo harekiko elkarrizketa bati jarraitzen zioten».³⁰⁵ Nolanahi ere den, behar-beharrezkoa da Marxen kategoriei oinarri berriak jartzea eta «Marxengandik harago» joatea;³⁰⁶ ez bakarrik Marxen garaitik hona gertatu diren eraldaketa ekonomiko sozialengatik, baita Marxek harreman kapitalistak ulertzeko izan zituen mugengatik ere. Alta, azken mende erdiko gizarte-mugimenduek agerian jarri dute muga horien garrantzi politikoa, eta argitara ekarri dituzte hainbat gai sozial Marxen teoriak aintzat hartu ez zituenak edo alde batera utzi zituenak.

eta New York: Zed Books), 71; Bertell Oilman, *Dialectical Investigations* (New York: Routledge, 1993).

305 Stevi Jackson, «Why a Materialist Feminism Is (Still) Possible», *Women's Studies International Forum* 24, 3/4 zk. (2001): 284.

306 Negri, *Marx beyond Marx*.

Feminismoa eta erreprodukzio sozialaren ikuspuntua

Feministek ekarpen garrantzitsua egin diote prozesu honi, baina ez dute berek bakarrik egin. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, eta kolonien aurkako borroka piztearekin batera, teorialari politiko batzuek –hala nola Frantz Fanon-ek³⁰⁷– zalantzan jarri zuten analisi bat, zeinak, Marxenak bezala, soldatapeko lana erdigunean ezarri zuen eta abanguardiarikoa papera aitortu zien hiriko proletarioei; ostera, esklabo bihurtuak, kolonizatuak eta soldatarik gabeak metatze-prozesuaren eta borroka antikapitalistaren bazterrean kokatu zituen. Teorialari politiko horiek ohartu zirenez, kolonietako esperientziek «marxismoa goitik behera» berraztertzea eskatzen zuten; hortaz, ezinbestekoa zen teoria marxista berriz idaztea, bere garaian teoria horretatik kanpora geratu ziren munduko biztanleen %75aren esperientziak ere barne hartu ahal izateko; bestela, indar askatzailea izateari utzi, eta askatasunerako oztopo bihurtuko zen.³⁰⁸ Alta, nekazariak, peoiek, lunpenak, XX. mendeko iraultzak egin zituztenek... ez zeukaten etorkizuneko beste proletarizazio baten zain egoteko asmorik, ez eta munduan ordena berri bat ezarriko zuen «indar produktiboen garapena»ren esperoan egoteko gogorik ere, marxista ortodoxoek eta ezkerreko alderdiek aholkatu bezala.

Ekologistek ere, ekosozialista batzuek barne, Marxengana jo dute gizakiaren eta naturaren arteko harremanaren ikuspegi asimetrico eta instrumental bat sustatzeko; gizakiak eta lana eragile aktibo bakar gisa aurkeztu dituzte, eta ukatu egin dizkiote naturari balio intrintseko oro eta bere burua antolatze gaitasuna.³⁰⁹ Dena den, marxismoa modu sistematikoagoan kritikatzeko

307 Frantz Fanon-ek *The Wretched of the Earth* lanean idatzi bezala: «Hori dela eta, kolonien auziarekin topo egiten dugunean nahitaezkoa da analisi marxista apur bat zabaltzea. Dena hausnartu behar da berriro, baita gizarte aurrekapitalistaren izaera bera ere, Marxek hain ondo azaldua». Ikus Frantz Fanon, *The Wretched of the Earth* (New York: Grove, 1986), 40.

308 Roderick Thurton. «Marxism in the Caribbean», in *Two Lectures by Roderick Thurton. A Second Memorial Pamphlet* (New York: George Cafftentzis eta SilviaFederici, 2000).

309 Ikus, adibidez, Joel Kovel, «On Marx and Ecology», *Capitalism, Nature, Socialism* 22, 1. zk. (2011ko iraila): 11.or. -14.or. Kovelek dio Marx ikuspuntu zientifiko eta produktibista baten mende zegoela aldarrikatu zuenean «natura pasibo bat, gizon aktibo batek landua» eta bultzatu zuenean «indar produktiboen erabateko garapena» (13. eta 15.or.). Dena den, gai horri buruzko debata oso zabala da, eta nik azaletik baino ez dut aztertu. Ikus, adibidez, John Bellamy Foster, «Marx and the Environment», in *Monthly Review* (1995eko uztaila-abuztua): 108.or. -123.or.

bidea mugimendu feministaren goraldiari esker etorri zen, feministek mahai gainean jarri baitzituzten ez bakarrik munduko soldatagabeak, baita subjektu sozialez (emakumeak, umeak, aldizka gizonak) osatutako jende-multzo handi bat ere; izan ere, pertsona horiek soro, sukalde, logela eta kaleetan egiten duten lanaren bidez lan-indarra produzitzen eta erreproduzitzen da egunero, bai eta Marxek eta tradizio politiko marxistak ia aztertu ere egin ez duten eta erreprodukzio sozialaren antolamenduarekin zerikusia daukaten beste kontu eta borroka batzuk ere.

Kritika horretatik abiatuta, nik ere aintzat hartu dut Marxengandik jasotako komunismoarekiko ikuspegia, eta arreta nagusia programa feminista batentzat eta komunen politikarentzat garrantzitsuen diren alderdietan jarri dut; besteak beste, planeta osoko gizarte-mugimenduek berenganatutako praktika eta ikusmolde ugariak dauzkatz gogoan, helburu dutenak gizarte-lankidetzaz hobetzea, merkatuak eta estatuak gure bizitzan gainean daukaten kontrola ahultzea eta aberastasunaren trukea sustatzea, horien guztien bidez kapitalaren metatze mugatzeko. Nire ondorioak aurreratuz orain, hauxe da argudiatzen dudana: Marxen arabera, komunismoa truke-balioaz, propietate pribatuaz eta diruaz haraindi dagoen gizarte bat da, ekoizle askeen elkarrekin oinarritua eta «bakoitzari behar duena eta bakoitzarengandik bere gaitasunaren arabera» printzipioaren arabera gobernatua, eta feminista antikapitalistek ezinezkoa dute ideal horri uko egitea. Feministek bat egin dezakete, baita, Marxek imajinatu zuen munduaren irudiarekin, lan-banaketa sozialek harago doan munduarekin, nahiz eta ziurtatu nahiko duten goizean ehizan, arratsean arrantzan eta afalostean maiseaketan jardun ostean denbora izango dutela guztien artean garbitasuna egiteko eta umeak zaintzeko. Halere, politika feministek erakutsi digute ezin dugula onartu Marxek lanari eta klase-borrokari buruz duen ikusmoldea eta, funtsezkoagoa dena, uko egin behar diogula Marxen lan publikatu guztiak zeharkatzen dituen ideia horri, hots, esaten duena kapitalismoa ezinbesteko urrats bat dela edo izan dela giza emantzipazioaren historian, bai eta ezinbesteko aurrebaldintza bat ere gizarte komunista baten erai-kuntzan. Hori argi eduki behar dugu; izan ere, egiaztatuta dago Marxen ideia hau kontu handiz hartzekoa dela, alegia, kapitalismoaren garapenak langilearen autonomia eta gizarte-lankidetzaz

areagotzen dituela eta gisa horretan bere buruaren desagerpene-rantz lan egiten duela dioen ideia.

Politika feministarentzat, kapitalismoaren osteko gizarte baten edozein iragarpen ideal baino askoz garrantzitsuagoak dira Marxen metodoa eta Marxek kapitalaren metatzeari egiten dion kritika zorrotza; hasteko, nola ulertzen duen berak kapitalismoaren garapena gizarte-harreman antagonikoen emaitza gisa. Beste era batera esanda, eta Roman Rosdolsky-k,³¹⁰ Antonio Negri-k³¹¹ eta beste pentsalari batzuek azaldu bezala, Marx guztietatik gehien interesatzen zaiguna ez da askatasunera iritsi den mundu bat proiektatzen duen iraultzaile ameslaria, ezpada klase-borrokaren teorialaria, egiazko posibilitate historikoetan oinarriturik ez dagoen programa politiko orori uko egiten diona, bere obran zehar beti harreman kapitalistak suntsitzen saiatu dena, komunismoaren egikaritzea gauzen egungo egoera ezereztan duen mugimenduaren bidez etorriko dela uste duena. Hori kontuan hartuta, Marxen metodo historiko-materialista, hots, historia eta gizartea ulertzeko erreprodukzio sozialaren baldintza materialak ulertu behar direla proposatzen duena, funtsezkoa da ikusmolde feminista batetik. Izan ere, mendekotasun soziala lan-antolamendu jakin batean errotutako produktu historiko bat dela onartzea askatzailea izan da emakumeentzat. Horrek ekarri du desnaturalizatzea sexuaren arabera lan-banaketa eta horren gainean eraikitako identitateak, eta genero-kategoriak aurkeztu ditu ez bakarrik konstruktuko asozial gisa, baizik eta etengabe birdefinitu beharreko kontzeptu gisa, kontzeptu infinituki mugikorak, amaiera irekikoak, beti karga politikoz jantziak. Alta, «emakume» kontzeptuak kategoria analitiko eta politiko gisa izan dezakeen baliotasunari buruzko eztabaida feminista ugariak errazago konponduko lirateke baldin eta metodo hori aplikatuko balitz; azken finean, Marxen metodoak erakusten digu «emakume» kategoriaren bidez interes komun bat adieraz daitekeela, kategoria horri jokaera eta gizarte-kondizio zehatz eta beti-batekoak eranstea beharrik izan gabe.

Aztertzen badugu emakumeen posizio soziala lan-esplotazio kapitalistaren ikuspegitik, agerian geratzen da, baita,

310 Roman Rosdolsky, *The Making of Marx's «Capital»* (Londres: Pluto Press, 1977).

311 Negri, *Marx beyond Marx*.

generoan oinarritutako diskriminazioaren eta arrazan oinarritutako diskriminazioaren arteko jarraitutasuna, eta horrek aukera ematen digu eskubideen aldeko politikaetik harago joateko; izan ere, eskubide horiek gaur egungo ordena sozialaren jarraitutasuna onartzen dute, eta ez diote aurre egiten emakumeen askapenerako bidean oztopo diren indar sozial antagonikoei. Halere, hainbat teorialari feministak erakutsi duten bezala –battetik, Soldatak Etxeko Lanentzat mugimenduko Mariarosa Dalla Costa,³¹² Selma James³¹³ eta Leopoldina Fortunati; bestetik, Maria Mies³¹⁴ eta Ariel Salleh³¹⁵ ekofeministak–, Marxek ez du beti bere metodoa erabiltzen, ez behintzat erreprodukzioaren eta genero-harremanen auziari dagokionean, eta, hortaz, kontraesan ageriko bat dago Marxen pentsamenduaren erdigunean. Lanaren esplotazioa giltzarritzat jotzen du aberastasun kapitalista produzitzeko, baina teorizaziotik kanpora uzten ditu lan-indarra produzitzeko funtsezkoak diren jarduera eta gizarte-harreman batzuk, hala nola sexu-lana, ugaltzea, umeen zaintza eta etxeko lanak. Marxek onartzen du lanerako daukagun gaitasuna ez dela berezkoa, ezpada jarduera sozialaren produktu bat,³¹⁶ beti forma historiko zehatz bat hartzen duena; alta, «gosea gose da toki guztietan, baina sutan prestatu eta aizto-sardexkaren laguntzaz jaten den okelarekin asetzen den gosea eta esku, azazkal eta haginaren laguntzaz irensten den okela gordinarekin asetzen dena ez dira berdinak».³¹⁷ Nolanahi ere den, Marxek argitaratutako lanen artean ez dugu aurkitu etxeko lanei, familiari eta genero-

312 Mariarosa Dalla Costa, «Women and the Subversion of the Community», in *The Power of Women and the Subversion of the Community*, ed. Selma James eta Mariarosa Dalla Costa (Bristol: Falling Wall Press, 1975).

313 Selma James, *Sex, Race and Class* (Bristol: Falling Wall Press, 1975).

314 Maria Mies, *Patriarchy and Accumulation on a World Scale* (Londres: ZedBooks, 1986).

315 Ariel Salleh, *Ecofeminism as Politics*.

316 Karl Marx, *Capital: A Critique of Political Economy*, I. lib., ed. Friedrich Engels eta itz. Ben Fowkes (Londres: Penguin, 1990), 274. Marxek idatzi zuen gisan, «Beste edozein salgairekin gertatzen den bezala, lan-indarraren balioa ere artikulua espezifikoko horren produkzioarako –eta, beraz, erreprodukzioarako– behar den lan-denboraren bidez zehazten da. Balio bat daukanez gero, bere barruan biltzen duen batez besteko lan sozialaren kantidad jakin bat baino ez du adierazten. Lan-indarra banako bizidunaren gaitasun gisa bakarrik existitzen da. Lan-indarraren produkzioak lan-indarraren existentzia auresuposatzen du. Banakoa izan badenez, lan-indarra produzitzeak esan nahi du banakoak bere burua erreproduzitzea edo bere burua mantentzea».

317 Karl Marx, *A Contribution to the Critique of Political Economy*, ed. Maurice Dobb (New York: International Publishers, 1989), 197.

harreman kapitalismoarekiko espezifikoei buruzko azterketarik, han-hemen adierazitako hausnarketa batzuk besterik ez, esaten dutenak lanaren lehen banaketa sexu-harremanetan gertatzen dela,³¹⁸ esklabotasuna latente dagoela familian,³¹⁹ eta abar. Kapitalaren lehen kapituluan, sexu-lana ez da aipatu ere egiten, ezta ordaindutakoa ere; izan ere, prostitutak kanpoan uzten ditu, kriminalekin eta arloteekin batera, baita txiroenen esparruetatik kanpora ere,³²⁰ zerikusi zuzena zeukatenak *Eighteenth Brumaire* [Brumarioaren hemezortzia]³²¹ obran baztertutako lunpen proletarioekin, beren kondizio soziala eraldatzeko sekula gai izango omen ez zirenekin. Bi oin-oharretan etxeko lanak aipatzen ditu; batean esaten du Industria Iraultzaren garaian etxeko lanak desagertu egin zirela fabrika-lanetan ziharduten emakumeen etxeetatik, emakume horiek lanez gainezka zeudelako, eta bestean dio AEBko Gerra Zibilak eragindako krisiak etxeko lanetara itzularazi zituela Ingalaterran ehungintzan ziharduten emakume langileak.³²² Ugaltzea, oro har, funtzio natural gisa hartzen du,³²³ ez kapitalismoan lan-indarraren erreprodukzioaren barruan subsumitzen den –eta, beraz, estatu-arau batzuen mende dagoen– lan gisa. «Populazio-soberakin erlatiboaren teoria» aurkezten duenean ere,³²⁴ gainetik baino ez du aipatzen kapitalak eta estatuak emakumeen erreprodukzio-gaitasunean duten in-

318 Marx eta Engels, *The German Ideology*, 51.

319 *Ibid.*, 52.

320 Marx, *Capital*, I. lib., 797.

321 Karl Marx eta Friedrich Engels, *Eighteenth Brumaire of Louis Napoleon* (New York: International Publishers, 1963).

322 «Makinak eta eskala handiko industria» kapituluko oin-ohar batean agertzen da hori, azaltzen duenean gero eta gizonezko (langile) gehiagok hartzen duela emakumeen tokia makinak fabriketan sartzen hasi zirenez geroztik, «familiako kide guztiak lan-merkatura bidaliz». Honela dio: «Familia-funtzio batzuk –esate batera, haurrak zaintzea eta haurrei titia ematea– ezin direnez erabat desagerrarazi, kapitalak konfiskatutako amek zelanbaiteko ordezkioak bilatu behar dituzte. Etxeko lanak, hala nola jostea eta adabatzea, erositako artikulu amaituen bidez ordeztu behar dira. Hartara, diru gutxiago gastatzen da etxeko lanetan, eta, aldi berean, diru gehiago gastatzen da etxetik kanpora. Langile-klasearen produkzio-kostua handitu egiten da...». Marx, *Capital*, I. lib., 518n. Pasarte hori gogoan, Leopoldina Fortunatik berba hauek idatzi zituen: «Kapitalak etxeko lanak suntsitu ondoren oharatu zen Marx haietat, eta oharatu ere gobernuko txostenak irakurritik oharatu zen, haien egileak askoz lehenago konturatu baitziren fabrika-lanak etxeko lanari tokia kentzean sortzen zen arazoaz». Fortunati, *The Arcane of Reproduction*, 169.

323 Marxek idatzi zuen, adibidez: «Langile-kopuruaren berezko hazkundeak ez ditu asetzen kapital-metaketa eskakizunak». Marx, *Capital*, I. lib., 794. Letra etzana erantsia da.

324 Marx, *Capital*, I. lib. 79. orritik aurrera.

teresa, eta populazio soberakina izateko helburua berrikuntza teknologikoaren eskakizunekin lotzen du,³²⁵ argudiatuz, hori bai, langileen seme-alaben esplotazioak hobari bat eransten diela langile horien produkzioari.³²⁶

Omisio hori dela eta, feminista ugarik erredukzionistatzat jo dute Marx, eta feminismoaren eta marxismoaren arteko integrazioa mendekotasun-prozesu baten gisa bizi izan dute.³²⁷ Halere, lehenago aipatu ditudan autoreek erakutsi dute posible dela Marxen kategoriekin lan egitea;³²⁸ horretarako, baina, nahi-taezkoa da kategoria horiek berriz eraikitzea eta beren ordena arkitektonikoa aldatzea, grabitate-zentroan ez daitezen egon bakarrik soldatapeko lana eta salgaien produkzioa, horiekin batera egon daitezen lan-indarraren produkzioa eta erreprodukzioa eta, bereziki, azken horri dagokionez emakumeek etxean egiten duten zatia. Hori eginez gero, agerian jartzen dugu metaketarako eta borrokarako eremu berri bat; halaber, azaleratu egiten dugu kapitalak lan ez-ordainduarekiko eta lanegun osoarekiko duen mendekotasuna.³²⁹ Izan ere, Marxek lan produktiboari buruz garatutako teoria erreprodukzio-lanaren dimentsio guztietara zabalduz gero, bi gauza lor ditzakegu: batetik, genero-harremanak kapitalismoan duen tokiari buruzko teoria bat eraiki dezakegu; bestetik, klase-borrokaren irakurketa berri bat egin dezakegu, eta uler dezakegu zer baliabide erabiltzen dituen kapitalismoak bere burua erreproduzitzeko, lan-erregimen eta garapen- eta azpigarapen-molde desberdinak sortuz.

Lan-indarraren erreprodukzioa produkzio kapitalistaren erdigunean kokatzean, gizarte-harremanen mundu oso bat azaleratzen da, Marxen obran agerikoa ez bada ere funtsezkoa dena lanaren esplotazioa arautzen duten mekanismoak bista-

325 *Ibid.*, 782.

326 *Ibid.*, 795. Marxek ez du argitzen, halere, nork baldintzatzen duen produkzioaren gehitze hori, eta zilegi da galdera hori egitea; izan ere, *Kapitalaren* I. liburukian, Ingalaterrako industria-barrutietan amek beren umeekin daukaten harremana azaltzen duenean, amatasunarekiko errefus zabala jasotzen du, hainbestearainokoa non garaiko politikariek eta enplegatzaileek ere kezka bizi baitzuten egoera hura. Ikus *Ibid.*, 521, 521n, 522.

327 Hartman, «The Unhappy Marriage», 1.

328 Maria Mies da salbuespena, behin eta berriro esan baitu ezinezkoa dela marxismoaren barruan genero-harremanei buruzko gogoeta bat egitea. Mies, *Patriarchy and Accumulation on a World Scale*.

329 Silvia Federici, *Revolution at Point Zero: Housework, Reproduction and Feminist Struggle* (San Francisco: PM Press), 38.

ratzeko. Agerian jartzen du kapitalak langile-klasetik ateratzen duen lan ordaindu gabea Marxek sekula imajinatu zuena baino askoz handiagoa dela eta bi alderdi dituela: bata, emakumeek egitea espero izan den etxeko lana; bestea, mundu kapitalistak koloniekiko eta periferiekiko egin duen esplotazioa. Izan ere, jarraitutasun bat dago etxean egiten den lan-indarraren erreprodukzioaren balio-gutxitzearen eta kapitalismoak eremu kolonizatuetan eraiki dituen lantegi ugarietan –bai eta industria-lizazioaren gune nagusietan ere– egiten den lan ordainduaren balio-gutxitzearen artean. Bi kasuetan, lan-moldeak eta indarkeria naturalizatu egin dira, eta, gainera, soldatapeko langileen erreprodukzio-kostua murrizteko diseinatutako muntaketa-kate globalaren parte bihurtu dira. Ildo horretatik, emakumeen patu naturalizat jotzen den etxeko lan ordaindu gabeak bat egiten du iraupen-laborariak diren milioika «campesin»ekin eta eskala txikiko langile ez-arautuek egiten duten lanarekin, huskeria baten truke soldatapeko langileek kontsumitzen dituzten salgaiak hazten eta produzitzen dituztenak eta haien erreprodukziorako ezinbestekoak diren zerbitzuak kostu txikienean eskaintzen dituztenak. Horra hor ideologia sexista eta arrazistak hainbestetan justifikatzen dituen lan-hierarkiak, erakusten dutenak klase kapitalistak zeharkako aginte-sistema bat erabili duela botereari eusteko, langile-klasea modu eraginkorrean banatuz eta soldata erabiliz gizon langile soldatapekoei soldatarik gabekoen gaineko boterea emateko; hasteko, emakumeen gorputzen eta lanaren gaineko kontrola. Horrek bi irakurketa ditu, segidan azalduko ditugunak. Hasteko, soldata ez da bakarrik lanaren eta kapitalaren arteko gatazka-eremua, non langile-klaseak lan sozialki ezinbestekoaren zenbatekoa eta osaera negoziatzen dituen; izan ere, langileen artean botere-harreman eta botere-hierarkia desberdinak sortzeko baliabide bat ere bada. Gainera, lan-prozesuan langileek elkarrekin lan egitea ez da inola ere aski langile-klasearen batasunari eusteko. Ondorioz, langile-borroka Marxek irudikatutakoa baino askoz prozesu konplexuagoa da. Feministak ohartu direnez, borroka hori familiatik beretik hasi behar da askotan; izan ere, kapitalismoaren aurka borrokatzeko, lehenik eta behin emakumeek beren senarren eta beren aiten aurka borrokatu behar izan zuten, beltzek langile zurien aurka borrokatu behar izan zuten modu berean, bai eta kapitalismoak soldata-er-

lazioaren bidez ezartzen duen klase-osaera espezifikokoaren aurka ere. Amaitzeko, etxeko lana lan-indarra produzitzen duen lana dela onartuta, genero-identitateak lan-funtzio gisa uler ditzakegu, eta genero-harremanak, berriz, produkzio-harreman gisa; ikuspegi-aldaketa horrek libratu egiten gaitu etxeko lanei uko egin nahi izan diegun guztietan sentitu dugun erruduntasunetik, eta indar handiagoa ematen dio «pertsonala politikoa da» aldarrikatzen duen printzipio feministari.

Zergatik Marxek ez zuen aintzat hartu lan erreproduktibo hori, lan-indarraren produkzioarako ezinbestekoena dena? Non edo non³³⁰ esan izan dut Ingalaterrako langile-klasearen garai hartako egoerak galdera hori erantzuten lagun dezakeela, Marx *Kapitala* idazten ari zelarik (eta Marxek berak onartzen zuen bezala) oso etxeko lan gutxi egiten baitzen langile-klaseko familietan, emakumeek fabrian lanean zihardutelako gizonekin batera eguzkitik eguzkira. Etxeko lana produkzio kapitalistaren adar bat zen, eta, beraz, Marxen jomuga historiko eta politikoaren barruan zegoen. XIX. mendearen bigarren erdian, langile-klasea bi hamarkadaz matxinaturik ibili ostean eta komunismoaren mamuak Europa mehatxatzen zuen bitartean, klase kapitalista lan-indarraren erreprodukzioan inbestitzen hasi zen, eta, aldi berean, aldaketak egin zituen metatze-moldean, (ehungintzan oinarritutako) industria arinetik (ikatzean eta altzairuan oinarritutako) industria astunera igaroz; aldaketa horrek lan-diziplina gogorragoa eta lan-indar ez hain zargaldua eskatzen zuen.

Orain dela gutxi idatzitako saiakera batean adierazi dudan legez, «Marxen hitzak erabiliz, esan dezakegu lan erreproduktiboaren garapena eta horren ondorioz sortutako arduraldi osoko etxekoandre proletarioa, hein batean, lana ustiatzeko moldean gertatutako aldaketaren emaitza izan zirela; alegia, langileengandik balio «absolutua» ateratzetik «gainbalio erlatiboa» ateratzera egindako urratsaren emaitza izan ziren».³³¹ Beste era batera esanda, sistema-aldaketa baten emaitza izan ziren; lane-gunaren erabateko luzapenean oinarritutako esplotazio-sistema batetik lanegun laburragoko sistema baterako jauzia egin zen, eta denboran egindako murrizketa hori esplotazio-maila han-

330 *Ibid.*, 94.or. -95.or.

331 Marx, *Capital*, I. lib., 16. kap., V. zatia.

diagoa zekarren iraultza teknologikoaren bidez orekatu zen. Baina beste faktore bat ere bazegoen: kapitalistak beldur ziren langileen gehiegizko esplotazioak –laneguna luzatzearen eta beren komunak deuseztatzearen ondorio zenak– ez ote zuen berekin ekarriko langile-klasearen desagertzea eta emakumeen errefusa etxeko lanak egiteari eta umeak zaintzeari, gai horiek behin eta berriro agertzen baitziren gobernu ingelesaren aginduz 1840ko urteetatik aurrera langileen lan-baldintzen eta osasun-egoeraren gainean egindako txosten ofizialetan.³³² Bidegurutze horretan, lan-erreforma berri bat ezarri zen: kapitala inbestitu zen lan-indarraren erreproduktzioan, eta fabrikako hainbat lege [Factory Acts] bultzatu ziren. Horrekin, zera lortu zen: batetik, fabrikari lan egiten zuten emakumeen kopurua murriztea, lehenik, eta desagerraraztea, gero; bestetik, gizonen soldata nabarmenki igotzea (%40 mendearen amaierarako).³³³ Alde horretatik, arduraldi osoko etxekoandre proletarioaren sorrera, «fordismoak akuilatutako fenomeno», kapitalismoaren etorrerarekin galdutako komunak berriro soldatapeko gizon langileei itzultzeko saiakera gisa ikus daiteke; hau da, galera hori emakumeen ordaindu gabeko lan ikaragarri handi batek berdinduko luke.

Erreforma horien bidez «estatu modernorako jauzia» egin zen, eta estatuaren esku geratu zen planifikatzea langile-klaseko familiaren eraikuntza eta lan-indarraren erreproduktzioa.³³⁴ Nolanahi ere, Marx *Kapitala* idazten ari zen garaian, langileek beren burua erreproduzitzeko zeukaten ezintasuna zen, ezbairik gabe,

332 Ibid., 348, 591, 599, 630. Aipatutako azken hiru orrialdeetan, emakumeen fabrika-lanak beren diziplinan eta lan erreproduktiboan zeukan eragina aztertzen da. Marxek esan bezala, «egunetik egunera, langile-klasearen mugimenduaren aitzinamendua gero eta mehatxagarriagoa zen; gainera, Ingalaterrako soroak guanoz* ongarrizteko beharra eragin zuen beharrizan berak fabrikako lana mugatzen zuen: irabaziak lortzeko desira itsuak lurra ahitu bazuen batean, nazioaren bizi-indarra zuztarretik beretik bereganatu zuen bestean». *[I.O.: Guanoa itsas-hegaztien eta saguzarren gorotzez osatutako materia da, ongarririk gisa erabilia. *Iturria: Euskarazko Wikipedia*]

333 Ez halabeharrez, 1870erako Ezkontza Lege berri bat eta Hezkuntza Lege berri bat (lehen hezkuntzarako eskubide unibertsala ekarri zuena) onartu ziren, biak aldi berean. Horrek esan nahi zuen gobernuak ordura arte baino gehiago inbestitzen zuela lan-indarraren erreproduktzioan. Garai beretik aurrera, eta familia-soldataren etengabeko igoerarekin batera, Britaniako elikadura-ohiturak aldatuz joan ziren, bai eta elikagaiak banatzeko baliabideak ere, orduan agertu baitziren lehenengoz auzoetako janari-dendak. Garai beretsuan, josteko makina langileen etxeetara heltzen hasi zen. Ikus Eric. J. Hobsbawm, *Industry and Empire: The Making of Modern English Society, Vol. 2, 1750 to the Present Day* (New York: Random House, 1968), 135.or. -136.or. 141.

334 Fortunati, *The Arcane of Reproduction*, 173.

arazorik nabarmenena. Eta horrek azaldu dezake, zati batean, zergatik Marxen obran etxeko lanak ez diren ia aipatu ere egiten. Edo, beharbada, industria modernoak ordezkatzuko zituela uste zuen, eta horregatik utzi zituen alde batera. Edonola ere, Marx ez zen gai izan ikusteko lan-erregimen desberdinen koexistentzia produkzio kapitalistaren eta lan-diziplinaren funtsezko osagai bat izango zela.

Nire ustez, hau da Marxek etxeko lana alde batera uzteko arrazoiak: etxeko lanak ez zeuzkan berak antolamendu kapitalistaren oinarritzat jotzen zituen ezaugarriak, eskala handiko industrializazioarekin lotzen zituenak; izan ere, Marxen aburuz, industria-lana maila goreneko produkzio-eredua zen. Etxeko lanak etxean egiten dira, bakarturik, ez kolektiboki eta ez eredu kooperatiboari jarraikiz, eta garapen teknologiko txikia eskatzen dute, baita XX. mendean ere, etxekotasunaren gailurrean; beraz, etxeko lana produkzio-eredu aurrekapitalisten azken aztarna baino ez da izan marxistentzat. Dolores Hayden-ek *The grand domestic revolution* liburuan adierazi bezala,³³⁵ pentsalari sozialistek etxeko lanak sozializatzeko deia egin zuten, baina berek ere ez zuten uste aipatu lan horiek aintzat hartzeko bestekoak izan zitezkeenik;³³⁶ August Bebel-ek bezala, denborarekin etxeko lanak hutsaren hurrengora murriztuko zirela uste zuten.³³⁷ Halandaze, 1960 eta 1970eko urteetako etxeko lanen aurkako matxinadak ezinbestekoak izan ziren erakusteko etxeko lana «lan sozialki ezinbestekoa»³³⁸ dela zentzu kapitalistari dagokionez eta, industrian oinarritutako antolamendurik ez badauka ere, erabat produktiboa dela eta mekaniza ezin daitekeen zati handi bat daukala. Izan ere, lan-indarra izango duten pertsonak erreproduzitzeak elkarerraginean oinarritutako zerbitzu emozional eta fisiko asko eskatzen ditu, eta, beraz, lan gogorra da. Horretaz ohartu garenean, are gehiago hankazgoratu zaigu Marxen marko teoriko eta politikoa, eta haren teoria iraultzailearen printzipio

335 Dolores Hayden, *The Grand Domestic Revolution: A History of Feminist Designs for American Homes, Neighborhoods and Cities* (Cambridge, MA: The MIT Press).

336 *Ibid.*, 6.

337 August Bebel, *Women under Socialism* (New York: Schocken Books, 1971).

338 «Lan-denbora sozialki ezinbestekoa horrela definitzen da: erabilera-balio bat produzitzeko behar den lan-denbora, kontuan hartuta gizarte jakin bateko produkzio-baldintza normalak eta gizarte horretan nagusi den batez besteko lan-gaitasuna eta -intentsitatea». Marx, *Capital*, I. lib., 129.

nagusietako bat berriz hausnartu beharrean aurkitu gara; hain justu ere, esaten duena kapitalismoaren garapenarekin lan-molde guztiak industrializatu egingo direla eta, are garrantzitsuagoa dena, kapitalismoa eta industria modernoa ezinbesteko aurrebaldintzak direla gizakia esplotaziotik askatzeko.

Makinak, industria modernoa eta erreprodukzioa

Marxek uste zuen kapitalismoak eta industria modernoak komunismoaren etorrerarako agertokia prestatu behar dutela, pentsatzen baitzuen industrializazioak ahalbidetutako produktibitate-jauzirik gabe gizateria eskasiak, txirotasunak eta bizitzarako ezinbestekoak diren beharreatatik lehiak bultzatutako gatazka amaigabe batera kondenatua egongo litzatekeela.³³⁹ Bere ustez, industria modernoa maila handiagoko arrazionaltasun baten gauzatzea da, mundurako bidea helburu lohien bidez egiten badu ere; gizakioi erakusten digu gure gaitasunak al bait gehien garatzeko jokabidea, eta erakusten dizkigu, baita ere, lanetik askatzen gaituzten jokabideak. Marxen aburuz, industria modernoa ez da «lan sozialki ezinbestekoa» murrizteko bide bat bakarrik, lan-eredu behinena da. Bere iritzian, industria-lanak uniformetasuna, erregularitasuna eta garapen teknologikoaren printzipioak erakusten dizkie langileei, eta, hartara, lan-mota desberdinetan aritzeko aukera ematen die.³⁴⁰ Marxek gogorarazten digunez, hori ezin dute lortu ez eskulangile zehatzek ezta lanbide bati lotutako artisauek ere.

Testuinguru horretan, kapitalismoa eskala handiko industria sortzen duen esku lastua da, produkzio-bideak metatzeko eta lan-prozesuan lankidetzan jarduteko bidea zabaltzen duena; Marxek ezinbestekotzat jotzen zituen garapen horiek produkzio-indarrak hedatzeko eta lanaren produktibitatea areagotzeko. Kapitalismoa, gainera, gizakia bere burua gobernatzeko eskakizunetan hezten duen zartailua ere bada; esate batera, irauteko ezinbestekoa dena baino gehiago produzitzeko beharra eta eskala handiko gizarte-lankidetzarako gaitasuna.³⁴¹ Klase-borrokak garrantzi handia dauka prozesu horretan. Langileek esplotazioaren aurrean erakutsitako erresistentziaren ondorioz, eta lana

339 Marx eta Engels, *The German Ideology*, 56.

340 Marx, *Capital*, I. lib., 618.

341 *Ibid.*, 775.

gehiago ekonomizatzeko, klase kapitalistak goitik behera aldatu behar du produkzioa, halako elkarrekiko baldintzatze batean, lanak aberastasunaren produkzioan daukan papera etengabe murriztuz eta gizakiek historikoki saihestutako lanak makinaren bidez ordeztuz. Marxen aburuz, behin prozesu hori burututa, hau da, behin industria modernoak lan sozialki beharrezkoa al-bait gehien murriztuta, garai berri bat hasiko zen azkenik, non gure existentziaren eta gure ingurune naturalaren jabe izango ginen eta gure beharrak asetzeko gai izateaz gainera gure denbora goragoko jardunei eskaintzeko askatasuna izango genuen.

Ez zuen azaltzen, baina, haustura hori nola lortuko litzatekeen; irudi metaforiko batzuk besterik ez zituen eman, iradokitzen zutenak produkzio-indarrak, behin erabat garatu ondoren, gai izango zirela beren oskol bilgarria apurtzeko, eta, horrela, iraultza soziala piztuko zela. Era berean, ez zuen zehazten nola jakingo genuen noiz egongo ziren produkzio-indarrak aski heldurik iraultzarako; besterik gabe, esaten zuen harreman kapitalistak mundu osora zabaltzean inflexio-puntu bat iritsiko zela; hau da, inflexio-puntu bat etorriko zen produkzio-indarren eta proletarioei dagozkien gaitasunen homogeneizazioa eta unibertsalizazioa mundu osora zabaltzean.³⁴²

Marxek irudikatutako munduan, gizakiek makinak erabil ditzakete gabeziez eta lan nekezaz libratzeko; hartara, denbora libre aberastasunaren neurri bihurtzen da. Bada, mundu hori oso erakargarria izan da beti. Andre Gorz-en irudiak ere, non gizarte postindustrial lanik gabeko bat ageri den, jendea bere garapen pertsonalari begira bizi dena, asko zor dio Marxek aurrez irudikatutako mundu horri.³⁴³ Era berean, Gorzen irudiak Marxista Autonomo Italiarrek *Grundrisse* liburuko «Fragment on Machines» [Makinei buruzko pasartea] zatiarekiko zeukaten li-luramenduaren lekukotza ere jasotzen du; pasarte horretan,

342 Marx eta Engels, *The German Ideology*, 55. orritik aurrera; Marx eta Engels, *The Communist Manifesto*.

343 Andre Gorz, *A Farewell to the Working Class* (Londres: Pluto, 1982). Ikus baita Andre Gorz, *Paths to Paradise: On the Liberation from Work* (Londres: Pluto, 1985). Gai honi buruz gehiago jakiteko, ikus baita Edward Granter, *Critical Social Theory and the End of Work* (Burlington, VT: Ashgate, 2009). Granterrek dioenez, Gorzek aipatutako ideia hura –gizarte bat non aberastasuna denbora librearen bidez neur daitekeen– Marxena da egiazki; eta, hain zuzen ere, Gorzek erreferentzia esplizitua egiten dio Marxi, *Grundrisse* laneko hitzak aipatuta (Granter, *Critical Social Theory*, 121).

Marxen mundua beste inon baino ausardia gehiagoz erakusten da. Guztien artean, Antonio Negri izan da pasarte hori Marxen teoriaren alderdirik iraultzaileentzat jo duena, *Marx beyond Marx* liburuan erakutsi bezala. Alta, *Notebooks VI* [Ohar-koadernoak VI] eta *Notebooks VII* [Ohar-koadernoak VII] kaieretako orrialdeetan Marxek irudikatzen duen munduan, balioaren legea jada ez da erabilgarria, zientziak eta teknologiak produkzio-prozesutik kanpo utzi dutelako bizidunek egin beharreko lana eta orain makinak zaintzea delako langileek egin beharreko lan bakarra; orrialde horiek etorkizuna auresateko gaitasuna erakusten dute, eta espantagarriak dira oso.³⁴⁴ Halere, feministak garen aldetik batez ere, toki onean kokatuta gaude ohartzeko zer engainagarriak diren produkzio-sistema automatizatu batek gure esku jar ditzakeen ahalmenak. Ikus dezakegu, adibidez, Marxek hainbeste miretsitako ustezko «industria-sistema erabat produktiboa» egiazki «bizkarroi bat» izan dela lurrean, «gizakiaren historian inoiz ikusi gabeko neurrikoa»,³⁴⁵ orain lurra kontsumitzen ari dena halako abiaduran ezen itzal handi bat jaurtitzen ari baiten etorkizunera. Gizakiaren eta naturaren arteko interakzioaz ohartu baino lehen, eta Salleh-ek esan bezala,³⁴⁶ Marxek bazuen prozesu horri buruzko intuizioa, ikusita nola laborantzaren industrializazioak lurra ahitzen zuen langilea ahitzen zuen bezainbeste.³⁴⁷ Baina, jakina, joera hori itzulgarria izango zela uste zuen, behin langileek kontrola beren gain hartuta produkzio-bideak helburu positiboetara zuzendu ahal izango zirela, alegia, aberastasun sozial eta naturala hedatzera, ez haiek ahitzera; halaber, uste zuen kapitalismoaren desagerpena gertu-gertu

344 Negri, *Marx beyond Marx*.

345 Otto Ullrich, «Technology», in *The Development Dictionary: A Guide to Knowledge as Power*, ed. Wolfgang Sachs (Londres: Zed Books, 1993), 281.

346 Salleh, *Ecofeminism as Politics*, 70.

347 *Kapitalaren I.* liburukiko «Makinak eta eskala handiko industria» kapituluaren amaieran, hau idatzi zuen Marxek: «Nekazaritza kapitalistan egindako aurrerabide oro lapurretaren trebezian egindako aurrerabidea ere bada, ez bakarrik langilearekiko lapurretan, baita lurrearekikoan ere; denbora jakin batean lurraren emankortasuna handitzen duen abantzamendu oro emankortasun horren iturri iraunkorrenak hondatzeko bidean egindako abantzamendua ere bada. Herrialde baten garapena zenbat eta gehiago oinarritu eskala handiko industrian, AEBetan gertatzen den bezala, orduan eta azkarragoa izango da herrialde horren suntsitze-prozesua. Beraz, produkzio kapitalistak produkzioaren prozesu sozialerako behar diren teknikak eta konbinazio-maila bakarrik garatzen ditu, eta aldi berean ahultzen ditu jatorrizko bi aberastasun-iturriak: lurra eta langilea». Marx, *Capital*, I. lib., 638.

zegoela eta posible izango zela irabazi-asmoko industrializazio-prozesuak lurraren gain eragindako kaltea mugatzea.

Pentsakizun horiei guztiei dagokienez, Marx erabat oker zebilen. Makinek ez dituzte makinak ekoizten, demagun, sortze garbi baten bidez. Adibide gisa ordenagailua hartzen badugu, konturatuko gara makina arrunt hori ere hondamendi ekologiko bat dela, lurra eta ura tonaka eta giza lana neurrigabeki behar baitira horrelako tresna bat produzitzeko.³⁴⁸ Mila milioika saltzen direla aintzat hartuta, ohartu behar gara makinak «lurra jaten» ari direla, XVI. mendeko Ingalaterran ardiek lurra jaten zuten antzera, eta jan ere halako abiaduran jaten dutela ezen etorkizun hurbilean iraultza bat gertatuta ere planeta hau berriz bizigarri bihurtzeko egin beharreko lana izugarria izango litzatekeen.³⁴⁹ Gainera, makinek azpiegitura material eta kultural bat behar dute, eragiten diena ez bakarrik gure natura-baliabide komunei –landak, basoak, urak, mendiak, itsasoak, ibaiak eta kostaldeak–, baita gure psikeari eta gizarte-harremanei ere, subjektibitateak moldatuz, behar eta ohitura berriak sortuz; eta horiek guztiek ere etorkizuna hipotekatzen dute, mendekotasunak eraginez. Horrek azaltzen du, zati batean, zergatik *Kapitalaren I.* liburukia argitaratu eta mende eta erdi geroago kapitalismoak ez duen erakutsi desagertzeko seinalerik, nahiz eta badirudien Marxek gizarte-iraultza baterako aurreikusitako baldintza objektiboak aspaldi iritsiak direla heldutasunera. Horren ordez, ikusten dugu metatze primitibo etengabe batean oinarritutako erregimen bat, XVI. mendeko itxiturak gogora dakartzana, oraingo hone-tan Nazioarteko Diru Funtsak eta Mundu Bankuak antolatua, eta ikusten ditugu meatzaritza- eta laborantza-industria pila bat, Afrikan, Asian eta Latinoamerikan herri-lurra pribatizatzen eta ekoizle txikiei beren lurren jabetza kentzen, industria modernoak behar dituen litioa, koltana eta diamanteak eskuratzeko.³⁵⁰

348 Saral Sarkar, *Eco-Socialism or Eco-Capitalism? A Critical Analysis of Humanity's Fundamental Choices* (Londres: Zed Books, 1999), 126.or. -127.or.

349 Pentsatu, adibidez, zenbat lan egin behar den mundu guztian metatuta dauden hondakin nuklearrek eragiten dituzten ondorio kaltegarriak kontrolatu eta neutralizatzeko.

350 Ikus Silvia Federici, «War Globalization and Reproduction», in *Revolution at Point Zero* (San Francisco: PM Press, 2012), 76.or. -84.or.; Silvia Federici, «Women, Land Struggles, and the Reconstruction of the Commons», *Working USA* 14, 1. zk. (2011ko martxoa); eta Silvia Federici, «Witch-Hunting, Globalization, and Feminist Solidarity in Africa Today», *Journal of International Women's Studies* 10, 1. zk. (2008ko urria).

Azpimarratu behar dugu, baita, kapitalismoak garatutako ezein produkzio-bide ezin dela errazki hartu eta beste erabilera batera bideratu. Era berean, ezin dugunez (aurrerago ikusiko dugun bezala) estatuaren kargu egin, ezin dugu industria, zientzia eta teknologia kapitalistaren kargu egin, sorburuko esplotazio-helburuek beren egitura eta funtzionamendua baldintzatzen dutelako.

Industria modernoa eta teknologia ezin dira gehiagorik gabe egokitu eta beste helburu batzuetarako berriz programatu. Hori argi erakusten du, adibidez, industria nuklear eta kimiko-koen hazkundeak; industria horiek planeta pozoitu dute eta armategi ikaragarri handi bat eman diote klase kapitalistari, orain gu suntsitzearekin mehatxu egiteko erabiltzen dutena, edo, gutxienean, aurkarien elkarrekiko suntsiketarekin. Otto Ullrich-ek esan bezala, «zalantzarik gabe, gerra-makinaren suntsitze-ahalmena areagotzea izan da teknologia zientifikoaren lorpenik handiena».³⁵¹ Bide beretik, laborantzaren erabilera arrazional kapitalistak, Marxek ekoizle txikiaren laborantza-metodo irrazional ustezkoarekin konparatu zuenak,³⁵² elikagaien ugartasuna, dibertsitatea eta nutrizio-balioa deuseztatu ditu, eta elikagai horietako asko baztertu egin beharko dira gizarte batean non produkzioa gizakien zerbitzura egongo den, ez gizakia produkzioaren zerbitzura.

Bada beste kontu bat, gizarte komunista baten osaerari begira Marxek teknologiari esleitzen dion funtzioa zalantzan jartzera garamatzana, batez ere ideia hori ikuspuntu feminista batetik aztertzen badugu. Makinak oinarri dituen komunismoa gizakiek planeta honetan egiten dituzten jarduera oinarritzkoenak alde batera uzten dituen lan-antolamendu batean bermatzen da. Lehen esan dudan bezala, Marxek gainetik baino aztertzen ez duen lan erreproduktiboa, neurri handi batean, mekanizatu ezin den lana da. Beste era batera esanda, Marxek irudikatzen duen gizarte hori, non lan ezinbestekoa drastikoki murriztu daitekeen automatizazioaren bidez, ez dator bat lurrean egiten den lanaren zatirik handienarekin, lan horrek zerikusi handia daukalako harremanekin eta ezin delako erraz mekanizatu. Idealki, gizarte

351 Ullrich, «Technology», 227.

352 Karl Marx, *Capital*, III. lib., ed. Friedrich Engels eta itz. Ben Fowkes (Londres: Penguin, 1991), 948.or. -949.or.

postkapitalista batean etxeko lan asko mekanizatuak egongo lirakeke, eta, zalantzarik gabe, beste komunikazio-molde batzuk izango genituzke laguntasuna inguratzeko, ikasteko eta informazioa jasotzeko; helburu horiei dagokienez, kontrolatua izango genuke zer teknologia ekoizten den, zertarako eta zer baldintzatan. Baina nola mekaniza dezakegu ume baten garbitasuna, ume bati eman beharreko maitasuna eta kontsolamendua, nola mekaniza dezakegu ume bat janzteia eta elikatzea, nola mekanizatu sexu-zerbitzuen eskaintza, gaixorik daudenen zaintza edo beren burua jagoteko gai ez diren zaharrena? Zer makinak izan ditzake zeregin horietarako ezinbestekoak diren gaitasuna eta afektua? Ahaleginak egin dira robot zaintzaile [nursebot]³⁵³ eta maitasun-robot [lovebot] interaktiboak sortzeko, eta baliteke etorkizunean ama mekanikoak ere sortzea. Dena den, demagun badaukagula makina horietarako dirua; zer kostu emozional izango luke makina horiek etxean sartzeak, aurretik izaki bizidunek egiten zuten lan bat makina horiek egiteak? Eta lan erreproduktiboaren zati bat bakarrik bada mekanizagarria, orduan bertan behera erortzen da egitasmo marxista hura, non aberastasun materialaren hedapena automatizazioaren eta lan ezinbestekoaren murrizketaren mendekoa den; izan ere, etxeko lana da, haurren zaintza batez ere, planeta honetako lanaren zatirik handiena osatzen duena. Beraz, lan sozialki ezinbestekoaren kontzeptuak irmotasuna galtzen du. Nola definitu behar dugu lan sozialki ezinbestekoa, baldin eta planeta honetako lan-sektore zabal eta nahitaezkoena ez bada horren partetzat jotzen? Eta zer irizpide eta printzipioren arabera arautuko dira zaintza-lanaren, sexu-lanaren eta ugalketaren antolamendua, baldin eta jarduera horiek ez badira jotzen lan sozialki ezinbestekotzat?

Mekanizazioaren bidez etxeko lanen zati handi bat murrizteko aukerarekiko eszeptizismoa gero eta handiagoa denez, azkenaldian ugalketarako eta sorkuntzarako erreproduktzio-molde kolektiboagoekin eta erreproduktzio-komunen sorrerarekin esperimentatzeko interesa berpiztu da feministen artean;³⁵⁴

353 Nancy Folbre, «Nursebots to the Rescue? Immigration, Automation, and Care», *Globalizations* 3, 3. zk. (2006ko iraila), 356.

354 Gai honi buruz gehiago jakiteko, ikus Silvia Federici, «Feminism and the Politics of the Commons in an Era of Primitive Accumulation», in *Revolution at Point Zero* (San Francisco: PM Press, 2012), 138.or. -148.or.

horretan dihardutenek proposatzen dute erreprodukzio-lana familia nuklearrean baino pertsona gehiagoren artean banatzea. Horren adibide da «Etxeko Iraultza Handia», martxan dagoen ikerketa-proiektu bizia; Dolores Haydenen lanean inspiratuta dago, eta Utrecht-eko (Herbehereak) zenbait artista, diseinatzaile eta ekintzaile feministak abiatu zuten, aztertzeko nola etxe ingurua, bai eta auzoak eta hiriak ere, transformatu egin daitezkeen eta «komunean bizitzeko eta lan egiteko molde berriak» eraiki daitezkeen. Horrekin batera, eta krisi ekonomikoaren presiopean, ugaritzen ari dira gure komuna naturalak (lurrak, urak, basoak) babestea helburu duten borrokak eta komunak eratzen dituzten jarduerak (erosketak eta sukalde-lanak elkarrekin egitea, hiri-ortuak). Esanguratsua da nola «kolonizazioa eta teknologiararen transferentzia gorabehera, gure planetaren eguneroko beharrianen zatirik handiena diru bidezko harremanetatik kanpo dauden Hirugarren Munduko emakumezko laborarien eskutik» iristen zaigun, zeinak tresna teknologiko oso gutxiarekin lan egiten duten eta maiz erabili gabeko lur publikoetan diharduten nekazaritzan.³⁵⁵ Austeritate-programa genoziden garai honetan, emakume laborari horiek egiten duten lanak heriotzaren eta bizitzaren arteko aldea esan nahi du milioika pertsonarentzat.³⁵⁶ Halere, Marxen aburuz, hori bera zen desagerarazi beharrekoa, iraupenera zuzendutako lan-mota hori; izan ere, arrazionalizazioan oinarritutako nekazaritza –hau da, eskala handian eta oinarri zientifikoak aintzat hartuz antolatua– «produkzio-molde kapitalistaren dohain handienetako bat» da, eta

355 Salleh, *Ecofeminism as Politics*, 79; Federici, «Feminism and the Politics of the Commons», 138.or. -148.or.

356 Nazio Batuen Biztanleriaren Funttsaren arabera, 2001ean «200 milioi hiritar inguru» elikagaiak hazten ari ziren, eta hiritar horiek «mila milioi pertsona ingururen elikagai-beharen parte bat asetzen zuten». Nazio Batuen Biztanleriaren Funttsa, *State of the World Population 2001* (New York: Nazio Batuak, 2001). Worldwatch Institute erakundearen 2011ko «Farming the Cities Feeding an Urban Future» [Hiriak laboratuz, etorkizun hiritar bat elikatuz] txostenak iraupen-nekazaritzaren garrantzia egiaztatzen du, eta hala dio prentsa-adierazpen batean: «Mundu osoko 800 milioi pertsona inguruk hiri-ortugintzan dihardu, eta pertsona horiek produkzio totalaren %15-20 produzitzen dute». Azpimarratu behar da kopuru horiek ez dutela kontuan hartzen landa-eremuetako iraupen-nekazaritza. Worldwatch Institute. «State of the World 2011: Innovations that Nourish the Planet» (prentsa-adierazpena, 2011ko ekainaren 16a). [<http://blogsworldwatch.org/> <http://blogsworldwatch.org/jnourishingthepAnet/wp-content/uploads/2011/06/Urban-agriculture-chapter-10-press-release-june-2011-nourishing-the-planet.pdf>]

hori lortzeko ezinbestekoa da ekoizle zuzenak desjabetzea, bere ustez.³⁵⁷

Kapitalismoaren aurrerabidearen mitoaren inguruan

Industrializazioak gizakia lanetik eta gabezietatik askatzeko daukan ahalmenari buruzko teoria zuzena bada ere, badira hainbat arrazoi kapitalismoaren beharrianari eta aurrerabideari buruzko uste batzuk baztertzeko. Lehenik eta behin, teoria horrek ez du kontuan hartzen gizarte ez-kapitalistek produzitutako ezagutza eta aberastasuna, ez eta kapitalismoak zer neurritan eraiki duen bere boterea ezagutza eta aberastasun horiek desjabetuz. Ezinbestekoa da gogoeta hori egitea; bestela, ezagutzaren aurrerabide kapitalistaren liluramenduaren atzaparretan erori, eta kapitalismotik irteteko nahian aurrera egin ezinik geratzeko arriskua daukagu. Ikuspegi politiko batetik, guretzat oso garrantzitsua da gogoratzea kapitalismoak deuseztatutako gizarteek ezagutza- eta teknologia-maila oso handia erdietsi zutela orain dela milaka urte, mekanizazioaren etorrera baino lehen: ur-eremu zabal ikaragarriak zeharkatuz, itsasoan nabigatzen ikasi zuten; gaueko behaketen bidez, konstelazio astral nagusiak aurkitu zituzten; laboreak aurkitu zituzten, planetan giza bizitzari eutsi diotenak.³⁵⁸ Ikusi besterik ez dago Ameriketako herri indigenek garatutako dibertsitatea hazietan eta landareetan; indigena horiek orain artean gainditu ez den antzea lortu zuten nekazaritzaren alorreko teknologian: Erdialdeko Amerikan bakarrik, artoaren eta tomatearen berrehun aldaera baino gehiago garatu zituzten. Alde ederra, kontuan hartzen badugu nola suntsitzen duen dibertsitatea orain nekazaritza kapitalista zientifikoki antolatuak.³⁵⁹

Kapitalismoak ez zituen asmatu ez gizarte-lankidetzaz ez eskala handiko harremanak³⁶⁰. Alderantziz, kapitalismoaren etorrerak suntsitu egin zituen jabetza-harreman komunalen

357 Marx, *Capital*, III. lib., 754.or. -755.or.

358 Clifford D. Conner, *A People's History of Science: Miners, Midwives, and «Low Mechanics»* (New York: Nation Books, 2005).

359 Jack Weatherford, *How the Indians of the Americas transformed the World* (New York: Fawcette Columbine, 1988).

360 Jatorrizkoan, «large-scale intercourse» darabil (letra etzana itzultzaileak erantsia da), eta azaltzen du: «Marxek hitz hori erabiltzen zuen merkataritza- eta kultura-trukeei erreferentzia egiteko». [I.O.]

eta lan-molde kooperatiboen bidez saretuta zeuden gizarteak, bai eta merkataritza-sare zabalak ere. Kolonizazioaren aurretik, kooperazio-maila handiko lan-sistemak ziren ohikoenak, hasi Indiako Ozeanotik eta Andeetaraino. Boliviako eta Peruko *ayllu* sistema ekar dezakegu gogora, edo XXI. menderaino iritsi diren Afrikako herri-lurren sistemak, guztiak ere Marxek irudikatutako «landa-eremuko bizitza bakartua» zalantzan jartzen dutenak.³⁶¹ Europan ere, kapitalismoak komunez osatutako gizarte bat suntsitu zuen, zeinaren erro materialak ziren ez bakarrik lurraren erabilera kolektiboa eta lan-harreman kolektiboak, baita botere feudalaren aurkako eguneroko borroka ere, bizitza-molde kooperatibo berriak eragiten zituen; adibidez, *Caliban and the Witch* [Caliban eta sorgina] liburuan aztertu ditudan mugimendu heretikoek (kataroek, waldensiarrek) abiatu zituzten modukoak.³⁶² Ez halabeharrez, kapitalismoak indarkeria eta suntsiketa ankerrenak erabili behar izan zituen beste ereduaren aurrean gailentzeko. Testuinguru horretan ulertu behar da bi mendetan zehar egindako sorgin-ehiza, milaka emakumeren hilketa ekarri zuena eta XVI. mendean nekazariak gidatutako gerren bidez gauzatu zen erresistentzia hautsi zuena. Kapitalismoak ez zuen aurrerabidea ekarri, ezta hurrik eman ere; kapitalismoaren garapena kontrairaultza bat izan zen, azpikoz gora ipini baitzuen borroken bidez eratzen hasitako komunalismo-molde berrien sorrera, bai eta feudoetan lehenagotik zeuden komunalismoak ere, komunen erabilera partekatuan oinarritzen zirenak. Horrezaz gainera, eskala handiko industriaren garapena baino askoz gehiago behar da Marxek *Kapitalaren* I. liburukiaren amaieran irudikatutako ekoizle askeen konbinazio eta elkarte iraultzailea eratzeko.⁶⁴ Kapitalak eta eskala handiko industriak areagotu egin ditzakete «produkzio-bideen kontzentrazioa» eta lan-banaketaren ondorio den lan-prozesuko lankidetzak,³⁶³ baina prozesu iraultzaile baterako behar den lankidetzak eta Marxek (zientziarekin eta teknologiarekin batera) «produkzio-molde kapitalistaren forma funtsezkotzat» daukan faktore teknikoak ez dira berdinak nola-

361 Jatorrizkoan, «*isolation of rural life*». Jatorrizko testuko itzulpenari buruz gehiago jakiteko, ikus Hal Draper, *The Adventures of the Communist Manifesto* (Berkeley: Center for Socialist History, 1998), 28. paragrafoa.

362 Silvia Federici, *Caliban and the Witch: Women, Body and Primitive Accumulation* (New York: Autonomedia, 2004).

363 *Ibid.*, 927.

kotasunari dagokionean.³⁶⁴ Are gehiago, zalantzan jar dezakegu lankidetzaz hitz egin ote dezakegun langileek berek kontrolatzen ez dituzten lan-harremanez ari garenean –hau da, erabakitze-ekintza independenterik sortzen ez duten lan-harremanak–, ez bada erresistentzia-unean, lan-prozesuaren antolamendu kapitalista hankaz gora jartzen denean. Ezin dugu ahaztu, gainera, Marxek lan-antolamendu kapitalistaren ikurtzat daukan eta hainbeste miresten duen lankidetzlangileen gaitasunen deuseztapenari eta langileek beren borroketa erakutsitako lankidetzari esker etorri dela historian zehar.³⁶⁵

Bigarrenik, onartzen badugu garapen kapitalista nahitaezkoa izan dela –ez esatearren beharrezkoa edo desiragarria historiaren edozein unetan, iraganekoan zein gaur egungoan–, jendeak garapen kapitalista horri aurre egiteko egindako borrokez bestaldean kokatzen dugu gure burua. Baina, esan ote dezakegu heretikoak, anabaptistak,³⁶⁶ hondeatzaileak,³⁶⁷ ihesean zebiltzan esklabo beltzak eta beren herri-lurren hesitzeari aurre egin zieten errebolta guztiak, edo berdintasunean oinarritutako gizarte-ordena bat eraikitzeko borrokatu zirenak –idatziz beren banderetan, Thomas Müntzer-ek bezala, *Omnia sunt communia* [Gauza guztiak komunak dira]–, esan ote dezakegu horiek guztiak historiaren alde okerrean zeudela giza askapenaren ikuspuntutik begiratuta? Ez da alferreko galdera. Izan ere, harreman kapitalisten hedapena ez da iraganeko kontua, baizik eta aribidean dagoen prozesu bat, oraindik ere odola eta garra eskatzen dituen eta oraindik ere erresistentzia handia eragiten

364 *Ibid.*, 454.

365 Gai honi buruz gehiago jakiteko, ikus *Capital*, I. lib. 563.or. -568.or. «Makinak eta eskala handiko industria» kapituluko V. zatian, «Langilearen eta makinaren arteko borroka» izenekoan, Marxek dio: «Lanabesak langilea eraisten du». Kapitalistek ez dituzte erabiltzen makinak beren buruak lanaren mendekotasunetik libratzeko bakarrik, makinek «grebak desagerrarazteko metodorik ahaltsuena» osatzen baitute. «Posible da 1830az geroztiko asmakizunen historia idaztea, kapitalari langile-klasearen matxinaden aurkako armak emateko egin zirenak bakarrik kontuan hartuta». (*Ibid.*, 562.or. -563.or.)

366 Anabaptistak XVI. mendearen erdialdean Alemanian Thomas Müntzer-en inguruan sortutako talde kristau bateko kideak dira. Garai hartako jauntxo eta nobleen aurkako Nekazarien Gerra piztu eta bultzatu zuten. Ebanjelioaren irakurketa estua egiten dute, eta kristau helduek berriro bataiatu behar dutela uste dute. [Iturria: Wikipedia]. [I.O.].

367 Hondeatzaileak XVII. mendearen erdialdean Ingalaterran sortutako talde protestante erradikal bateko kideak dira. Herri-lurrak lantzen saiatzeagatik jarri zieten «hondeatzaileak» izena (ingelesez, *diggers*). Askotan, anarkismo modernoaren aitzindaritzat jotzen dira. [Iturria: Wikipedia]. [I.O.].

duena; eta erresistentzia horrek galga jartzen dio, ezbairik gabe, lurreko produkzio-molde guztiak subsumitu nahi dituen eta sol-datapeko lana zabaldu gura duen kapitalismoari.

Hirugarrenik, kapitalismoa beharrezkoa eta progresiboa dela aldarrikatuko bagenu, kapitulu honetan behin eta berriro azaldu dudana kontu bat gutxietsiko genuke: garapen kapitalistak ez du esan nahi, ez behintzat nagusiki, giza gaitasunen garapena, ez eta guztien gainetik gizarte-lankidetzarako gaitasunarena ere, Marxek hori aurrean zuen arren. Alta, garapen kapitalista berdintasunean oinarritzen ez diren botere-harreman, hierarkia eta bereizketen garapena ere bada, eta horiek, aldi berean, indar sozial suntsitzaile bat eratzen duten ideologia, interes eta subjektibitateak eragiten dituzte. Ez halabeharrez, oraindino geratzen diren baliabide komunal eta publikoak pribatizatzeko grina neoliberal kontzertatuaren aurrean, komunitate kohesiboenak izan dira –eta ez industrializatuenak– pribatizazioaren olatuari aurka egiteko, eta batzuetan baita hura iraultzeko ere, gai izan direnak. Indigenen borrokek erakutsi duten moduan –esate batera, kitxuen eta aimaren borroka Bolivian uraren pribatizazioaren aurka,³⁶⁸ edo U'wa komunitateko indigenen borroka petrolioaren ustiapenerako egindako zulatze-lanek beren lurretan eragindako suntsiketaren aurka (adibide gehiago ere badira)–, kontua ez da non den garapen kapitalista beste inon baino handiagoa, baizik eta non diren komuna osatzen duten pertsonen arteko loturak estuagoak, horietan lortzen baita kapitalismoaren hedapena geraraztea edo kapitalismoak atzera egitea. Garapen kapitalistak sustatutako mundu-mailako iraultza baten ikuspegia atzean geratzen ari den heinean, politika arrazista eta sexisten bidez eta askotariko itxituren bidez suntsitutako komunitateak lehengoratzeari ez da baldintza objektibo bat bakarrik, gizarte-aldaketarako aurrebaldintza bat da.

Komunismotik komunetara: ikuspegi feminista bat

Gaur egun, hauek izan behar dute, nire ustez, feminismoaren zein justizia sozialaren aldeko beste mugimendu batzuen lehentasun politikoak: kapitalismoak arrazan, generoan

368 Raquel Gutiérrez Aguilar, *Los Ritmos del Pachakuti: Levantamiento y Movilización en Bolivia* (2000-2005) (Miguel Hidalgo, Mexiko: Sisifo Ediciones, 2009).

eta adinean oinarriturik egin duen bereizketari kontra egitea; kapitalismoak gure bizitzetan bereizitakoak berriz elkar lotzea; eta, azkenik, interes kolektibo bat berreraikitzea. Hori da, azken finen, komunen politikarekin jokoan dagoena. Kasurik onenean, horrek esan nahi du aberastasuna partekatzea, erabakiak taldean hartzea eta gure buruekiko eta besteekiko harremanak iraultzea. Izan ere, gizarte-lankidetzeta eta ezagutzaren eraikuntza, Marxek industria-lanarekin lotzen zituenak, komunen sorrera sustatzen duten jardueren bidez bakarrik erdiets daitezke: hiri-ortuak, denboraren bankuak, kode irekiak; jarduera autogestionatuak dira, eta, aldi berean, komunitatea sortzen dute. Alde horretatik, komunen politikaren helburua da elkarrekiko loturak estutzea eta kapital-metaketa mugatzea, horren bidez gure bizitzak erreproduzitzen saiatzeko;³⁶⁹ hori horrela izanik, Marxek komunismoarekiko zeukan ideiak gauzen egungo egoeraren abolizioa esan gura du komun en politikarentzat. Argudia liteke, baita, online-ko komun en garapenarekin –software librearen goraldia, kultura-mugimendu libreena– giza gaitasunen unibertsalizazioa gerturatzen ari garela, Marxen aburuz indar produktiboen garapenaren emaitza izango zena. Baina komun en politika erabat aldentzen da tradizio marxistan eta Marxen obraren zati handi batean komunismoak izan duen esanahitik, *Manifestu Komunistan* jasotakotik hasita. Alta, funtsezkoak diren desberdintasun ugari daude komun en politikaren eta komunismoaren artean, batez ere agerira ateratzen direnak batzuk eta besteak ikuspegi feminista eta ekologista batetik aztertzen ditugunean.

Zenbait idazle feministak argudiatu bezala –Vandana Shiva, Maria Mies, Ariel Salleh–, eta emakumeen antolakunde oinarri-oinarrikoek praktikara eraman duten gisan, komunek aurrera egiteko ez da beharrezkoa indar produktiboak garatzea eta produkzioa mekanizatzea, ez harreman kapitalisten beste ezein hedapen global gertatzea ere, guztiak ere Marxen proiektu komunistarako aurrebaldintzak zirenak. Alderantziz, komunek aurre egiten diete garapen kapitalistaren mehatxuei, eta balio handiagoa ematen diete tokian tokiko ezagutzei eta teknologiei.³⁷⁰ Ez dute onartzen ezinbestean lotura bat egon behar denik

369 Massimo de Angelis, *The Beginning of History: Value Struggles and Global Capital* (Londres: Pluto Press, 2007).

370 Maria Mies eta Vandana Shiva, *Ecofeminism* (Londres: Zed Books, 1986); *The Ecologist*,

garapen zientifiko-teknologikoaren eta garapen moral edo intelektualaren artean, eta hori premisa nabarmen bat da Marxek gizarte-aberastasunarekiko daukan ikusmoldean. Halaber, erreprodukzioaren berregituratzea beren proiektu politikoa-
ren erdigunean jartzen dute, eta ezinbestekotzat jotzen dute gizarte-harremanak eraldatzeko. Beste ezeren gainetik, eredu kapitalistan etxeko lanen ezaugarri nagusi den bakartasuna hautsi nahi dute, ez industria eskalaren barruan berrantolatze-
ko, baizik eta zaintza-lana egiteko molde kooperatiboagoen sorrera bultzatzeko.

Komunak pluralean deklinatzen dira, Zapatistek bultzatu-
tako espiritua gogoan eta «Ezezko bat, baiezko ugari» lelopean; izendapenean, aintzat hartzen dira, baita, askotariko ibilbide historiko eta kulturalak eta esplotazioaren abolizioarekin ba-
teragarriak diren hainbat emaitza sozial. Onartuta badago ere ideien eta ezagutza teknologikoaren zirkulazioa indar historiko positibo bat izan daitekeela, ezagutzen, erakundeen eta portae-
ra-moldeen unibertsalizazioak indar horren kontra egiten du gero eta gehiago, ez bakarrik legatu koloniala den aldetik, baita bizitzen eta tokian tokiko kulturen suntsipenaren bidez bakarrik lor daitekeen proiektu bat den aldetik ere. Orogen gainetik, ko-
munek ez dute estatuaren beharrik komunak izateko. Zirkulu erradikalean estatua oraindik trantsiziorako tresna baliagarri gisa ikusten bada ere, ustez ezinbestekoa interes kapitalistak desagerrarazteko eta eskala handiko plangintza bat eskatzen duten komunitate-elementuak administratzeko (ura, elektrizita-
tea, garraio-zerbitzuak, eta abar), estatuaren egitura krisian dago gaur egun, eta ez soilik zirkulu feministetan eta beste zir-
kulu erradikal batzuetan. Izan ere, komunen ospeak harreman zuzena dauka estatu-formaren krisiarekin, sozialismo erre-
lizatuaren porrotak eta kapitalaren internazionalizazioak oso modu nabarmenean erakutsi duten krisiarekin. John Holloway-k *Change the World without Taking Power* liburuan indar handiz adierazi bezala, baldin eta pentsatzen badugu estatua mundu justuago bat sortzeko erabil dezakegula, existentzia autonomo bat onartzen diogu estatuari, bere gizarte-harremanen saretik apartekoa, kapital-metaketaekin estu lotzen duen eta gatazka

Whose Common Future? Reclaiming the Commons (Philadelphia: Earthscan, 1993).

soziala eta bazterketa-mekanismoak erreproduzitzera behar-tzen duen gizarte-harremanen saretik aldendua. Era berean, ahazten dugu «estatuaren arteko mugak» ez direla sekula muga bat izan «gizarte-harreman kapitalistentzat», harreman horiek mundu-mailakoak direlako.³⁷¹ Are gehiago, generoan eta arrazan oinarritutako hierarkien bidez bereizitako mundu-proletariatza batekin, estatu-forman gauzatutako «proletariatzen diktadura» batek langile-klasearen gizonezko/zuri sektorearen diktadura bihurtzeko arriskua izango luke. Izan ere, gizarte-botere handie-na daukaten haiek jada eskuratuak dituzten pribilegioei eusteko erabil lezakete iraultza-prozesua.

Itxaropen traizionatuz eta boto-paperez jositako hainbat hamarkadaren ondoren, orain desira handi bat dago herrialde guztietan, batez ere gazte-jendeen artean, gure bizitza eraldatzeko ahalmena aldarrikatzeko, estatu proletario batean goragoko erakunde baten esku –gure ordezkari izateko jardunean gure tokia hartuko lukeena– utziko genituzkeen ezagutza eta eran-tzuzkizuna aldarrikatzeko. Zorigaiztoko norabide-aldaketa bat izango litzateke. Izan ere, mundu berri bat sortu beharrean, galdu egingo genuke gizarte berri bat eratzeke nahitaezkoa den autoerldatze-prozesua, eta berreraiki egingo genituzke injusti-zia instituzionaleko kasurik krudelenaren aurrean ere geldirik egotera garamatzaten baldintzak. Komunuen alderik erakargarrie-netako bat da «gizarte berri baten forma enbrionarioa» osatzen dutela, lurretik –eta ez estatutik– datorren botere bat adierazten duena eta lankidetzan eta erabakiak hartzeko molde kolekti-boetan oinarritzen dena, ez hertsapenean.³⁷² Alde horretatik, komunuen espiritua bat dator Audrey Lorde-n ideiarekin, esaten baitu «nagusiaren erremintek ez dute sekula nagusiaren etxea eraitsiko»;³⁷³ uste dut bizirik egonez gero Marx ere bat etorriko litzatekeela horretan. Zeren eta antolamendu kapitalistaren se-xismoak eta arrazakeriak eragindako triskantzei denbora gutxi eman arren eta proletarioen subjektibotasunaren eraldaketa-ri arreta txikia eskaini bazion ere, Marxek ulertu zuen iraultza

371 John Holloway, *Change the World without Taking Power: The Meaning of Revolution Today* (Londres: Pluto Press, 2002), 14, 95.

372 John Holloway, *Crack Capitalism* (Londres: Pluto Press, 2010), 29.

373 Audre Lorde, «The Master's Tools Will Never Dismantle the Master's House», in *The Bridge That Is My Back: Writings by Radical Women of Color*, ed. Cherríe Moraga eta Gloria Anzaldúa, 98.or. -101.or. (New York: Kitchen Table, 1983).

bat behar dugula, ez bakarrik kanpotik ezarritako mugez askatzeko, baita barneratutako ideologia eta harreman kapitalistez askatzeko ere –«urteetako kraka hori guztia», berak esan bezala–, «gizartea berriz eraikitzeke gai» izan gaitezen.³⁷⁴

374 Marx eta Engels, *The German Ideology*, 95.

ZORTZI

KRISIALDITIK KOMUNETARA: LAN ERREPRODUKTIBOA, LAN AFEKTIBOA ETA TEKNOLOGIA, ETA EGUNEROKO BIZITZAREN TRANSFORMAZIOA

Sarrera

Eguneroko bizitza gizarte-aldaketarako eremu nagusia da, eta, horren barruan, ortodoxia instituzional eta politikoaren kritika aurki dezakegu, historia luzea duena. *Ideologia alemana* (1847) lanean, dagoeneko, Marxek gure existentziaren kondizio materialen ikerketa eta neohegeldarren espekulazioak alderatu zituen. Mende bat geroago, Henry Lefebvre soziologo frantsesak eta situazionistek «eguneroko bizitza»ra jo zuten garai hartako marxismo frantses burokratikoaren antidoto gisa. Sasoi hartan, ezkerak fabriketako borroketan jarri zituen indar guztiak, uste baitzuen hura zela gizarte-aldaketa eragingo zuen motorra; Lefebvreren iritziz, oster, teoria sozialak «langile oso»aren bizitza hartu behar zuen kontuan,³⁷⁵ eta, hori gogoan, ikerketa bati ekin zion: jakin nahi zuen nola eratzen den «egunerokotasuna», eta zergatik filosofoek hura etengabe debaluatu duten. Prozesu hartan, erradikalen belaunaldi berri bati aurrea hartu eta inspiratu egin zituen; lehenik eta behin, situazionistak. Izan ere, «kontsumismo»ari eta alienazio teknologikoari buruz esan zituen hitzek, halaber gizarte kapitalista bateko lanaren gainean egin zuen kritikak, bidea ireki zion Ezker Berriaren literaturaren zati handi bati.

Lefebvre gizartearen irakurketa integrala egiteko ahaleginean ari bazen ere, mugimendu feministaren goraldiak bihurtu zuen giltzarri «eguneroko bizitza»ren kritika. Emakumeak lan

375 Henri Lefebvre, *The Critique of Everyday Life*, 1. bol., itz. John Moore (Londres: Verso, 1991 [1947]), 87.or. -88.or.

erreproduktiboetara mugatu behar izatearen kontra eta lanaren banaketa sexualaren bidez eraikitako hierarkien aurka altxatzean, emakumeen mugimenduak oinarri material bat ezarri zion eguneroko bizitzaren kritikari, eta «sakoneko egitura» –«arche» [arka edo ontzia]– azaleratu zuen; hartara, eguneroko ekintza eta gertaera ugariak nabarmendu eta uztartu zituen; hain justu, Lefebvrek, saiatu arren, egiazki sekula ulertu ez zuena.³⁷⁶ Ikuspegi feminista batetik, oinarri material horrek ahalbidetu zuen onartzea «eguneroko bizitza» ez dela ordena baten bila ari diren gertaeren, jarreraren eta esperientzien konplexu generiko bat. Errealitate egituratu bat da, produkzio-prozesu zehatz baten inguruan antolatua, hau da, gizakien produkzioa, zeina, Marxek eta Engels-ek esan bezala, «lehen ekintza historikoa» baita, «historia guztiaren nahitaezko baldintza».³⁷⁷ Aurkikuntza horren ondoren, iraultza teoriko eta praktikoa etorri da, lanaz, politikaz, «feminitate»az eta gizarte-zientzien metodologiak dugun ikuskera eraldatu duena, eta bidea eman diguna ikuspegi psikologiko tradizionala gaingintzeko, zeinak esperientziak indibidualizatu eta arlo mentala arlo sozialetik bereizten baitu.

Iraultza feministaren erdigunean, baieztapen hau onartu da: ezin dugu aztertu bizitza soziala subjektu abstraktu, unibertsal eta sexugabe baten ikuspuntutik; izan ere, kapitalismoaren barruko bereizketa sozialaren ezaugarri nagusi diren arrazagatiko eta sexuagatiko hierarkiek –bereziki, soldatapekoen eta soldatagabeen arteko bereizketek– eragiten dituzte, botere-harreman desberdinez gain, munduarekiko esperientzia eta ikuspegi kualitatiboki desberdinak. Bigarrenik, nahiz eta esperientzia guztiak eraikuntza sozialaren mende egon, bereziki esanguratsua da ikustea gizarte kapitalistan eguneroko bizitzaren erreprodukzioa lan-indarraren erreprodukzioak subsumitu duela, eta ordainik gabeko lan gisa eta «emakumeen lan» gisa eraiki dela.³⁷⁸ Soldatarik izan ez dutenez, etxeko lanak halako

376 Henri Lefebvre-k hau idatzi zuen: «Eguneroko bizitzak, hizkuntzak bezala, ageriko formak eta egitura sakonak dauzka, bere ekintzetan atxikita daudenak, baina haietan eta haien bidez ezkutaturik»; *The Critique of Everyday Life*, 3. bol., itz. Gregory Elliott (Londres: Verso, 2005[1981]), 2.

377 Karl Marx eta Friedrich Engels, *The German Ideology*, 1. zatia, arg. C.J. Arthur (New York: International Publishers, 1970), 48.or. -49.or.

378 Etxeko lanak lan-indarra ekoizteko jarduera gisa aztertu zituen lehen dokumentu feminista: Mariarosa Dalla Costa, «Women and the Subversion of the Community»,

neurriz naturalizatu dira ezen zaila izan dela emakumeentzat haren aurka borrokatzea erruduntasun-sentimendu izugarri bat izan gabe eta abusuekiko zaurgarritasuna garatu gabe. Izan ere, baldin eta naturala bada emakumeentzat ama eta etxekoandre izatea, rol horiei uko egiten dietenak ez dira tratatzen langile gisa, baizik eta «emakume txar» gisa. Hirugarrenik, baldin eta etxeko lana lan-merkatuaren beharretara makurtzen bada, familia-, sexu- eta genero-harremanak «produkzio-harreman»ak izango dira, eta ez dugu harritu beharrik harreman horien kontraesanengatik eta harreman horien bidez gure nahiak betetzeko dugun ezintasunagatik. Horretaz ohartzea oso askatzailea izan da emakumeentzat, eta esan dezakegu horren bidez lortu duela eguneroko bizitzak «historian eta bizitza politikoan» leku bat egitea.³⁷⁹ Erakutsi du pertsonala politikoa izateaz gain³⁸⁰ eremu pribatuaren eta politikoaren arteko bereizketa amarru bat dela emakumeen lan ordainik gabea lausotzeko eta «maitasunagatik egiten den lan» gisa aurkezteko.³⁸¹

Feminismoak eguneroko bizitzaren inguruan egin duen kritika ez da izan bakarrik teorikoa, praktikoa eta politikoa ere izan da, eta gure bizitzaren alderdi guztiak aldarazi dituen demokratizazio-prozesu bat eragin du. Garrantzitsua da hori azpimarratzea. Feminismoaren kritika horri esker, ulertu ahal izan dugu familia barruko jipoi eta bortxaketak, tradizionalki etxeko lan gisa onartzen zirenak, emakumeen aurkako krimenak direla. Jada ez da onartzen senarrek eskubidea dutenik beren emazteen gorputzak kontrolatzeko, ezta haien gogoaz bestera sexu-harremanak izatera behartzeko ere. Herrialde askotan, mugimendu feministari esker dibortzioa legeztatu da eta abortatzeko eskubidea onartu da. Oro har, emakumeek eraldatu egin dute egunerokoan munduarekin duten interakzioa, eta beste era

in *The Power of Women and the Subversion of the Community*, arg. Selma James eta Mariarosa Dalla Costa (Bristol: Falling Wall Press, 1975).

379 Lefebvre, *The Critique of Everyday Life*, 2. bol., itz. John Moore (Londres: Verso, 2002 [1961]), 41.

380 Eslogan horren jatorriari buruz gehiago jakiteko, ikus Carol Hanisch, «The Personal Is Political: The Women's Liberation Classic with a New Explanatory Introduction», (2006 [1969]), 2018ko maiatzaren 31n eskuratu, <http://carolhanisch.org/CHwritings/PIP.html>.

381 Gai honi buruz gehiago jakiteko, ikus Federici, «Wages against Housework», in *Revolution at Point Zero: Housework, Reproduction and Feminist Struggle* (Oakland: PM Press, 2012), 15.or. -22.or.

bateko harreman bat eraiki dute hizkuntzarekin, ezagutzarekin, gizonekin eta beren desiren adierazpenarekin. Sexu-ekintzak berak ere oinarri berdinzaleagoa du orain; emakume asko ez-konbizitzan ohikoa den «sexu lasterra» ez onartzen hasi dira, eta sexuarekin esperimentatzearen eta sexu-harremanetan beren gorputzeko plazer-guneak kontuan hartzearen alde egiten dute. Eta, garrantzitsuena dena, mugimendu feministari esker, aurrerantzean emakumeek ez dute onartuko mendekotasunezko maila sozial bat, ezta ere gizonen bitartekaritzaren bidez gauzatu-tako harreman bat estatuarekin eta kapitalarekin.

Horrek guztiak iraultza sozial bat eragin du, eta aldaketa instituzional esanguratsuak bultzatu ditu; besteak beste, generoan oinarrituz bereizkeria eragiten duten praktika eta politika ugari gaitzestea. Beraz, Lefebvren problematikaren ikuspegia aintzat hartuta,³⁸² esan dezakegu mugimendu feministak eguneroko bizitza «berritu» duela eta berriz ere balioa eman diola, eta haren egituraren osagai izan diren instituzio garrantzitsuenetako batzuk kritikatu dituela. Halere, mugimendu feminista ez zen gai izan familiarekiko eta nik «soldataren patriarkatu» deitzen diodanarekiko kritika beste esplotazio-molde batzuetara zabal-tzeko, eta «askapena»ren ideia «eskubide-berdinasuna»rekin eta soldatapeko lanarekin berdindu zuen. Horrekin guztiarekin, gobernuak eta Nazio Batuek mugimendu feministaren aldarriak berenganatu zituzten; 1970eko hamarkadaren erdialderako, prest zeuden feminismoa onartu, beren beharretara egokitu eta, azkenik, munduko ekonomia berregituratzeko jardunean fun-tsezko elementu gisa erabiltzeko.

Beste inon ere azaldu izan dudana bezala,³⁸³ ziurrenik hiru arrazoi nagusi egon ziren Nazio Batuek politika feminis-ten eremuan eskua sartzeko eta, horrekin batera, nazioarteko botere-egituratik patriarkatua baztertzeko arduradun gisa bere burua izendatzeko. Lehenik eta behin, ohartu ziren ezinezkoa zela aurrerantzean ere emakumeen, kapitalaren eta estatuaren arteko harremana gizonezko langile soldatapekoen bitartekari-tzaren bidez antolatzen jarraitzea; emakumeen askapenerako

382 Lefebvre, *The Critique of Everyday Life*, 1. bol., 87.

383 Federici, «Andare a Pechino: come le nazioni unite hanno colonizzato il movimento femminista», in *Il punto zero della rivoluzione: lavoro domestico, riproduzione e lotta femminista* (Verona: Ombre Corte, 2014).

mugimenduak egoera harekiko erabateko errefusa adierazia zuen, orobat gizonengandik autonomo izateko nahia, eta jada ezinezkoa zen nahi hori erreprimitzen jarraitzea. Bigarrenik, nahitaezkoa zen potentzial iraultzaile izugarria zuen mugimendu hura otzantzea, erabat autonomoa (izana) baitzen, eguneroko bizitza goitik behera aldatzeko helburuari erabat emana, eta ordezkaritza politikoekiko mesfidatia. Garai hartan, bereziki premiazkoa zen mugimendu feminista menderatzea; izan ere, 1970eko hamarkadaren erdialdeko «lan-krisialdi» korapilatsu hari erantzuteko xedea zuen kontraeraso kapitalista global bat zegoen martxan, helburu zuena klase kapitalista berriz ere lan-diziplinaren buru izatea eta langileen esplotazioaren aurkako erresistentzia bultzatu zuten talde antolatuak desegitea. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu Emakumeen Hamarkadaren hasiera eta Mexiko Hiriko 1975eko Nazioarteko lehen Biltzarra, zeina mugarri bat izan baitzen mugimendu feministaren instituzionalizazioarentzat eta emakumeak munduko ekonomia globalizatuan integratzeko prozesuarentzat.

Jakina denez, hamarkada bateko tartean emakumeak saldoka batu ziren soldatapeko langileen multzora, baina, horrekin batera, itzali egin zen eguneroko bizitzaren inguruan piztutako iraultza feminista. Erreprodukzioa jada ez zen jotzen borroka feministarako eremu gisa. Denbora gutxian, mugimendu feminista desmobilizatu egin zen, eta ezin izan zion aurre egin gizarte-ongizateko programak desagertzeari, zeinak lanaren eta kapitalaren arteko kontratu sozialaren funtsezko parte bat izan baitziren Bigarren Mundu Gerratik aurrera. Nolanahi ere, arazo larriago bat ekarri zuen: aukera-berdintasunaren eta soldatapeko lanaren alde borrokatzean, mugimendu feministak lan-etika ahuldua berriz legitimatzeko aukera eman zuen; gainera, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, industria-sektoreko lantoki askotan beharginek lan egiteari utzi ziotenean, mugimendu feministak egoera horri aurre egiten lagundu zuen, modu oso nabarmenean. Prozesu hartan, zera ikasi genuen: ezinezkoa dugu gure eguneroko bizitza aldatzea, baldin eta ez baditugu aldatzen haren gertuko instituzioak eta haien egitura osatzen duen sistema politiko eta ekonomikoa. Osterantzean, «egunerokotasuna» eraldatzeko egiten ditugun borrokak erraz onar eta inorenganatu daitezke, eta aurka egiteko zailagoak diren harremanen arra-

zionalizazioa eragiteko oinarri gisa erabil daitezke. Egoera hori bizitzen ari gara gaur egun Estatu Batuetan, eta horrek «erproduktzio-krisi» izugarri bat eta behin eta berriro errepikatzen diren matxinadak eragiten ditu; hortaz, egoera horri erantzuteko, erproduktzio sozialerako molde kooperatiboagoak sortzeko aukera dugu. Hori, baina, etortzeko dago oraindik. Hurrengo lerroetan, komunen gizarte bat sortzeko behar diren kondizioak azalduko ditut. Halere, lehendabizi gaur egungo erproduktzio-krisiari begiratuko diot, batez ere AEBkoari, hura baita nik gehien eza-gutzen dudana eta aipatu ditudan bilakaerak hoberen erakusten dituen.

Eguneroko bizitzaren krisialdi iraunkorra

Feminista batzuen ustez, 1970eko hamarkadatik aurrera emakume estatubatuarren bizitzetan egon diren aldaketak aurrerapenaren seinale dira; nolanahi ere, alde askotatik begirata, bai emakumeak bai gizonak mugimendu feminista abiatu zenean baino askoz ere egoera ekonomiko eta gizarte-maila okerragoan daude. Harreman berdinizaleagoen ebidentzia bera ere aldakorra da. Lan-indarraren feminizazioaren ondorioz, emakumeak gizonetik autonomoagoak dira. Era berean, Nancy MacLean-ek esan bezala, gizonak nagusi diren lanpostuetan emakumeak ere sartu ahal izateko borrokari esker, «gure garaian kontzientziazio handiagoa dago genero-, arraza- eta klase-kategorien eraikuntza sozialari eta aldakortasunari dagokienez».³⁸⁴

Nolanahi ere, emakumeak soldatapeko lanpostuetan sartzen hasi zirenerako, ordainpeko lana jada galtzen hasia zen ordura arte ekarriak zituen abantaila eta bermeak, eta, beraz, lana antolatzekeo garaian ezinezkoa zen ordutegiaren inguruko aldaketak negoziatzea, etxetik kanpoko lana eta familien eta komunitateen zaintza kontziliatzeko. Lanpostu gutxi eskaintzen dute haurtzaindegi-zerbitzua edo etxeko lanekin bateragarria den ordutegi bat, nahiz eta azken horien ardura partekatua izan. Etxeko lanen komertzializazioari dagokionez –hau da, eros daitekeen zerbitzu gisa eskaintzea–, garapen hagitx goretzi horrek erakutsi du muga handiak dauzkala; hasteko, eskainitako zer-

384 Nancy MacLean, «The Hidden History of Affirmative Action: Working Women's Struggles in the 1970s and the Gender of Class», *Feminist Studies* 25, 1. zk. (1999ko udaberria): 68.

bitzuen kostu handia eta kalitate txikia. Esate batera, badakigu langile askok erabiltzen duten janari lasterra orain ume askori eragiten dien obesitatearen kausa nagusietako bat dela. Diru-sarrera egonkorra dutenek etxeko lanak egiteko zerbitzu bat kontrata dezakete, baina ordainpeko etxeko lanen gaur egungo kondizioak ez dira onak, eta, gainera, lan hori onartzen dutenak emakume migratuak dira, beren jatorrizko herrialdeetan egoera ekonomikoa oso larria delako jarduten dutenak horretan; beraz, etxeko lanak kontratatzearen kontu hori ere ez da aukera desiragarri bat.³⁸⁵

Horrez gain, hezkuntzan, osasun-laguntzan eta ospitaleko zaintzan egin diren murrizketek etxera itzularazi dute berriro etxeko lanen zati esanguratsu bat, batez ere haurren, adinekoen eta gaixotasunak zein ezintasunak dituzten pertsonen zaintzari dagokionez. Beraz, emakume gehienentzat, soldatapeko lanean hasita lortu behar omen zuten independentzia ekonomikoa ilusio bat besterik ez da izan, hainbestearino non beren karrera profesionalari lotuak zeudenak ere etxera itzuli baitira, eta etxeko lanei balio handiagoa ematen hasi baitira.³⁸⁶ Jada langileen erreprodukzioaz arduratzeko ahaleginik egiten ez duen lantoki batean –non, oraindik ere, ziurtzat jotzen baitute emazte bat dagoela etxean– borrokatu behar izateaz nekaturik, emakume askok, klase ertaineko familietakoek bederen, «amore eman» dute itxura batean, eta familiari «kalitate handiko» erreprodukzioa eskaintzeari ekin diote: ogia egin, barazkiak hazi, elikagai nutritiboak erosi, eskolak etxean eman seme-alabei, eta abar. Emily Matchar-ek dio, *Homeward Bound* (2013) liburuan, berriki berreskuratutako etxekotasunak arrazoi ekologikoak ere badi-tuela atzean, halaber elikagaiak nondik datozen jakiteko nahia, eta horrek berekin dakarrela alde batera uztea aurrez prestatutako jakiak eta janari industrialak oro har. Aukera horren alde egiten duten emakume askok DIY edo «egizu zeuk» mugimen- duekin ere bat egiten dute, eta, bizitzaren erdigunean etxea eta familia jartzen duten arren, ez daude beren amak beharbada

385 «Zaintzaren globalizazioari» buruz gehiago jakiteko, ikus Barbara Ehrenreich eta Arlie Russell Hochschild, *Global Woman: Nannies, Maids and Sex Workers in the New Economy* (New York: Henry Holt, 2002).

386 Emily Matchar, *Homeward Bound: Why Women Are Embracing the New Domesticity* (New York: Simon & Schuster, 2013).

egon izan ziren bezain bakartuak; batzuk blogari ere bihurtzen dira, informazioa zabaldu eta eskuratzeko. Baina horiek banako irtenbideak dira; ez dute balio emakume gehienek dauzkaten arazoei aurre egiteko, eta egiten duten bakarra da batzuen eta besteen arteko distantzia soziala handitu. Indibidualismo berri baten sorreraren adierazpena dira, «bizitza ona» erdietsi nahian dabilena, baina ez «guztien on»aren aldeko borroka sozialaren bidez.

Kontuan hartuz gero lan-karga bikoitza, laneko ordu luzeak, irabazten dituzten soldata txikiak eta oinarrizko erre-produkzio-zerbitzuen murrizketak, emakume gehienentzat eguneroko bizitza krisi iraunkor bat da. Estatu Batuetan, emakume proletarioek berrogeita hamar orduko lan-astea dute batez beste, hogeita hamabost ordu edo gehiago etxetik kanpora eta hiru ordu inguru etxean. Horri gehitzen badiogu garraiobi-deetan igarotzen duten denbora (gero eta luzeagoa) eta lanera joateko prestatzen ematen duten denbora, oso denbora gutxi geratzen zaie atseden hartzeko eta beste jarduera batzuetarako. Are gehiago, emakumeek egiten duten lanaren parte handi bat emozional/afektiboa da –besteak atsegintzea, eszitatzea, kontsolatzea, baretzea–, eta lan hori, batez ere merkatuarentzat egiten denean, oso akigarria da, eta, denborarekin, desptso-nalizaziora eta norberaren nahiak identifikatzeko ezintasunera eramán dezake.³⁸⁷ Horri guztiari atzeraldi ekonomikoa eta lanaren prekarizazioa gehitzen badizkiogu, uler dezakegu zergatik duten emakumeek gizonen baino bi aldiz aukera handiagoa depresio klinikoa eta antsietatea pairatzeko. Zenbakiak izugarriak dira. Emakumeak dira gaur egun Estatu Batuetan depresioa duten hamabost milioi helduetatik gehienak. Berrogei milioi inguruk antsietatea pairatzen dute egunero; bostetik batek depresioa izango du bizitzako uneren batean.³⁸⁸ Beste herrialde batzuetan ere, estatistikak antzekoak dira, eta zenbakiak gorantz doaz. Era

387 Arlie Russell Hochschild, *The Managed Heart: Commercialization of Human Feeling* (Berkeley: University of California Press, 1983).

388 Mayo Klinikako langileak, «Depression in Women: Understanding the Gender Gap», *Mayo Clinic*, 2018ko maiatzaren 29an eskuratua, www.mayoclinic.org/diseases/in-depth/depression/art-20047725; Pam Fessler, «Panel Charged with Eliminating Child Abuse», *National Public Radio*, 2014ko otsailaren 25a, 2018ko maiatzaren 29an eskuratua, www.npr.org/2014/02/25/282359501/panel-charged-with-eliminating-child-abuse-deaths.

berean, AEBko adierazleek erakusten dute emakumeen zoriontasun-maila jaitsi egin dela azken hamarkadan, orobat haien bizi-itxaropena, batez ere langile-klaseko emakumeen artean; beren amen belaunaldiarekin erkatuz gero, bizi-itxaropenaren bost urte galdu dituzte 1990-2008 bitartean.³⁸⁹

Eguneroko bizitzaren krisiak ez die eragiten emakumeei bakarrik. Gehiegizko lana, enpleguarekiko segurtasunik eza eta etorkizunari begirako planak egiteko ezintasuna arazo orokorrak dira, talde sozial eta adin guztiei eragiten dietenak. Bestalde, haustura bat dago herritarren arteko elkartasunean eta familia-harremanetan. Soldata egonkorrik ez dutenez, familiak hausten ari dira; era berean, desagiten ari dira 1960ko hamarkadan oraindik ere langile-klaseko komunitateen ezaugarri nagusi ziren antolaketa-moldeak, ezin dietelako aurre egin berregituratze ekonomikoari, gentrifikazioari eta mugigarritasun behartuari. Zalantzarik gabe, egoera honen arduradun nagusia munduko ekonomiaren berregituratze neoliberala da. Baina, Leopoldina Fortunati-k dioen bezala, *Telecomunicando in Europa* liburuaren sarrreran –Europar komunikazio-teknologiek eguneroko bizitzaren erreprodukzioan duten eragina aztertzen da liburu horretan–, askotariko subjektu sozialen ezintasunaren ondorioak ere ikusten ari gara, zeinek eguneroko bizitza beren interesen arabera egituratzen baitute, eta globalizazioaren ondorio suntsigarriei aurre egiteko bidea ematen dieten antolamendu-moldeak bilatzen baitituzte.³⁹⁰ Esate batera, gizonek uko egiten diote emakumeen

389 Ikus S. Jay Olshansky et al. «Differences in Life Expectancy Due to Race and Educational Differences Are Widening, and Many May Not Catch Up», *Health Affairs* 31, 8. zk. (2012ko abuztua): 1803.or. -13.or. Bestalde, *Health Affairs* 2013ko martxoko alean jakitera eman zutenaren arabera, aurreko hamarkadan bizi-itxaropenak atzera egin zuen AEBn, beste herrialde batzuekin alderatuz gero; beraz, bizi-itxaropenari dagokionez, AEB hogeita bat herrialde industrializatuak zerrendaren azken lekuan dago. Jaitsiera hori bereziki nabarmena da ikasketarik gabeko emakume zurien kasuan, zeinen bizi-itxaropena, batez beste, haien amena baino bost urte txikiagoa baita; David A. Kindig eta Erika R. Cheng, «Even as Mortality Fell in Most US Counties, Female Mortality Nonetheless Rose in 42.8 Percent of Counties from 1992 to 2006», *Health Affairs* 32, 3. zk. (2013ko martxoa): 45.or. -58.or. Emakumeen suizidio-tasak, batez ere adin ertainekoak, nabarmen igo dira azken urteetan. Halere, gizonezkoen suizidio-kopuruak emakumezkoenak baino handiagoak dira oraindik. Aipatutako kopuru horiek Gaixotasunak Kontrolatzeko Zentroak argitaratu ditu, ikus Tara Parker-Pope, «Suicide Rates Rise Sharply in U.S.» *New York Times*, 2013ko maiatzaren 2a, 2018ko maiatzaren 29an eskuratua, <https://www.nytimes.com/2013/05/03/health/suicide-rate-rises-sharply-in-us.html?mtrref=www.google.ca>.

390 Leopoldina Fortunati, arg., *Telecomunicando in Europa* (Milan: Franco Angeli, 1998).

autonomia onartzeari, emakumeen kontrako gizonen indarkeria gero eta handiagoak erakusten duen bezala, eta horrek lotura sozialak ahultzea ekarri du. Egoera horretan, eguneroko bizitzak, pertsonen arteko harremanetarako eremu nagusiak, hondoa jo du, halaberharrez; jende asko bizitzaren eremu horretatik ospa egiten ari da, kudeatzen gaitzegiak eta zailegiak diruditen pertsonen arteko harremanei eusteko gai ez direlako.³⁹¹ Horrek esan nahi du zaintza-lanari ez zaiola erantzunik ematen, ez familia-ko kideen aldetik ez lagunen aldetik, eta horrek ondorio larriak ditu, bereziki, haurren eta adinekoen kasuan. European, adibidez, gero eta ohikoagoa da adineko senideak etxetik kanpora eramatea, beste batzuek zaindu ditzaten, batez ere alzheimerria duten kasuetan.³⁹² Pertsonen arteko aurrez aurreko komunikazioa ere, gure erreproduktzioarako giltzarria dena, gainbehera doa, bai helduen artekoa bai helduen eta haurren artekoa; gero eta denbora gutxiago eskaintzen zaio jardun horri, eta gero eta hutsalagoa izaten da; orain, funtzio instrumentala besterik ez du, Internet, Facebook eta Twitter baliabideak hura ordeztzen ari direlako apurka.

Labur esanda, eguneroko bizitzarekin zerikusia duen arazo nabarmenetako bat «erreproduktzioaren krisia» da, gaur egun; hau da, horri eskainitako baliabideetan murrizketa zorrotzak egin dira, beste pertsona batzuk zaintzeko hartzen dugun lana ere asko jaitsi da, familiako kideetatik hasita, eta eguneroko bizitza are gehiago debalutu da, komunikazio-teknologia berrien laguntzarekin, nahiz eta horiek ez diren debaluzazioaren arrazoi nagusia. Kasu honetan ere, estatistikak adierazgarriak dira. Ikusi dugun bezala, bizi-itzaropena jaisten ari da, orobat bizi-kalitatea; orain, eguneroko bizipenen ezaugarri nagusiak alienazio-sentipena, antsietatea eta beldurra dira. Gaixotasun mentalak gero eta gehiago hedatzen ari dira; izan ere, herritar asko desjabetzeen eta etxegabetzeen beldur dira, eta horrek etorkizuneko planak egiteko ezintasuna eta, beraz, ezegonkortasuna eragiten die. Kezkagarriena da orain hurrek ere pairatzen dituztela ha-

391 Fortunati, *Telecomunicando in Europa*, 27.

392 Heike Haahrhoff-en arabera, Alemanian zazpi mila inguru adineko «lekualdatu» dira, eta, orain, adinekoen egoitzatan bizi dira, Txekiako Errepublikan, Grezian, Hungarian, Espainian eta Thailandian; «Les Allemands exportent aussi leurs grands-parents», *Le Monde Diplomatique*, 2013ko ekaina, 2018ko maiatzaren 29an eskuratua, <https://www.monde-diplomatique.fr/2013/06/HAARHOFF/49160>.

lako patologiak, ziurrenik familiek eta eskolek lehen haiei begira egiten zituzten zaintza-lanek beherakada handia izan dutelako. Zaila da zehaztea haurren gaixotasun mental horiek zer neurritan diren benetakoak eta zer neurritan eraikitakoak; esan nahi baita, zer neurritan diren medikuek eta farmazia-enpresek sortuak, gurasoen eta irakasleen adierazi gabeko onarpenarekin, etxean zein eskolan denbora, espazioa eta sormenezko jarduerak ukatuak dituzten haur-belaunaldi baten zorionik eza medikalizatzeke. Baina jakin badakigu orain arte sekula ez direla horrenbeste haur –eta hain txikiak– diagnostikatu hainbeste gaixotasun mentalekin. 2007rako, gaixotasun mentalak zituzten haur estatubatuarren kopurua 1990ekoa baino hogeita hamabost aldiz handiagoa zen. Bostetik batek, haur txikiek barne, gaixotasun mental bat izan dezakete, Gaixotasunak Kontrolatzeko Zentroaren arabera.³⁹³ Gaixotasun horien artean daude depresioa, hiperaktibitatea eta arreta-defizitaren nahasmenduak. Eta, kasu guztietan, askotariko botika psikoaktiboek osatzen dute «sendabidea», eskolek eta familiek oparotasunez ematen dizkietenak; hala, hamar urte dituztenerako, haur batzuek zazpi pilula hartzen dituzte egunean, horrek haien garapen mentalean izan ditzakeen albo-ondorioak ondo ezagunak badira ere.

Beraz, hona egia: gaur egungo gizartean, haurrak dira gal-tzaile nagusiak. Diruaren metaketa xede nagusi duen mundu honetan, non gure denbora guztia «modu produktiboan» erabili behar dugun, haurren beharrak asetzeak ez du batere lehentasunik, eta, beraz, ahalik eta denborarik gutxiena eskaini behar zaio. Hori da, bederen, klase kapitalistatik iristen zaigun mezua, zeinarentzat gaur egun haurrak kontsumoko merkatua diren funtsean. Haurtzaroa ezabatzeko nahia ere badago, egoera ez-produktibo bat delakoan; esate batera, haur txikiei erakutsiz –zenbait ekonomialarik gomendatzen duten gisan– nola erabili behar duten dirua eta nola izan daitezkeen kontsumitzaile zuhur-rrak, eta haien «jarrera ebaluatzeke probak» eginez, oraindik ere lau urte baino ez dituztelarik, ustez hasiera on bat izan dezaten lehiaketa ekonomikoaren aldeko lasterketan.

393 Misty Williams, «CDC: Mental Disorders Rising in Children», *Atlanta Journal Constitution*, 2013ko maiatzaren 16a, 2018ko maiatzaren 29an eskuratu, <https://www.myaajc.com/news/cdc-mental-disorders-rising-children/MxRBjZ8EcqQDPt880Pt3VP/>.

Langile-klaseko familietan ere, haurtzaroaren ezabaketa oso azkar gertatzen ari da, gurasoak gero eta gutxiago egoten direlako etxean eta krisi ekonomiko larriei aurre egin behar dietelako, etengabeko etsipena eta amorrua pairatuz. Helduek, guraso zein irakasleek, ez dute haurrei eskaintzeko denborarik, ez energiari, ezta baliabiderik ere. Fortunatik *Telecomunicando in Europa* liburuan dioen bezala, helduek berba egiten irakasten diete umeei, baina ez komunikatzen. Haurren tratu txarren hedapean erakusten duenez, traba gisa ikusten dituzte, ezbairik gabe. Hona hemen beste datu kezkarri bat, gurasoen eta haurren arteko harremanek bizi duten krisi larria erakusten duena: AEBn, 2001-2011 urteen bitartean, 20.000 haur baino gehiago –haietatik %75 lau urtez beherakoak– beren familiek erail zituzten; hau da, epe berean Iraken eta Afganistanen hildako soldaduak halako lau.³⁹⁴ Hortaz, ez da harritzekoa gizon armatuek eskola-umeak oldeka erailtzen dituztenean ere –gertakari berri bat, haurren bizitzaren debaluazioa eta gizarte-harremanen desagetea gordinki erakusten dituen– halako erantzun epelak jasotzea, eta sarraski horiek desagerrarazteko ahaleginik ez ikustea.

Riprendiamoci la vita–Berreskura dezagun bizitza³⁹⁵

Nola geldiarazi joera gorakor hori, eguneroko harremanen eta erreprodukzioaren eremutik? Nola berreraiki gure bizitzetako gizarte-egiturak, eta nola eraldatu etxeak eta auzoak, erresistentziarako eta berreraikuntza politikorako guneak izan daitezen? Horiek dira, gaur egun, gizateriaren agendan dauden galderarik garrantzitsuenak. Galdera horiek eragiten dute «komunak» erai-kitzeko interesa –praktikoa zein filosofikoa– gero eta handiagoa

394 Michael Petit, «America Can Fix Problem of Child Abuse Fatalities», *BBC News*, October 17, 2011ko urriaren 17a, 2018ko maiatzaren 29an eskuraturia, <http://www.bbc.com/news/av/15345278/michael-petit-america-can-fix-problem-of-child-abusefatalities>; ikus baita Fessler, «Panel Charged with Eliminating Child Abuse». Mundu garatuari dagokionez, eta erakunde horren arabera, AEBn gertatzen dira tratu txarregatiko haurren heriotza gehien. Joan den hamarkadan, hoge mila haur estatubatuar baino gehiago hil ziren beren etxeetan, familiako kideen ekintzen ondorioz; %75 inguruk lau urte baino gutxiago zituen, eta %50 inguruk, berriz, urte bat baino gutxiago. AEBn, tratu txarregatiko haurren heriotza-tasa Kanadakoa baino hiru bider handiagoa da, eta Italiakoa baino hamaika bider handiagoa.

395 «*Riprendiamoci la vita*» eslogana oihukatzen zuten Italiako feministek 1970eko hamarkadako manifestazioetan; hala, eskaera zehatz batetik haragoko aldarrikapen bat egiten zuten, eta emakumeen bizitzak estatuaren mendekotasunetik askatzea zuten helburu.

izatea; hau da, espazio eta gizarte-harreman berriak sortzeko interesa, oinarri dutenak elkartasuna, ondasunen erabilera komunala, lan kooperatiboa eta erabakiak elkarrekin hartzea.³⁹⁶

Proiektu horrek –maiz herri indigenen borroketan inspiratu denak, eta orain askotariko mugimenduek (feministak, anarkistak, ekologikoeak, marxistek) konpartitzen dutena– premia ugariri erantzuten die. Lehenik eta behin, kontuan hartuta estatuak zein merkatuak gero eta gehiago murrizten dizkigutela erreproduktzioarako behar ditugun baliabideak, testuinguru horretan bizirauteko beharra dugu. Raúl Zibechi-k *Territories in Resistance* lanean dokumentatu zuenaren arabera, 1980 eta 1990eko hamarkadetan Latinoamerikako herriarrek, batez ere emakumeek, zeuzkaten baliabideak elkartu zituzten, beren familiari laguntzeko; izan ere, austeritate-neurri zorrotzen ondorioz, beren komunitateak desmonetizatu egin ziren, edo migratutako kideen diru-bidalketen mende geratu ziren. Liman, emakumeek hamaika batzorde sortu zituzten, erosketa- eta sukalde-batzordea, hiri-ortuen batzordea, (haurrentzako) esne basoaren batzordea, eta abar. Hala, laguntza-molde desberdinak eskaini zituzten, eta, horiei esker, askok heriotzari aurre egin ahal izan zieten.³⁹⁷ Txilen ere antzeko antolamendu-moldeak sortu dira, non, Pinocheten 1973ko estatu-kolpearen ondoren, pobretze suntsigarri baten aurrean eta errepresio politikoaren erdian, herri-jantokia «ez zen sekula eten».³⁹⁸ Argentinan ere, «kolektibizazio» edo erreproduktzioaren sozializazioarako elementuak agertu ziren 2002ko krisian, emakumeek lapikoak piketeetara eramane zituztenean.³⁹⁹ Kolonbian, 1990eko hamarkadako lehen urteetan, emakume proletarioek *madres comunitarias* [ama komunitarioak] taldea eratu zuten, kalean bizi ziren umeak zaintzeko. Lan boluntario gisa hasi bazen ere, eta gatazka luze baten ondoren, proiektu hori formalizatzeko bidean da; 2014rako,

396 Caffentzis, George, eta Silvia Federici. «Commons against and beyond Capitalism». *Upping the Anti* 15 (2013ko iraila): 83.or. -99.or.

397 Raúl Zibechi, *Territories in Resistance: A Cartography of Latin American Social Movements* (Oakland: AK Press, 2012), 236.or. -37.or.

398 Jo Fisher, «Chile: Democracy in the Country and Democracy in the Home», in *Out of the Shadows: Women, Resistance and Politics in South America* (Londres: Latin America Bureau, 1993), 177.or. -200.or.

399 Isabel Rauber, «Mujeres piqueteras: el caso de Argentina», in *Economie mondialisée et identités de genre*, arg. Fenneke Reysoo (Geneva: IUED, 2002), 115.or. -16.or.

70.000 *madrek* soldata txiki bat jasoko dute estatuaren gizarte-ongizateko sailaren eskutik.⁴⁰⁰ Baina, oraindik ere, elkartasun komunalaren arabera lan egiten dute, eta irabazten duten soldat-ak nekez iristen zaizkie bizirauteko eta kaleko haurren zaintzaz arduratzeko.

Ez Estatu Batuetan ez Europan, ez dugu ikusi aipatu berri dugun lan erreproduktiboaren kolektibiziazio-molderik; halere, mundu «garatuan» lan erreproduktiboaren molde komunala-goak eta autogestionatuagoak agertzen hasi dira. Bai AEBn bai Europan, hiri-ortuek eta komunitateak babestutako nekazaritzak oinarri sendoa dute herri askotan, eta, lapikorako barazkiak eskaintzeaz gain, heziketarako baliabide ugari ere eskaintzen dituzte, batez ere haurrentzat, zeinak hiri-ortuetara joan eta elikagaiak nola landatu eta zaindu ditzaketen eta gauzak nola hazten diren ikas baitezakete.⁴⁰¹ Denbora-bankuak, garai batean proiektu erradikalak zirenak, AEBn zehar hedatzen ari dira, diru-trukerik gabe zerbitzuak eskuratzeko baliabide gisa eta, batez ere, babes-sare eta adiskidetasun berriak sortzeko.⁴⁰²

Ekimen horiek guztiak txiki ager daitezke parez pare ditugun hondamendi-sozial eta ekologiko-izugarrien aurrean. Baina, aintzat hartzen badugu bai pobretzea bai eguneroko bizitzaren militarizazioa areagotzen ari direla, biztanleen paralisia, erretirartzea eta mesfidantza eraginez, elkarlanean jarduteko nahiaren zantzu horiek adorea ematen dute. Erakusten dute gero eta jende gehiago ohartzen dela krisiari bakarka aurre egiteak porrotera daramala; izan ere, gure bizitza debaluatzen tematzen den gizarte-sistema batean ekonomikoki zein psikologikoki biziraun

400 «Madres comunitarias: del voluntariado a la formalidad», *Unimedios, Universidad Nacional de Colombia*, 2013ko urriaren 4a, 2018ko maiatzaren 29an eskuratua, <http://agenciadenoticias.unal.edu.co/detalle/articulo/madres-comunitarias-del-voluntariado-a-la-formalidad.html>.

401 Komunitateak babestutako nekazaritza (CSA, Community Supported Agriculture) azken urteetan Estatu Batuetan sortutako hainbat ekimenen izena da; «kontsumitzaile»ek harreman zuzena dute ekoizlearekin –kasu honetan, baseritarrarekin–, eta etortzekoak diren uztak aldez aurretik ordaintzen dizkiete, arriskuak partekatzeko; Federici, «Feminism and the Politics of the Commons in an Era of Primitive Accumulation», in *Revolution at Point Zero*, 141.or. -42.or.

402 «Diane Sawyer's Hometown in Kentucky Saves Money by Helping Each Other Out», *ABC News*, 2014ko urtarilaren 15a, 2018ko maiatzaren 29an eskuratua, https://www.youtube.com/watch?v=Zb_uu3v48Rk. In this news segment on the growing practice of time banking in the United States, the reporter stated that there were timebanking efforts going on in forty-two states.

nahi badugu, aukera bakarra dugu, hots, eguneroko jarduerak borroka kolektiborako eremu bihurtzea.

Beste arrazoi bat ere bada, gure eguneroko bizitzaren erreproduktzioarako lotura sozialak eratzeke eta elkarlanerako molde berriak sortzeko. Etxeko lanak –besteak beste, zaintza-lana eta lan afektiboa–, erabateko bakartasunera darama; izan ere, elkarrengandik bereizten gaitu, gure arazoak indibidualizatzen ditu, eta gure behar eta pairamenak ezkututzen. Gainera, oso lan nekeza da; jarduera asko egin behar dira, eta, askotan, bat baino gehiago aldi berean. Jarduera horiek ezin dira mekanizatu, eta, nagusiki, emakumeek egiten dituzte, trukean ordainik jaso gabe; askotan, gainera, jardunaldi osoko soldatapeko lan batekin batera. Teknologiak –komunikazio-teknologiak, bereziki–, garrantzi handia du etxeko lanen antolamenduan, dudarik gabe; gaur egun, gure bizitzaren funtsezko parte bat da. Baina, Fortunatik azaltzen duen bezala, batez ere pertsonen arteko komunikazioa ordezkatzeko balio izan du, eta ez komunikazio hori areagotzeko, eta familiako kideei aukera ematen die komunikazio-krisitik ihes egin eta makinaren altzoan babesteko.⁴⁰³ Era berean, Japonian eta AEBn, gure erreproduktzioa robotizatzeko saiakerak egiten ari dira, eta, esate batera, gure nahien arabera egokitu daitezkeen *nursebot* [erizain-robot] eta *lovebot* [maitasun-robot] garatu dituzte.⁴⁰⁴ Nolanahi ere, tresna horiek ez dira bakardadeari eta babes-harremanen galerari aurre egiteko baliabideak, baizik eta bi gaitz horiek areagotzen ari diren seinale; gainera, ez da ziurra etorkizunean gure etxeetara iritsiko direnik. Horregatik da hain garrantzitsua gure eguneroko bizitza despribatizatzeko eta erreproduktzio-molde kooperatiboak eratzeke emakumeak –batez ere– egiten ari diren ahalegina. Beren lanaren bidez, hurkoen zaintza sormenezko lan bihur litekeen mundu baterako bidea urratzeaz gain, gure erreproduktzio-prozesuaren ezaugarri

403 Fortunati-k ohartarazten digu ezen, gauza segurutzat jotzen bada ere, gaur egungo komunikazio-krisiaren erantzuleak ez direla komunikazio-teknologiak. Ez ditu onartzen horrelako «determinismo teknologiko»ak, ez dutenak kontuan hartzen «kontsumitzaileak» subjektu politiko aktiboak direla, eta esaten du komunikazio-teknologiek «antolamendu alienatu baten arabera egituratuta» dagoen errealitate sozial batean parte hartzen dutela; Fortunati, *Telecomunicando in Europa*, 38. Hau da, familia-harremanen krisia da ahalbidetzen duena teknologiak gure eguneroko bizitzetan sartzea eta haietan nagusi izatea; Fortunati, 34.or. -48.or.

404 Nancy Folbre, «Nursebots to the Rescue? Immigration, Automation, and Care», *Globalizations* 3, 3. zk. (2006ko iraila): 349.or. -60.or.

den bakartasuna hausten dute, eta elkartasunezko loturak eratzen dituzte; horiek gabe, gure bizitza basamortu afektibo bat izango da, eta ez dugu izango botere sozialik.

Testuinguru horretan, komunak gure eguneroko bizitzaren eta borroken xede eta baldintza dira aldi berean. Oraindik garatu gabeko modu batean, erdietsi nahi ditugun gizarte-harremanak irudikatzen dituzte, halaber haiek eraikitzeke baliabideak. Ez dira aparteko borroka bat, ezpada gure borroka guztiei eta gizarte-mugimendu orori eransten diegun ikuspegi bat.

Mugimendu zapatistako kide batek hitz hauek esan zituen: «Erresistentzia ez da bakarrik gobernu txar bat ez babestea, edo zergak edo elektrizitatearen fakturak ez ordaintzea. Erresistentzia da gure jendeen bizitzari eusteko behar dugun guztia eraikitzea».⁴⁰⁵

405 EZLN, *Autonomous Resistance-First Grade Textbook*, itz. El Kilombo (2014), 70, 2018ko maiatzaren 29an eskuratua, www.schoolsforchiapas.org/library/autonomous-resistance-grade-textbook; «Freedom According to the Zapatistas» ikastarorako.

BEDERATZI

MUNDUA BERRIZ LILURATUZ: TEKNOLOGIA, GORPUTZA ETA KOMUNAGINTZA

Mende bat inguru igaro da Max Weber-ek «Science as a Vocation» [Zientzia lanbide] hitzaldian honako baieztapen hau egin zuenetik: «Garai honetako patuaren ezaugarririk behinena da munduaren deslilura». Fenomeno hura, bere ustez, gizartea antolatzeko molde modernoek eragindako intelektuallizazioaren eta arrazionalizazioaren ondorioa zen.⁴⁰⁶ «Deslilura» aipatzean, Weberrek kutsu erlijioso eta sakratuko alderdi ororen desagerpena esan nahi zuen. Baina ohartarazpen hura zentzu politikoagoan ere interpreta dezakegu; hots, pentsa dezakegu Weberrek zera adierazi nahi zuela: sortzen ari dela mundu bat, non gero eta gehiagotan jartzen den zalantzan gaitasunik ba ote dugun garapen kapitalistaz bestelako logika bat existitzen dela konturatzeko. «Blokeo» horrek hainbat jatorri dauzka, eta jatorri horiek eragotzi egiten dute gure egunerokoan bizi dugun miseria ekintza eraldatzaile bihurtzea. Produktzioaren mundu-mailako berregituraketak langile-klasearen komunitateak desegin ditu, eta areagotu egin du munduko proletarioek osatutako masan kapitalismoak eragindako zatiketa. Baina bada beste kontu bat, gure pairamena kapitalismoaren ordezeko sistemak sorrarazteko gai bihurtzea eragozten duena: teknologiak gudan eragiten duen sedukzioa. Izan ere, badirudi teknologiak bizitzeko ezinbestekoa den indarra ematen digula. Artikulu honetan, mito hori zalantzan jarri nahi dut. Helburua ez da teknologiaren aurkako eraso antzu bat abiatzea, paradisu primitibista ezinezko

406 Max Weber, «Science as a Vocation» [1918-1919], in *For Max Weber: Essays in Sociology*, arg. H.H. Gerth and C. Wright Mills (New York: Oxford University Press, 1946), 155.

batera itzultzeko grinez, baizik eta onartzea zer kostu duten liluraturik gauzaten berrikuntza teknologiko horiek eta, ororen gainetik, geure buruari berriz ere ikusaraztea zer ezagutza eta gaitasun galdu ditugun teknologia berri horiek ekoitzi eta eskuratzean. «Mundua berriz liluratzea» aipatzen dudanean, esan nahi dudana da garapen kapitalistaz bestelakoak diren arrazoi eta logikak aurkitu behar ditugula, hori baita, nire ustez, helbururik garrantzitsuenetako bat sistemaren aurkako mugimendu gehienentzat, eta da, era berean, esplotazioari buru egin ahal izateko bete beharreko baldintza bat. Ezagutzen eta irrikatzen dugun guztia kapitalismoak ekoitzia bada, galdua dugu aldaketa kualitatibo baterako itxaropen oro. Teknologia industrial gutxiago erabiltzeko prest ez dauden gizarteek hainbat faktoreri aurre egin beharko diete: batetik, hondamendi ekologikoa; bestetik, gutxiagotzen ari diren baliabideak eskuratzeko lehia; azkenik, desesperazio-sentimendu gero eta handiago bat, lurraren etorkizunari eta gu lurrean egoteak duen esanahiari dagokienez. Testuinguru horretan, gure biziraupena bermatu nahi badugu, mundua berriz landa-eremu bihurtzea helburu duten borroken beharra dugu, hau da, behar dugu lurra aldarrikatzea, ibaiak presetatik askatzea, baso-soiltzeari aurre egitea eta, nagusiki, lan erreproduktiboari balio handiagoa ematea. Guretzat, baldintza horiek ezinbestekoak dira, ez bakarrik fisikoki bizirauteko, baita lurra «berriz liluratzeko» ere; izan ere, kapitalismoak bereizitakoa berriz konektatzeko aukera ematen dute –naturarekin, hurkoarekin eta gure gorputzekin daukagun harremana–, eta, kapitalismoaren erakarpen-indar grabitazionalari itzuri egiteko aukera emateaz gain, gure bizitzei begiratu eta berriro ere osotasun-sentimendu bat edukitzea ahalbidetzen digute.

Teknologia, gorputza eta autonomia

Premisa horietatik abiatuz, hau da nire argudioa: teknologiak gugan eragiten duen sedukzioa garapen kapitalistak orain arteko bost mendeetan gure bizitzetan sorrarazitako pobretze ekonomiko, ekologiko eta kulturalaren ondorioa da, baita –edo batez ere– kapitalismoak goia jo duen herrialdeetan ere. Pobretze horrek hainbat alderdi ditu. Komunismora igarotzeko baldintza materialak sortu ordez –hala espero zuen Marxek–, kapitalismoak mundu-mailako eskasia eragin du. Gutxitu egin du

lan-prozesuan ahituak izan ondoren gure gorputz eta gogame-nak berriz indartzeko beharrezko ditugun jardueren balioa, eta gainkarga bat ezarri dio lurrari; gainkarga bat ezarri dio Lurrari; halakoa da zama hori, non Lurrari gero eta zailagoa baitzaio gure bizitzeari eustea. Nekazaritzaren garapenari buruz ziharduelarik, honela zioen Marxek:

Nekazaritza kapitalistaren alorreko aurrerabide oro aurrerabidea da, halaber, ez bakarrik langileari lapurtzeko trebetasunean, baita lurrari lapurtzeko iaotasunean ere; lurraren emankortasuna epe jakin batez areagotzeko aurrerabide oro aurrerabidea da, halaber, emankortasun horren epe luzeko iturrien suntsipenean. Herrialde baten kasuan, haren garapena zenbat eta gehiago oinarritu eskala handiko industrian, AEBrekin gertatzen den bezala, orduan eta bizkorragoa da haren suntsipen-prozesua. Hortaz, produkzio kapitalistak modu bakarra du produkzio-prozesu sozialaren teknikak eta konbinazio-maila garatzeko, hau da, aldi berean eta apurka ahultzea aberastasun ororen jatorrizko iturria, hots, lurzorua eta langileak.⁴⁰⁷

Suntsipen hori ez da oso agerikoa; izan ere, garapen kapitalistaren hedadura globalak gure begien bistatik kendu ditu eragindako ondorio sozial eta material gehienak, eta orain zaila zaigu ezein produkzio-molde berriren erabateko kostua neur-tzea. Otto Ullrich soziologo alemanak idatzi zuen bezala, arrazoi bakarra dago teknologiak oparotasuna sorrarazten duela baieztatzen duen mitoak bizirik irauteko: teknologia modernoa gai da bere kostua denboran eta espazioan nabarmen zabaltzeko, eta, horren ondorioz, ezinezkoa zaigu ohartzea gailu teknologiko-eguneroko erabilerak eragiten duen oinazeaz.⁴⁰⁸ Egia esan, ekoizpena zuzendutako zientziaren eta teknologiaren erabilerak kapitalistak hain ondorio larriak eragin ditu giza bizitzetan eta gure sistema ekologikoan, non, mundu osora zabalduko bagenu, lurra suntsituko lukeen. Askotan esan izan den bezala, erabilerak hori mundu osora zabaltzeko ahal izateko beste planeta bat izan behar genuke eskura, hura ere arpilatu eta kutsatu ahal izateko.⁴⁰⁹

407 Karl Marx, *Capital: A Critique of Political Economy*, 1. bol., Friedrich Engels, itz. Ben Fowkes (Londres: Penguin, 1990), 638.

408 Otto Ullrich, «Technology», in *The Development Dictionary*, arg. Wolfgang Sachs (Londres: Zed Books, 1992), 283.

409 Mathis Wackernagel eta William Rees, *Our Ecological Footprint: Reducing Human Impact on the Earth* (Gabriola Island, BC: New Society Press, 1996).

Halere, pobretzeko beste bide bat ere badago, hain begien bistakoa ez izan arren berdin-berdin suntsitzen duena eta tradizio marxistak neurri handi batean alde batera utzi duena, eta da, hain zuzen ere, gure ahalmen autonomoen aurkako eraso kapitalistaren historia luzeak eragin duen galera. Esan nahi baita, milioika urtetako garapen ebolutiboak eta naturak gugan finkatu duten egitura konplexu hura, gure behar, nahi eta gaitasunez osatua, esplotazioari aurre egiteko dugun iturri nagusietako bat dena. Esan nahi baita, eguzkiaren beharra, haizearena, zeruarena; ukitzeko, usaintzeko, lo egiteko, maitasuna egiteko beharra, leku irekietan egotekoa, ez horma itxiek inguratuta (haurrak lau hormaren artean itxita edukitzea da munduko toki askotako irakasleen erronkarik handiena). Gorputzaren eraikuntza diskurtsiboan tematzean, errealtatetik aldendu gara. Eta, halere, gure behar eta nahien egitura metatu hori, erreproduzio sozialerako aurrebaldintza ezinbestekoa izan dena, lan-esplotazioa mugatzeko tresna eraginkorra izan da, eta, horregatik, kapitalismoa gure gorputzaren aurka borrokatu behar izan da bere garapenaren hastapeneko faseetatik hasita, eta gure gorputza mugatua, materiala eta arrazoimenaren aurkakoa den oren adierazle bihurtu behar izan du.⁴¹⁰

Arazoi horiek berak erabil daitezke, orobat, Foucault-ek erresistentziaren lehentasun ontologikoari buruz⁴¹¹ eta jardunbide askatzaileak sortzeko dugun gaitasunaren inguruan zeukan intuizioa azaltzeko. Hau da, intuizio hori azaltzeko, gure gorputzen eta «kanpoalde» baten –kosmos dei diezaiokegu, naturaren mundua– arteko elkarrekintza osagarri batean oinarritu gaitzke, zeina izugarri emankorra izan baita gaitasunei eta ikusmolde zein irudimen kolektiboari dagokienez, nahiz eta, jakina, elkarrekintza sozial eta kulturalaren eragina izan duen. Hego Asiako kultura guztiak –hala diosku Vandana Shiva-k– basoari estuki loturik bizi diren gizarteetatik sortu dira.⁴¹² Bestalde, aurkikuntza zientifiko garrantzitsuenek kapitalismoaren aurreko gizarteetan dute jatorria, non herritarrek naturarekin zuten eguneroko el-

410 Ikus Federici, *Caliban and the Witch: Women, the Body and Primitive Accumulation* (Brooklyn: Autonomedia 2004), bereziki 3. kapitulu.

411 Hemen egiten zaio erreferentzia: Michael Hardt eta Antonio Negri, *Commonwealth* (Cambridge, MA: Harvard University Press, 2009), 31.

412 Vandana Shiva, *Staying Alive: Women, Ecology and Development* (Londres: Zed Books, 1989).

karrekintzak eragin sakona baitzuen haien bizitzaren alderdi guztietan. Orain dela lau mila urte, zeruaren behatzaile babiloniar eta maiek gorputzen konstelazioak eta haien mugimendu ziklikoak aurkitu eta mapetan marraztu zituzten.⁴¹³ Marinel polinesiarrek gai ziren gaurik minenetan ere itsas zabalean nabigatzeko, uhinei begiraturik lehorrerako bidea aurkituz, hain egokiturik zeuden beren gorputzak olatuen eta uhinduren aldaketetara.⁴¹⁴ Konkistaren aurreko Amerikar Natiboek orain mundua elikatzen duten laboreak garatu zituzten, nekazaritzaren alorreko ezein berrikuntzak azken bostehun urteetan gainditu ez duen jakitearekin, eta, hori eginez, nekazaritzaren eremuko ezein iraultzak berdindu ez duen ugaritasun eta dibertsitatea sortu zuten.⁴¹⁵ Hain gutxi ezagutzen den eta hain gutxitan hausnartua izan den historiaren zati hori ekarri dut orriotara, zergatik-eta azpimarratu nahi dudalako garapen kapitalistaren urte hauetan guztietan bizi izan dugun pobretze larria, ezein gailu teknologikok konpentsatu ez duena. Are gehiago, berrikuntza teknologiko kapitalistaren historiarekin batera kapitalismoaren aurreko ezagutza eta gaitasunen desmetaketaren historia idatzenezake, hau da, gure lanaren esplotazioa eraikitzeke kapitalismoak erabili duen premisarena. Elementuak irakurtzeko ahalmena, landareen eta loreen propietateak aurkitzekoa, lurretik elikagaiak lortzekoa, baso eta oihanetan bizitzekoa, bide eta itsasoetan izarrei eta haizeei jarraitzekoa... horiek guztiak suntsitu beharreko «autonomia»ren iturriak ziren, eta hala dira, gaur egun ere. Industria-teknologia kapitalista galera horren kontura garatu da, eta areagotu egin du galera hori.

Halere kapitalismoak langileen ezagutza eta ahalmena baino zerbait gehiago bereganatu zuen produkzio-prozesuan. Marxek dioen bezala, «lanabesa langilea esklabo bihurtzeko, es-

413 Clifford D. Conner, *A People's History of Science: Miners, Midwives, and Low Mechanics* (New York: Nation Books, 2005), 63. Conner, *A People's History of Science*, 190.or. -92.or., also reports that it was from Native sailors that European navigators gained the knowledge about winds and currents that enabled them to cross the Atlantic Ocean.-64.

414 Conner, *A People's History of Science*, 190.or. -92.or., also reports that it was from Native sailors that European navigators gained the knowledge about winds and currents that enabled them to cross the Atlantic Ocean.

415 Jack Weatherford, *Indian Givers: How the Indians of the Americas Transformed the World* (New York: Fawcett Books, 1988).

plotatzeko eta pobretzeko baliabide gisa ageri da».⁴¹⁶ *Caliban eta sorgina* liburuan esan nuen bezala, munduaren mekanizazioak giza gorputzaren mekanizazioa izan zuen oinarri eta aurrekari, eta, Europan, «itxiturak» eraikiz, arloteak jazarritz eta XVI. eta XVII. mendeetako sorgin-ehizen bidez gauzatu zen. Behin hona iritsita, garrantzitsua da gogoratzea teknologiak ez direla tresna neutroak; aitzitik, harreman-sistema espezifikoak dakartzate berekin, «azpiegitura sozial eta fisiko zehatzak»,⁴¹⁷ eta berekin dakartzate, orobat, produkzio-prozesuan erabiltzen den lan bi-ziaren alderdi sortzaileenak atzeman eta txertatzen dituzten diziplina- eta ezagutza-erregimenak. Gauza bera gertatzen da teknologia digitalekin. Halaz ere, zaila da gu geurez horretaz ohartzea, eta iruditzen zaigu ordenagailuaren etorrera onuragarria izan dela gizakiarentzat, gizartean ezinbestean egin beharreko lana murriztu duela eta aberastasun soziala eta elkarlanerako gaitasuna areagotu dituela. Baina konputerizazio-prozesuak eragindako beharrek belztu egiten dute informazio-iraultzaren eta ezagutzan oinarritutako gizartearen ikuspegi baikor oro. Saral Sarkar-ek dioen moduan, ordenagailu bat ekoizteko hamabost-hemeretzi tona material eta hogeita hamahiru mila litro ur garbi behar dira batez beste, horiek guztiak jabari publikoko ondasunetatik hartuak, jakina; ziurrenik, Afrikako, Erdialdeko Amerikako zein Hego Amerikako komunitateen lur eta ur komunaletatik.⁴¹⁸ Horrenbestez, zilegi da Raphael Samuel-ek industrializazioari buruz idatzitakoa konputerizazioari ere aplikatzea: «[Industria-]teknologia aztertzen badugu lanaren ikuspegitik, ezen ez kapitalarenetik, krudelkeria hutsa da esatea makinek ez zutela langileen esfortzuaren beharrik... Makinek berek inposatutako exijentziez gain, langile-oste ikaragarri handi bat zegoen haiek lehengaiz hornitzeko».⁴¹⁹

416 Marx, *Capital*, Vol. 1, 638.

417 Ullrich, «Technology», 285.

418 Saral Sarkar, *Eco-Socialism or Eco-Capitalism? A Critical Analysis of Humanity's Fundamental Choices* (Londres: Zed Books, 1999), 126.or. -27.or.; ikus baita Tricia Shapiro, *Mountain Justice: Homegrown Resistance to Mountaintop Removal for the Future of Us All* (Oakland: AK Press, 2010).

419 Raphael Samuel. «Mechanization and Hand Labour in Industrializing Britain», in *The Industrial Revolution and Work in Nineteenth-Century Europe*, arg. Lenard R. Berlanstein. Londres: Routledge, 1992, 26.or. -40.or.

Era berean, konputerizazioak areagotu egin du klase kapitalistaren gaitasun militarra eta klase horrek gure lanaren eta gure bizitzaren gainean duen kontrola; garapen horiekin guztiekin erkatuz gero, ordenagailu pertsonalen erabileratik atera dezakegun onura orok balioa galtzen du.⁴²⁰ Are garrantzitsuagoa dena, konputerizazioak ez du murriztu ez lan-astea –1950eko hamarkadatik aurrerako tekno-utopia guztien promesa–, ez lan fisikoaren zama. Gaur egun, inoiz baino lan gehiago egiten dugu. Japoniak, ordenagailuaren sorterriak, «lanak hila» fenomeno berrirantz bideratu du mundua. Bien bitartean, Estatu Batuetan langile-oste txiki bat –milaka– hiltzen da urtero lan-istripuan, eta askoz gehiagok bizialdia laburtuko dieten gaixotasunak harapatzen dituzte.⁴²¹

Bestalde, konputerizazioarekin, lanaren abstrakzioa eta arautze hertsia gailurrera iristen ari da, gure alienazioarekin eta soziabilitate ezarekin gertatzen ari den bezala. Lan digitala eragiten ari den estres-maila gaixotasun mentalen epidemiaren bidez neur daiteke, hau da, depresioa, izua, antsietatea, arreta-defizita, dislexia, herrialderik teknologikoki aurreratuenetan ohikoak direnak; adibidez, AEBn. Epidemia horiek erresistentzia pasibo gisa ere uler daitezke: uko egitea obeditzeari, uko egitea makinaren gisakoak bihurtu eta kapitalaren planak gureganatzeari.⁴²²

Labur esanda, miseria-egoera orokorrari konputerizazioa gehitu zaio, eta konplitu egin da Julien Offray de La Mettrie-k plazaratutako «makina-gizaki»aren ideia. Interkonexioaren begitazioaren atzetik, konputerizazioak bakardade-molde berri bat eta besteengandik aldentu eta bereizteko modu berriak ekarri ditu. Ordenagailuari esker, milioika pertsonak egoera honetan egiten dugu lan: gure mugimendu guztiak kontrolatuak eta erregistratuak dira, eta, beharbada, baita zigortuak ere; gizarte-harremanak hautsi egin dira, asteak ematen ditugulako gure

420 Jerry Mander, *In the Absence of the Sacred: The Failure of Technology and the Survival of the Indian Nations* (San Francisco: Sierra Club Books, 1991).

421 JoAnn Wypijewski-ren arabera, 2001 eta 2009 bitartean 40.019 langile hil ziren lanean ari zirela. 2007an, 5.000 baino gehiago hil ziren lanean –batez beste, 15 gorpu egunean–, eta 10.000 baino gehiago elbarritu edo zauritu ziren. Bere kalkuluen arabera, «gertaera guztiak ez direnez jakinarazten, iturri ofizialen 4 milioi zaurituak gertuago egongo lirатеke 12 milioitik»; «Death at Work in America», *Counterpunch*, 2009ko apirilaren 29a, 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://www.counterpunch.org/2009/04/29/death-at-work-in-america/>.

422 Franco «Bifo» Berardi, *Precarious Rhapsody* (Londres: Minor Compositions, 2009).

pantailen aurrean, eta galdu egin dugu kontaktu fisikoaren eta aurrez aurreko solasaldien plazera; komunikazioa azalekoagoa bilakatu da, izan ere, berehalako erantzunek duten xarmaren ondorioz, gutun gogoetatuak bazterrean geratu baitira, eta haien lekua azaleko hartu-emanek bete baitute. Era berean, ohartzen ari garenez, ordenagailuaren erabilerak abiadura handietara ohi-tzea ekarri du, eta horrek ezinegon gero eta handiagoa eragiten digu pertsonon arteko eguneroko harremanetan, interakzio horiek ezin dutelako berdindu makinaren abiadura.

Testuinguru horretan, baztertzekoa da Occupy mugimenduaren analisisetan ageri ohi den axioma, alegia, esaten duena teknologia digitalak (Twitter, Facebook) mundu-mailako iraultzaren garraiatzaileak direla, Udaberri Arabiarraren eta plazetako mugimenduaren lehen bultzatzaileak. Zalantzarik gabe, Twitterrek milaka pertsona atera ditzake kalera, baina soilik aurretik ere mobilizaturik badaude. Twitterrek ezin digu agindu nola elkartu behar dugun, oraintsu arte bezala edo plazetan bizi izan dugun molde komunal eta sortzailean, besteenganako irrikaren fruitu izan dena, gorputzen arteko komunikazioarena eta erreprodukzio-prozesu partekatuarena. Occupy mugimenduaren esperientziak Estatu Batuetan erakutsi duen bezala, Internet tresna bideratzaile bat izan daiteke, baina jardun eraldatzailea ez da sortzen online pasarazitako informazioaren bidez; hori leku berean kanpatuz lortzen da, arazoak elkarrekin konponduz, janaria elkarrekin prestatuz, garbiketa-taldeak antolatuz edo poliziari aurre eginez, guztiak ere esperientzia esanguratsuak izan direnak ordenagailu-pantailaren aurrean hazitako milaka gazterentzat. Ez halabeharrez, Occupy mugimenduaren esperientziarik gogoangarrienetako bat *mic check*⁴²³ izan zen; poliziak bozgorailua erabiltzea debekatu zuenean asmatu zuten, Zucotti Park-en, baina laster batean estatuarekiko zein makinarekiko independentziaren ikur bilakatu zen, eta nahi kolektibo baten adierazlea, ahots eta jardun kolektibo batena. Hainbat hilaibetez, mugimenduko kideek «Mic check!» esaten zuten bileretan, baita

423 *Giza mikrofonoa* ere esaten zaio, eta ohiko mikrofonorik gabeko bilera eta asanblada jendetsuetan erabiltzen da. Hizlariak zerbait esan, eta gertuko jendeak haren hitzak errepikatzen ditu, urrunago daudenek ere mezua jaso dezaten. Behin eta berriro egiten da, hizlariarengandik urrunen daudenek mezua jaso arte eta hizlariak bere jarduna amaitu arte. [I.O.]

beharrik ez zenean ere, eta pozez lehertzen ziren indar kolektiboaren berrespen haren aurrean.

Gogoeta horiek guztiek aurrez aurre dituzte teknologia digital berriei gure autonomia hedatzeko gaitasuna onartzen dioten argudioak, ziurtzat jotzen dutenak garapen teknologikoaren maila gorenetan lan egiten dutenak aldaketa iraultzailea sustatzeko posiziorik onenean daudela. Egia esan, gaur den egunean, ikusmolde kapitalistaren arabera garapen teknologiko txikiena duten eskualdeetan gertatzen ari dira gatazka politikorik biziak, eta eskualde horietan uste dute, beste inon baino gehiago, posible dela mundua aldatzea. Horren adibide dira Hego Amerikan laborarien eta indigenen komunitateetan eraikitako espazio autonomoak, zeinetan, hainbat mendetako kolonizazioa jasana-gatik ere, erreproduktzio-molde komunalei eutsi baitiete.

Gaur egun, mundu horren oinarri materialak inoiz baino eraso bortitza goa pairatzen ari dira, meatzaritzaren, nekazaritzaren eta bioerregaien alorreko konpainiak gauzatzen ari diren itxitura-prozesu etengabearen jomuga direlako. Latinoamerikako estatu ustez «aurrerakoi»ek ere estraktibismoaren logikari aurre egiteko gaitasunik eduki ez izanak arazoaren sakontasunaren neurria ematen digu. Lur- eta ur-baliabideak jasaten ari diren erasoak are larriagoak dira, baldin eta kontuan hartzen badugu Munduko Bankua, hamaika GKErekin batera, egiten ari den ahalegina, aurrekoa bezain kaltegarria, iraupenera bideratutako jarduera guztiak diru-harremanaren mende jartzeko, landa-eremu-tako kreditu- eta mikrofinantza-politikaren bidez; horren ondorioz, zordun bilakatu dira iraupenari begira lan egiten duten ezin konta ahala merkatari, nekazari eta janari- zein zaintza-hornitzaile, gehienak emakumeak. Baina, eraso hori gorabehera, mundu horrek –askok «hiritar-landatar» [*rurban*] deitzen dutena, bai hiriarekiko bai landa-eremuarekiko duen mendekotasuna azpimarratzeko– uko egiten dio itzaltzeari. Ikusi besterik ez dago lurak okupatzearen aldeko mugimenduen eta uraren aldeko gerren ugaritzea, orobat etenik gabe aurrera jarraitzen duten elkartasun-ekimenak, hala nola *tequio*,⁴²⁴ baita atzerriko immi-

424 Lan kolektiboa egiteko modu bat da *tequio*, Mesoamerika aurrekolonialaren garaitik datorrena, zeinean komunitate bateko kideek elkarrekin lan egin eta baliabideak partekatzen baitituzte komunitate osorako proiektu bat gauzatzeko, adibidez, eskola bat, putzu bat edo bide bat egiteko.

granteen artean ere. Munduko Bankuak esango ligukeenaren kontrara, «nekazaria» –landa-eremukoa zein hiritarra– kategoria sozial bat da, oraindik ere historiaren zakarrontzira joateko garaia iritsi ez zaiona. Batzuek, hala nola Zimbabwe-ko Sam Moyo soziologo hilberriak, «bir-laboraritza» prozesua aipatu izan dute, argudiatuz lurraren pribatizazioaren aurkako eta lurra berriz eskuratzearen aldeko kanpaina, Asiatik Afrikara zabaldu dena, lurreko gatazkarik erabakigarriena dela ziurrenik eta, zalantzarik gabe, bortitzena.⁴²⁵

Chiapaseko mendietan hasi eta Bangladesheko ordo-kietaraino, emakumeak izan dira gatazka haietako askoren buru, giltzarriak baitira okupazioaren alde borrokatu eta lurra aldarrikatzen duten mugimendu guztietan. Lurrak berriz pribatizatzeari eta elikagaien beste prezio-igoera bati aurre egin behar izan diotenez, emakumeek iraupen-nekazaritzaren mugak zabaldu dituzte, eta eskura aurkitutako herri-lur guztiak berenganatu dituzte; prozesu horretan, hainbat tokitako paisaia hiritarra eraldatu dute. Beste inon ere idatzi izan dudana bezala, Bangladesheko emakumeen borroka nagusietako bat izan da iraupen-nekazaritzara bideratutako lurra berriz eskuratzea edo hedatzea; horren ondorioz, Lurrik gabeko Emakumeen Elkar-tea sortu zuten, 1992. urtetik aurrera lurrak okupatzen jardun duena.⁴²⁶ Indian ere, emakumeak lurraren aldeko aldarrikapenaren lehen lerroan egon dira, halaber presak eraikitzearen aurkako mugimenduan ere. Emakumeen Elikagai Eskubideen aldeko Aliantza Nazionala ere sortu dute, hogeita hamabost emakume-elkartek osaturiko mugimendu nazionala; elkarte horrek ziape-haziaren ekonomiaren aldeko kanpaina egin du, mehatxupearan egon baita AEBko korporazio bat hura patentatzen saiatu zenez geroztik. Antzeko borrorak gertatzen ari dira Afrikan eta Hego Amerikan, eta herrialde industrializatueta ere gero eta gehiago dira, hiri-nekazaritzaren eta ekonomia solidarioaren ugaritzearekin; guztietan, paper nagusia emakumeek jokatzen dute.

425 Sam Moyo eta Paris Yeros, arg., *Reclaiming the Land: The Resurgence of Rural Movements in Africa, Asia and Latin America* (Londres: Zed Books, 2005).

426 Federici, *Revolution at Point Zero: Housework, Reproduction, and Feminist Struggle* (Oakland: PM Press, 2012).

Beste arrazoi batzuk

Hortaz, balio politiko eta kulturalen «transbalarazio» baten aurrean gaude. Nahiz eta iraultza helburu duen bide marxista batek fabriketako langileak jarriko lituzkeen prozesuaren buru, onartzen hasiak gara ezen paradigma berriak munduan zeharreko soro, sukalde eta arrantzale-herrietan beren erreprodukzioa botere korporatiboaren nagusitasunetik askatzeko eta gure ondasun komunala babesteko borrokan ari diren haietatik etor daitezkeela. Chris Carlsson-ek *Nowtopia* lanean dokumentatu duen gisan, herrialde industrializatueta ere gero eta jende gehiago ari da lanak eta merkatuak araututako bizitzaren ordezkoko baten bila, bai prekarietate-erregimen batean lanak ezin duelako jarraitu identitate-iturria izaten, bai sortzaileagoak izateko beharra dutelako. Hari beretik, langileen gaur egungo borrokek ez diote jarraitzen greben ohiko ereduari, eta antzematen zaie protesta-molde berrien bila dabilatzala, baita gizakien arteko eta gizakien eta naturaren arteko harreman berrien bila ere. Fenomeno bera ikusten dugu komunak eraikitzekeo jarduera gero eta ugariagoetan, hala nola denboraren bankuak, hiri-ortuak eta erantzukizun komunitariorako egiturak. Eta gauza bera genero-identitatearen eredu *androgin*oen lehenespenean, transexualen eta intersexuen mugimenduen gorakadan eta generoaren ukazio queer-ean, lan-banaketa sexualaren ukazio inplizitua ere badakarrena. Aipatu behar dugu, orobat, tatuajeekiko eta gorputz-apainketaren artearekiko grinaren mundu-mailako hedapena, sexu-, arraza- eta klase-mugak gainditzen dituzten komunitate berri eta imajinatuak sortzen ari dena. Fenomeno horiek guztiek diziplina-mekanismoen hausturaren adierazleak dira, baina, horrekin batera, gure gizatasuna birmoldatzeko nahi bizia ere adierazten dute; birmoldatzeko, hain zuzen ere, ez mendeetan zeharreko diziplina industrial kapitalista guri inposatzen saiatu den bide berak erabiliz, baizik eta bestelakoak edo, egia esan, kontrakoak diren moduetan.

Liburu honetan bilduta dagoen informazioak ondo erakusten duen bezala, lan erreproduktiboaren inguruko emakumeen borrokek funtsezko paper bat jokatzeko dute «ordezko gizarte» edo «gizarte alternatibo» horren eraikuntzan. Beste inon ere idatzi izan dudana gisan, lan horrek –nola iraupen-nekazaritza, hala hezkuntza zein haurren hazkuntza– badu ezaugarri

bat, beste ezein lanek ez duena, eta, horren ondorioz, bereziki egokia da gizarte-harreman kooperatiboagoak sortzeko. Ikuspegi kualitatibo batetik, gizakiak edo janaritarako laboreak ekoizteak ez du zerikusirik autoak ekoiztearekin, lehenak etengabeko interakzioa eskatzen baitu gure kontrolpean ez dauden aldaerak eta denborazkotasuna dituen prozesu natural batekin. Hori dela eta, lan erreproduktiboak planeta honetan dauzkagun muga naturalak sakonkiago ulertzeko bidea eman diezaguke, eta ezagutza hori ezinbestekoa da nik proposatzen dudan gisan mundua berriz liluratzeko. Aldiz, lan erreproduktiboa lanaren antolamendu industrializatu baten parametroen barruan indarrez txertatzeko ahaleginak kalte larriak eragin ditu. Horra hor, adibidez, nola bihurtu duen erditzearen industrializazioak berez zoragarria izan daitekeen gertaera bat esperientzia alienagarri eta izugarri.⁴²⁷

Gizarte-mugimendu berri horien bidez, bestelako arrazionaltasun baten beharra sumatzen dugu; injustizia sozial eta ekonomikoaren aurkakoa izango den arrazionaltasuna, berriz ere naturarekin harremanetan jarriko gaituena, eta gizaki izateari esanahi berri bat emango diona. Kultura berri hori etorkizuneko aukera bat baino ez da oraindik, logika kapitalistak gure subjektibitatean duen nagusitasuna oso sendoa delako oraindik. Herrialde guztietako eta edozein klasetako gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriak adierazten digu zer bide luzea ibili beharko dugun oraindik komunei buruz berba egiten hasi ahal izateko. Kezkatuta nago, halaber, feminista batzuek erreprodukzioaren debaluazio kapitalistarekin bat egiten dutelako. Izan ere, beldur dira onartzeko emakumeek rol berezi bat izan dezaketela lan erreproduktiboaren berrantolamenduan; gainera, jarduera erreproduktiboak lan astun ezinbestekotzat jotzeko joera hedatu da. Hori, nire ustez, akats handi bat da. Izan ere, lan erreproduktiboa «iraultzaren zero puntua» da, aintzat harturik gure bizitzaren oinarri materiala dela, orobat autogobernurako gaitasuna praktikan jartzeko dugun esparru nagusia.

427 Robbie Pfeufer Kahn, «Women and Time in Childbirth and Lactation», in *Taking Our Time: Feminist Perspectives on Temporality*, arg. Frieda Johles Forman and Caoran Sowron (New York: Pergamon Press, 1989), 2.or. -36.or.

BIBLIOGRAFIA

- Abdullah, Hussaina J., eta Hamza Ibrahim. «Women and Land in Northern Nigeria: The Need for Independent Ownership Rights». In Wanyeki, *Women and the Land in Northern Nigeria*, 133–75.
- Achebe, Chinua. *Things Fall Apart*. Londres: Heinemann, 1958.
- Adoko, Judy. «Land Rights: Where We Are and Where We Need to Go». *Mokoro*, 2005ko iraila. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://mokoro.co.uk/land-rights-article/land-rights-where-we-are-and-where-we-need-to-go/>.
- Alden Wily, Liz. «Reconstructing the African Commons». *Africa Today* 48, 1. zk. (2001ko udaberria): 77–99. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <https://muse.jhu.edu/article/3084>.
- Allen, Paula Gunn. «Who Is Your Mother? Red Roots of White Feminism». In *Multicultural Literacy: Opening the American Mind*, Rick Simonson eta Scott Walker-ek argitaratua. Saint Paul, MN: Graywolf Press, 1988.
- Altwater, Elmar, Kurt Hubner, Jochen Lorentzen eta Raúl Rojas. *The Poverty of Nations: A Guide to the Debt Crisis from Argentina to Zaire*. Londres: Zed Books, 1991 [1987].
- Amoore, Louise, ed. *The Global Resistance Reader*. New York: Routledge, 2005.
- Anderson, Kevin B. «Marx's Late Writings on Non-Western and Precapitalist Societies and Gender». *Rethinking Marxism* 14, 4. zk. (2002ko negua): 84–96.
- Anderson, Nels. *On Hobos and Homelessness*. Chicago: University of Chicago Press, 1998.
- Andreas, Carol. *When Women Rebel: The Rise of Popular Feminism in Peru*. Westport, CT: Lawrence Hill, 1985.

- Angell, Marcia. «The Epidemics of Mental Illness: Why?» *New Yorker*, 2011ko ekainaren 23a. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://www.nybooks.com/articles/2011/06/23/epidemic-mental-illness-why/>.
- Anton, Anatole. «Public Goods as Commonstock: Notes on the Receding Commons». In *Not for Sale: In Defense of Public Goods*, Anatole Anton, Milton Fisk eta Nancy Holmstrom-ek argitaratua, 3–40. Boulder, CO: Westview Press, 2000.
- Bajaj, Vikas. «Microlenders, Honored with Novel, Are Struggling». *New York Times*, 2011ko urtarrilaren 5a. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://www2.econ.iastate.edu/classes/econ353/tesfatsion/MicrolendersStruggling.NYT2011.pdf>.
- Barrera, Claire, eta Merideth Butner. *When Language Runs Dry: A Zine for People with Chronic Pain and Their Allies*. Portland, OR: Microcosm Publishing, 2008.
- Barrow E.G.C. «Customary Tree Tenure in Pastoral Land». In Juma and Ojwang, *In Land We Trust*, 259–78.
- Bateman, Milford. *Why Doesn't Microfinance Work? The Destructive Rise of Local Neoliberalism*. Londres: Zed Books, 2010.
- Bebel, August. *Woman under Socialism*. New York: Schocken Books, 1971.
- Beito, David T. *From Mutual Aid to the Welfare State: Fraternal Societies and Social Services, 1890–1967*. Chapel Hill: University of North Carolina Press, 2000.
- Berardi, Franco «Bifo». *Precarious Rhapsody*. Londres: Minor Compositions, 2009.
- Bikaako, Winnie, eta John Ssenkumba. «Gender, Land and Rights: Contemporary Contestations in Law, Policy and Practice in Uganda». In Wanyeki, *Women and the Land in Northern Nigeria*, 232–77.
- Boal, Iain, Janferie Stone, Michael Watts, eta Cal Winslow. *West of Eden: Communes and Utopia in Northern California*. Oakland: PM Press, 2012.
- Bollier, David. *Silent Theft: The Private Plunder of Our Common Wealth*. Londres: Routledge, 2002.
- Bollier, David, eta Silke Helfrich. *The Wealth of the Commons: A World beyond Market and State*. Amherst, MA: Levellers Press, 2012.
- Bollier, David, eta Burns H. Weston. *Green Governance: Ecological*

- Survival, Human Rights and the Law of the Commons*, Cambridge: Cambridge University Press, 2013. Bonate Liazzat. «Women's Land Rights in Mozambique: Cultural, Legal and Social Contexts». In Wanyeki, *Women and Land in Africa*, 96–131.
- Bonefeld, Werner, Richard Gunn, John Holloway, eta Kosmas Psychopedis, ed. *Open Marxism*, Vol. 3: *Emancipating Marx*. Londres: Pluto Press, 1995.
- Brandon, William. *New Worlds for Old: Reports from the New World and Their Effect on the Development of Social Thought in Europe, 1500–1800*. Athens: Ohio University Press, 1986.
- Buck, Susan J. *The Global Commons: An Introduction*. Washington, DC: Island Press, 1998.
- Burcet, Josep, Leopoldina Fortunati, eta Anna Maria Manganelli Rattazzi. «Le telecomunicazioni e il loro uso sociale nelle aree geografiche europee». In Fortunati, *Telecomunicando in Europa*, 249–59.
- Burke, Peter. *Popular Culture in Early Modern Europe*. New York: New York University Press, 1978.
- Butterfield, Fox. «Aspiring Party Leaders at the Forefront of Revolt». *New York Times*, 1989ko maiatzaren 25a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1989/05/25/world/aspiring-party-leaders-at-forefront-of-revolt.html>.
- , «Crackdown in Beijing; An Army with Its Own Grievances». *New York Times*. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1989/06/06/world/crackdown-in-beijing-an-army-with-its-own-grievances.html>.
- Caffentzis, George. «African American Commons». Argitaratu gabeko eskuizkribua, 2015.
- , «Divisions in the Commons? Ecuador's FLOK Society versus the Zapatistas' Escuelita». Creative Alternatives to Capitalism Conference delakoan aurkeztutako txostena, CUNY Graduate Center, New York, 2014ko maiatzaren 24a.
- , «From the Grundrisse to Capital and Beyond: Then and Now». *Workplace: A Journal for Academic Labor* no. 15 (September 2008): 59–74. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://ices.library.ubc.ca/index.php/workplace/article/view/182216>.
- , «The Fundamental Implications of the Debt Crisis for Social

- Reproduction in Africa». In *Paying the Price: Women and the Politics of International Economic Strategy*, Mariarosa Dalla Costa-k eta Giovanna F. Dalla Costa-k argitaratua, 15–41. Londres: Zed Books, 1995.
- , «The Future of the Commons: Neoliberalism’s ‘Plan B’ or the Original Disaccumulation of Capital?» *New Formations* 69. zk (2010eko uda): 23–41.
 - , «Globalization, the Crisis of Neoliberalism and the Question of the Commons». First Conference of the Global Justice Center delakoan aurkeztutako txostena, San Miguel d’Allende, Mexico, 2004ko uztaila.
 - , *In Letters of Blood and Fire: Work, Machines, and Crisis*. Oakland: PM Press, 2013.
 - , «The Making of the Knowledge Commons: From Lobsters to Universities». *St. Anthony’s International Review* 8, 1. zk. (2012): 25–42. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <https://tinyurl.com/ya5omsce>.
 - , *No Blood for Oil! Essays on Energy, Class Struggle and War, 1998–2016*. Brooklyn: Autonomedia, 2017.
 - , «Notes on the Financial Crisis: From Meltdown to Deep Freeze». In Team Colors Collective, arg., *Uses of a Whirlwind*, 273–82.
 - , «Three Temporal Dimensions of Class Struggle». ISAren urteko bilera aurkeztutako txostena, San Diego, CA, 2006ko martxoa.
 - , «Two Cases in the History of Debt Resistance: Catiline and El Barzón». Occupy University Fall Series on Debt, Elizabeth Foundation of the Arts, New York, 2012ko urriaren 17a.
 - , «University Struggles at the End of the Edu-Deal». *Mute: Culture and Politics after the Net* 2, 16. zk. (2010eko ekaina): 110–17.
 - , «Workers against Debt Slavery and Torture: An Ancient Tale with a Modern Moral». *UE News*, 2007ko uztaila. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://mpineio.vrahokipos.net/wp-content/uploads/2010/09/workers-against-debt-slavery-and-torture-an-ancient-tale-with-a-modern-moral.pdf>.
- Caffentzis, George, eta Silvia Federici. «Commons against and beyond Capitalism». *Upping the Anti* 15 (2013ko iraila): 83–99.

- , «Notes on Edu-factory and Cognitive Capitalism». In *Toward a Global Autonomous University: Cognitive Labor, the Production of Knowledge, and Exodus from the Education Factory*, Edu-factory Collective-k argitaratua, 119–24. Brooklyn: Autonomedia, 2009.
- , «Notes on Edu-factory and Cognitive Capitalism», *eipcp*, 2007ko maiatza. 2018ko uztailaren 12an eskuratua. <http://eipcp.net/transversal/0809/caffentzisfederici/en>.
- Carlsson, Chris. *Nowtopia: How Pirate Programmers, Outlaw Bicyclists, and Vacant-Lot Gardeners Are Inventing the Future Today!*. Oakland: AK Press, 2008.
- Chancosa, Blanca. «Saramanta Warmikuna (Hijas del Maíz) un espacio de aliadas naturales». In *Colectivo Miradas Críticas, La vida en el centro y el crudo bajo tierra*, 51–53.
- Chant, Sylvia, ed. *The International Handbook of Gender and Poverty: Concepts, Research, Policy*. Londres: Edward Elgar Publishing, 2010.
- Chávez, Daniel. «El Barzón: Performing Resistance in Contemporary Mexico». *Arizona Journal of Hispanic Cultural Studies* 2 (1998): 87–112.
- Cheru, Fantu. «The Silent Revolution and the Weapons of the Weak: Transformation and Innovation from Below». In *Amoore, The Global Resistance Reader*, 74–85.
- Cleaver, Harry. *Marx beyond Marx: Lessons on the Grundrisse*-ko sarrera, Antonio Negri-rena, XIX–XXVII. New York: Autonomedia, 1991.
- , «Notes on the Origins of the Debt Crisis». In *Midnight Notes*, 10. zk. (1990eko udazkena). Coba Mejía, Lisset. «Agua y aceite: la sostenibilidad de la vida en crisis en la Amazonía», *Flor del Guanto*, 5. zk. (2016ko urtarrila).
- Cochrane, Kira. «Why Do So Many Women Have Depression?» *Guardian*, 2010eko apirilaren 29a. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. www.theguardian.com/society/2010/apr/29/women-depression-allison-pearson.
- Colectivo Miradas Críticas del Territorio Desde el Feminismo. *La vida en el centro y el crudo bajo tierra: El Yasuní en clave feminista*. Quito: Colectivo Miradas Críticas del Territorio Desde el Feminismo, 2014.
- Collinson Helen, ed. *Green Guerrilla: Environmental Conflicts and*

- Initiatives in Latin America and the Caribbean: A Reader*. Londres: Latin American Bureau, 1996.
- Committee for Academic Freedom in Africa Newsletter (1991–2003). libcom.org. 2018ko ekainaren 24an eskuratua. <http://libcom.org/tags/committee-academic-freedom-africa>.
- The Commoner no. 2 (2001eko iraila). 2018k ekainaren 2an eskuratua. <http://www.commoner.org.uk/?p=5>.
- «Common Land». Naturenet. 2018ko maiatzaren 23an eskuratua. <http://naturenet.net/law/commonland.html>.
- «Commons Sense: Why It Still Pays to Study Medieval English Landholding and Sahelian Nomadism». *Economist*, 2008ko uztailaren 31. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. http://www.economist.com/financePrinterFriendly.cfm?story_id=11848182.
- Conner, Clifford D. *A People's History of Science: Miners, Midwives, and «Low Mechanics»*. New York: Nation Books, 2005.
- «Conversatorio con Ivonne Ramos». In Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro y el crudo bajo tierra*, 82–85.
- Cotula, Lorenzo, Camilla Toulmin, eta Ced Hesse. *Land Tenure and Administration in Africa: Lessons of Experiences and Emerging Issues*. Londres: International Institute for Environment and Development, 2004.
- Creischer, Alice, Max Jorge Hinderer, eta Andreas Siekmann, arg., *The Potosí Principle: Colonial Image Production in the Global Economy*. Kolonia: Verlag der Buchhandlung Walther König, 2010.
- Cronon, William. *Changes in the Land: Indians, Colonists, and the Ecology of New England*. New York: Hill and Wang, 2011.
- Cross, Gary S. *Time and Money: The Making of a Consumer Culture*. New York: Routledge, 1993.
- Crossette, Barbara. «U.N. Report Raises Questions About Small Loans to the Poor». *New York Times*, 1998ko irailaren 3a, A8.
- Dalla Costa, Mariarosa. «Capitalism and Reproduction». In Bonefeld et al., *Open Marxism*, Vol. 3: *Emancipating Marx*, 7–16.
- , «Women and the Subversion of the Community». In *The Power of Women and the Subversion of the Community*, Mariarosa Dalla Costa-k eta Selma James-ek argitaratua, 21–56. Bristol: Falling Wall Press, 1975.

- Dalla Costa, Mariarosa, eta Monica Chilese. *Our Mother Ocean: Enclosure, Commons, and the Global Fishermen's Movement*. Brooklyn: Common Notions, 2015.
- Dalla Costa, Mariarosa, eta Giovanna Franca Dalla Costa, arg. *Women, Development and Labor Reproduction: Struggles and Movements*. Trenton: NJ: Africa World Press, 1995.
- Davis, Mike. *Planet of Slums*. New York: Verso, 2006.
- Davoudi, Simin, eta Dominic Stead. «Urban-Rural Interrelationship in Land Administration–Urban Perspective». *Built Environment* 28, 4. zk. (2002ko urtarrila): 269–77.
- De Angelis, Massimo. *The Beginning of History: Value Struggles and Global Capital*. Londres: Pluto Press, 2007.
- , «The Commons and Social Justice». Argitaratu gabeko eskuizkribua, 2009.
- , *Omnia Sunt Communia: On the Commons and the Transformation to Postcapitalism*. Londres: Zed Books, 2017.
- Deere, Carmen Diana, eta Magdalena León de Leal. *Empowering Women: Land and Property Rights in Latin America*. Pittsburgh: University of Pittsburgh Press, 2001. DePastino, Todd. *Citizen Hobo: How a Century of Homelessness Shaped America*. Chicago: University of Chicago Press, 2003.
- «Diane Sawyer's Hometown in Kentucky Saves Money by Helping Each Other Out». ABC News, 2014ko urtarrilaren 15a. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. https://www.youtube.com/watch?v=Zb_uu3v48Rk.
- Dias, Elizabeth. «First Blood Diamonds, Now Blood Computers?» *Time*, 2009ko uztailaren 24a. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://content.time.com/time/world/article/0,8599,1912594,00.html>.
- Diduk, Susan. «The Civility of Incivility: Grassroots Political Activism, Female Farmers, and the Cameroonian State». *African Studies Review* 47, 2. zk. (2004ko iraila): 27–54.
- Dinham, Barbara, eta Colin Hines. *Agribusiness in Africa: A Study of the Impact of Big Business on Africa's Food and Agricultural Production*. Trenton, NJ: Africa World Press, 1984.
- Dowling, Emma. «The Big Society, Part 2: Social Value, Measure and the Public Services Act». *New Left Project*, 2012ko uztailaren 30a. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <https://tinyurl.com/yamy6evv>.

- Draper, Hal. *The Adventures of the Communist Manifesto*. Berkeley: Center for Socialist History, 1998.
- «East Portland Neighbors: Mapping our Local Commons». On the Commons, 2012ko ekainaren 13a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://www.onthecommons.org/work/east-portland-neighbors-mapping-our-local-commons#sthash.fDWTwYac.dpbs>.
- Eckersley, Robyn. «Socialism and Ecocentrism: Towards a New Synthesis». In *The Greening of Marxism*, edited by Ted Benton, 272–97. New York: Guildford Publications, 1996.
- The Ecologist*. *Whose Common Future? Reclaiming the Commons*. London: Earthscan, 1993.
- Ehrenreich, Barbara, eta Arlie Russell Hochschild. *Global Woman: Nannies, Maids and Sex Workers in the New Economy*. New York: Henry Holt, 2002.
- «Elinor Ostrom, Defender of the Commons, Died on June 12th, Aged 78». *Economist*, 2012ko ekainaren 30a. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://www.economist.com/node/21557717>.
- Elyachar, Julia. «Empowerment Money: The World Bank, Non-Governmental Organizations and the Value of Culture in Egypt». *Public Culture* 14, 3. zk. (2002ko udazkena): 493–513.
- Emergency Exit Collective. «The Great Eight Masters and the Six Billion Commoners». Bristol, 2008ko maiatzaren 1a.
- Engels, Friedrich. «The Housing Question» (1887). 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.marxists.org/archive/marx/works/1872/housing-question/>.
- , «The Mark». In *Socialism: Utopian and Scientific*. New York: International Publishers, 1935.
- , *Socialism: Utopian and Scientific* (1880). 2018ko ekainaren 4an eskuratua. <https://www.marxists.org/archive/marx/works/1880/soc-utop/index.htm>.
- Esman, Milton J. *Landlessness and Near Landlessness in Developing Countries*. Ithaca: Cornell University Press, 1978.
- Esteva, Gustavo. «Enclosing the Encloser: Autonomous Experiences from the Grassroots beyond Development, Globalization and Postmodernity». *Anomie of the Earth biltzarrean aurkeztutako txostena*, University of North Carolina, Chapel Hill, 2012ko maiatzaren 3tik 5era.

- EZLN. *Autonomous Resistance–First Grade Textbook*. El Kilombo-k itzulia. (2014), 70. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. www.schoolsforchiapas.org/library/autonomous-resistance-grade-textbook; «Freedom According to the Zapatistas». ikastarorako egina.
- , *Zapatistas! Documents of the New Mexican Revolution*. Brooklyn: Autonomedia, 1994. <http://lanic.utexas.edu/project/Zapatistas>.
- Fala Guerreira 3. zk. «Especial Mães de Maio 10 anos», 2016ko martxoaren 22a. 2018ko ekainaren 23an eskuratua. https://issuu.com/falaguerreira/docs/03_revistafala_guerreira.
- Fanon, Frantz. *The Wretched of the Earth*. New York: Grove, 1986.
- Fallon, Robert, Jr. «Gender, Class, and State in Africa». In *Women and the State in Africa*, Jane L. Parpart-ek Kathleen A. Staudt-ek argitaratua, 47–66. Boulder, CO: Lynne Rienner Publishers, 1989.
- Federici, Silvia. «Andare a Pechino: come le nazioni unite hanno colonizzato il movimento femminista». In Federici, *Il punto zero della rivoluzione: lavoro domestico, riproduzione e lotta femminista*. Verona: Ombre Corte, 2014.
- , *Caliban and the Witch: Women, the Body and Primitive Accumulation*. Brooklyn: Autonomedia, 2004.
- , «Capital and Gender». In *Reading 'Capital' Today*, Ingo Schmidt-ek eta Carlo Fanelli-k argitaratua, 79–96. Londres, Pluto Press, 2017.
- , «Commoning against Debt». *Tidal* 4. zk. (2013).
- , «Commoning the City». *Journal of Design Strategies* 9, 1. zk. (2017ko udazkena): 33–37; Parsons School for Design-ek argitaratua, New York State.
- , «The Debt Crisis, Africa and the New Enclosures». In *Midnight Notes*, 10. zk. (1990eko udazkena).
- , «Feminism and the Politics of the Commons in an Era of Primitive Accumulation». In Federici, *Revolution at Point Zero*, 2012, 138–48.
- , «Feminism and the Politics of the Commons in an Era of Primitive Accumulation». In Team Colors Collective, arg., *Uses of a Whirlwind*.
- , «On Affective Labor». In *Cognitive Capitalism, Education and Digital Labor*, Michael A. Peters-ek eta Eergin Blut-ek

- argitaratua, 57–74. New York: Peter Lang, 2011.
- , *Revolution at Point Zero: Housework, Reproduction, and Feminist Struggle*. Oakland: PM Press, 2012.
 - , «War, Globalization and Reproduction». In Federici, *Revolution at Point Zero*, 76, -84–48.
 - , *Witches, Witch-Hunting, and Women*. Oakland: PM Press, 2018.
 - , «Witch-Hunting, Globalization and Feminist Solidarity in Africa Today». *Journal of International Women's Studies* 10, 1. zk. (2008ko urria): 29–35; WAGADU-rekin batera argitaratuta-ko ale berezia.
 - , «Women, Globalization, and the International Women's Movement». *Canadian Journal of Development Studies* 22, 4. zk. (2001eko urtarila): 1025–36.
 - , «Women, Land Struggles and Globalization: An International Perspective». *Journal of Asian and African Studies* 39, 1–2 zk. (2004ko apirila): 47–62.
 - , «Women, Land Struggles, and the Reconstruction of the Commons». *WorkingUSA* 14, 1. zk. (2011ko martxoa): 41–56.
 - , «Women's Liberation and the Struggle for Democratization». «Demokrazia» gaiari buruz Azterketa Politiko Kritikoari buruzko bigarren bilkuran aurkeztutako txostena, Euskal Herriko Unibertsitatea, azaroak 19 eta 20.
- Federici, Silvia, George Caffentzis, eta Ousseina Alidou. *A Thousand Flowers: Social Struggles against Structural Adjustment in African Universities*. Trenton, NJ: Africa World Press, 2000.
- Fernandez, Margarita. «Cultivating Community, Food, and Empowerment: Urban Gardens in New York City». Argitaratu gabeko eskuizkribua, 2003.
- Fessler, Pam. «Panel Charged with Eliminating Child Abuse». *National Public Radio*, 2014ko otsailaren 25a. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. <http://www.npr.org/2014/02/25/282359501/panel-charged-with-eliminating-child-abuse-deaths>.
- Fisher, Jo. *Out of the Shadows: Women, Resistance and Politics in South America*. Londres: Latin America Bureau, 1993.
- Folbre, Nancy. «Nursebots to the Rescue? Immigration, Automation, and Care». *Globalizations* 3, 3. zk. (2006ko iraila): 349–60.
- Food and Water Watch. «Nestlé's Move to Bottle Community

- Water». *Food and Water Watch Fact Sheet*, 2009ko uztaila. 2018ko maiatzaren 31n eskuratu. https://www.foodandwaterwatch.org/sites/default/files/nestle_bottle_community_water_fs_july_2009_1.pdf.
- Fortunati, Leopoldina. *The Arcane of Reproduction: Housework, Prostitution, Labor and Capital*. Brooklyn: Autonomedia, 1995; *Arcano della riproduzione* italiarazko lanaren itzulpena. Venezia: Marsilio Editori, 1981.
- , ed. *Telecomunicando in Europa*. Milan: Franco Angeli, 1998.
- Foster, John Bellamy. «Marx and the Environment». *Monthly Review* 47, 3. zk. (1995eko uztaila-abuztua): 108-23.
- Fox, Jeff. «Mapping the Commons: The Social Context of Spatial Information Technologies». *The Common Property Resource Digest* 45. zk. (1998ko maiatza): 1-4.
- Freeman, Donald B. «Survival Strategy or Business Training Ground? The Significance of Urban Agriculture for the Advancement of Women in African Cities». *African Studies Review* 36, 3. zk. (1993ko abendua): 1-22.
- Fried, Albert, eta Ronald Sanders, arg. *Socialist Thought: A Documentary History*. Garden City, NY: Doubleday Anchor Books, 1964.
- Fullerton Joireman, Sandra. «Applying Property Rights Theory to Africa: The Consequences of Formalizing Informal Land Rights». *International Society for New Institutional Economics biltzarrean aurkeztutako txostena*, Boulder, CO, 2006ko irailak 21-24.
- Galeano, Eduardo. *The Book of Embraces*. New York: W.W. Norton, 1991.
- Galindo, María. «La pobreza, un gran negocio». *Mujer Publica* 7. zk. (2012ko abendua). Gally, Rosemary E., eta Ursula Funk. «Structural Adjustment and Gender in Guinea-Bissau». In Thomas-Emeagwali, *Women Pay the Price*, 13–30.
- Gargallo, Francesca. *Feminismos desde Abya Yala*. Buenos Aires: America Libre, 2013. Gibbon Peter, Kjell J. Havnevik, eta Kenneth Hermele. *A Blighted Harvest: The World Bank and African Agriculture in the 1980s*. Trenton, NJ: Africa World Press, 1993.
- Gitlin, Todd. *Occupy Nation: The Roots, the Spirit, and the Promise of Occupy Wall Street*. New York: HarperCollins, 2012.

- Gladwin, Christina H., ed. *Structural Adjustment and African Women Farmers*. Gainesville: University of Florida Press, 1991.
- Gorz, André. *A Farewell to the Working Class*. Londres: Pluto Press, 1982.
- , *Paths to Paradise: On the Liberation from Work*. Londres: Pluto Press, 1985.
- Graeber, David. *Debt: The First Five Thousand Years*. Brooklyn: Melville House Publishing, 2011.
- , *Fragments of an Anarchist Anthropology*. Chicago: Prickly Paradigm Press, 1993.
- , «The Greek Debt Crisis in an Almost Unimaginably Long-Term Historical Perspective». In Vradis and Dalakoglou, *Revolt and Crisis in Greece*, 229–48.
- Granter, Edward. *Critical Social Theory and the End of Work*. Burlington, VT: Ashgate, 2009.
- Gray, Leslie, eta Michael Kevane. «Diminished Access, Diverted Exclusion: Women and Land Tenure in Sub-Saharan Africa». *African Studies Review* 42, 2. zk. (1999ko iraila): 15–39.
- Griswold, Deirdre. «Racism, Schooling Gap Cuts Years from Life». *Workers' World*, 2012ko irailaren 27a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.workers.org/2012/09/27/racism-schooling-gap-cut-years-from-life/>.
- Gualinga, Patricia. «La voz y la lucha de las mujeres han tratado de ser minimizadas». In Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro y el crudo bajo tierra*, 48–50.
- Gutiérrez Aguilar, Raquel. «Políticas en femenino: transformaciones y subversiones no centradas en el estado». *Contrapunto* 7. zk. (2015eko abendua): 123–39.
- , *Los ritmos del Pachakuti: levantamiento y movilizaciones en Bolivia (2000–2005)*. Miguel Hidalgo, Mexico: Sisifo Ediciones, 2009.
- Haarhoff, Heike. «Les Allemands exportent aussi leurs grands-parents». *Le Monde Diplomatique*, 2013ko ekaina, 14–15. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. <https://www.monde-diplomatique.fr/2013/06/Haarhoff/49160>.
- Hakansson, Thomas. *Bridewealth, Women and Land: Social Change Among the Gusii of Kenya*. Uppsala Studies in Cultural Anthropology 10. Stockholm: Almqvist and Wiksell International, 1988.
- , «Landless Gusii Women: A Result of Customary Land Law and

- Modern Marriage Pattern». Working Papers in African Studies. African Studies Programme, Department of Cultural Anthropology, University of Uppsala, 1988.
- Hanisch, Carol. «The Personal Is Political: The Women's Liberation Classic with a New Explanatory Introduction», (2006 [1969]). 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://carolhanisch.org/CHwritings/PIP.html>.
- Hanson, Stephanie. «Backgrounder: African Agriculture». In *New York Times*, 2018ko maiatzaren 28a. 2018ko ekainaren 21ean eskuratua. https://archive.nytimes.com/www.nytimes.com/cfr/world/slot2_20080528.html?pagewanted=print.
- Hardt, Michael, eta Alvaro Reyes. «'New Ways of Doing': The Construction of Another World in Latin America: An Interview with Raúl Zibechi». *South Atlantic Quarterly* 111, 1. zk. (2012ko urtarrila): 165–91.
- Hardt, Michael, eta Antonio Negri. *Commonwealth*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 2009.
- , *Empire*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 2000.
- , *Multitude: War and Democracy in the Age of Empire*. New York: Penguin Press, 2004.
- Hartmann, Heidi. «The Unhappy Marriage of Marxism and Feminism: Towards a More Progressive Union». *Capital and Class* 3, 2. zk. (1979ko uda): 1–33.
- Hartsock, Nancy. «The Feminist Standpoint: Developing the Ground for a Specifically Feminist Historical Materialism». In *Discovering Reality: Feminist Perspectives on Epistemology, Metaphysics, Methodology, and Philosophy of Science*, Sandra Harding-ek eta Merrill B. Hintikka-k argitaratua, 283–310. Dordrecht: D. Reidel, 1983.
- , «Feminist Theory and Revolutionary Strategy». In *Capitalist Patriarchy and the Case for Socialist Feminism*, Zillah R. Eisenstein-ek argitaratua, 56–77. New York: Monthly Review Press, 1979.
- Harvey, David. *The New Imperialism*. Oxford: Oxford University Press, 2003.
- , *Rebel Cities: From the Right to the City to the Urban Revolution*. Londres: Verso, 2012.
- Hayden, Dolores. *The Grand Domestic Revolution: A History of Femi-*

- nist *Designs for American Homes, Neighborhoods, and Cities*. Cambridge, MA: MIT Press, 1985 [1981].
- , *Redesigning the American Dream: The Future of Housing, Work, and Family Life*. New York: W.W. Norton, 1986.
- Hess, Charlotte. «Mapping the New Commons». Argitaratu gabeko eskuizkribua, 2008. Hobsbawm, Eric. J. *Industry and Empire: The Making of Modern English Society: Vol. 2, 1750 to the Present Day*. New York: Random House, 1968.
- Hochschild, Arlie Russell. *The Commercialization of Intimate Life: Notes from Home and Work*. Berkeley: University of California Press, 2003.
- , *The Managed Heart: Commercialization of Human Feeling*. Berkeley: University of California Press, 1983.
- , *The Outsourced Self: Intimate Life in Market Times*. New York: Metropolitan Books, 2012.
- Hochschild, Arlie Russell, eta Anne Machung. *The Second Shift: Working Families and the Revolution at Home*. Londres: Penguin, 2012.
- Holloway, John. *Change the World without Taking Power: The Meaning of Revolution Today*. Londres: Pluto Press, 2002.
- , *Crack Capitalism*. Londres: Pluto Press, 2010.
- , «From Scream of Refusal to Scream of Power: The Centrality of Work». In Werner Bonefeld et al., *Open Marxism*, Vol. 3: *Emancipating Marx*, 155–81.
- Hostetler, Sharon et al. «Extractivism’: A Heavy Price to Pay». Washington, DC: Witness for Peace, 1995.
- Hunt, D. «Power and Participation in the Design of Institutions Governing Rural Land Rights». 1. ikerketa txostena. Federico Caffè Zentroa, 2005.
- Ignatius, Adi. «China’s Restructuring Is Enriching Peasants but Not City Dwellers». *Wall Street Journal*, 1988ko urriaren 10a.
- Inter-American Development Bank. «Database: Latin Macro Watch». 2018ko uztailearen 12an eskuratua. <https://www.iadb.org/en/databases/latin-macro-watch/latin-macro-watch-country-profiles%2C18579.html>.
- «International–Western Firms Dump Toxic Waste in Africa». *Anphoblacht*, 2006ko urriaren 19a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.anphoblacht.com/contents/15909>.
- Isla, Ana. «Conservation as Enclosure: Sustainable Development

- and Biopiracy in Costa Rica: An Ecofeminist Perspective». Argitaratu gabeko eskuizkribua, 2006.
- , «Enclosure and Microenterprise as Sustainable Development: The Case of the Canada–Costa Rica Debt-for-Nature Investment». *Canadian Journal of Development Studies* 22, 4. zk. (2001eko urtarrila): 935-43.
- , «Who Pays for the Kyoto Protocol?» In *Eco-Sufficiency and Global Justice*, Ariel Salleh-ek argitaratua. Londres: Pluto, 2009.
- Jackson, Stevi. «Why a Materialist Feminism Is (Still) Possible». *Women's Studies International Forum* 24, 3–4 zk. (2001eko maiatza): 283-93.
- James, Selma. *Sex, Race and Class*. Bristol: Falling Wall Press, 1975.
- Jilani, Seema. «America's Child Abuse Epidemic». *Guardian*, 2011ko urriaren 24a. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <https://www.theguardian.com/commentisfree/cifamerica/2011/oct/24/america-child-abuse-epidemic>.
- Juma Calestous, eta J.B. Ojwang, arg. In *Land We Trust: Environment, Private Property and Constitutional Change*. Londres: Zed Books, 1996.
- Kahn, Robbie Pfeufer. «Women and Time in Childbirth and Lactation». In *Taking Our Time: Feminist Perspectives on Temporality*, Frieda Johles Forman-ek eta Caoran Sowron-ek argitaratua. Oxford: Pergamon Press, 1989, 20–36.
- Karim, Lamia. *Microfinance and Its Discontents: Women in Debt in Bangladesh*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 2011.
- Kazan, Olga. «A Shocking Decline in American Life Expectancy». *Atlantic*. 2017ko abenduaren 21a. 2018ko ekainaren 21ean eskuratua. <https://www.theatlantic.com/health/archive/2017/12/life-expectancy/548981/>.
- Kim, Jim Yong, Joyce V. Millen, Alec Irwin, eta John Gershman, arg. *Dying for Growth: Global Inequality and the Health of the Poor*. Monroe, ME: Common Courage Press, 2000.
- Kimani, Mary, «Women Struggle to Secure Land Rights: Hard Fight for Access and Decision-Making Power». *Africa Renewal* 22, 1. zk. (2008ko apirila): 10–13. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://www.un.org/en/africarenewal/vol-22no1/221-women-struggle-to-secure-land-rights.html>.
- Kindig, David A., eta Erika R. Cheng. «Even as Mortality Fell in

- Most US Counties, Female Mortality Nonetheless Rose in 42.8 Percent of Counties from 1992 to 2006». *Health Affairs* 32, 3. zk. (2013ko martxoa): 451–58.
- Kingsnorth, Paul. *One No, Many Yeses: A Journey to the Heart of the Global Resistance Movement*. London: Free Press, 2003.
- Kiros, Fasil G., arg. *Challenging Rural Poverty: Experiences in Institution-Building and Popular Participation for Rural Development in Eastern Africa*. Trenton, NJ: Africa World Press, 1985.
- Klein, Hilary. *Compañeras: Zapatista Women's Stories*. New York: Seven Stories Press, 2015.
- Kovel, Joel. *The Enemy of Nature: The End of Capitalism or the End of the World?* 2. arg. Londres: Zed Books, 2007.
- , «On Marx and Ecology». *Capitalism Nature Socialism* 22, 1. zk. (2011ko iraila): 4–17.
- Kristof, Nicholas D. «Beijing Journal; Second Thoughts: Laissez Faire or Plain Unfair?» *New York Times*, 1989ko apirilaren 6a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1989/04/06/world/beijing-journal-second-thoughts-laissez-faire-or-plain-unfair.html>.
- , «Chinese Face Epochal Wait for Housing». *New York Times*, 1989ko martxoaren 1a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1989/03/01/world/chinese-face-epochal-wait-for-housing.html>.
- , «Socialism Grabs a Stick: Bankruptcy in China». *New York Times*, 1989ko martxoaren 7a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1989/03/07/business/socialism-grabs-a-stick-bankruptcy-in-china.html>.
- La Mettrie, Julien Offray de. *Machine Man and Other Writings*. Cambridge: Cambridge University Press, 1996.
- Laesthaeghe, Ron J. «Production and Reproduction in Sub-Saharan Africa: An Overview of Organizing Principles». In *Reproduction and Social Organization in Sub-Saharan Africa*, Ron J. Laesthaeghe-k argitaratua, 13–59. Berkeley: University of California Press, 1989.
- Lazzarato, Maurizio. *The Making of the Indebted Man: An Essay on the Neoliberal Condition*. Semiotext(e) Intervention Series, 13. zk. Cambridge, MA: MIT Press, 2012.
- Lefebvre, Henri. *The Critique of Everyday Life*, 1. bol. Itzultzailea: John Moore. Londres: Verso, 1991 [1947].

- , *The Critique of Everyday Life*, 2. bol. Itzultzailea: John Moore. Londres: Verso, 2002 [1961].
- , *The Critique of Everyday Life*, 3. bol. Itzultzaile: Gregory Elliott. Londres: Verso, 2005 [1981].
- , *Everyday Life in the Modern World*. Itzultzailea: Sacha Rabino-vitch. New York: Harper & Row, 1971 [1968].
- Linebaugh, Peter. «Enclosures from the Bottom Up». In Bollier and Helfrich, *The Wealth of the Commons*, 114–24.
- , *The Incomplete, True, Authentic, and Wonderful History of May Day*. Oakland: PM Press, 2016.
- , *The Magna Carta Manifesto: Liberties and Commons for All*. Berkeley: University of California Press, 2008.
- Linsalata, Lucia. *Cuando manda la asamblea: lo comunitario popular en Bolivia*. Mexiko Hiria: SOCEE, 2015.
- Longo, Roxana. *El protagonismo de las mujeres en los movimientoss sociales: innovaciones y desafíos*. Buenos Aires: America Libre, 2012.
- Lorde, Audre. «The Master's Tools Will Never Dismantle the Master's House». In *This Bridge Called My Back: Writings by Radical Women of Color*, Cherrie Moraga-k eta Gloria Anzaldúa-k argitaratua, 98–101. New York: Kitchen Table, 1983.
- Maathai, Wangari. *Unbowed: One Woman's Story*. Londres: Arrow Books, 2008.
- MacLean, Nancy. «The Hidden History of Affirmative Action: Working Women's Struggles in the 1970s and the Gender of Class». *Feminist Studies* 25, 1. zk. (1999ko udaberria): 43–78.
- «Madres comunitarias: del voluntariado a la formalidad». *Unimedios, Universidad Nacional de Colombia*, 2013ko urriaren 4a. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. <http://agenciadenoticias.unal.edu.co/detalle/article/madres-comunitarias-del-voluntariado-a-la-formalidad.html>.
- Mander, Jerry. *In the Absence of the Sacred: The Failure of Technology and the Survival of the Indian Nations*. San Francisco: Sierra Club Books, 1991.
- Manji, Ambreena. *The Politics of Land Reform in Africa: From Communal Tenure to Free Markets*. Londres: Zed Books, 2006.
- Marazzi, Christian. *The Violence of Financial Capitalism*. Semiotext(e) Intervention Series, 2. zk. Cambridge, MA: MIT Press, 2010.

- Martin, Randy. *Financialization of Daily Life*. Philadelphia: Temple University Press, 2002.
- Martínez, Esperanza. «La actividad petrolera exacerba el machismo». In Colectivo Miradas Críticas, *La vida en el centro y el crudo bajo tierra*, 42–45.
- Marx, Karl. *Capital: A Critique of Political Economy*. Friedrich Engels-ek argitaratua, Ben Fowkes-ek itzulua. 3 bol. Londres: Penguin, 1990–1993.
- , *A Contribution to the Critique of Political Economy*. Maurice Dobb-ek argitaratua, S.W. Ryazanskaya-k itzulua. New York: International Publishers, 1970.
- , *Economic and Philosophical Manuscripts of 1844*. Martin Milligan-ek itzulua. Mosku: Foreign Languages Publishing House, 1961.
- , *The Eighteenth Brumaire of Louis Napoleon*. New York: International Publishers, 1963.
- , *Grundrisse: Foundations of the Critique of Political Economy*. Martin Nicolaus-ek itzulua. Londres: Penguin, 1973.
- , *Pre-Capitalist Economic Formations*. New York: International Publishers, 1964.
- Marx, Karl, eta Friedrich Engels. *The Communist Manifesto*. Samuel More-ek itzulua. New York: Penguin, 1967 [1848].
- , *The German Ideology*, 1. zatia. C.J. Arthur-ek argitaratua. New York: International Publishers, 1970.
- Marx-Aveling, Eleanor, and Edward Aveling. *The Woman Question*. Joachim Müller-ek eta Edith Schotte-k itzulua. Leipzig: Verlag für die Frau, 1986 [1886].
- Matchar, Emily. *Homeward Bound: Why Women Are Embracing the New Domesticity*. New York: Simon & Schuster, 2013.
- Mayo Clinic staff. «Depression in Women: Understanding the Gender Gap». Mayo Clinic. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. www.mayoclinic.org/diseases/in-depth/depression/art-20047725.
- McIntyre, Kathleen. *The Worst: A Compilation Zine on Grief and Loss*. Portland, OR: Microcosm Publishing, 2008.
- Mendiola García, Sandra C. «Vendors, Mothers, and Revolutionaries: Street Vendors and Union Activism in 1970s Puebla, Mexico». *Oral History Forum*. Special Issue on Oral History and the Working Class (2013): 1–26. 2018ko maiatzaren

- 25ean eskuratua. <http://www.oralhistoryforum.ca/index.php/ohf/article/view/463/542>.
- Midnight Notes kolektiboa. *Midnight Oil: Work, Energy, War, 1973–1992*. Midnight Notes 11. zk. (1992). Brooklyn: Autonomedia, 1992.
- , *The New Enclosures*. Midnight Notes 10. zk. (1990). 2018ko ekainaren 13an eskuratua. <https://libcom.org/files/mn10-new-enclosures.pdf>.
- Midnight Notes kolektiboa eta lagunak. *Promissory Notes: From Crisis to Commons* (2009). 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://www.midnightnotes.org/Promissory%20Notes.pdf>.
- Mies, Maria. *Patriarchy and Accumulation on a World Scale*. Londres: Zed Books, 1986.
- Mies, Maria, eta Veronika Bennholdt-Thomsen. «Defending, Reclaiming, and Reinventing the Commons». In *The Subsistence Perspective: Beyond the Globalized Economy*.
- , *The Subsistence Perspective: Beyond the Globalized Economy*. Londres: Zed Books, 1999.
- Mies, Maria, eta Vandana Shiva. *Ecofeminism*. Londres: Zed Books, 1993. Mikwell, Gwendolyn. *Cocoa and Chaos in Ghana*. New York: Paragon House, 1989.
- Millán, Mágina. *Des-ordenando el género/¿Des-centrando la nación? El Zapatismo de las mujeres indígenas y sus consecuencias*. Mexico Hiria: Ediciones del Lirio, 2014.
- Milton, John. *Means to Remove Hirelings* (1659). 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://archive.org/details/miltonsconsider00miltgoog>.
- , *Paradise Lost* (1667). 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <http://triggs.djvu.org/djvu-editions.com/MILTON/LOST/Download.pdf>.
- Mitchell, John Hanson. *Trespassing: An Inquiry into the Private Ownership of Land*. Reading, MA: Perseus Books, 1998.
- Morgan, Henry Lewis. *Ancient Society*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 1964 [1877].
- Moyo, Sam. «Land in the Political Economy of African Development: Alternative Strategies for Reform». *Africa Development* 32, 4. zk. (2007): 1–34. 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <https://www.ajol.info/index.php/ad/article/>

viewFile/57319/45700.

- Moyo, Sam, eta Paris Yeros, arg. *Reclaiming the Land: The Resurgence of Rural Movements in Africa, Asia and Latin America*. Londres: Zed Books, 2005.
- Mukangara, Fenella, eta Bertha Koda. *Beyond Inequalities. Women in Tanzania*. Harare: Southern Africa Research and Documentation Centre, 1997.
- Mundu Bankua. «Bank Publications and Research Now Easier to Access, Reuse». *News and Broadcast*, 2012ko apirilaren 10a. 2018ko maiatzaren 23an eskuratua. <https://tinyurl.com/7axc7j3>.
- Mundu Bankua. *Sub-Saharan Africa: From Crisis to Sustainable Growth*. Washington, DC: World Bank, 1989.
- Muro, Asseny. «Women Commodity Producers and Proletariats: The Case of African Women». In *Challenging Rural Poverty. Experiences in Institution-Building and Popular Participation for Rural Development in Eastern Africa*, Fassil G. Kiros-ek argitaratua, 61–79. Trenton, NJ: Africa World Press, 1985.
- Mwangi, Esther. «Subdividing the Commons: The Politics of Property Rights Transformation in Kenya Maasailand». CAPRI Working Paper 46. zk. (2006ko urtarrila). 2018ko maiatzaren 31n eskuratua. <https://core.ac.uk/download/pdf/6242675.pdf>.
- National Institutes of Health. «Large-Scale HIV Vaccine Trial to Launch in South Africa» 2016ko maiatzaren 18a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nih.gov/news-events/news-releases/large-scale-hiv-vaccine-trial-launch-south-africa>.
- Navarro, Mina. *Luchas por lo común: antagonismo social contra el despojo capitalista de los bienes naturales en Mexico*. Puebla: Bajo Tierra Ediciones, 2015.
- Nazio Askapenerako Armada Zapatista. *Ikus EZLN*.
- Negri, Antonio. *Marx beyond Marx: Lessons on the Grundrisse*. Jim Fleming-ek argitaratua. Harry Cleaver, Michael Ryan, eta Maurizio Viano-k itzulia. Brooklyn: Autonomedia, 1991.
- Netting, Robert McC. *Balancing on an Alp: Ecological Change and Continuity in a Swiss Mountain Village*. Cambridge: Cambridge University Press, 1981.
- «Nigeria Survey». *Economist*, 1986ko maiatzaren 3a.

- «Nobel Prize Winner in Glasgow Poverty Battle». *Reuters*, 2012ko martxoaren 12a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.reuters.com/article/britain-bangladesh-microcredit/bangladesh-nobel-winner-in-glasgow-poverty-battle-idUSL4E8EC6GM20120312>.
- Nordhoff, Charles. *The Communist Societies of the United States*. New York: Dover Publications, 1966.
- Ogembo Justus M. *Contemporary Witch-Hunting in Gusii, Southwestern Kenya*. Lewiston, NY: Edwin Mellen Press, 2006.
- Ogolla Bondi D., eta John Mugabe. «Land Tenure Systems and Natural Resource Management». In Juma and Ojwang, *In Land We Trust*, 85–116.
- Olivera, Oscar, eta Tom Lewis. *Cochabamba! Water War in Bolivia*. Cambridge, MA: South End Press, 2004.
- Ollman, Bertell. *Dialectical Investigations*. New York: Routledge, 1993.
- Olshansky, S. Jay, Toni Antonucci, Lisa Berkman, Robert H. Binstock, Axel Boersch-Supan, John T. Cacioppo, Bruce A. Carnes, et al. «Differences in Life Expectancy Due to Race and Educational Differences Are Widening, and Many May Not Catch Up». *Health Affairs* 31, 8. zk. (2012ko ekaina): 1803–13.
- Ostrom, Elinor. *Governing the Commons: The Evolution of Institutions for Collective Action*. Cambridge: Cambridge University Press, 1990.
- Palmer, Robin. «Gendered Land Rights: Process, Struggle, or Lost Clause?» *Mokoro*, 2002ko azaroaren 28a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://mokoro.co.uk/land-rights-article/gendered-land-rights-process-struggle-or-lost-clause/>.
- Paltrow, Lynn M., eta Jeanne Flavin. «Arrests of and Forced Interventions on Pregnant Women in the United States, 1973–2005: Implications for Women's Legal Status and Public Health». *Journal of Health Politics, Policy and Law* 38, 2. zk. (2013ko apirila): 299–343.
- , «New Study Shows Anti-Choice Policies Leading to Widespread Arrests of and Forced Interventions on Pregnant Women», *Rewire News*, 2013ko urtarrilaren 14a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://rewire.news/article/2013/01/14/new-study-reveals-impact-post-roe-v-wade-anti-abor->

tion-measures-on-women/.

Parker-Pope, Tara. «Suicide Rates Rise Sharply in U.S». *New York Times*, 2013ko maiatzaren 13a. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. <https://www.nytimes.com/2013/05/03/health/suicide-rate-rises-sharply-in-us.html?mtrref=www.google.ca>.

Parpart Jane L., eta Kathleen A. Staudt. *Women and the State in Africa*. Boulder, CO: Lynne Rienner Publishers, 1989.

Pearce, Fred. *The Land Grabbers: The New Fight over Who Owns the Earth*. Boston: Beacon Press, 2012.

Petit, Michael. «America Can Fix Problem of Child Abuse Fatalities». *BBC News*, 2011ko urriaren 17a. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. <http://www.bbc.com/news/av/15345278/michael-petit-america-can-fix-problem-of-child-abuse-fatalities>.

Podlashuc, Leo. «Saving Women: Saving the Commons». In Salleh, *Eco-Sufficiency and Global Justice*, 374–96.

Polgreen, Lydia, eta Vikas Bajaj. «India Microcredit Sector Faces Collapse from Defaults». *New York Times*, 2010ko azaroaren 17a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.nytimes.com/2010/11/18/world/asia/18micro.html>.

–, «Microcredit Pioneer Ousted Head of Bangladeshi Bank Says». *New York Times*, 2011ko martxoaren 2a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.nytimes.com/2011/03/03/world/asia/03yunus.html>.

Polanyi, Karl. *The Great Transformation: The Political and Economic Origins of Our Time*. Boston: Beacon Press, 1957 [1944].

Porter, Raewyn Isabel. «Questioning De Soto: The Case of Uganda». *Philippine Journal of Development* 28, 2. zk. (2001): 205–33. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://dirp4.pids.gov.ph/ris/pjd/pidspjd01-2desoto.pdf>.

Potts, Monica. «What's Killing Poor White Women?» *American Prospect*, 2014ko irailaren 3a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://prospect.org/article/whats-killing-poor-white-women>.

Quiroga Díaz, Natalia, eta Verónica Gago. «Los comunes en femenino: cuerpo y poder ante la expropiación de las economías para la vida», *Economía y Sociedad* 19, 45. zk. (2014ko ekaina): 1–18.

- Rauber, Isabel. «Mujeres piqueteras: el caso de Argentina». In *Economie mondialisée et identités de genre*, edited by Fenneke Reysoo, 107–23. Cahiers Genre et Développement 3. zk. Geneva: IUED, 2002.
- Rawick, George. *From Sundown to Sunup: The Making of the Black Community*. Westport, CT: Greenwood, 1972.
- Reitman, Ben. *Sister of the Road: The Autobiography of Boxcar Bertha*. Oakland: AK Press, 2002 [1937].
- Rosdolsky, Roman. *The Making of Marx's «Capital»*. Londres: Pluto Press, 1977.
- Rosemont, Franklin. «Karl Marx and the Iroquois». *libcom.org*, 2009ko uztaillaren 7a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua, <https://libcom.org/library/karl-marx-iroquois-franklin-rosemont>.
- «Saint under Siege: A Microfinance Pioneer Is Under Attack in His Homeland». *The Economist*, 2011ko urtarrilaren 6a. 2018ko ekainaren 4an eskuratua). <https://www.economist.com/node/17857429>.
- Sale, Kirkpatrick. *The Conquest of Paradise: Christopher Columbus and the Columbian Legacy*. New York: Knopf, 1990.
- Salleh, Ariel. *Ecofeminism as Politics: Nature, Marx and the Postmodern*. Londres: Zed Books, 1997.
- , arg. *Eco-Sufficiency and Global Justice: Women Write Political Ecology*. New York, Londres: Macmillan Palgrave, 2009.
- Samperio, Ana Cristina. *Se nos reventó el Barzón: radiografía del movimiento barzonista*. Mexiko, DF: Edición, 1996.
- Samuel, Raphael. «Mechanization and Hand Labour in Industrializing Britain». In *The Industrial Revolution and Work in Nineteenth-Century Europe*, Lenard R. Berlanstein-ek argitaratua, 26–40. Londres: Routledge, 1992.
- Sarkar, Saral. *Eco-Socialism or Eco-Capitalism? A Critical Analysis of Humanity's Fundamental Choices*. Londres: Zed Books, 1999.
- Schreiber, Laurie. «Catch Shares or Share-Croppers?» *Fishermen's Voice* 14, 12. zk. (2009ko abendua). 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://www.fishermensvoice.com/archives/1209index.html>.
- Shanin, Teodor. *Late Marx and the Russian Road: Marx and the «Peripheries» of Capitalism*. New York: Monthly Review Press, 1983.
- Shapiro, Tricia. *Mountain Justice: Homegrown Resistance to Moun-*

- taintop Removal for the Future of Us All. Oakland: AK Press, 2010.
- Shiva, Vandana. *Earth Democracy: Justice, Sustainability, and Peace*. Cambridge, MA: South End Press, 2005.
- , *Ecology and the Politics of Survival: Conflicts over Natural Resources in India*. New Delhi: Sage Publications, 1991.
- , *Monocultures of the Mind: Perspectives on Biodiversity and Biotechnology and the Third World*. Londres: Zed Books, 1993.
- , *Staying Alive: Women, Ecology and Development*. London: Zed Books, 1989.
- , «The Suicide Economy of Corporate Globalisation». *countercurrents.org*, 2004ko apirilaren 5a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.countercurrents.org/glo-shiva050404.htm>.
- , «Vandana Shiva Responds to the Grameen Bank». *Synthesis/Regeneration* 17 (1998ko udazketa). 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://www.greens.org/s-r/17/17-15.html>.
- Sitrin, Marina A. *Everyday Revolutions: Horizontalism and Autonomy in Argentina*. Londres: Zed Books, 2012.
- Snell, G.S. *Nandi Customary Law*. Nairobi: Kenya Literature Bureau, 1986 [1954].
- Snyder, Margaret C., eta Mary Tadesse. *African Women and Development: A History*. Londres: Zed Books, 1995.
- SOF (Sempreviva Organização Feminista). *En lucha contra la mercantilización de la vida: la presencia de la Marcha Mundial de las Mujeres en la Cumbre de los Pueblos*. São Paulo, 2012.
- Stavrides, Stavros. *Common Space: The City as Commons*. Londres: Zed Books, 2016.
- Strike Debt! and Occupy Wall Street. *The Debt Resisters' Operations Manual*. Oakland: PM Press; Brooklyn: Common Notions, 2014. Argitalpen zaharrago bat hemen dago eskuragai: <http://strikedebt.org/The-Debt-Resistors-Operations-Manual.pdf>.
- Team Colors Collective, arg. *Uses of a Whirlwind: Movement, Movements, and Contemporary Radical Currents in the United States*. Oakland: AK Press, 2010.
- Thomas-Emeagwali, Gloria, arg. *Women Pay the Price: Structural Adjustment in Africa and the Caribbean*. Trenton, NJ: Africa World Press, 1995.

- Thurton, Roderick. «Marxism in the Caribbean». In *Two Lectures by Roderick Thurton: A Second Memorial Pamphlet*. New York: George Caffentzis eta Silvia Federici, 2000.
- Toro Ibáñez, Graciela. *La Pobreza, un gran negocio: un análisis crítico sobre oeneges, microfinancieras y banca*. La Paz: Mujeres Creando, 2009.
- Townsend, Janet G. «Pioneer Women and the Destruction of the Rain Forest». In *Green Guerrilla: Environmental Conflicts and Initiatives in Latin America and the Caribbean: A Reader*, Helen Collinson-ek argitaratua, 108–14. Londres: Latin American Bureau, 1996.
- Toyama, Kentaro. «Lies, Hype and Profit: The Truth About Microfinance». Atlantic, 2011ko urtarrilaren 28a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.theatlantic.com/business/archive/2011/01/lies-hype-and-profit-the-truth-about-microfinance/70405/>.
- TPTG (The Children of the Gallery). «Burdened with Debt: ‘Debt Crisis’ and Class Struggle in Greece». In Vradis and Dalakoglou, *Revolt and Crisis in Greece*, 245–78.
- Trainor, Bernard E. «Crackdown in Beijing; Civil War for Army». *New York Times*, 1989ko ekainaren 6a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1989/06/06/world/crackdown-in-beijing-civil-war-for-army.html>.
- Trefon, Theodore. «The Political Economy of Sacrifice: Kinshasa and the State». *Review of African Political Economy* 29, 93–94 zk. (2002): 481–98.
- Tripp, Aili Mari. «Women’s Movements, Customary Law, and Land Rights in Africa: The Case of Uganda». *African Studies Quarterly* 7, 4. zk. (2004ko udaberria): 1–19. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://asq.africa.ufl.edu/files/Tripp-Vol-7-Issue-4.pdf>.
- Turbulence: *Ideas for Movement* no. 5 (December 5, 2009). 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://www.turbulence.org.uk>.
- Turner, Terisa E. eta M.O. Oshare. «Women’s Uprising against the Nigerian Oil Industry». In *Arise Ye Mighty People! Gender, Class and Race in Popular Struggles*, Terisa E. Turner-ek eta Brian J. Ferguson-ek argitaratua. Trenton, NJ: Africa World Press, 1994.
- Tzul Tzul, Gladys, «Gobierno communal indígena y estado guate-

- malteco. Departamento Ecuménico de Investigaciones, 2018ko apirilaren 25a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <http://www.deicr.org/+presentacion-de-libro-gladys-tzul+>.
- , *Sistemas de gobierno communal indígena: mujeres y tramas de parentesco en Chuimeq’ena’*. Puebla: Sociedad Comunitaria de Estudios Estratégicos, 2016.
- Ulrich, Otto. «Technology». In *The Development Dictionary: A Guide to Knowledge as Power*, Wolfgang Sachs-ek argitaratua, 275–87. Londres: Zed Books, 1992.
- United Nations Population Fund. *State of the World Population 2001: Footprints and Milestones: Population and Environmental Change*. New York: Nazio Batukak, 2001.
- «U.S. Experts to Manage Ailing Liberian Economy». *New York Times*, 1987ko martxoaren 5a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1987/03/05/business/us-experts-to-manage-ailing-liberia-economy.html>.
- Vaneigem, Raoul. *The Revolution of Everyday Life*. Translated by Donald Nicholson-Smith. Oakland: PM Press, 2012 [1967].
- van Gelder, Sarah, eta Yes! Magazine-ko langileak. *This Changes Everything: Occupy Wall Street and the 99% Movement*. Oakland: Berrett-Koehler Publishers, 2011.
- von Werlhof, Claudia. «Globalization and the ‘Permanent’ Process of ‘Primitive Accumulation’: The Example of the MAI, the Multilateral Agreement on Investment». *Journal of World-Systems Research* 6, 3. zk. (2000): 728–47. 2018ko ekainaren 11n eskuratua. <http://jwsr.pitt.edu/ojs/index.php/jwsr/article/view/199/211>.
- Vradis, Antonis, eta Dimitri Dalakoglou, arg. *Revolt and Crisis in Greece: Between a Present Yet to Pass and a Future Still to Come*. Oakland: AK Press, 2011.
- Wackernagel, Mathis, eta William Rees. *Our Ecological Footprint: Reducing Human Impact on the Earth*. Gabriola Island, BC: New Society Publishers, 1996.
- Wanyeki, L. Muthoni, arg. *Women and Land in Africa: Culture, Religion and Realizing Women’s Rights*. London: Zed Books, 2003.
- Weatherford, Jack. *Indian Givers: How the Indians of the Americas Transformed the World*. New York: Fawcett Books, 1988.
- Weber, Max. «Science as a Vocation». In *For Max Weber: Essays in Sociology*, H.H. Gerth-ek eta C. Wright Mills-ek argitaratua,

- 129–58. New York: Oxford University Press, 1946.
- Weston, Burns H., eta David Bollier. *Green Governance: Ecological Survival, Human Rights, and the Law of the Commons*. Cambridge: Cambridge University Press, 2013.
- Whately, Christopher A. *Scottish Society 1707–1830: Beyond Jacobitism, towards Industrialization*. Manchester: Manchester University Press, 2000.
- Whitaker, Robert. *Anatomy of an Epidemic: Magic Bullets, Psychiatric Drugs, and the Astonishing Rise of Mental Illness in America*. New York: Broadway Books, 2010.
- Wichterich, Christa. *The Globalized Woman: Reports from a Future of Inequality*. Londres: Zed Books, 2000.
- Williams, Misty. «CSC: Mental Disorders Rising in Children». *Atlanta Journal- Constitution*, 2013ko maiatzaren 16a. 2018ko maiatzaren 29an eskuratua. <https://www.myajc.com/news/cdc-mental-disorders-rising-children/MxRBj-Z8EcqQDPt880Pt3VP/>.
- Wilson, Peter Lamborn, eta Bill Weinberg. *Avant Gardening: Ecological Struggle in the City and the World*. Brooklyn: Autonomedia, 1999.
- Winstanley, Gerrard. *The True Levellers Standard Advanced: Or the State of Community Opened and Presented to the Sons of Men* (1649). 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.marxists.org/reference/archive/winstanley/1649/levellers-standard.htm>.
- Wong, Kristina. «Rumsfeld Still Opposes Law of the Sea Treaty: Admirals See It as a Way to Settle Maritime Claims». *The Washington Times*, 2012ko ekainaren 14a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.washingtontimes.com/news/2012/jun/14/rumsfeld-hits-law-of-sea-treaty/>.
- Woodward, Colin. *The Lobster Coast: Rebels, Rusticators, and the Struggle for a Forgotten Frontier*. New York: Penguin Books, 2004.
- World Hunger Education Service. «Africa Hunger Facts». *Hunger Notes*. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.worldhunger.org/africa-hunger-poverty-facts/>.
- Worldwatch Institute. «Farming the Cities, Feeding an Urban Future». 2011ko ekainaren 16a. 2018ko ekainaren 4an eskuratua. <http://www.worldwatch.org/node/8448>.

- , «State of the World 2011: Press Release», 2011ko ekainaren 2a. 2018ko maiatzaren 23an eskuratua. <http://www.world-watch.org/sow11/press-release>.
- Wudunn, Sheryl. «Upheaval in China; Chinese Take Umbrage at Attack on Mao's Portrait». *New York Times*, 1989ko maiatzaren 25a. 2018ko maiatzaren 20an eskuratua. <https://www.nytimes.com/1989/05/24/world/upheaval-in-china-chinese-take-umbrage-at-attack-on-mao-portrait.html>.
- Wypijewski, JoAnn. «Death at Work in America». *Counterpunch*, 2009ko apirilaren 29a. 2018ko ekainaren 2an eskuratua. <https://www.counterpunch.org/2009/04/29/death-at-work-in-america/>.
- Xezwi, Bongani. «The Landless People Movement». 10. ikerketatxostena. In *Center for Civil Society, RASSP Research Reports* 2005 1, 179–203.
- Yoshida, Masao. «Land Tenure Reform Under the Economic Liberalization Regime: Observation from the Tanzanian Experience». *African Development* 30, 4. zk. (2005): 139–49.
- Zibechi, Raúl. *Brasil potencia: entre la integración regional y un nuevo imperialismo*. Malaga: Badre y Zambra, 2012.
- , *Descolonizar el pensamiento crítico y las prácticas emancipatorias*. Bogotá: Ediciones Desde Abajo, 2015.
- , *Genealogía de la revuelta: Argentina: la Sociedad en movimiento*. La Plata: Letra Libre, 2003.
- , *Territories in Resistance: A Cartography of Latin American Social Movements*. Oakland: AK Press, 2012.
- Zinn, Howard. *A People's History of the United States*. New York: HarperCollins, 1999 [1980].

